



# herritarrek in

PARTE HARTZEKO ESPERIENTZIAK GIPUZKOAN (2013-2014)

Gipuzkoa justua,  
Gipuzkoa solidario,  
gizarte-zerbitzu eta  
Gipuzkoa berdea,  
neurri garrantzitsu  
politika, adibidez.  
Gipuzkoa, euskaraz  
Gipuzkoa morea,  
emakumeen eskutik  
Gipuzkoa herritarren

# herritarrekin

PARTE HARTZEKO ESPERIENTZIAK GIPUZKOAN (2013-2014)

Argitaratzailea: © Gipuzkoako Foru Aldundia  
Egilea: Imanol Azkue Ibarbia  
Arte Grafikoak: IPAR S.L. (Egia-Donostia)  
ISBN: 978-84-7907-703-7  
Lege-gordailua: SS-329-2015

Liburuaren gaineko edozein ohar, zuzenketa, iradokizun... egiteko: [phliburua@gmail.com](mailto:phliburua@gmail.com)

**Eta indarrak ongi errotuz  
gure sustraiak lurrari lotuz  
bertatikan irautea:  
ezaren gudaz baietza sortuz  
ukazioa legetzat hartuz  
beti aurrera joatea**

“Izarren hautsa”, Xabier Lete, Mikel Laboaren ahotsean

**Zenbat gauza utzi dudan estarta bazterretan  
edo laku urdinen hondoan, bizitza bakarrean,  
eta zenbat aldiz galdu naizen behe-lainotan  
basoilar izateko ametsetan dabiltzan kurloiekin.  
Ene desirak iada ez dira habia abandonatuak besterik  
ene bihotzean. Eguzkia gurpil ahul bat da**

“Ene begiek”, Joseba Sarrionandia, Ruper Ordorikaren ahotsean





# eskerrak

Lagundu ez ezik, liburua egin ere egin dutelako, nire esker ona adierazi nahi diet ezker aldeko mapan ageri diren lagunei. Eskerrik asko guztioi!

Horiez guztiez gain, bihotzez eskerrak eman nahi dizkiet beraien lekukotza emateko prest agertu diren herritar, udal-langile eta -hautetsi guztiei, liburu honetako prozesuei eta proiektuei aurpegia jarri eta iritzia emateagatik, zer eta esker ona besterik ez zeukatenean ordainetan.

Azkenik, zeharka edo zuzenean, beste lagun askoren laguntza ere jaso dut liburua osatzeko lanetan, eta guztiei eman nahi dizkiet eskerrak; horietatik, bereziki dauzkat gogoan herrietan partaidetzazko prozesuak bideratzen aritu diren aholkularitzetako teknikariak.

Eta beste baten bat ahaztu baldin bazait, ez da nahita izan... Guzti-guztioi, zintzo eta eskua bihotzean jarrita, mila esker!

**IMANOL AZKUE IBARBIA**

Liburuaren egilea

# herrikako aurkibidea

Abaltzisketa	238	Belauntza	279	Lizartza	292
Aduna	243	Berastegi	281	Mendaro	66
Aia	194	Bergara	90	Mutiloa	160
Aizarnazabal	314	Deba	60	Oiartzun	224
Albiztur	246	Donostia	116	Oñati	107
Alegia	248	Elgeta	96	Ordizia	162
Alkiza	252	Errenteria	216	Orendain	295
Altzo	254	Eskoriatza	99	Orexa	300
Amasa-Villabona	256	Ezkio-Itsaso	135	Orio	200
Amezketza	260	Gaztelu	284	Ormaiztegi	166
Andoain	22	Getaria	196	Pasaia	230
Anoeta	265	Hernani	31	Segura	169
Antzuola	74	Ibarra	286	Soraluze	68
Arama	126	Idiazabal	141	Tolosa	304
Aretxabaleta	79	Igeldo	38	Urnieta	48
Arrasate	85	Irun	16	Urretxu	176
Asteasu	271	Irura	290	Usurbil	51
Astigarraga	25	Itsasondo	144	Zaldibia	182
Azkoitia	317	Lasarte-Oria	42	Zarautz	203
Azpeitia	324	Lazkao	150	Zerain	186
Baliarrain	276	Legazpi	155	Zumaia	209
Beasain	131	Lezo	221		

9 hitzaurrea  
11 atariko

# aurkibidea

329 Gipuzkoako Foru Aldundiaren  
Herritarren Partaidetzarako  
Zuzendaritza  
350 aurkibideak





# hitzaurrea

Aurreko liburuan aipatu genuen moduan, hemen duzue bigarrena, 2011-2015 agintaldiaren bigarren zatian herritarren partaidetzaren alorrean garatutako esperientziak jasotzen dituen.

Gauzak egitea bezain garrantzitsua da egindakoa aztertzea eta ikusaraztea... Gauzak egiteko dugun gaitasunean sinesteko, baita gauzak egiteko dugun gaitasuna hobetzeko ere. Horretarako, oso baliagarria izango zaigu liburu hau.

2011-2015 agintaldia Gipuzkoa berriaren agintaldia izan da. Gipuzkoa berria herritarrekin. Bizi dugun egiturazko krisiaren ondorioz, lehen baino baliabide ekonomiko gutxiago izan ditugu eskura, baina, hala ere, Gipuzkoa berriaren bidean aurrerapauso handiak eman ditugu gipuzkoarrok.

Gipuzkoa justua, gehien dutenek gehiago eman.

Gipuzkoa solidarioa, egoera larrian eta laguntza behar duten gipuzkoarrentzat gizarte-zerbitzu eta -laguntza duin eta egokiek.

Gipuzkoa berdea, garapen iraunkorraren bidean pertsonen arduran oinarritutako neurri garrantzitsuak hartuz: zero zaborren politika eta garraio publikoaren aldeko politika, adibidez.

Gipuzkoa, euskararen lurraldea.

Gipuzkoa morea, asko dugu egiteko eta egiten ari gara gipuzkoarren erdia garen emakumeen eskubideak errealitate bihurtzeko.

Gipuzkoa herritarra, herritarrekin herria eta etorkizuna eraikitzen duena.

Hori lortzeko ari gara lanean eskutik helduta gipuzkoarrok, auzotarrok, elkarteetako kideok eta Gipuzkoako erakundeetan lanean ari garen pertsonok..., gure herrietako eta Gipuzkoako erabaki garrantzitsuak denon artean hartzeko ahaleginean. Jakin badakigu asko egin dugula, eta asko dagoela egiteko, eta jakin badakigu dagoeneko garrantzitsuena ez dela helmuga, baizik eta bidea.

Bidean gaude. Bidean gaude, eta ez da gutxi.

Norabide berrian bidean... Gipuzkoa berriaren bidean.

Bide horretan, 2013ko ekainetik aurrera egindako 237 esperientzia jaso ditugu liburuan, horietako batzuk, 125, sakonago. Gipuzkoako 89 herrietatik gehienek, 75 herrik, konpartitu dute beraien esperientzia liburu honetan.

Era batera edo bestera (bileretan, ekarpenekin eta proposamenetan, bozketetan...) 36.500 pertsona inguru aritu gara elkarlanean Gipuzkoan zehar, Gipuzkoa eraikitzen txikitik handira, herritik herrira, politika letra larriz egiten egunerokoan.

Lehen liburuan jaso genituen 137 esperientziei gehituta, hiru urte hauetan 374 esperientzia jaso ditugu, eta esan dezakegu guztira 64.000 pertsona inguruk ezagutu dutela parte-hartzea zer den lehen pertsonan. Tamalez, ezin izan ditugu egindako esperientzia guztiak jaso, baina kopurua adierazgarria da frogatzeko benetan herritarren parte-hartzea bultzatzeko egindako esfortzua handia izan dela. Ez du atzerabuelarik. Gauzak beste modu batera egin daitezkeela frogatuta gelditu da. Zer bezain garrantzitsua dela nola. Herritarren partaidetza

sigla politikoen gainera dagoela. Hogeita hamar urtez herritarrentzat herria egiten direnen bidea norabidez aldatu dugu eta herritarrekin herria egiten aritu gara, bidean aurrera eginez, gero herritarrek herria egitera iristeko. Hori da-eta helburua!

Esker mila, bihotzez, parte hartzeko esperientzietan buru belarri aritu zareten guztiei, eta nola ez, baita liburu hau egiten parte hartu duzuen guztiei ere.

Besarkada bat.



**ARANTZA RUIZ DE LARRINAGA OLAIZOLA**

Herritarren Partaidetzarako zuzendaria  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
2011-2015 legegintzaldia, Gipuzkoa berria

# atarikoa

Gizakia omen da harri berarekin bi aldiz estropezu egiten duen animalia bakarra, eta hara non natorren ni bigarren liburuarekin, harrizarrarekin, estropezu eginda. Ez da denbora luze iragan aurreko liburua atera genuenetik, baina itxuraz ahaztu zaizkit orduko neke, sufrimendu eta estutasunak; edo, bestela, eman zidan satisfakzioa hain izan zen handia, gainerako guztiak ahaztu egin zaizkit edo ditut. Gogoratu nahi ez duguna ahaztu egiten dugu, memoria selektiboa omen daukagu, eta honen aurreko *Herritarrekin* liburua oso aberasgarria izan zen, oso oroitzapen onak dauzkat gordeta. Horregatik, beste hau egitea proposatu zidatenean, ilusioz ekin nion proiektuari, 2014ko abuztuan. Erronka garbi neukan: harrizarra edo papera besterik ez zenari bihotz-taupadak jartzea, bizitza ematea, gizatasunaren arrastoak ateratzea eta agerian uztea, ikusgai.

Aurreak erakusten du nola dantzatu atzea, eta edozein lan berri egindakoan, errazagoa omen zaigu gero antzekoak berriz ere egitea, eginaren poderioz gero eta hobeto, aisago, egiten ditugulako gauzak. Liburuko lanei ekin aurretik horrek kontsolatzen ninduen gehien, gutxi gorabehera banekiela zeri egin beharko nion aurre, eta aurreko liburuaren segida izango zela jakinda, oso antzeko proiektua irudikatu nuen. Izan ere, liburu hau aurrekoaren jarraipena da, bai denboran, bai edukietan, eta sarritan errepikatu egiten dira herriak, proiektuak, pertsonak... Hala ere, ahal izan dugun neurrian, ontzeko eta hobetzeko ahalegina egin dugu. Horrela, herri bakoitzari dagokion atalean, hasieran, herri horretan egin diren proiektu eta prozesuak taula batean ageri dira laburbilduta, eta

ondoren esperientzia horietako bat edo bi sakonago azalduta; oraingoan, nahiago izan dugu esperientzia gutxiago azaldu baina xeheago, nahiago izan dugu herri guztien artean oreka bilatu, guztiei aukera berbera emanda; azkenik, liburuaren formatuak (koaderno-itxurakoa, orri-kopuru mugatuarekin...) bazeuzkan bere mugak, ezinbestean errespetatu beharrekoak, eta neurri batzuen barruan aritu behar izan dugu. Gainerakoan, aurrekoan bezala, materiala eskualdeka dago antolatuta, eta eskualde bakoitzaren barruan, herriak ordena alfabetikoan. Azkenik, batzuetan, esperientzietan parte hartu zuten hainbat laguneren lekukotzak daude jasota.

Liburuan, berez, 2013ko ekainetik 2014ko amaiera bitarteko proiektuak sartu nahi izan ditugu, baina bukatu gabeko batzuk ere badaude jasota, legealdia amaitu baino lehen jarri behar izan dugulako muga; amaitu gabeko horietan, ikur hau ageriko da: “■■■”. Epea zorrotz betetzen ahalegindu gara, eta bidean geratu zaizkigu aurreko liburuan azaldu ez eta hemen sartzen ez ziren beste proiektu batzuk. Hemendik kanpo geratu dira, halaber, Gipuzkoako hainbat elkartek, eragilek eta erakundek bultzatutako parte hartzeko prozesuak, baina akordatu, akordatu gara egiten duten lanaz eta aitortu ere egin nahi dugu; izan ere, herriak bizirik egongo dira herri-mugimenduak bizirik dauden bitartean, herritarrak eskuzabal aritzen diren bitartean.

Hemen ez daude egin diren prozesu eta proiektu guztiak, nahita ere oso zaila litzatekeelako guztiak jasotzea, baina hemen jaso ditugunak gauzatu egin ziren, errealak dira, eta egin zituztenek eman digute, gainera, horien berri. Heldu zaigun informazioa eta balorazioak ordenatu, osatu eta txukundu egin ditugu, ahal



izan dugun neurrian goxatu eta irakurterrazago jarri. Baina horrek ez du esan nahi Aldundiak bat egiten duenik agertzen denarekin edo esperientzia eredugarria edo praktika ona denik, hemen agertzeagatik nolabaiteko kalitate-labela daukanik; aitzitik, liburuan agerikoa denez, oso era desberdinean ulertzen da parte-hartzea, oso zaku handia da eta denetarik sartzen da barruan. Horrela, batzuentzat gutxi dena, beste batzuentzat asko da; batzuentzat ohikoa edo egunerokoa dena, beste batzuentzat oso gertaera berezia da; ezer ere ez dagoen tokian, batzuentzat gutxi asko da! Batzuk hasi berriak dira, lehen pausoak ematen ari dira; beste batzuek, berriz, dagoeneko ibilbide luzea eginga daukate. Gauzak nondik begiratzen diren, eta zer betaurrekorekin, oso desberdin ikusten dira. Esaera zaharrak dioen bezala, “Urrutiko intxaurrak hamalau...”, eta alderantziz ere bai: zilarra delakoan gerturatu eta urrea aurkitu...

Liburuko prozesuetan herritarrak dira protagonista nagusiak, parte-hartzaileak, eta hitz horren gaineko aipamen berezia egin nahiko nuke. 2014ko azaroan, zenbait hedabidetan bolo-bolo ibili zen Kataluniako “prozesu parte-hartzailea”, bozketa eta guztikoa; geroago, prentsan ikusi genuen halako herritan “aurrekontu parte-hartzaileak” jarri dituztela abian; tarteka nonbaiten aipatzen da halako prozesutan “metodologia parte-hartzaileak” erabili dituztela... Hemen ez duzu horrelakorik topatuko. Hemen parte-hartzaileak gehien-gehienetan herritarrak dira, parte-hartzaileak pertsonak dira, eta besteak (prozesuak, aurrekontuak, metodologia, politika...) parte hartzekoak edo partaidetzazkoak dira. Prozesuek ez dute parte hartzen, herritarrek baizik; aurrekontuek ez dute parte hartzen, pertsonak baizik. Eta behin esaten hasita, dena esango dugu: parte-hartze prozesua baino, parte hartzeko prozesua edo partaidetzazko prozesua hobetsi dugu, berrelkarketa saihesteko.

Herriotan egindako lanari begiratuta, nabarmena da egindako aurrerabidea, hazi eta handitu egin dela lehen asmo txikia zena. Hasierako zalantza asko argitu egin dira, ekinaren eginaz sendotu egin da ahul eta ia babesgabe jaio zena. Horren adibide da lehen arrotz egiten zitzaizkigun hitz batzuk gaur egun hitzetik hortzera erabiltzen ditugula eta esanahia ere eman diegula: demokrazia zuzena eta ordezkatzaila, partaidetzazko aurrekontuak, parte hartzeko araudiak, komunikazioa eta gardentasuna, eraikuntza kolektiboa eta inplikazioa, eskubideak eta betebeharrak, espazioen demokratizazioa... Asko ikasi dugu oso denbora gutxian.

Liburu hau egitean, neure buruari agindu nion ahalegin berezia egin behar nuela lagundu zidatenen nahiak eta espektatibak asetzen, harro egoteko eta erakusteko moduko liburu sortu behar genuela. Asmatu dugun edo ez zeuek esango duzue, baina Txirritaren bertsoari helduta, “Ahaleginaren faltan ez daukat kontzientzian zorrikan”. On dagizuela!



**IMANOL AZKUE IBARBIA**  
Liburuaren egilea



# bidasoaldea



## Herriak (2)

Hondarribia eta Irun

## Biztanleak

78.089 (gipuzkoarren % 10,92)

## Azalera

71,43 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 3,59)



g

ipuzkoako eskualderik txikiena da, eta ez da zaila ia osorik ikustea, begi bistan, inguruko mendietako batetik. Gipuzkoaren ekialdean dago, eta hauek ditu mugak: iparraldean, Kantauri itsasoa; ekialdean, Lapurdi; hegoaldean, Bortziriak (Nafarroa); eta, mendebaldean, Oarsoaldea.

Bidasoa ibaitik hartzen du izena eskualdeak, bertatik pasa eta itsasoratzen baita, Txingudiko badian, Nafarroan (Erratzun) sortu eta 66 km-ko bidea egín ondoren.

Bidasoaldean bi udal bakarrik daude: Irun (Gipuzkoako bigarren herririk handiena biztanle-kopuruari dagokionez) eta Hondarribia. Gaur egun, bi udal horien herriguneak ia elkarturik daude.

Urte askotan, Bidasoa ibaia mugatzat hartu izan dute Frantziako eta Espainiako estatuek, eta horrek eragin handia izan du eskualdean, batik bat ekonomia-jardueraren zati handi bat aduana-burokraziaren ingurukoa izan zelako. Europako Batasunaren baitan mugak zabaltzearekin edo ezabatzearekin, jarduera horiek gainbehera egín zuten, baina oraindik ere nabarmena da jendearen joan-etorria, batik bat erosketak egitera, mugaren alde batean edo bestean prezioetan izaten diren gorabeherengatik.

Eskualdean hainbat garraio-azpiegitura daude: errepideei dagokienez, A-8 autobidea (Bilbao-Behobia), N-I errepidea (Madril-Irun) eta N-121 eskualdeko errepidea (lotura honi esker, harreman estuak daude Nafarroako ipar-ekialdeko herriekin); trenei dagokienez, tren-geltokia dago Irunen eta *Topoa* ere bai (EuskoTren, Donostia eta Hendaia artekoa); aireportua dago Hondarribian, pista bakarrekoa eta txikia.

Hondarribian turismoak pisu handia dauka ekonomian, eta bisitarientzat bereziki nabarmentzekoak dira Alde Zaharra eta hondartza. Halaber, jarduera garrantzitsua da arrantza eta baxurako portuetatik, euskal kostaldeko bigarrena da Hondarribia, Ondarroaren atzetik.

Irunen, berriz, industriak eta zerbitzuek garrantzi handiagoa daukate. Hainbat industria-poligono daude, eta aldameneko nafar herrien eta Lapurdiko biztanleen merkataritza-jarduera asko Irunen egiten dira.

Irun epai-barrutiko burua da, eta eskualdeko ospitalea ere badago bertan ■



# Irun



Azalera: 42,8 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 61.195, irundarrak

Udalbatzarraren osaera:

**PSE-EE** (9), **EAJ-PNV** (5), **Bildu** (5),  
**PP** (5) eta **Ezker Batua-Berdeak** (1)

Parte-hartzearen ardura

**PEDRO ALEGRE ARRIZABALAGA**  
(zinegotzia)

[www.irun.org](http://www.irun.org)



**Herritarrak parte hartzen Irunen:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Hirigintza	<b>URDANIBIA PLAZA</b>	Urdanibia plaza berritzeko lanak egin behar zituztela-eta, iritzia eskatu zieten herritarrei (bizilagunei, merkatariei...) eta proposamenak behin betiko proiektuan integratu zituzten.	Mila lagunetik gora	2013ko martxotik urrira	✓

# URDANIBIA PLAZA

**Noiz**

2013ko martxotik urrira

**Parte-hartzaileak**

Udalaren izenean: alkatea, Hirigintza Sailaren zuzendaria, Informazio Gizarteko eta Herritarrek Parte Hartzeko zuzendaria eta kanpoko laguntzaileak (proiektua egin zuten arkitektoak)

Erakusketan: 1.000 bisitari baino gehiago

Ekitaldi irekiak (2): Menchu Gal aretoa beteta, 80 lagun inguru bakoitzean

Ekarpenak idatziz (hainbat bidetatik): 110 (gehienak lehendik ere ahoz eginak)

Bilera irekietan eta bilera sektorialetan emakumezkoen eta gizonezkoen presentzia orekatua izan zen, elkarte gastronomikoetako ordezkariekin egindako bileran izan ezik (gizonezko gehiago)



**U**rdanibia plaza Irungo Alde Zaharraren bihotzean dago. Garai batean Irungo erdigunea izan zen, baina pixkanaka (batez ere Irun zabaltzen eta handitzen joan delako) zokoratzen joan da, garrantzia galtzen. Zahartu egin da, eta hamarkada asko zeramatzan zain, noiz berrituko.

1998an plazako lurpea eta lurra berritu egin zituzten; 2009an, berriz, Birgaitze Integratuko Area izendatu zuten eta erreforma pribatu ugari egin dituzte ordutik. Proiektu honen bidez, azkenik, betiko plazari lurpeko azpiegiturak hobetu eta modernizatzeaz gain, espazio berriez hornitu nahi izan zen ingurua, eta plaza eta inguruaren ondare aberatsari berez duen balioa eman.

Hori guztia egin aurretik, ordea, funtsezkoa zen herritarren iritzia jasotzea, modernizazioa eta tradizioaren orekari eusteko. Horretarako, ondorengo hauek egin ziren Urdanibia plazako proiektuan:

- **Elkarlana Alde Zaharra-San Juan auzo-elkartearekin.** Elkarteko eta Udaleko ordezkariak bildu egin ziren, proiektuaren berri emateko eta jasotzeko.



- **Parte hartzeko saioa kultur elkarte eta elkarte gastronomikoen.** Plaza inguruan 11 elkarte daude, eta horietako ordezkariekin bilera bat egin zen.
- **Erakusketan ekarpenak jasotzeko kutxa.** Proiektua erakusgai jarri zen Menchu Gal aretoan, eta bertan kutxa bat ere ipini zuten, ekarpenak edo proposamenak jasotzeko.
- **Parte hartzeko saioak alkatearekin eta proiektuaren arkitektoekin.** Bi egunetan, eta bietan bete-bete egin zen aretoa. Bertan, alkateak eta arkitektoek azalpenak eman zituzten eta parte-hartzaileek aukera izan zuten galderak egiteko, zalantzak azaltzeko, proposamenak eta iradokizunak egiteko.
- **Udalaren webgunearen bidez parte hartzeko aukera.** Gune berezi bat sortu zen webgunean ekarpenak egiteko, formulario bat beteta.

- **Proposamenak aztertzea.** Ekarpen eta proposamenak aztertu egin zituzten udal-ordezkari eta -teknikariak, eta aurrera begira hartzen ziren konpromisoak argitaratu egin zituzten.

Herritarren iradokizunak eta proposamenak kontuan izanda, Urdanibia plazaren proiektu teknikoa hobetu egin zen eta herritarren nahiak txertatu egin ziren, prozesuan parte hartu zuten alderdi politikoen, elkarteek eta herritar soilek proposatutako aldaketa batzuekin.

Prozesu honen bidez, Irungo Udalak erabat bete zituen hasieran ezarritako helburuak, informaziokoak, komunikaziokoak eta herritarrek parte hartzekoak. Horrela, proiektuaren amaieran, parte hartu zuten guztiak gustura ageri ziren. Saiok ere giro onean izan ziren, herritarren batek nahikoa berotuta esku hartu bazuen ere (batez ere plazako lanek aparkatzeko lekuak eta aukerak murrizten zituztelako).

Proiektu osoari begiratuta, arduradunek bereziki azpimarratu nahi izan zuten beharrezkoa zela herritarrek iritzia emateko bide bat baino gehiago jartzea aukeran, baina hori bezain garrantzitsua zela udal- eta proiektu-arduradunek ere zuzenean eta herritarren aurrean parte hartzea. Halaber, baloratu zuten gardentasuna oso garrantzitsua zela, eta egindako ekarpen eta proposamen guztiak jaso eta ebaluatu zituzten, baita erantzuna eman ere.

Azkenik, hobetzeko atalean, azpimarratu zuten agian aurrez aurreko saioetarako beharrezkoa zela areto handiagoa aurreikustea; izan ere, erabili zena egokia zen erdigunean zegoelako, baina parte hartu nahi zuten batzuk kanpoan geratu ziren, lekurik ez zegoelako barruan.





## ANGEL RAMAJO CARRASCO

58 urte

**Jostailu elkarteko  
presidentea**

### Zergatik parte hartu zenuen prozesu honetan?

Jostailu elkartearen Irungo Alde Zaharrean dago eta erabat eragiten die lanek. Horregatik, iragarri zutenean Urdanibia plaza birmoldatzeko proiektua ezagutzeko eta iritzia emateko partaidetzazko prozesua, ez genuen zalantzarik izan parte hartzeko. Lehen eskutik eta zuzenean jakin nahi genuen zer egiteko asmoa zeukaten eta horrek nola eragingo zigun, eta prest geunden gure ekarpena egiteko.

### Nola baloratzen duzu egindakoa?

Oso ondo, aukera eman zigulako ikusteko zer egin behar zen, baita iritzia emateko ere. Ondo dago guri proiektuak erakustea, baina garrantzitsuena da iritzia eman ahal izatea, eta gauza batzuk aldatu egin ziren bizilagunen iritzia jaso ondoren. Hori da, benetan, positiboa.

### Nola baloratzen duzu emaitza?

Oso ondo, jakin genuelako zer ekarpen zeuden eta horietatik zein hartu zituzten aintzat, izan zuten jende-babesaren arabera. Sentitu genuen kontuan izan zituztela gure eskaerak. Gauza batzuk beste era batera egingo nituzkeen, trafikoaren gaian, baina...



## JOKIN BABAZE AIZPURUA

28 urte

**Alde Zaharreko  
bizilagunen elkarteko  
presidentea**

### Zergatik parte hartu zenuen prozesu honetan?

Urdanibia Plaza berri behar zela-eta, Udalak proiektua aurkeztu zuen eta ideiak aurkezteko aukera eman zuen. Alde Zaharra-San Juan Auzo Elkartetik auzokideen ideiak bildu eta aurkeztu genituen.

### Nola baloratzen duzu egindakoa?

Ondo. Beti da ona auzokideen iritzia kontuan hartzeko prozesuak bideratzea, bereziki horrelako proiektuetan.

### Zer gustatu zitzaizun bereziki?

Herritarrek egindako proposamen guztiei buruzko informazioa jaso genuela: zer proposatu zen, zein izan zen erantzuna eta zergatik.

### Zer emaitza izan du egindakoak? Ondoriorik izan al du?

Bai, guk egindako hainbat proposamen aintzat hartu zituzten eta proiektuaren parte egin ziren.

### Herritarren parte-hartzeari dagokionez, aurrera begirako proposamenik?

Bai. Parte hartzeko prozesu bat irekitzen denean, herritarrek erabakitzeko ahalmena izatea.



# buruntzaldea



## Herriak (7)

Andoain, Astigarraga, Hernani, Igeldo\*, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil

## Biztanleak

71.311 (gipuzkoarren % 9,97)

## Azalera

139,62 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 7,02)



\*Igeldori dagokionez, 2013ko azaroan, herri-kontsulta baten bidez, Donostiatik banantzea onartu zuen, eta abenduan Aldundiak Gipuzkoako 89. udalerrri izendatu zuen, baina epaitegiek dekretuaren aplikazioa kautelaz etetea erabaki zuten.




**e**skualde hau beste izen batzuekin ere izendatu izan da: Hernialdea, Donostialdea, Beterri..., baina azken urteetan indar handia hartu du Buruntzaldea izendapenak eta badirudi etorkizunean Donostialdea-Mendebaldea izendatzeko asmoa dagoela. Hauek ditu mugakide: iparraldean, Donostia eta Kantauri itsasoa; hegoaldean, Tolosaldea; mendebaldean, Urola Kosta; eta, ekialdean, Oarsoaldea.

Buruntza menditik hartzen du izena eskualdeak. Mendi horrek 441 metro dauzka, eta Andoain eta Lasarte-Oria artean dago, Adarra mendiaren aurrez aurre. Gailurretik, nahikoa ondo ikusten da eskualde osoa.

Jarduerei dagokionez, Buruntzaldeak Euskal Herriko sagardotegi-kontzentrazioarik handiena dauka, eta horixe da eskualdearen ezaugarri nagusietako bat.

Antolaerari edo egituraketari dagokionez, Gipuzkoan haxe da udalen artean mankomunitaterik eratuta ez daukan eskualde bakarra. Nolanahi ere, zenbait gaitan (adibidez, euskararen edo kiroletan), eskualde ikuspegiarekin jarduten dute udalek elkarlanean ■

# Andoain



Azalera: 27,17 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 14.655, andoaindarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), PSE-EE (6),  
EAJ-PNV (3) eta PP (1)

[www.andoain.eus](http://www.andoain.eus)



Parte-hartzearen ardura  
**ANA CARRERE ZABALA**  
(alkatea)





**Herritarrak parte hartzen Andoainen:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Herritarrekin harremanak	<b>ATARIA</b>	Herritarrentzako Arreta Zerbitzua jarri zuen martxan Udalak, udaletxeko beheko solairuan.	30 proposamen 58 boto, logoa hautatzeko	2013ko irailetik 2014ko martxora	✓
Haurrak/gazteak/ adinekoak	<b>PARTE HARTZEKO HARIAK LOTUZ, GAZTEOK HARTU HITZA!</b>	16-29 urte bitarteko Andoaingo gazteen beharrei egokitutako udal-inbertsio ekonomikoa erabakitzeko parte hartzeko prozesua.	20 lagun (10 ♀, 10 ♂)	2014ko urritik abendura	✓

# ATARIA

**Noiz**  
2013ko irailetik 2014ko martxora

**Parte-hartzaileak**  
Udalaren izenean: 5 teknikari (3 emakumezko, 2 gizonezko)  
Herritarrak: 30 proposamen, 58 boto

**herritarrekin harremanak**



**S**arritan herritarrei urrun geratzen zaie udala, eta kostatu egiten zaie harremanetan jartzea. Horretan, gainera, batzuetan ez du askorik lagundu udalak berak, erraztasunik ez duelako eman. Baina horri buelta eman nahi zaio, harreman hori naturala izateko, eta horretarako sortu dira herritarren arretarako zerbitzuak. Ahalegin ugari egin dira

udalak erakunde irekiak, partaidetzazkoak, zabalak eta anitzak izateko, eta horretarako sortu zen “Ataria” Andoainen, herritarrentzako arreta-zerbitzua. Euskaraz, ataria da eraikinen aurrealdeko espazio estali gabea, eta ataria da, Interneten, erabiltzaileari sarrera orokor gisa proposatzen zaion webgunea. Andoaingo proiektu honek bie erantzun nahi izan zien; izan ere, udaletxearen atarian jarri zuten zerbitzua, herritarrentzat Udalarekin harremanetan jartzeko lehen gunea da, baita Internet bidez ere. Izena bera ere udal-langileen proposamena izan zen.

Proiektuak hainbat fase izan zituen, eta lehenengoan, batez ere, irudi korporatiboa landu zuten, andoaindarrekin elkarlanean. Horrela, irudi berrirako ideien lehiaketa bat egin zuten, eta, ondoren, jasotako guztietatik, herritarrek hautatu zuten behin betiko irudia, bozketa bidez.

Proiektua diseinatzeko eta gauatzeko, Udalaren barnean teknikari batzuez osatutako lantalde bat jarri zen abian, eta talde horrek gidatu eta bideratu zuen proiektua.

# PARTE HARTZEKO HARIAK LOTUZ, GAZTEOK HARTU HITZA!

## Noiz

2014ko urritik 2014ko abendura

## Parte-hartzaileak

20 lagun (10 emakumezko, 10 gizonezko)

haurrak/gazteak/  
adinekoak



**K**onpromiso eza, alferkeria, pasibotasuna..., gazteak deskribatzerako garaian oso ohikoak izaten dira adjektibo horiek helduen ahoetan. Baina ematen al diegu gazteei gunerik euren iritzia plazaratzeko? Ematen al diegu aukera zer nahi duten edo zer ekintza egin nahi dituzten azaltzeko? Gazteak omen dira etorkizuna, baina behar bezain ondo erreparatzen al diegu gazteek dituzten behar edo interesei? Non daude gure herriko gazteak? Zer egiten dute denbora librean? Zer nahi eta interes daukate? Zer aukera eskaintzen dizkie udalak aisialdirako?... Horra hor galdera ugari, erantzuteko.

Andoaingo Udalean, legegintzaldi honetan zerbait ikasi baldin badute, hori izan da arazoak konpontzeko edo aurrera egiteko ez dagoela modu hoberik protagonistekin eurekin eseri, euren iritzia entzun eta eurekin batera alternatibak bilatzea baino. Halaxe egin zuen Udalak auzoz auzo egindako "Parte-hartzeko hariak lotuz!" partaidetza-prozesuan, eta oraingoan, 2014an, andoaindarren eta Udalaren arteko etengabeko hartu-emanaren filosofia horren baitan, gazteei begira jarri nahi izan zuen Andoaingo Udalak, gazteekin egon eta gazteek esatea zer kezka

zeuzkaten, Udalak zer egitea nahi zuten. Horretarako, eta partaidetzazko aurrekontuen filosofiarekin bat, Udalak 15.000 euroko diru-partida bat jarri zuen gazteen esku eta gazteei galdetu zien zertan inbertitu nahi zuten diru hori.




Andoaingo gazteak izan ziren prozesuko protagonistak, 16 eta 29 urte bitartekoak, eta hurrenez hurren, hasteko, gazteen beharrak jaso eta konpartitu zituzten; gero, proposamen horiek guztiak hartu eta lehenetsi egin zituzten; eta, azkenik, 15.000 euroko diru-partida zertan inbertitu nahi zuten erabaki zuten guztien artean. Hori guztia hainbat saioen bidez egin zuten, gogor lan eginez: hasteko, segmentuen arabera aritu ziren, taldeka (ikastetxeetako ikasleak, gazte-lokaletako erabiltzaileak, Gaztetxeko kideak eta gazteak, oro har), eta diagnostikoa egin ondoren, guztiak elkarrekin aritu ziren. Azkenik, erabakia ezagutzera emateko, ondorioen batzarra antolatu zuten.

Saio presentzialez gain, bestelako bide batzuk ere jarri ziren gazteen eskura euren iritzia plazaratzeko. Horrela, herriko ikastetxeetan eta Gaztetxean buzoi batzuk ipini zituzten, inprimaki batzuekin; halaber, bestelako baliabideak ere jarri zituzten parte hartzeko ([www.andoain.eus](http://www.andoain.eus) webgunearen bidez, blogaren bidez, posta elektronikoz...).

Gazteek urrun ikusten omen dute Administrazioa eta Udala, eta prozesu honen bidez gazteengana gerturatzeko ahalegina egin zuen Udalak, etorkizunean gazteen eta Administrazioaren arteko hartu-emana naturalagoa izateko lehen keinua.

# Astigarraga



Azalera: 17,156 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 5.535, astigartarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), EAJ-PNV (2) eta

Hamaikabat (2)

[www.partehartu.astigarraga.eus](http://www.partehartu.astigarraga.eus)

[www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus)

Parte-hartzearen ardura  
**GOBERNU TALDEARENA,  
OROKORREAN**



Herritarrek parte hartzen Astigarragan:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Hirigintza	Anuska auzoa	Anuska auzoan egin beharreko lanen proiektua auzotarrekin beraiekin batera erabakitzeko; lanak zer ordenatan egingo ziren bozketa bidez erabaki zuten.	Botoa eman zezaketen 159 auzotarretatik 62k hartu zuten parte	2013ko irailetik 2014ko ekainera	✓
Aniztasuna	Astigarragan aniztasuna	Aniztasuneko ildo nagusiak zehaztuko zituen egitura antolatzeko prozesua.	18 lagun (14 ♀, 4 ♂)	2014ko urritik azarora	✓
Zerbitzuak	<b>AZPIEGITUREN ETA ZERBITZUEN ETORKIZUNAZ</b>	Azpiegituren eta horiek ematen dituzten zerbitzuen gaineko hausnarketa-prozesua, zerbitzua hobetzeko asmotan.	73 lagun (43 ♀, 30 ♂)	2013ko irailetik abendura	✓
Sozioekonomia	Komertzio bizia, herri bizia	Herriko merkataritza biziberritzeko asmoz Udalak merkatariekin eta herritarrekin batera martxan jarritako parte hartze prozesua.	Lehen bileran, 20 lagun. Bigarreanean, 15 lagun	2014ko urritik aurrera	...
Partaidetzazko aurrekontuak	<b>LEHENTASUNAK: 100.000 € ZURE ESKU</b>	Udal-aurrekontuetan 100.000 € gorde ondoren, diru hori zertan erabiliko zen herritarrek bozketa bidez zuzenean erabakitzeko prozesua.	182 proposamen 513 boto	2013ko urritik 2014ko urtarrilera	✓



# AZPIEGITUREN ETA ZERBITZUEN ETORKIZUNAZ

Noiz

2013ko irailetik abendura

zerbitzuak



**Parte-hartzaileak**

Udalaren izenean: 2 hautetsi (1 emakumezkoa, 1 gizonezkoa),  
2 bideratzaile (1 emakumezkoa, 1 gizonezkoa)

Herritarrek: 6 batzarretan, guztira, 73 lagun (43 emakumezko,  
30 gizonezko)

Astigarraga asko handitu da azken urteotan, bai herrigunearen hedaduran eta etxe-kopuruan, baita biztanle-kopuruan ere. Pixkanaka, herritarrei zerbitzua emateko azpiegitura batzuk sortu eta eraiki dira, baina hazkundearen ondorioz, azpiegitura batzuk txiki edo zaharkituta geratu dira eta herritarrei ezin diete eman behar bezalako zerbitzurik. Besteak beste, alorrez alor, kulturean hor daude Kultur Etxea eta Sagardo Etxea; hezkuntza formalean, berriz, Ikastola eta Haur Eskola; hezkuntza ez-formalean, Musika Eskola; kirolean, kiroldegia eta pilotalekua... Azpiegiturak egon badaude, baina egokiak dira? Nolakoak izan beharko lukete? Zertarako erabili beharko lirake eta zertarako ez? Zer zerbitzu eman eta ziurtatu beharko lizkiekete herritarrei? Prozesu honen bidez, Astigarragako Udalak gogoeta egin nahi izan zuen azpiegituren izaeraren gainean, baita horiek eman beharreko zerbitzuez ere.

Horrela, arlo bakoitzerako (kultura, hezkuntza...) saio bat antolatu zuten, eta antzeko urratsak egin zituzten: hasteko,

egoeraren diagnosis egin zuten; gero, aurrera begirako erronkak eta estrategiak definitu zituzten. Guztira sei saio izan ziren, asistentziaren aldetik gorabeheratsuak (lehen fasean lagun gehiagok hartu zuten parte bigarrenean baino). Nolanahi ere, parte-hartzaileen profila nahikoa anitza izan zen; izan ere, nahikoa era orekatuan hartu zuten parte elkarteek, gurasoek, hezitzaileek, zerbitzuen erabiltzaileek, udal-teknikariek... Saioak oso giro onean izan ziren, eta jarrera eraikitzailea izan zen nagusi. Saioen amaieran, propio baloratu zituzten giroa, metodologia eta egindako lana eta herritarren balorazioa ona izan zen.

Saioen ondoren, Udalak jakin ahal izan zuen herritarrek nola ikusten zituzten zerbitzu batzuk eta horiek emateko azpiegitura nagusiak, eta aurrera begirako erronkak ere definitu zituzten. Azkenik, dena asmo hutsetan ez geratzeko, amaieran Udalak hurrengo urteetarako inbertsio-plan bat aurkeztu zuen, baita horiek aurrera eramateko konpromisoa hartu ere. Konpromiso horietako batzuk bete zituen eta hurrengo urteko aurrekontuetan partidak erreserbatu zituen.







## OIHANA DORRANSORO ESNAL

Irakaslea  
33 urte

### Zergatik hartu zenuen parte prozesu honetan?

Herritar bezala, uste dut garrantzitsua dela herriko ekintza eta ekimenetan parte hartzea. Gainera, guk erabiltzen ditugun azpiegiturak izanik, nola ez nuen parte hartuko? Parte hartzeko aukera izan eta parte hartzen ez baduzu, ondoren ezin zara kexatu, zure esku egon baita gauzak egitea.

### Nola baloratzen duzu egindakoa?

Oso ondo. Uste dut beharrezkoa eta garrantzitsua dela herritarroi gure herriaren inguruko erabakietan parte hartzen uztea eta parte hartzera animatzea.

### Nola sentitu zara?

Ondo. Hasieratik eskertu digute parte hartu izana. Gure iritzia entzuna eta jasoa geratu dela uste dut, eta aintzakotzat hartu duela Udalak.

### Zer gustatu zaizu bereziki?

Formatu egokia iruditu zait, egun batzuetan eta taldeka ideiak bildu, eztabaidatu eta jorratzea. Hainbat egunetan ideiak osatuz eta biribilduz joan dira. Kanpoko enpresa aditu baten gidaritzaz egiteak gauzak erraztu egiten ditu eta ideia garbiak ateratzea ahalbidetu.

### Zer ikusi duzu hobetzeko?

Asistentzia. Triste da horrelako aukera baten aurrean, bai azpiegituretako prozesuan, baita ekonomikoan ere, hain asistentzia txikia izatea. Azpiegituretako parte hartzeko prozesuan oso jende gutxi egon ginen, 10-15 inguru izango ginen, eta 5.000 biztanle inguruko herri batean horrelako asistentzia oso-oso txikia da.

### Egindakoak zer emaitza izan du? Ondoriorik izan al du?

Udalak hainbat konpromiso hartu zituen eta pixkanaka eta ahal den neurrian uste dut aurrera eramaten ari dela. Haur-eskolan adibidez, gabezia asko ikusten dira eta zaila da horietako asko konpontzea, baina haurrek kanpoan jolasteko duten eremu txikia konpondu da eta haur-eskolatik gora dagoen herriko parkea ere egokitu egin da haur-eskolak erabili ahal izateko.

### Zer ikasi duzu, aurrera begira?

Aurrera begira dinamika hauekin jarraitu behar da. Asistentzia txikia izan den arren, lan ona izan da.

### Herritarren parte-hartzeari dagokionez, aurrera begirako proposamenik?

Lehen esan bezala, gero eta herritar gehiagok parte hartzea oso garrantzitsua dela uste dut, baina ez dakit nola egin daitekeen.

# LEHENTASUNAK: 100.000 EURO ZURE ESKU

Noiz

2013ko urritik 2014ko urtarrilera

Parte-hartzaileak

Proposamenak: 95 eskaera-orritan, 182 proposamen

Bozketan: 513 herritar

partaidetzazko  
aurrekontuak



**A**urretik partaidetzazko beste esperientzia batzuk egin ondoren, Astigarragako Udalak erabaki zuen beste pauso bat eman behar zuela aurrera partaidetzazko aurrekontuen bidean, batez ere herritarrek zuzenean erabakitzeko zer egin nahi zuten diru-kopuru jakin batekin (100.000 euroekin).

Hasteko, Udalak kopuru hori gorde egin zuen udal-kontuen inbertsioen atalean, eta ondoren eskatu ziren herritarrei proposamen zehatzak egiteko, diru-kopuru hori zertan erabili nahi zuten. Proposamenak egiteko, hainbat bide eman zituzten aukeran, baina erabiliena esku-orria izan zen. Horrela, guztira 95 eskaera-orritan, herritarrek 182 proposamen zehatz egin zituzten. Proposamen asko izan ziren, eta horretarako gakoa pertsona bat kontratatzea izan zen, azalpenak emateko, esku-orriak banatzeko eta jendea animatzeko parte hartzera.

Proposamen horietatik, batzuk baztertu egin zituen Udalak, betiere arrazoituta: lehendik ere aurreikusita zeudelako egitea, ez zirelako etikoak, 100.000 euro ez zelako nahikoa proposatzen zen hori gauzatzeko, egin beharrekoa ez zegoelako

Udalaren esku (baizik eta Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren... eskumena zelako)... Nolanahi ere, egindako proposamen gehien-gehienak aintzat hartu zituen Udalak, momentuan ezin baldin bazen etorkizunean kontuan izateko, eta ahal izanez gero bideratzeko. Herritarrek bi aukera izan zituzten, kopuru hori nola gastatu nahi zuten adierazteko: A aukeran, dena proiektu bakarrean gastatzeko; B aukeran, berriz, 100.000 euro baino gutxiagoko hainbat proiektutan erabiltzeko.

Behin proposamenak jasota eta aukeratuta, bigarren fasea jarri zen abian: bozketarena. Mahaia jarri zituzten herriko zenbait lekutan, 16 urtetik gorako astigarrarrek bozkatzeko, egutegi baten arabera, eta guztira 513 boto jaso zituzten. Proposamen bozkatuena Ikastolako jolastokiaren zati bat (600 m<sup>2</sup>) estaltzea izan zen, eta Udalak gauzatu egin zuen 2014ko udararen amaieran. Horrela, kurtsoa estalpe berriarekin hasi zuten Ikastolako hurrek.

Herritarrek oso ondo baloratu zuten ekimena, izugarri estimatu zuten horrelako aukera izatea. Udalaren ustez, berriz, oso ariketa ona izan zen herritarrek inplikatzeko, eta proposatutakoa gauzatu, Udalak sinesgarritasuna edo konfiantza irabazi zuen herritarren aurrean. Halaber, prozesuak balio izan zuen besteen beharrik ikusteko, eta ez norberarenak bakarrik.



## AMAIUR ALTAMIRA OLAZIREGI

Ikaslea  
20 urte

### Zergatik hartu zenuen parte prozesu honetan?

Herritar bezala, herrian egin diren eta egingo diren inbertsioetan parte hartzea garrantzitsua iruditzen zait, eta aukera genuenez, parte hartu nuen.

### Nola baloratzen duzu egindakoa?

Udalak herritarroi galdetzea aurrerapauso handia iruditzen zait. Nahiz eta nik bozkatutakoa ez atera, positiboa dela iruditzen zait, herritarrek erabaki baitute zer egin diru horrekin.

### Nola sentitu zara?

Momentu puntaletan Udalak herritarrak aintzat hartzen ditu, eta horrek lasaitasuna ematen dit.

### Zer gustatu zaizu bereziki?

Udalak herritarroi aukera hori ematea, gehiagotan egin beharko litzateke.

### Zer ikusi duzu hobetzeko?

Parte-hartze gehiago eskatu beharko litzateke.



### Egindakoak zer emaitza izan du? Ondoriorik izan al du?

Herritar gehienek iritzia errespetatu da eta proiektu irabazlea martxan jarri du Udalak.

### Zer ikasi duzu, aurrera begira?

Modu batean, demokratikoki erabakitze aukera badagoela eta Udalak herriarekin harremanak estutu nahi dituela.

### Herritarren parte-hartzeari dagokionez, aurrera begirako proposamenik?

Egia esan, ez dakit zenbateko parte-hartzea egon zen, seguruenik parte-hartze handiagoa egon daiteke oraindik. Hurrengo baterako, herritarrei parte-hartze handiagoa eskatuko nieke.

### Zerbait gehiago?

Dinamika hau gehiagotan egin beharko litzateke, baita herri gehiagotan ere.

# Hernani



Azalera: 42 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 19.601, hernaniarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (9), EAJ-PNV (3), PSE-EE (3)  
eta Hamaikabat (2)

Parte-hartzearen ardura

**LUIS INTXAUSPE AROZAMENA**

(alkatea)



[www.hernani.eus](http://www.hernani.eus)





Herritarrak parte hartzen Hernanin:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Haurrak/gazteak/ adinekoak	Adinekoak eta jarduera fisikoa	Adinekoek ariketa eta jarduera fisikoa egiteko, ekipamenduak diseinatzeke eta kokatzeko partaidetza-prozesua.	Mapak: 200 banatu, 142 jaso Ekintza/taillerretan: 25 lagun (17 ♀, 8 ♂)	2014ko apiriletik maiatzera	✓
Bizikidetza	Gazte-lokalen erabileraren inguruko prozesua	Gazte-lokalen inguruko elkarbizitza-protokoloa adostea bizilagun, lokalen jabe eta gazteen artean.	30 lagun (12 ♀, 18 ♂)	2013ko abendutik 2014ko maiatzera	✓
Haurrak/gazteak/ adinekoak	Gaztetu Hernani	Hernaniko gazteen beharrak identifikatu eta horien gainean hausnartzeko prozesua, Udalean Gazte Saila osatze aldera.	69 lagun (32 ♀, 37 ♂)	2014ko otsailetik abendura	...
Hezkuntza	Ikastetxeetako patioen erabilera	Eragindakoekin eta erabiltzaileekin batera (ikastetxeak, gazteak, helduak...), herriko ikastetxeetako espazio publikoak erabiltzeko betebeharrak adostea.	17 lagun (9 ♀, 8 ♂)	2013ko azarotik 2014ko otsailera	✓
Kirolak	<b>KIROL- ESPAZIOAK ETA - EKIPAMENDUAK</b>	Hurrengo urteetan kirol-espazioak eta - ekipamenduak noiz eta nola berritu edo hobetu behar ziren aurreikusteko, irizpideak eta lehentasunak ezartzeko, hausnarketa-prozesua herritarrekin.	40 lagun (13 ♀, 27 ♂)	2013ko uztailetik abendura	✓
Partaidetzazko aurrekontuak	<b>PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK</b>	Udal-aurrekontuko 500.000 € herritarren esku jarri ziren, zertan erabiliko ziren erabakitzeko.	424 lagun (244 ♀, 180 ♂)	2014ko maiatzetik azarora	✓

# KIROL-ESPASIOAK ETA - EKIPAMENDUAK

Noiz

2013ko uztailetik 2013ko abendura

## Parte-hartzaileak

Talde Eragilean: Kiroletako zinegotzia, kirol-teknikaria, komunikazio-arduraduna, udal-arkitektoa, 1 herritar eta kanpoko aholkulariak (2) (guztira: 3 emakumezko, 4 gizonezko)

Saioetan: 40 lagun (13 emakumezko, 27 gizonezko), batez beste 25 lagun bilerako

kirolak



**B**este herri askotan bezala, Hernanin kirol-jarduerak garrantzi handia daukate, hernaniar askok egiten dute kirola edo jarduera fisikoa, modu ezberdinetan: elkarrekin federatuta, beraien kontura, eskoletan, kirol-lehian... Herrian kirol-elkarte ugari daude eta gero eta gehiago dira kirola federatu gabe egiten duten hernaniarrak.

Kirola egiteko, kirol-espazio eta -instalazio ugari daude Hernanin, baina denak ez daude egoera onean. Esaterako, kiroldegia Gipuzkoako zaharretako bat da eta aspaldian dauka berritzeko premia; Landare errugbi-zelaia Urumea ibaiak hartzen du uholdeetan; atletismo-pista badago, baina 300 metrokoa da... Kirol-espazioetan (parkeetan, esaterako) beste hobekuntza batzuk ere egin daitezke: iturriak edo komunak jarri, gimnasia egiteko tresnak jarri... Nahikoa diru edo baliabide izanez gero, horiek guztiak egitea erraza da, baina dena Udalak egin behar duenean eta dirua leku beretik iristen denean, garrantzitsua da irizpide garbiak izatea eta lehentasunak ezartzea, are gehiago krisialdi ekonomikoko garaian. Horretarako, hurrengo urteetan

kirol-espazioak eta -ekipamenduak noiz eta nola beritu edo hobetu behar ziren aurreikusteko, Hernaniko Udalak

hausnarketa egin nahi izan zuen herritarrekin. Kirola praktikatzeko edo jarduera fisikoa egiten zuten hernaniarren behar, interes eta irizpideak abiapuntutzat hartuta, elkarrekin kirol-espazioen behar diagnostikoa egin zuten, hasteko. Gero, diagnostiko hori oinarritzat harturik, aurrera begirako irizpideak eta lehentasunak jaso ondoren, epe ertainerako kirol-plangintza osatu zuten.

Prozesuan, herritarrekin lau saio egin zituzten, lau larunbat goizetan: lehen saioan, Hernaniko kirol-espazioak identifikatu eta baloratu zituzten; bigarrenetan, berriz, etorkizuneko kirol-praktikak eta beharrak identifikatu zituzten; hirugarrenean, etorkizuneko kontuan izan beharreko irizpideak landu zituzten; eta, azkenik, laugarrenean, hurrengo urteetarako plangintza-proposamena osatu zuten. Gero, Udalak bere egin zuen plangintza hori eta herritarren aurrean konpromisoa hartu zuen pixkanaka gauzatzen joateko. Plangintzan jasotako zenbait proposamen martxan jarri ziren handik gutxira (adibidez, parkeetan adinekoek kirola egiteko gailuak jartzea) eta aldi behin bilerak egiten jarraitu zuten prozesuan parte hartu zuten herritarrekin, egindakoaren berri emateko eta hurrengo hilabeteetarako asmoak azaltzeko.

Balorazioari dagokionez, saioz saio egin zuten herritarrek, eta, oro har, oso ona izan zen. Udalarena ere ona izan zen, hasierako helburuak bete egin zirelako, batez ere etorkizuneko zer lan edo proiektu lehenetsi behar ziren irizpide garbiak eta proposamen zehatzak eskuratu zituelako, aurrera begirako plangintzarekin. Hobetzekoetan, berriz, asistentziarena azpimarratu zen: oso jende onak eta anitzak hartu zuen parte, baina kopuruaren aldetik espero baino herritar gutxiagok.





## LOLI IZAGIRRE ZALDUA

Irakaslea  
50 urte

### Zergatik hartu zenuen parte kirol-espazioen parte hartzeko prozesuan?

Gai interesgarria izateaz aparte, herrian nahiko utzia dagoen eremua iruditzen zitzaidalako.

### Nola baloratzen duzu egindakoa?

Oso ondo. Pena da, beti bezala, jende gutxi parte hartu izana, baina, bestela, merezi duela iruditzen zait.

### Zer gustatu zitzaizun, bereziki?

Planteatutako dinamika ona iruditzen zait, interesgarri iruditzen zaigun gai baten inguruan, denok parte hartzera eta gure arteko harremana izatera bultzatzen gaituelako.

### Herritarren partaidetzari dagokionez, aurrera begira, badaukazu proposamenik?

Bai, noski! Bertan esan nuen bezala, kirolaren inguruan aritu ginen moduan, kultura ere hartu beharko genuke esku artean eta astindu bat eman.

### Besterik?

Bai, zuei eskerrak ematea modu atsegin eta eraginkorrean lortzen duzuelako jendea martxan jartzea. Ez da lan makala!!



## BEÑAT AMENABAR PERURENA

EHUko irakaslea · 45 urte  
Hernaniko Udaleko  
Kiroletako zinegotzia

### Zergatik erabaki zenuten kirolaren inguruko partaidetzako prozesu hau abiatzea?

Arazoirik garrantzitsuena izan zen irizpide finkorik ez izatea. Herrian egin beharreko inbertsioen inguruan lehentasunak jartzen hasita, ez zegoen irizpide garbi eta hausnartutakorik. Azken finean, politikari edo teknikariaren esku gelditzen ziren erabaki horiek, eta, gure ustez, horrek ez du horrela izan behar. Hernanin herritar askok egiten dute jarduera fisikoa, kirol-elkarte ugari daude eta jarduera-eskaintza zabala da. Beraz, pentsatu genuen eragile horiekin guztiekin parte hartzeko prozesu bat abiatzea, guztien artean adostutako irizpideen arabera erabakiak hartzeko.

Bestalde, gaur egungo egoerak, erabakiak arduraz hartzera behartzen gaitu. Aurrekontuan, inbertsioetarako diru-muga daukagu (diru gutxiago dugu), eta, beraz, erabakiak tentuz hartu behar dira. Gainera, Hernaniko kasuan, kirol-instalazioak, oro har, ez daude egoera onean, oso zaharkituta daude. Beraz, inbertsioak egin behar ditugu, bai, baina arduraz, eta, noski, ardura hori herritarrekin batera lantzen badugu, iruditzen zaigu erabakiak partekatuagoak izango direla.

# PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK



Noiz

2014ko maiatzetik azarora

Parte-hartzaileak

Herritarrak: 424 lagun (244 emakumezko, 180 gizonezko)

partaidetzazko  
aurrekontuak



**H**ernaniko Udalak lehendik eskarmentua bazeukan aurrekontuak hernaniarrekin lantzen, aurreko urteetan ere horretarako bilerak egiten zituelako, asmoen berri emateko eta herritarren iritziak jasotzeko. Hori ondo egonik ere, eskailera-maila bat igotzea erabaki zuen Udalak, aurrera egitea, eta 2014an, 2015eko udal-aurrekontuei begira, hernaniarrei iritzia eskatzeaz gain, 500.000 € jarri zituen herritarren esku, beraiek eta zuzenean diru hori Udalak zertan edo non erabili behar zuen erabakitzeko.

Prozesuak hiru fase nagusi izan zituen: lehen fasean, maiatzetik ekainera, herritar guztien proposamenak jaso zituzten; bigarren fasean, uztailean eta abuztuan, udal-teknikariek proposamen horiek baloratu egin zituzten (balorazio ekonomikoa eta teknikoa eginda); hirugarren fasean, irailean eta urrian, herritarrek egindako proposamenetatik aurrekontuetan zein txertatu erabaki zuten.

Proposamenak jasotzeko, ohiko bilerak egin ziren, guztira bost, gaika edo multzoka: lehena, kultura, euskara, jaiak, kirola, musika, arte-sorkuntza...; bigarrena, hirigintza eta ingurumena: mugikortasuna (ibilbideak, bidegorriak), garraio publikoa, natura eta natur baliabideak, herriko parkeak, hondakinak, energia...;



hirugarrena, ekonomia: turismoa, merkataritza, lehen sektorea, tokiko eta garaiko elikadura, kontsumo-taldeak, garapen-agentzia, enpresak...; laugarrena, ongizatea: hirugarren adina, pentsiodunak, etxebizitza, behar sozialak, aniztasun funtzionala...; eta, azkenik, berdintasuna, lankidetzta, immigrazioa, hezkuntza, gazteak...





Saio horietaz gain, proposamenak egiteko bestelako bide batzuk ere jarri zituzten, nagusiki bi: Internet (Udalaren webgunetik) eta prozesu honetarako propio jarri zituzten buzoiak.

Lehen fasean, guztira 211 proposamen jaso zituzten, denetarikoa. Proposamen batzuek ia dirurik ere ez zuten eskatzen; beste batzuek, berriz, 500.000 €-ko kopurua gainditu egiten zuten. Gaiei zegokienez, oso anitzak izan ziren, arlo askotakoak: kirola, berdintasuna, kultura, hirigintza, mugikortasuna, garapen ekonomikoa... Proposamen

nabarmenenak edo aipagarrienak hauek izan ziren: estalpeak egitea (herriko gune batzuk estaltzeko eskaerak); komun publikoak jartzea; udal-lokalen eta espazioen erabilera...

Lehen fasea amaiturik, balorazio positiboa egin zuen Udalak, batez ere ekarpen eta proposamen ugari jaso zituztelako.

Bigarren fasean, proposamen guztiak udal-teknikarien eta -politikarien eskuetan egon ziren udan zehar, balorazio tekniko eta ekonomikoa egiteko. Fase honetan, proposamenetako batzuk baztertu egin zituzten, hainbat arrazoi zirela medio: Udalaren esku ez egotea, 500.000 €-ko muga gainditzea, teknikoki oso zailak izatea, lehendik ere aurreikusita edo aurrekontuetan sartuta egotea... Gainerako guztiak baloratu egin zituzten, baita diru-kopuru edo aurrekontu bat ezarri ere, eta herritarren esku jarri zituzten, hautatzeko.

Herritarrek proposamenak hautatzeko, hiru saio ireki antolatu zituzten, eta auzoetan ere bilerak egin zituzten. Horiez gain, etxe guztietara galdetegi bat banatu zuten, baita Interneten jarri ere. Azkenik, lehenetsi eta hautatutako proposamen guztiak ikusgai jarri zituzten azaroan zehar.

Hernaniarrek proposamen zehatzak egin zituzten, eta aukeratutako proiektuak sartu egin ziren 2015eko udal-aurrekontuetan.



## EDURNE MENDIZABAL TOLOSA

Sexologoa eta  
parekidetasunean aditua  
(Arremanitz kooperatiba)  
42 urte

“**P**arte hartu nuen interesgarria delako udal-aurrekontuaren zati bat nola erabili erabakitzeko prozesuan parte hartzeko aukera izatea. Baina, orain, prozesu osoari begirata, prozesua bera iruditu zait interesateena.

Gure lantaldean egindakoarekin inpresio ona jaso nuen, bai metodologiarena, baita teknikariena ere. Banuen kuriositatea, eta gauza konplexuak modu erraz eta atseginean helarazi zizkiguten. Halere, mugatua izan da, bai erabakitzeko ahalmena, baita parte hartu genuenon kopurua ere, eta hau hasiera izan da.

Prozesutik, bereziki gustatu zitzaidan herriko errealitate eta premia ezberdinak ezagutzea, parte-hartzaileen aniztasuna eta guztion iritziak jasotzen zirela sentitzea. Hobetzekoetan, berriz, azpimarratuko dut herritar gehiagok parte hartzea.

Ikasitakoei dagokienez, uste dut aurrera begira merezi duela parte-hartzeak, aberasgarria delako. Eta herriari beste begi batzuekin begiratzen ere ikasi dut, premia eta nahi anitzak kontuan hartzen ”



## JUANTXO MORCILLO LANBERRI

Informatika-ingeniarria  
54 urte

### Zer gustatu zaizu bereziki?

Prozesu hau martxan jartzea ukitu egin ahal izan da: udal-akordio bat; diru-kopuru bat eskura, nahiz eta txikia izan; balora daitezkeen proposamenak; proposamenak arrazoituta hautatzea; eta herritarrek, beraien interesen arabera, bozkatzea.

### Zer ikusi duzu hobetzeko?

Herritarrok hobeto prestatuta egon behar dugu proposamenak egiteko eta hautatzeko. Oso interesgarria litzateke prozesuaren aurretik prestatzeko tailerrak egitea, edo prozesu barnean. Bileretara ezin da joan “nire liburuaz hitz egitera” (Umbral idazleak esan zuen esaldi ospetsua erabilita) eta gai izan behar dugu enpatia-ariketa egiteko, guztion interesekin. Guztion interesa ez da beti izaten gehiengoarena, noski, eta hori ere ulertu beharra daukagu. Esan nahi dut prozesu honetan –eta besteetan ere ikusi dut– guztion interesekoak diren proposamenek ez dutela pasio handirik pizten, eta beste proposamen batzuk, oso proposamen fokalizatuak, ez hain orokorrak, parte-hartzaile askoren begikoak izan direla. Horrek esan nahi du garrantzitsua dela partaidetza zabalagoa eta proposamenak baloratzean oso objektiboak izatea.

# Igeldo



Azalera: 10,15 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.072 biztanle, igeldotarrak

**Herri Kontseiluaren osaera:**

7 pertsonak osatzen dute, hauteskunde bidez aukeratuak. Boto gehien atera zituena da lehendakaria.

**Udalaren webgunea:** prestatzen ari dira. Harremanetarako:

[herrikontseilua@gmail.com](mailto:herrikontseilua@gmail.com)



Parte-hartzearen ardura

**RAMON URRUZMENDI ZENDOIA**

(Herri Kontseiluaren lehendakaria)



## Herritarrak parte hartzen Igeldon:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Herri-izaera	<b>ARMARRIA ERAIKIZ</b>	Herri-izaera indartzeko, Igeldok armarrri bat behar zuen. Horretarako, parte hartzeko prozesu hau jarri zen martxan.	Lehen fasean, 40 lagun	2014ko udaberritik 2015eko udaberrira arte	...
Auzolana	Auzolana Sindikatuan	Kooperatibak bultzaturik, Sindikatuko eraikinean obrak eta garbiketak egiteko.	50 lagun (% 10 ♀, % 90 ♂)	2014ko martxotik 2015eko martxora	...
Euskara	<b>EUSKARA-BATZORDEA</b>	Euskararen egoera eta errealitatea aldatu egin zenez Igeldon, batzorde hau jarri zen martxan.	Lehen fasean, 8 lagun (7 ♀, 1 ♂)	2014ko irailetik aurrera	...
Komunikazioa	Orrri informatiboa	Bi hilabetekari bat ateratzen zen aspalditik Igeldon, baina azkenaldian gainbehera zihoan. Hori zela-eta, deialdia egin zen, aldizkarian lan egiteko.	9 lagun (6 ♀, 3 ♂)	2014ko irailetik aurrera	...



# ARMARRIA ERAIKIZ

## Noiz

2014ko martxotik 2015eko maiatzera

## Parte-hartzaileak

Elkarteak: Herri Kontseilua, Din Din elkarte, Lezkarri abesbatza, Kixmi aisialdi-taldea, Ieltxo Kultur elkarte, Igeldoko Kooperatiba, Lizardi pilota-elkarte, Mendizorrotz guraso-elkarte...

Herritarrak: 40 lagun inguru

herri-izaera



Igeldon ez da ezagun inolako armarririk. Azken urteetako herri-mugimendua zela eta, elkarte eta herritar batzuek beren kezka azalarazi zuten armarririk ez zegoelako eta udalerrri bihurtuz gero garrantzitsua ikusten zutelako.

Horregatik, herritar-talde bat informazioaren bila hasi zen eta hainbat historialarirekin ere hitz egin zuen. Informazio guztia mahai gainean jarri ondoren, ondorioztatu zuten ez zegoela armarririk Igeldorentzat. Horren ondorioz, erabaki zuten herritarrekin prozesu bat martxan jartzea, armarrria sortzeko.

2014ko udaberrian, Igeldoko armarrria sortzeko partaidetza-prozesua jarri zuten abian. Lehenengo fasean, herritarrei iritzia eskatu zieten, Igeldoko armarrriak zer eduki jaso edo islatu behar zituen jakiteko. Guztira, 40 herritar baino gehiagoren proposamenak jaso zituzten.

Bigarren fasean, berriz, herritarrek adierazitako kontzeptuak ardatz hartuta, armarrirako proposamenak egiteko, 2015eko apirila bitarteko epea zabaldu zuten. Informazio-orri batean, lehiaketa publikoaren oinarriak jaso eta zehazteko asmoa zeukaten: balorazio-irizpideak, proposamenak zer formatutan aurkeztu behar ziren, sariak... Igeldon elkarte ugari daude eta horietako kideek osatuko zuten epaimahaia eta horiek aukeratuko zituzten finalistak. Ondoren, finalisten erakusketa publikoa egiteko asmoa zeukaten, eta maiatza erdialdera irabazlea bozkatuko zuten herritarrek.

# EUSKARA-BATZORDEA

## Noiz

2014ko irailetik aurrera

## Parte-hartzaileak

8 lagun (7 emakumezko eta 1 gizonetzko)

euskara



Igeldo asko hazi da azken urteetan, batez ere inguruko herrietatik jende asko joan delako bizitzera. Azken urteetan, euskararen erabilera gutxitzen joan da, bai Eskola Txikian, baita herriko plazan ere. Horrekin arduratuta, herritar talde batek Euskara Batzordea sortu zuen, Igeldon euskara suspertzeko eta erabilera areagotzeko.



Proiektuak hiru fase izatea zegoen aurreikusita: lehen fasean, euskararen egoeraren gaineko informazioa biltzea; bigarrenean, plangintza bat egitea; eta, hirugarrenean, plangintzaren betetze-maila ebaluatzea. Lehen fasean, batzordea osatu zen egoera aztertzeko eta erakundeetatik informazioa lortzeko. Fase honetan, batzordea kide hauek zituen: Eskola Txikiko Zuzendaritzaren ordezkaria, Guraso Elkartearen ordezkaria, Herri Kontseiluaren ordezkaria eta bi herritar. Egitasmoaren hasieran egonik, Batzordea informazioa biltzen ari zen liburu hau argiratu zenean.

Aurrerago, bigarren fasean, jasotako informazioa kontrastatzeko asmoa zeukaten, eta, horren ondoren, epe laburrerako helburu zehatzak jartzeko. Helburu horiek lortzeko, hainbat ekintza martxan jartzeko asmoa zeukaten, eta ekintza horiek aurrera ateratzeko herritarren parte-hartzea ezinbestekotzat jotzen zuten.

Azkenik, hirugarren fasean, helburuak lortu ziren edo ez aztertzeko asmoa zeukaten, baita ekintzak baloratzeko ere. Emaitzak baloratzeko, prozesuan zehar hainbat kale-neurketa egiteko asmoa zeukaten.

# Lasarte-Oria



Azalera: 5,4 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 18.082, lasartarrak, oriatarrak

Udalbatzarraren osaera:

PSE-EE (6), **Bildu** (5), EAJ-PNV (2),

Plataforma Ciudadana Lasarte-Oria (2),

PP (1) eta adskribatu gabeko zinegotzia (1)

[www.lasarte-oria.eus](http://www.lasarte-oria.eus)

Parte-hartzearen ardura

**ALAITZ MENDIZABAL URDAPILLETA**

(zinegotzia)



**Herritarrak parte hartzen Lasarte-Orian:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Araudiak	Animalien ordenantza	Herritar asko arduratuta zeuden kale eta parkeak zikin zeudelako txakur-kakekin, eta konponbidea eskatzen zutenez, animalien ordenantza berri egin zen.	240 lagun (% 70 ♀, % 30 ♂)	2013ko maiatzetik azarora	✓
Aniztasuna	<b>ANITZEN SAREA</b>	Herritarrekin batera, herriko aniztasuna lantzeko eta balioa emateko, Anitzen Sarea sortzeko eta egonkortzeko prozesua.	Batzarretan, batez beste 30 lagun inguru (% 60 ♀, % 40 ♂)	2013ko irailetik aurrera	...
Kirolak	Kirolaz hausnartzea eta etorkizuneko gakoak identifikatzea	Lasarte-Oriako kirolaren egoeraren diagnosi orokorra egitea, eta horretatik abiatuta, etorkizunera begirako plan estrategikoa garatzea, etorkizunerako lan-ildoak planteatzeko.	...	2014ko maiatzetik abendura	...
Hirigintza	<b>TXIMISTARRETA PARKEA</b>	Tximistarreta parkea erabiltzaileekin beraiekin diseinatzea, herritarren nahiak kontuan izanik.	150 lagun inguru (% 50 ♀, % 50 ♂)	2013ko apiriletik abendura	✓
Parte hartzeko sistema	Udala berrantolatzeko proiektua	Udala barrutik berrantolatzeko prozesua, udal-ordezkarri guztiekin batera. 2 enpresak hartu zuten parte: batek arlo teknikoa landu zuen, eta besteak giza arloa. Kudeaketa-mahai bat jarri zen martxan, baina 2014ko apirilean bertan behera geratu zen, eta prozesuaren alde teknikoa bakarrik landu zen.	Udaleko langile guztiak (150 inguru), alderdi politiko guztiak eta langileen komitea	2013ko irailetik 2014ko apirilera	✓



# ANITZEN SAREA

## Noiz

2013ko irailetik aurrera

## Parte-hartzaileak

World Coffeean: 30 lagun (13 emakumezko, 17 gizona)

Arlokako bileretan, 2. fasean: 30 lagun (16 emakumezko, 14 gizona)

Arlokako bileretan, 3. fasean: 16 lagun (8 emakumezko, 8 gizona)

Anitzen batzarrean: 25 lagun (15 emakumezko, 10 gizona)

“Anitzak gara”, kultura arteko topaketan: 37 lagun

Anitzasun Astea: ehunka lagun (ezinezkoa zehatz zenbatzea)

anitzasuna



Lasarte-Oria udalerrria nahikoa berria da: 1986an sortu zen, bi udalerritako bi auzok (Hernaniko Lasartek eta Urnietako Oriak) bat eginda. Bi guneez bilakaera desberdina izan zuten garapenean eta hazkundean, bakoitza bere berezitasunarekin (nekazaritza-giroa zen nagusi Lasarten; Orian, berriz, langile-giroa), baina gaur egun hiri-eremu jarraia edo bakarra osatzen dute. Bietan ere, ordea, industrializazioak eta immigrazioak zeresan handia izan zuten, bereziki 60ko eta 70eko hamarkadetan; izan ere, lantegi handiak ezarri ziren (Michelin, ATC, Bianchi...) eta horiek esku-lana behar zuten, inguruetako herrietako (Hernani, Urnieta, Usurbil...) eta beste jatorri bateko (batez ere Espainiako Estatukoa: Extremadura, Salamanca, Burgos, Andaluzia...) jende asko etorri baitzen bizitzera Lasarte-Oriara; horren erakusgarri, herriko biztanleriaren hazkundera: 60ko hamarkadan, 4.000 lagun inguru bizi ziren; 1986an (udalerraren sorreran), berriz, 18.000. Ideia bat egiteko,

gaur egun, 18.000 biztanle horietatik, sei mila baino gehiago Euskal Herritik kanpo jaiok dira.

Migrazio haren garaian, haur asko jaiok ziren (*baby-boom* ere deitzen zaio fenomenoari) eta eskola publikoak (garai hartan





*nazionalak* izenekoak) hezi behar izan zituen ume haiek, asko eta asko ele bakar, garai hartan gaztelania hutsean irakasten baitzen. 80ko hamarkadan sortu zen ikastola (euskaldunen arnagunea), baina proportzioak argi adierazten zuen herriko egoera: 5 klase erdaldun, 1 klase euskaldun.

2000. urtearekin batera, beste migrazio-fluxu bat izan zen, batez ere Hego eta Erdialdeko Amerikatik (nikaraguar asko), eta horrek ere eragina izan zuen Lasarte-Oriaren errealitate soziologikoan. Baina lehen ez bezala, ikasleen % 95 D ereduan matrikulatzen zen, eta etorkizunean euskararen ezagutza, behintzat, ia bermatuta zegoen.

Lasarte-Oria, beraz, oso udalerrri berezia da hainbat alderditatik begiratuta, eta bertan bizi direnek dauzkaten berezitasunengatik ere bai, aniztasuna baita nagusi. Horretaz jakitun, Udalak bereziki landu nahi izan zuen aniztasunaren gaia, partaidetzazko prozesu iraunkor baten bidez eta hainbat helburu bete nahian: migrazioen inguruan dauden topikoak gainditzea, herriko kultura guztiak ikusgarri egitea, aniztasuna lantzeko irizpideak garatzea, etorri berrien komunitateetan elkartegintza sustatzea, euskal kulturaren ateak zabaltzea, elkarren ezagutza bultzatzea, sentsibilizazio-kanpainak egitea... Horiek guztiak lantzeko, sare-egitura sortzea aurreikusi zuen Udalak, hau da, elkarren arteko harremanen bidez lotutako sare ireki eta anitz bat, eta

bertan parte hartzea herriko elkarteek eta norbanakoez, aurrez aurre zein teknologia berrien bidezko sareen bidez.

Sare hori ehuntzeko, bi talde berezi sortu ziren aurretik: batetik, Talde Eragilea, elkarteetako kideez eta norbanakoez osatua, kanpo-aholkulari batek dinamizatua; bestetik, talde tekniko-politiko (udal-teknikari batez, Aniztasuneko zinegotziak eta kanpo-aholkulariak osatua).

Proiektu honen sorreran, hasteko, herriko elkarteetako ordezkariak elkarrizketatu zituzten, guztira 34 lagun, aniztasunaren inguruko iritziak eta usteak jasotzeko; gero, World Coffee bat egin zuten, denak elkartuta, eta ondoren, bigarren fasean, arlokako batzarrak egin zituzten, aniztasunaren definizio adostua lortu nahian; horren ondoren hirugarren fasea etorri zen, Anitzen Sarearen funtzioak eta maiztasunak definitzeko eta Aniztasun Astea antolatzeko.

Lan horren guztiaren ondoren, Anitzen Sarea jarri zen martxan. Ordutik, elkarteek elkarrekin jarduten dute lanean eta ekintzak antolatzen dituzte, nahastura aberasgarria sortzen da; elkarren ezagutza areagotu egin da. Lehen ez bezala, gaur egun aniztasuna aberastasun bezala ikusten dute herritar gehienek, hau da, balio gisa.

Udalaren balorazioa ere oso positiboa da, batez ere jatorri-aniztasuna balio positibo bezala ikusten delako eta ez arazo sozial bezala. Horretarako asko lagundu zuen ikerketa kualitatiboak, pentsaerak aztertzeak, eta gakoa izan zen prozesu osoa elkarteekin konpartitzea eta elkarrekin aritzea eta gidatzea, herritarrengana iristeko. Hobetu beharrekoetan, berriz, luzera begirako planteamenduaren premia nabarmendu zuen Udalak.

Azkenik, ikasitakoetan, bereziki azpimarratu zuten elkartein inplikazioarekin edozein gai jorra daitekeela eta emaitzak azkar ikus daitezkeela gizarteratuta.



## TOMAS ARRIZABALAGA ZUBIZARRETA

Bulegoko  
administrazio-lanak  
58 urte

Ttakun Kultur Elkarteko  
lehendakaria

### Zer gustatu zitzaizun, bereziki?

Pertsona eta talde ezberdinen arteko errespetua eta begirunea, adostasuna zegoen gaitetan eta hain ados ez geundenetan. Denborarekin elkarren arteko konfiantza ere errotzen joango dela iruditzen zait, gure arteko erlazioak eta elkarlana erraztuz eta aberastuz.

### Aurrera begira, zer ikasi duzu?

Erreparo gutxiagoz zuzentzea beste kolektibo batzuegana; adibidez, kanpotarregana edo talde erlijiosoetara, herriko beste elkarteetara... Elkarlanerako daukagun esparru zabalaren kontzientzia hartzen lagundu dit. Elkarren ezagutza eta elkarbizitza bideratzeko tolerantzia, solidaritatea..., hobeto ulertzen eta praktikara eramaten erakutsi dit.

### Herritarren partaidetzari dagokionez, aurrera begira, badaukazu proposamenik?

Ekintza zehatzak antolatzeaz gain, kontzeptu eta ikuspegiak ere bateratu behar direla iruditzen zait. Kontzeptuen mailan, minimoetan bada ere, adostasunetara ailegatu behar da eta horren gainean eraiki.



## JOSÉ PÉREZ ACOSTA

Etxebizitzen  
mantentze-lanetako  
teknikaria

56 urte

"Semblante Andaluz"  
Kultur Elkarteko kidea

### Zergatik hartu zenuen parte Anitzen Sarean?

Udalak proposatuta eta Aztiker enpresak koordinatuta martxan jarritako ekimen honen berri izan genuenean, gure elkartearen pentsatu genuen interesgarria zela, gure herrian elkarbizitzan dauden kultura eta herri anitzak gerturatzeko eta ezagutzeko aukera ematen zuelako, aukera bikaina elkar aberasteko eta bileretan edo World Coffeean parte hartu genuenok gure ghettoetatik irteteko.

### Nola baloratzen duzu egindakoa?

Uste dut ekimen hauek positiboak direla desberdina ulertzeko, eta lagundu eta gerturatu egiten dituztela herritarregana jendearen kezka, beharrak eta, azken finean, jendearen errealitateak eta arazoak.

### Zer hobetu liteke?

Aniztasunaren eta elkarbizitzan gauden herrion errealitate hau guztiak ezagutzera gerturatzeko formula bilatzea, herriak hobeto ulertzeko eta ezagutzeko.

### Aurrera begira, zer ikasi duzu?

Batzuetan gelditu beharra dagoela inguruan daukagunaz jabetzeko, eta badagoela jendea gure inguruan bizi eta dabilena, horietako asko jaioterritik oso urruti, eta horiek zurekin konpartitzen dutela herria, lana, harrera-herri berria.

# TXIMISTARRETA PARKEA

Noiz

2013ko apiriletik abendura

hirigintza



## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 7 lagun (5 emakumezko, 2 gizonetzko):

Parte Hartzea (2), Hirigintza (3) eta kanpoko aholkulariak (2)

Behaketa-fasean: 124 lagun (62 emakumezko, 62 gizonetzko)

Elkarrizketetan: 23 lagun (12 emakumezko, 11 gizonetzko)

Saio bateratuetan: 28 lagun (13 emakumezko, 15 gizonetzko)



etorkizuneko parkea, erabiltzaile soil izan beharrean herritarrei sortzaile-papera emanda.

Horrela, prozesuaren diseinuan, hainbat fase aurreikusi zituen Udalak: lehen fasean, parkea izango zena Udalak zelai soil bihurtu zuen, orrialde zuri bat balitz bezala; bigarren fasean, partaidetzazko prozesu baten bidez, zelai horri begiratura, herritarrek erabilerak proposatu zituzten, pertsona-talde desberdinen ikuspegietatik (haurrak, ikasleak, gazteak, gurasoak, bizilagunak...) eta aniztasunari erreparatuta (adina, sexua...), eta guztiak batera ere aritu ziren, bateratze-saioen bidez; azkenik, hirugarren fasean, erabilera-proposamen horiek aintzat harturik, Udaleko bulego teknikoak parkearen proiektua diseinatu zuen eta Udalak pixkanaka ekipamenduak jarri zituen: mahaiak, aulkiak, zuhaitzak, iturriak, haur-jolasak...

Herritarrekin egindako partaidetzazko prozesuan, hasteko, pertsona-talde bakoitzarekin Tximistarretan bertan, belarraren gainean, lekua behatu zuten eta zuzenean erabilera-proposamenak egin zituzten; horien osagarri, zenbait elkarrizketa sakon egin zituen Udalak; eta, azkenik, hiru saio bateratu egin zituzten (bi helduekin eta bat hurrekin), norberaren nahi edo beharretatik taldekoetara pasatzeko, proposamen bateratuak egiteko.

Prozesua oso ondo baloratu zuen Udalak. Lehen ere eginak ziren Lasarte-Orian antzeko prozesuak, baina ez Hirigintzan, eta ikusi zuten etorkizunean herriko beste espazio batzuetan ere egiteko modukoa zela.



**A**zkenaldian Lasarte-Oria asko aldatu eta hazi da, batez ere etxebizitza berriak eraikita. Eraikinekin batera, plazak ere egin dira, baina horiek diseinatzea edo zehaztea duela gutxi arte teknikarien esku egon da, gehienetan inguruko bizilagunek edo geroko erabiltzaileek ez dute aukerarik izan plaza egin aurretik iritzia emateko edo nahiak adierazteko. Garaiak aldatzen ari dira, ordea, eta gero eta gehiago hartzen da kontuan herritarren iritzia lanak egin aurretik, baita Hirigintzan ere.

Tximistarreta parkea Lasarte-Oriako erdigunean dago. Nahiko berria da, 2011n sortu baitzen, eta hasieran ez zeukan ezaugarri berezirik; inguruko eraikinekin batera eginda, arrunta izan behar zuen, Euskal Herrian dauden beste ehunka parke bezalakoa: inguruarekin harreman berezirik gabea, erabilera jakinik gabea, funtzio zehatzik gabea... Lasarte-Oriako Udalak, ordea, gauzak beste era batera egin nahi izan zituen, eta aukera eman Lasarte-Oriako bizilagunei elkarrekin diseinatzeko



# Urnieta



Azalera: 23 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 6.198, urnietarrak

Udalbatzarraren osaera:

**EAJ-PNV** (5), Bildu (5) eta PSE-EE (3)

[www.urnieta.eus](http://www.urnieta.eus)



Parte-hartzearen ardura

**MIKEL PAGOLA TOLOSA**

(alkatea)



## Herritarrak parte hartzen Urnietan:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Haurrak/gazteak/ adinekoak	Adineko pertsonen egoera eta bizi-kalitatea	Adineko pertsonekin batera, beraien egoera ezagutu eta udal-politiken egokitasuna aztertu eta adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko.	76 lagun (69 ♀, 7 ♂)	5 hilabete	✓
Kultura	Jaietako araudia	Herriko elkarteek festen programazioa osatzerakoan parte hartzea eta erabakitzea jaietara destinatutako aurrekontua zertan gastatuko den.	17 elkarte	2011tik aurrera	...
Kirolak	Kirolaren mahaia	Kiroldegiko etorkizuneko erreforma- lanak zein izango ziren erabakitzeko.	...	...	...
Hirigintza eta Herri-galdeketa	<b>SAN JOAN PLAZA BIRMOLDATZEA</b>	San Joan plaza zer proiekturen arabera birmoldatuko zen erabakitzeko, iritzia zuzenean galdetu zieten herritarrei.	Bilera irekian: 50 lagun inguru Bozketan: 430 boto	2014ko ekainetik urrira	✓



# SAN JOAN PLAZA BIRMOLDATZEA

## Noiz

2014ko ekainetik urrira

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean: arkitektoa, kontu-hartzailea, idazkaria eta beste lau udal-langile

Aurkezpenean: 50 lagun

Bozketan: 430 boto

herri-galdeketa



hirigintza



**S**an Joan plaza Urnietaren erdigunean dago, udaletxearen aurrealdean. Beste leku askotan bezala, autoak ugaritu ahala, ibilgailuek lekua hartu zuten plazan, eta azkenean bazirudien lehentasuna zeukatela, oinezkoen kaltetan.

2012an Mugikortasun Plana egin zenean, bilera batean, San Joan plazaren ingurua izan zen mintzagai. Berrogei lagun inguru elkartu ziren, eta herritarrek argi adierazi zuten autoek baino lehentasun handiagoa izan behar zutela oinezkoek. Izan ere, plaza herritarrak elkartzeko lekua da, aisialdirako gunea, umeen jolaslekua, eta herritarrek gune atseginagoa bihurtu nahi zuten, beraientzakoa.

Urnietarren nahi horri erantzun nahian, Udalak erabaki zuen ideia-lehiaketa bat egitea San Joan plaza eraberritzeko, eta 2014ko ekainean, espediente eta pleguak onartu zituen. Horrela, irizpide garbi batzuk ezarri zituen etorkizunerako: oinezkoek erabateko lehentasuna izatea, ibilgailurik gabe,

eta urnietarren bizikidetzaren eta elkarren arteko harremanak erraztuko zuten guneak sortzea. Ondoren, herriko 7 arkitekto gonbidatu zituen proposamenak aurkeztera, eta 5ek egin zituzten proposamenak. Pleguetan ezarritako irizpideei jarraituz, proposamen horiek teknikoki baloratu egin zituzten, eta erabaki zuten puntuaziorik altuena lortu zuten hiru proiektuak herri-galdeketa bideratzea.

Horrela, 2014ko irailean, hiru proiektuen egileek beraien proposamenak aurkeztu zituzten jende aurrean bilera ireki batean, eta herritarrek aukera izan zuten galderak egiteko eta zalantzak argitzeko. Guztira 50 bat lagun bildu ziren, eta herritarrek ekarpen ugari egin zituzten. Horietako asko aintzat hartu zituen Udalak, aurrerago, proiektua garatzen zenean gauzatzeko.

Proiektuen berri herritar guztiak izateko, ahalegin berezia egin zen komunikazioaren aldetik, eta, horrela, bi astean zehar, herrian informazio-panelak jarri zituzten. Ondoren, bozketa bidez, hamasei urtetik gorako urnietarrek gustukoak zuten proiektua aukeratu zuten hiru egunetan (urriaren 9, 10 eta 11n, ostegunetik larunbatera).

Guztira 430 herritarrek bozkatu zuten, eta proiektu irabazleak 186 boto jaso zituen; bigarrenak, 164; eta hirugarrenak, 78. Behin bozketaren emaitzak ikusita, herritarren erabakia formalizatzeko, Udaleko kontratazio-mahaia bildu zen astebete geroago eta San Joan plaza birmoldatzeko proiektua herritarrek bozkatuenari esleitu zioten.

Balorazioari dagokionez, Udalak oso ondo baloratu zuen prozesua, lehen aldiz antolatu zelako horrelako herri-bozketa edo -galdeketa bat. Nolanahi ere, oraindik ere nabari zen parte hartzeko kulturak gehiago errotu eta sendotu beharra zeukala, jendea ez zegoelako ohituta eta ez zuelako parte-hartzearen gaia bete-betean bizi.

# Usurbil



Azalera: 24,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 6.168, usurbildarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), Aralar (2), Hamaikabat (2),  
EAJ-PNV (1) eta PSE-EE (1)

[www.usurbil.eus](http://www.usurbil.eus)



Parte-hartzearen ardura  
**JOSU PORTU ALZAGA**  
(zinegotzia)



Herritarrak parte hartzen Usurbilen:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Bizikidetza	<b>GAZTE-LOKALAK ETA BIZIKIDETZA</b>	Gazte-lokalen egoeratik abiatuta, bizikidetzarako oinarriez hitz egitea eta adostea eragindako guztiekin batera.	34 lagun (23 ♀, 11 ♂)	2014ko irailetik abendura	✓
Hirigintza	<b>HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA</b>	Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (HAPO) bidez, etorkizuneko Usurbilez hausnartzea eta irudikatzea, "Usurbil oraina da geroa" goiburupean.	Lehen fasean: 6-15 urte bitarteko 103 haur eta gaztetxo Helduak: 114 (% 50 ♀, % 50 ♂)	2014ko irailetik 2015eko martxora	...
Aniztasuna	Ongi etorri gida	Usurbilera etortzen direnei udaletxean ematen zaien harrerako gida egiteko irizpideak eta edukiak herriko eragileekin batera lantzea.	14 lagun (10 ♀, 4 ♂)	2013ko urria	✓

# GAZTE-LOKALAK ETA BIZIKIDETZA

Noiz

2014ko irailetik abendura

Parte-hartzaileak

34 lagun (23 emakumezko, 11 gizonezko)

bizikidetza



**B**este herri batzuetan bezala, Usurbilen ere azken urteetan gazte-lokalak ugaritu egin dira, gazteek beraien aisialdirako alternatiba bilatu nahian. Guztira 10 lokal inguru daude, batez ere herriguneara eta etxabeetan kokatuta. Tarteka, izan zen arazoren bat lokaletan zebiltzan gazteen eta bizilagunen artean eta behin Udalak lokal bat itxi ere egin behar izan zuen, baina, oro har, azkenaldian elkarbizitza ona zen. Hala ere, Udalaren ustez, une egokia zen gaiaz eta bizikidetzaz hitz egiteko, eragindako guztiekin elkarlanean (gazteak, bizilagunak, lokalen jabeak, adin txikikoen gurasoak eta Udala bera), adostasuneko puntu batzuk aurkitzeko. Horretarako, prozesu hau jarri zuen abian.

Hasteko, galdetegi bat prestatu zuten eta lokaletako gazteei eman zieten, betetzeko. Galdetegi horren bidez, lokal guztiekin harremanetan jarri ahal izan ziren eta Usurbilgo gazte-lokalen errealitatea ezagutu. Oro har, beste herri batzuetako lokalekin konparatuta, ez zegoen alde handirik, baina bazeuden bereizgarri batzuk: lokal gehienetan hamabost lagunetik behera zebiltzan, 25 urtetik gorakoak ziren gazte gehienak, urte asko zeramatzen lokal berean... Datu horiekin, hasteko, bi bilera egin zituzten, bata gazteekin eta bestea helduekin,

galdetegiaren emaitzak ezagutarazteko eta gaiaren inguruko ikuspegiak ezagutzeko. Gero, guztiak (gazteak eta helduak) elkartu egin ziren bi tailerretan, eta hainbat puntu adostu zituzten elkarrekin, dokumentu batean jaso zituztenak.

Balorazioari dagokionez, parte-hartzaileek adierazi zuten beharrezkoa zela honelako zerbait egitea, batez ere ezer gertatu aurretik zeri heldu izateko; guztiak ados zeuden gazteek aisialdirako eta lokalak izateko eskubidea daukatela, baina beharrezkoa dela bizikidetzarako minimo batzuk adostea eta bizilagunekiko errespetua ziurtatzea, eta guztiek ez bazen ere, gehienek Udalari eskatzen zioten bitartekari izateko eta denen artean adostutako minimoak betearazteko. Bilerak oso giro onean izan ziren, eta esperientzia aberasgarria izan zen guztientzat.







## IRATI HOLGADO ESNAOLA

Gizarte Hezkuntzan  
diplomaturia eta  
Pedagogiako ikaslea  
23 urte

### Zergatik hartu zenuen parte “Gazte-lokalak eta bizikidetza” prozesuan?

Bileretako deialdia egin zuten eta gutxi batzuk animatu ginen bertara joatea, ez genekien zer aurkituko genuen bertan eta jakin-min horrekin joan ginen. Ez naiz damutzen bertara joan izana.

### Nola sentitu zinen?

Ba, hasieran ez nekien nola funtzionatuko zuen, baina tailerrak oso dinamikoak izan ziren eta horrek asko laguntzen zuen parte hartzera eta gure iritzia ematera, oso gustura sentitu naiz, egia esan.

### Zer gustatu zitzaizun, bereziki?

Gehien gustatu zaidana tailerra eta bileren dinamizazioa izan da, oso eramangarriak izan dira eta horrek gustura egotera eta bilera guztietara gogotsu joatea bultzatu duela iruditzen zait. Bileretako adin desberdintasuna ere oso interesgarria eta aberasgarria iruditu zait.

### Aurrera begira, zer ikasi duzu?

Ikasi edo argi ikusi dudana bilera honetan komunikazio egokia beharrezkoa dela bizikidetza egokirako, eta horretarako guztiok, bai bizilagunek, bai jabeek eta bai gazteok, gure aldetik jarri behar dugu.



## LOURDES JAUREGIBERRI GOENAGA

Bere konturako langilea  
50 urte

### Zergatik hartu zenuen parte “Gazte-lokalak eta bizikidetza” prozesuan?

Bi seme-alaba ditudalako adin hauetan. Batak 18 urterekin, koadrilakoekin, lokal bat izan zuen bi urtez, eta besteak, 14 urterekin, orain hasi da lokal bat nahi duela esanez. Beraz, guraso-ikuspegitik interesa daukat kontu honetan informatzeko eta eguneratuta egoteko.

### Nola baloratzen duzu egindakoa?

Positiboa izan da. Gazte, guraso, lokal-jabe eta auzokoen iritzi ezberdinak entzuteko aukera eman dit.

### Zein izan dira emaitzak? Zer ondorio izan ditu?

Adostasun batera iristea ez da erraza. Ikuspegi eta interesak ezberdinak direlako, baina minimo batzuk adostea ondo ikusi genuen guztiok. Eta, noski, adostutakoa denok betetzea izango litzateke helburua.

### Aurrera begira, zer ikasi duzu?

Elkarrizketa eta errespetua oinarrizkoa direla helburuak lortzeko.



# HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

## Noiz

2014ko irailetik 2015eko martxora

## Parte-hartzaileak

Talde Eragilean: alkatea, zinegotzi bat, arkitektoa eta kanpoko aholkularia (3 emakumezko, 1 gizonezko)

Prozesuan: 27 udal-ordezkarri (hautetsiak, teknikariak eta irakasleak)

Herritarrak (lehen fasean):

6-15 urte bitarteko 103 haur eta gaztetxo

87 herritar (% 45 emakumezkoak, % 52 gizonezkoak,

% 1 zernahi eta % 3 daturik gabe)



**USURBIL**

oraina da geroa

[www.usurbilorainadageroa.com](http://www.usurbilorainadageroa.com)

hirigintza



**H**irigintzako plan orokorren bidez, herriak eta herritarrak etorkizunera begira jartzen dira. Hasteko, herriaren beharrak aztertzen dira, herritarrek etorkizunean zer edo nolako herria izan nahi duten, eta hori kontuan izanik, gorde egiten dira lekuak, gero azpiegiturak, etxebizitzak eta ekipamenduak eta abar egiteko edo aisialdirako, babestu egiten dira ondare historikoa eta naturala... Plan orokorrak lurraldea antolatzeko tresna integralak dira, eta hirigintzako planetan zehaztu egiten da nola erabiliko den herriko lurzorua, sailkatuta (hiritarra, urbanizagarria eta urbanizaezina), zertarako erabiliko den edo eraikitzea egongo den edo ez, zer jarduera egin daitezkeen eta zein ez, eta horrek zuzeneko eragina du udalerriaren eraldaketan, garapen ekonomikoan eta, beraz, baita herritarren bizimoduan ere.

Plan orokorrak aldian behin egiten edo berritzen dira eta Usurbilen berritu beharra zegoen. Azken finean, plana berritzearekin, etorkizuneko Usurbil irudikatu, marraztu, diseinatu edo eraikitzeko aukera zegoen, eta herritarren partaidetza-prozesuaren bidez, aukera eman zitzaion herritarrei Usurbilgo arazo eta aukerak aztertzeko eta denen artean etorkizunean nolako herria nahi zuten erabakitzeke. Prozesurako “Usurbil oraina da geroa” goiburua aukeratu zuten, adierazi nahi zutelako gaur egungo abiapuntutik etorkizuna eraiki nahi zutela.

Prozesu honen berezitasuna, parte-hartzeari dagokionez, hasiera-hasieratik herritarrekin egindako lanketan datza. Hau da, diagnostikoaren lan teknikoa egin ondoren, datuak eta informazio osoa herritarren esku jarri zen eta parte-hartzea izan zen abiapuntua eta lehen urratsa HAPOa martxan jartzeko. Lehen urratsa eta hurrengo faseak baldintzatuko zituen oinarria.

Prozesua 2014ko irailean jarri zuten martxan. Hasteko, Talde Eragilea sortu zuten, eta ondoren bilerak egin zituzten herritarrekin, gaika eta auzoka; gaiei zegokienez, ondorengoak bereizi zituzten: lurralde-antolaketa; jarduera ekonomikoak, komertzioa eta nekazaritza; ekipamenduak, zerbitzuak eta azpiegiturak; eta mugikortasuna eta ingurumena. Horietako alor bakoitzean, bi bilera egin zituzten. Gaikako bilera horiekin batera, bilerak egin ziren Aginagan (Aginagako eta Urdaigako gaiak aztertu ziren), Zubietan eta Kaxkoan (Kalezarreko eta gainerako auzoetako gaiak ere landu ziren); azken horretan lau bilera egin zituzten, bi euskaraz eta bi gaztelaniaz. Azkenik, helduak, haur eta gaztetxoak ere inplikatzeko asmoa bazegoen, eta bereziki gazteak: 6-15 urte bitarteko gaztetxoekin 4 bilera egin zituzten eskoletan, euren ikuspegia eta ekarpenak jasotzeko.



Liburu hau egitean, prozesua amaitu gabe zegoen, bigarren fasea falta zen. Izan ere, lehen fasean jasotako irizpide, ideia, nahiak eta abar kontuan izanik, teknikariek Aurrerakinaren proposamena egin behar zuten, herritarrekin bigarren fasean lantzeko.

Balorazioari dagokionez, prozesuaren 1. fasea oso ondo baloratu zuten, bikain. Herritarren diagnostikoa osatu zen eta Talde Eragileak aurrez zehaztutako alderdi guztien gaineko irizpideak eta proposamenak jaso zituen. Kasu gehienetan, azterketak nahikoa elementu aurreratu zituen aurrerakinaren dokumentu teknikoa osatu ahal izateko. Bereziki azpimarratzeko modukoak izan ziren haur eta gaztetxoekin egindako saioak eta horien ikuspuntua eta iritziak jasotzea oso aberatsa izan zen. Bestalde, parte-hartzearen pedagogia ere zabaldu nahi izan zuten saio horien bidez eta lortu ere, lortu zuten.



## ARANTZAZU ARANBURU BENGOETXEA

Eguneko Zentroan  
zaintzailea  
60 urte



## ARITZ ARANBURU GORROTXATEGI

Ikaslea  
23 urte

“**H**iri Antolamenduko Plan Orokorra egin behar zela eta, Udalak, ‘Oraina da geroa’ izenburu hartuta, herritarroi parte hartzeraz dei egin zigun, eta etorkizunean zer nolako herria nahi dugun azaltzeko aukera eman zigun.

Egitasmo ona iruditu zitzaidan, eta, ekarpen baliagarriak egin nitzakeela pentsatuz, parte hartzea erabaki nuen.

Nabarmendu nahi nuke asmoa ona, lantalde aberatsa eta beronen prozedura eta dinamika bikainak izaten ari direla.

Alde batetik, nire ustetan, ez zaio herritar xeheari oraindano horretarako eskumenik eman. Eta, hori bide dela, haur, gazte eta helduen iradokizunak jaso ahal izan dira, eta guztiak hartu dira aintzakotzat.

Bestetik, lantalde aberatsa: aniztasuna, irekitasuna, giro atsegina... Herriarekiko dugun ikuspegian bat egiteak uste dugun baino hurbilago gaudela sentiarazi nau.

Oso gustagarri egin zait, eta bereziki azpimarratu nahi ditut lantaldia eta egitasmo honen prozedura. Inondik ere, horretan profesionala den talde baten eskutik doa, objektibotasuna eta kalitatea bermatuz //

“**H**iru gai nagusik bultzatu ninduten HAPOaren prozesuan parte hartzeraz. Batetik, aginagatarrok herri-izaera mantendu nahi badugu, herrian dugun Eskola Txikiak egoera hobean egon behar duela; bestetik, herriko gazteok bertan bizitzen geratzeko aukera eza; eta, azkenik, Aginagako urbanizazio eskasa.

Jendearen parte-hartzea handia izan zen, giroa bikaina eta oso gustura egon nintzen bertan. Guztiok entzun gintuzten. Gainera, besteen ikuspegiak ikusiz, herriaren egoera hobeto ezagutzeko parada izan nuen.

Parte hartzeko sistema egokiak erabili ziren, gaika banaturiko taldeak, mapa handiak, grafikak... Horrelako lanketa gehiago egin beharko genituzke.

Erabakitzeko guneak herriarengana gerturatzea eta herriaren parte-hartzea handitzea, bultzatzea bide egokiak dira. Segi horrela! //

# debabarrena



## Herriak (6)

Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluze

## Biztanleak

55.660 (gipuzkoarren % 7,78)

## Azalera

180,52 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 9,07)



## g

ipuzkoako ipar-mendebaldean dago. Mendebaldean, Bizkaiko Lea-Artibai eta Durangaldea ditu mugakide; ekialdean, Urola Kosta; hegoaldean, Debagoiena; eta, azkenik, iparraldean, Kantauri itsasoa.

Deba ibaiak zeharkatzen du Debabarrena; Leintz-Gatzaga aldean jaio eta 58 km egin ondoren, izen bereko herrian itsasoratzen da.

Eskualdean, oso irudi desberdinak aurki daitezke, nora begiratzen den: Deban eta Mutrikun, kostaldea eta itsasoa daude, hondartza eta guztirekin; Mendaron, Eibarren, Elgoibarren eta Soraluzen, paisaia industrial da nagusi, metalen transformazioko industriarena, batik bat makina-erremintaren sektorekoak; azkenik, eskualdean haran ezkutu eta gordeak ere badaude, ederrak, naturaren altxor txikiak (adibidez, Olatz, Lastur eta Kilimon).

Industrian ari diren langileak biztanleria aktiboaren erdiak dira, gutxi gorabehera, eta hirugarren sektoreak ehuneko berrogei hartzen du.

Komunikabideei dagokienez, A-8 (Bilbao-Behobia) autobideak eta kostaldeko N-634 errepideak lotzen dituzte herri nagusiak. Beste errepide batzuk ere badaude, oinarritzko sarekoak: Mutriku eta Ondarroa Debarekin lotzen dituena (GI-638), Elgoibar Azpeitiarekin lotzen duena (GI-2634) eta Elgoibar Markinarekin lotzen duena (GI-2636), besteak beste. Eskualdea burdinbide bakarrak zeharkatzen du, Donostiatik Bilbora doan bide estuko trenak (EuskoTren). Halaber, autobus-zerbitzuak (Lurraldebus) lotzen ditu eskualdeko herri guztiak.

Turismoari lotutako jarduerak Deban eta Mutrikun dauka garrantzirik handiena. Mendaron dago eskualdeko ospitalea, eta Eibar da eskualde osoko epai-barrutiko burua.

Baxurako itsasoko arrantza batez ere Mutrikun egiten da, baina azken urteetan gainbehera dator ontzi-kopuruan eta harrapatutako arrain-kopuruan ■



# Deba



Azalera: 52 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 5.450, debarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Alternatiba eraikitzen** (5), EAJ-PNV (3),  
EA (2), Aralar Ezker Batua Berdeak (2)  
eta Itziar Herria Sortzen (1)



Parte-hartzearen ardura

**MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN**

(alkatea)

[www.deba.eus](http://www.deba.eus)



**Herritarrak parte hartzen Deban:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Garapen iraunkorra	<b>GARAPEN JASANGARRIRAKO EKINTZA-PLANA (2013-2016)</b>	Agenda 21aren ekintza-plana udal-ordetzakarekin eta herritarrekin batera lantzeko prozesua.	56 lagun (26 ♀, 30 ♂)	2013ko urritik aurrera	✓
Herri-izaera	<b>ITZIARAKO AUZO-UDALA</b>	Itziar auzoa etorkizunean auzo-udal bihurtzeko prozesua.	168 lagun (% 35 ♀, % 65 ♂)	2013ko apiriletik azarora	✓

# GARAPEN JASANGARRIRAKO EKINTZA-PLANA (2013-2016)

**Noiz**

2013ko urritik aurrera

**Parte-hartzaileak**

Udalaren izenean: udal-hautetsiak eta -teknikariak  
 Herritarrak: 56 lagun (26 emakumezko, 30 gizonezko)



**A**spalditxo, 2006an, onartu eta jarri zen martxan Agenda 21 programa Deban, eta ordutik, urtez urte, ekintzak egiten joan dira, garapen iraunkorragoa lortzeko bidean. Baina denborak ez du barkatzen, eta ekintza-plana zaharkituta geratu zen, komeni zen berritzea. Horregatik, berrikustea planteatu zuten, baina herritarren eta eragileen partaidetza handiagoarekin. Ordura arte egin ziren

ekintza-planaren lerro estrategikoak zuzenean diagnostikotik ondorioztatzen ziren, eta bisio orokorraren falta sumatzen zen definiziorako.

Alderdi hori hobetu nahian, ikuspuntu orokorrean oinarritutako ekintza-plana proposatu zen, Deba udalerrri osorako, garapen jasangarrirako hainbat ardatzen artean oreka handiagoarekin.

Laburbilduz, proiektu honen helburuak honako hauek izan ziren: ikuspegi integral eta orekatua izango zuen Debako Jasangarritasunerako ekintza-plana (2013-2016) definitzea; Debako Jasangarritasunerako ekintza-planean definizioan eta exekuzioan herri-eragileak inplikatzeko; Debako udalerraren beharretara egokitzen zen ekintza-plan eraginkorra sustatzea; eta, azkenik, udal-kudeaketa integrala ahalbidetzea, udal-ekimenen segimendua eta ebaluazioa bermatuz.

Proiektua 3 fasetan gauzatu zen: lehenengo fasean, Debaren egoera aztertu zuten, eta Debako garapena hainbat planotan markatu eta orientatzen zuten dokumentu, plan eta proiektuak aztertu eta laburbildu zituzten, eta bi lan horiek diagnostikoan gauzatu ziren; bigarren fasean, udalerrirako desiragarriagoa izango zen etorkizunerako ikuspegi partekatua definitzen ahalegindu ziren, helburu eta xede batzuekin, baita horiek lortzeko ekintza-lerro eta ekintza zehatzekin; azkenik, hirugarren eta azken fasean, Planaren segimendurako eredu orokorra formulatu zuten, bai barne-ikuspegitik (udal-lanetan), baita kanpoko ikuspegitik ere (beste eragile batzuekin aliantzan eta lankidetzan).

Partaidetzari zegokionez, bi ikuspuntutatik landu zen: alde batetik, udal-langileen eta -hautetsiena; bestetik, herritarrena. Azken horri dagokionez, prozesuaren hasieran inkesta pertsonal bat prestatu zuten eta irizpide jakin batzuk (formazioa, jarrera proaktiboa, herriaren ezagutza...) betetzen zituzten lagun batzuei eman zieten. Horrekin batera, Udalaren webgunean prozesuari buruzko informazioa txertatu zuten eta herritar guztiei eman zitzaizen aukera prozesuan parte hartzeko.

Prozesu honetan, elkarlanean aritu ziren eskualdeko garapen agentzia (Debegesa), Udaleko alderdi politikoak, eragileak eta herritarrak, eta lanerako egitura zehatz batzuk ere antolatu zituzten: herritarrekin bilerak, Talde Eragilea eta Talde Teknikoa, besteak beste. Horrela, prozesu honi esker, diagnostia eta ekintza-plan partekatua diseinatu zituzten, herritarren eta Debako Udalaren artean partaidetza-mahaia abian ipini zen, eta udal-teknikarien, herritarren eta politikarien partaidetza bultzatu zen.

Balorazioari dagokionez, interesgarritzat jo zuten inkesta pertsonalatuak egitea, tresna horrekin asmatu zutelako informazioa lortzeko eta egoera aztertzeko; hobetzekoetan, berriz, adierazi zuten sare sozialak hobeto erabiltzea bazegoela, komunikazioaren mesedetan. Bestalde, azpimarratu nahi izan zuten aldatu beharra dagoela ohiko foro presentzialetatik (arratsaldeetako bilerak) beste eredu batzuetara, herritarrek errazago eta gehiago parte hartzeko.



## **NAIARA MALAVE GARRIDO**

Ingurumen-dibulgetzailea  
32 urte

### **Zergatik hartu zenuen parte prozesuan?**

Herrian egiten diren gauzez jakiteko kuriositatea neukalako. Urte asko pasa ditut kanpoan, eta, bueltan, bertan egin nahi diren gauzez jakiteko interesa neukan.

### **Zer ikusi zenuen hobetzeko?**

Deialdiak ez dira herritarrengana ailegatzen. Jende gutxi. Ez dakit zelan lor daitekeen, baina herritarrentzako ondorio zuzenak dituzten ekintzak proposatzen diren bileretan partaidetzak handiago izan beharko luke.

### **Herritarren partaidetzari dagokionez, aurrera begira, badaukazu proposamenik?**

Gaur egun data bat jartzeaz gain (eguna/ordua), beste era bateko partaidetzak ere sustatu beharko lirateke. Beste era batera abisatu eta bultzatu partaidetza. Askotan datak ez dira onak edota herritik kanpo egon beharreko egonaldietan kointzidi dezake, eta horrela partaide izateko aukera galtzen da. Teknologia berriak ere sartzen ahalegindu beharko genuke.



## **JUAN IGNAZIO AIZPURUA ARRIZABALAGA**

Pentsioduna  
63 urte

### **Nola sentitu zinen?**

Ondo, eroso eman diren informaziorekin, baina komunikazioa gure artean ez da hain ona izan; motza, nire ustez; beharrezkoa zen debate gehiago.

### **Zer gustatu zitzaizun, bereziki?**

Azalpenak ondo ikusi nituen, materialak eta Debegesako pertsonaren prestakuntza.

### **Zein izan dira emaitzak? Zer ondorio izan ditu?**

Nahiko onak, ondo daude bilduta ondorioak, zertan eta nola planteatzen diren erronkak Debaren garapenerako. Oraingoz ez dut sumatu ondoriorik.

### **Aurrera begira, zer ikasi duzu?**

Jendearen parte-hartzea indartu behar dugula, iritzi desberdinak entzuten eta balorazioak nola egin, tresna desberdinak aplikatuz.

### **Herritarren partaidetzari dagokionez, aurrera begira, badaukazu proposamenik?**

Ba, kontuan hartuta zer garrantzi daukan, zabaldu behar dugu informazio gehiago eta gero mahai-ingurua sortu eztabaidak egoteko; hori bai, ondo antolatuta, dinamikoak.



# ITZIARKO AUZO-UDALA

## Noiz

2013ko apiriletik azarora

## herri-izaera



## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean: 8 udal-ordezkarri (1 emakumezko, 7 gizonezko)

Bileretan: 168 lagun (% 35 emakumezkoak, % 65 gizonezkoak)



Itziar Debako auzo bat da, Andutz mendiaren magalean. Debaren parte izan arren, herri-izaera sendokoa da, eta Gipuzkoako herri zaharretako bat ere bada, Deba beraren aurrekoa. Debatik 6 kilometrorra dago kokatuta Itziarren erdigunea, eta bere barruan auzo ugari ditu: herriguneaz gain, Itxaspe, Egia, Lastur, Arbiskoa, Endoia, Elorriaga eta Mardari. Itziar herriaren inguruan 400 biztanle inguru bizi dira eta beste auzoetako biztanleak kontuan hartuz gero, 1.000 itziar inguru dira guztira.

Aspalditik adierazi izan dute itziarrek burujabe izateko nahia, eta badira 20 urte baino gehiago “Itziar Herria Sortzen” plataforma lanean ari dela horretarako, Itziar udalerrri bihurtzeko. 2008tik aurrera, hainbat tramite egin zituen plataformak, bide horretan: udal-eroldako datu eguneratuak eskatu, tokiko entitate txikia eratzeko justifikazio-txostenaren aldeko sinadura-bilketa egin, Batzar Nagusiei oniritzia eskatu... 2010ean, Debako Udalak mahai bat eratzeari onartu zuen, gutxienezko adostasun batzuetara heltzeko eta entitate txikia eratzeko hasierako akordioa lortzeko. Halaber, Udalak azterketa bat egiteko agindu zuen, Itziar tokiko entitate deszentralizatu ekonomikoki bideragarria zen edo ez jakiteko. Hortik aurrera,



beste zenbait arlo are gehiago zehaztu zituzten (eskumenak, zerbitzuak...) eta 2013ko martxoan prozesu hau jarri zen abian, proiektua definitu eta auzo-udala martxan jartzeko. Horrela, partaidetzaren bitartez, azterketa-ikerketa arloko zereginetan gehiago sakondu eta herritarren parte-hartzean oinarritutako adostasunetara iritsi nahi izan zuten.

Prozesua bi mailatan bideratu zen: batetik, Itziar Mahaiko kideen parte-hartzearekin, auzo-udala eratzeko eskatzen zen justifikazio eta bideragarritasun ekonomikoaren txosten teknikoak landuta; bestetik, herritarren partaidetzarako auzo-batzarrak antolatuta, Itziar Mahaiko adostutako txostenaren inguruan herritarrak informatzeko eta gaiaren inguruko zalantzak argitzeko, beren iritziak kontrastatzeko eta baloratzeko.

Herritarrekin bilerak Itziar herriaren inguruan, Elorriagan, Lasturren eta Debako kaskoan egin zituzten, eta bilera horietan, informazio zuzena emateaz eta kontrastatzeaz gain, herritarrek aukera izan zuten iritzia emateko eta eztabaidatzeko. Bilera horien bidez, herritarrak aktibatu egin ziren (sinadura-bilketa ere egin zen, adibidez), eta prozesuan egin ziren eskaera batzuk



aintzat hartu zituen Udalak. Nolanahi ere, proiektuaren inguruan nahasmen handia sortu zen, distortsio-elementuak izan zirelako tartean (hedabide batzuek zabalduak informazioa, gezur interesatuak...).

Partaidetza-prozesuari esker, herritarrei informazio zuzena eman zien Udalak eta herritarren ekarpenak jaso eta proiektuan txertatu zituen.

Prozesu hau amaitu ondoren, beste pauso batzuk eman zituen Itziarrek auzo-udal izateko bidean. Horrela, Europako Parlamenturako hauteskondeekin batera, 2014ko maiatzean, herri-galdeketa antolatu zuen Denon Herria plataformak, eta emaitza auzo-udal izatearen aldekoa izan zen: botoa eman zezaketen 864 herritarretatik, 626k (% 72,7k) bozkatu zuten; horietatik, 593 (% 94,7) auzo-udal izatearen alde agertu ziren. Azkenik, 2014ko ekainean, Itziar auzo-udal izatearen alde bozkatu zuen Debako Udalbatzak, eta azaroaren 30ean, itziarrek boto bidez berretsi zuten erabakia: bozkatzeko eskubidea zeukaten 849 hautesleetatik, 614k bozkatu zuten (% 75,4k); horietatik, baiezkoa eman zuten 589k (% 95,93k) eta ezezkoa 23k (% 3,74k).



## GEROA GALARRAGA AGIRREGABIRIA

Ingeles-irakaslea  
29 urte

“Hainbat arrazoiengatik hartu nuen parte prozesu honetan. Itziarko jendearekin lotura afektiboa eta laguntasuna dudalako, enpatiagatik, baina batez ere beraien eskubide sozial eta zibilen defentsa, herritar guztiok eskubide berdinak edukitzeko bermean laguntzeagatik.

Egindakoa oso positiboki baloratzen dut, hartu-emanak sortzeaz eta sendotzeaz gain, herrigintza bultzatu zelako. Bereziki gustatu zitzaidan giroa, sortu zen ilusioa eta batasuna, Itziarren sortu zen olatua, eta emaitza historikoa izan zen. Hala ere, uste dut badagoela zer hobetua, batez ere ardurak hartzean eta konprometitzean; parte-hartzea zenbat eta zabalagoa eta indartsuagoa, emaitza are hobea”

# Mendaro



Azalera: 25,4 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.998, mendarorak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (5), **EAJ-PNV** (3) eta **PSE-EE** (1)



Parte-hartzearen ardura

**SONIA GARTZIA RAOSO**

(alkatea)

[www.mendaro.eus](http://www.mendaro.eus)



**Herritarrak parte hartzen Mendaron:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Kultura	<b>2014KO SANTANAK</b>	Herriko jaiak herritarrekin eta elkarteekin batera antolatzea.	6 lagun (3 ♀, 3 ♂)	2014ko martxotik ekainera	✓

# 2014KO SANTANAK

**Noiz**

2014ko martxotik ekainera

**Parte-hartzaileak**

6 lagun (3 emakumezko, 3 gizonezko)



**G**ipuzkoako herri guztietan eta auzo gehienetan izaten dira festak, eta dibertimenduaz gain, festetako ezinbesteko osagaia da herritarrek edo auzotarrek parte hartzea; horregatik, festak prestatzean ahalegin berezia egiten da herriko sektore guztiek izateko ondo pasatzeko aukera eta ahalik eta anitzenak izateko. Horretarako, ez dago ezer hoberik eta seguruagorik festak herritarrekin beraiekin antolatzea baino. Ikusi bakoitzak zer nahi duen eta ahalegindu guztien nahiak sartzen, inor baztertu gabe, jaiak guztienak izateko eta guztiek disfrutatzeke.

Mendaroko jai nagusiak Santa Ana egunaren bueltan izaten dira, uztailaren amaieran, eta azken urteetan Udalak ahalegin

berezia egiten du festetan herriko sektore guztiek izateko dibertitzeko aukera, festak herritarrekin beraiekin antolatuta.

Mendaron, festak baino hilabete batzuk lehenago hasten dira lanean. Duela urte batzuetatik, Udalak deialdia egiten die herritarrei antolakuntzan parte hartzeko, eta helburua izaten da adin edo izaera guztietako herritarrek izatea festetan ondo pasatzeko aukera, herritar guztiek izatea beraien unea edo lekua, eta jaiak herritarren proposamenetan oinarrituak izatea. Horretarako, hasteko, Udalak hasierako xehetasunak zehazten ditu: aurrekontua, datak...; gero, deialdia egiten du eta herritarrek festetarako proposamenak egiten eta adosten dituzte; bukatzeko, jaien egitaraua ezagutarazten du Udalak.

Festetako egitaraua eta festak horrela landuta, jendearen inplikazioa handiagoa da eta errazago hartzen du parte jaietan. Emaitza oso positiboa da. 2014an, gainera, adin desberdinetako jendeak hartu zuen parte batzordean eta proposamen berri gehiago jaso zituzten.





# Soraluze



Azalera: 14,22 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 3.991, soraluzetarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (5), **EAJ-PNV** (4) eta **PSE-EE** (2)



Parte-hartzearen ardura

**UNAI LARREATEGI AZURMENDI**

(aholkularia)

[www.soraluze.eus](http://www.soraluze.eus)



**Herritarrak parte hartzen Soraluzen:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Parte hartzeko sistema	<b>ALKARREKIN SORALUZE EGINEZ</b>	Herritarrak benetan aktibatzea, bakoitzak nahi zuen lantaldean lan egiteko aukera emanda.	150 lagun (81 ♀, 69 ♂)	2013ko ekainetik aurrera	...
Euskara	<b>EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA</b>	ESEP herritarrekin eta eragileekin batera lantzeko prozesua.	84 lagun (% 60 ♀, % 40 ♂)	2013ko irailetik abendura	✓

# ALKARREKIN SORALUZE EGINEZ

**Noiz**

2013ko ekainetik aurrera

**Parte-hartzaileak**

Udalaren izenean: 30 lagun (alkatea, zinegotziak, teknikariak...) (17 emakumezko, 13 gizonetzko)

Bileretan: 150 lagun (81 emakumezko, 69 gizonetzko)



**S**oraluzetar askok sumatzen zuten herria geldotzen, zahartzen, itzaltzen... ari zela, Soraluze geldirik zegoela, ezin aurrera eginik. Horregatik, prozesu honen bidez, Soraluze biziberritzeko oinarriak jarri nahi izan zituzten, soraluzetarrak herriaren alde aktibatzeko. Horretarako, ezinbesteko osagaia izango zen herritarrek parte-hartzea, ahalik eta herritar gehienek eta desberdinenek elkarrekin jardutea, eta

guztiak batera herriaren alde aritzeko espazioa eraiki nahi izan zuten, jatorria, pentsaera, izaera... edozein izanik ere elkarrekin Soraluze egiteko.

Herritarren partaidetzaren arloan, lehen ere egin ziren Soraluzen zenbait prozesu, gai zehatz batzuen inguruan, baina planteamendu honen bidez urrunago joan nahi izan zuten, eta prozesu jakinetan baino, partaidetza integrala lantzea hobetsi





zuten, epe ertain edo luzerako apustua egin: herritarrekin landu gaiak, eta herritarrak beraien arduratzea horiek aurrera eramateaz, hau da, hasieran eta amaieran herritarrak izatea protagonista.

Soraluzeko Udalak bazeuzkan zenbait plan, herritarren partaidetzaren bidez lantzeko: euskara, berdintasuna, hirigintza, irisgarritasuna..., baina arloz arlo eta bakarka aritzea baino, Udalak nahiago izan zuen beste proiektu batzuk aktibatu eta lan egiteko beste era bat probatu, herrigintzarekin estu-estu lotuta. Horrela, hasteko, 2013an diagnostikoa, helburuak eta ekintza posibleak landu zituzten, hau da, marko orokorra edo osotasuna, ohiko Plan Estrategikoa eginda. 2014an ikusi zuten horiek guztiak zer proiektutan egin zitezkeen, eta ondoren lehenetsunak ezarri zituzten, praktikorako saltoa eman zuten, herritarrekin elkarlanean. Harrezkero, hainbat proiektu daude martxan: herri-identitatea eta historia, mendi eta ibaiak... Proiektu bakoitzeko lantalde bat eratu zen, eta lantalde horietan herritarrak, eragileak, teknikari zein politikariek hartzen zuten parte.

Aurrera begira, guztira 15 proiektu aukeratu zituzten lantzeko, eta beraien erronka nagusia zen lantalde bakoitzak egitasmo zehatza diseinatzea 2015erako edo epe luzeagorako. Nora heldu nahi zuten definitu, 2015. urtean zer nahiko luketen egin.

Lantalde horiek egindakoa aintzat harturik, dena bateratzeko, herri-batzar jendetsua egin zuten 2014ko azaroan, 150 lagun inguru elkartuta, eta talde bakoitzak berea aurkeztu zuen, ideia orokorra egiteko eta guztiak perspektiba orokorra jaso zuten. Bertaratutako herritarrek proiektu bakoitzaren inguruan ekarpenak egiteko aukera izan zuten, baita proiekturen baten parte hartzeko gogoia piztu bazitzaizen izena emateko ere.

Behin azken ekarpen horiek jasota, proiektuak ardatz izan zituzten udal-aurrekontua osatu zuten.



# EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA

Noiz

2013ko irailetik abendura

euskara



## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 6 lagun (3 emakumezko, 3 gizonezko): Euskara batzordeburua, Alkarrekin Soraluez Eginez egitasmoaren koordinatzailea, euskara-teknikaria, euskara-elkarteko ordezkaria eta kanpoko aholkulariak (2).

Bileretan: 84 lagun (% 58 emakumezkoak, % 42 gizonezkoak)



**E**uskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko, administrazioetatik hainbat plan, baliabide, kanpaina, neurri... jartzen dira. Udalei dagokienez, baliabide nagusietako bat Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia izan da, Soraluezko Udalak ere hainbat urtetan martxan izan zuena. Hala ere, 2011ko datuei begiratuta, euskararen egoerak kezka handia eragin zuen: propio egindako kale-neurketan, elkarrizketen % 30 baino ez zen euskaraz, erabileran beharakadarik handiena haurren adin-tartean izan zen... Laburbilduz, azkenaldian euskaldun-kopuruak behera egin zuen, euskara ama-hizkuntza zuten herritarrak gutxiago ziren eta herriko familietan gero eta gutxiago egiten zen euskaraz. Euskara Biziberritzeko Plana berritzeko unea iritsi zela aprobetxatuta, Soraluezko Udalak beste era batera landu nahi izan zuen plan berria, eta partaidetzazko prozesua jarri zuen abian, egoerari buruz hausnartzeko eta hizkuntza-komunitatea sendotzeko eta trinkotzeko.

Egungo egoeraren diagnostikoa egitearekin eta etorkizunera begira jarraitu beharreko norabidea marraztearekin batera, beste helburu batzuk ere landu nahi izan zituen Udalak: herrian euskararen aldeko sentsibilizazioa areagotu; euskararen aldeko jarrerak, jokabideak eta konpromisoak aktibatu; euskararen garapenaren aldeko konpromisoa hartu nahi duten herriko elkarte eta taldeen arteko lankidetzeta handitu...

Horretarako, hasieran, lanak zuzentzeko, prestatzeko eta prozesua martxa onean ziurtatzeko, batzorde tekniko bat sortu zen. Herritarrekin 2 lan-saio egiteko asmoa zegoen, lehenengoa diagnostikoa adosteko eta bigarrena aurrera begirako lan-ildoak eta ekintzak adosteko, baina aurretik lan asko egin behar izan ziren: parte har zezaketen herritarren eta elkarteen zerrendak landu, herritarrak gonbidatu...

Lehen saioan, herritarrek euskararen egoerari buruz hausnartu zuten elkarrekin, zeinen larria zen jabetu, eta Planaren balantzea egin zuten. Bigarrenean, berriz, etorkizunera begira jarri ziren eta euskararen erabilerak gora egiteko aukera eta balizko bideak proposatu zituzten. Prozesuari esker, gainera, herritarren eta Udalaren (Euskara Sailaren) artean elkarlanerako giroa berpiztu egin zen.

Bi saioetan oso giro ona izan zen, eta parte-hartzaileak oso gogotsu aritu ziren lanean. Amaieran baloratu zuten, gauzak ondo egin izanaren sentsazioarekin geratu ziren, eta Udalaren balorazioa ere oso ona izan zen, jende askok parte hartzeaz gain, oso emaitza positiboa lortu zelako. Bi saio besterik ez izateak denbora-muga ekarri zuen, eta zenbait alderditan ezin izan zuten sakondu nahi beste; horregatik, batzuek denbora gehiago behar izanaren sentsazioarekin geratu ziren; nolana ere, etorkizunean ere izango zuten aukera horietan lanean jarraitzeko...

# debagoiena



## Herriak (8)

Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñati

## Biztanleak

62.808 (gipuzkoarren % 8,78)

## Azalera

345,35 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 17,37)



g

ipuzkoako hego-mendebaldean dago. Iparraldean, Debarrena du mugakide; ekialdean, Goierri eta Urola Kosta; mendebaldean, Durangaldea eta

Gorbeia inguruak; eta, azkenik, hegoaldean, Arabako Lautada.

Deba ibaiak zeharkatzen du eskualdea, Leintz Gatzagan jaiota, eta hortik datorkio eskualdeari izena.

Industria da eskualdeko jarduera ekonomiko nagusia, eta industrian lanean jarduten duten langileei dagokienez, Gipuzkoako proportziorik handienetako bat dauka; zerbitzuen sektoreak, berriz, ez dauka hainbesteko indarririk. Debagoiena kooperatiben lurraldea da, mugimendu horrek oso indar handia baitauka. 1941ean, Arrasaten, “Lanbide Eskola” zabaldu zen eta horixe izan zen mugimenduaren sorlekua, han ibilitako bost ikaslek eratu baitzuten ULGOR, lehen kooperatiba, 1956an. Kooperatibetan lanean ari ziren langileen behar sozial eta ekonomikoek eraginda, 1959an kreditu-kooperatiba sortu

zuten, Lankide Aurrezki Kutxa (gaur egungo Laboral Kutxa), eta hortik aurrera, kooperatiben mugimenduak urrats handiak egin zituen, langintza anitzagoetara zabaldu eta Arrasatetik kanpora hedatu zen. Gaur egun, Mondragon Korporazioak berrehun bat kooperatiba elkartzen ditu, hainbat alorretakoak: industria, elikadura, irakaskuntza...

Donostia urrun eta Gasteiz gertuago dagoenez, Arabako hiribururako joera handia dago; eskualdea zeharkatzen duen Maltzaga-Urbina edo AP-1 autobideak are gehiago gerturatu ditu, gainera. Herrien artean, bi dira oinarritzko errepideak: bata, Deskargatik barrena (GI-623) Beasain, Zumarraga, Bergara eta Durango lotzen dituen; bestea (GI-627), Maltzaga, Bergara, Arrasate eta Gasteiz lotzen dituen.

Osasun zerbitzuei dagokienez, Arrasaten dago eskualdeko ospitalea, baita Euskal Herriko ospitale psikiatrikorik handiena ere. Epai-barrutiko burua, berriz, Bergara da ■



# Antzuola

Azalera: 27,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 2.193, antzuolarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), **EAJ-PNV** (3) eta **PSE-EE** (1)

Parte-hartzearen ardura

**INMA BERISTAIN ARAMENDI**

(alkatea)

[www.antzuola.com](http://www.antzuola.com)



Argazkia: Jone Larrañaga - Igarza



**Herritarrak parte hartzen Antzuolan:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Aniztasuna	<b>ELKARBIZITZA-PLANA</b>	Aurreko urtean egindako Elkarbizitza Plana garatzeko eta 2014rako plangintza egiteko, Talde Eragilea sortu eta martxan jarri zuten.	42 lagun (28 ♀, 14 ♂)	2013ko irailetik abendura	✓
Zerbitzuak	<b>UDAL-ERAIKINEN ERABILERA</b>	Herriko eraikin eta espazio publikoen erabileraz hausnartzeko eta aztertzeo prozesua: eraikinak eta espazioak zer egoeratan zeuden, zer erabilera zuten eta nola egokitu zitezkeen herritarren premietara.	Helduak: 70 lagun (29 ♀, 41 ♂) Gazteak (11-17 urtekoak): 33 lagun (29 ♀, 4 ♂)	2014ko irailetik aurrera	...

# ELKARBIZITZA-PLANA

**Noiz**

2013ko irailetik abendura

**Parte-hartzaileak**

Udalaren izenean, Talde Eragilean, zazpi lagun: ordezkarri politikoak (4), udal-langileak (3) eta kanpo-aholkularia (1), guztiak emakumezkoak

**Herritarrak:**

Talde Eragilean: 16 lagun (12 emakumezko, 4 gizona)

Herritarrak: 42 lagun (28 emakumezko, 14 gizona)



**U**dalak bultzatuta, 2013ko apiriletik ekainera Elkarbizitza Plana landu zuten Antzuolan. Plan horren bidez, elkarbizitzarako marko bateratua eta hobekuntza-prozesua zehaztu nahi izan zuten, kanpotik etorritako antzuolarrekin zein bertan jaiotako herritarrekin batera, guztion eskubide eta betebeharrak kontuan hartuz eta guztiok lan horretan modu aktiboan parte hartuz. Prozesu hartan, hainbat proposamen egin zituzten, eta horiek guztiak Elkarbizitza Planean jaso zituzten. Prozesuaren amaieran, lanek segida izan behar zutela erabaki zuten, Elkarbizitzarako Manifestua eratzeko eta 2014rako plangintza egiteko, eta horretarako lanean jarraitu zuten.

Horrela, udararen ondoren, 2013ko irailean, Udalak lehen pausoak eman zituen, lanak prestatzeko: ordezkarri politikoek,





kanpo-aholkulariak lagunduta, egin beharreko urratsak zehaztu eta egutegian jarri zituzten; proposamena Udaleko teknikariei aurkeztu zieten, konpromisoa eskatzeko eta prozesuko emaitzek aurrera egingo zutela ziurtatzeko; taldea osatzeko komunikazio-lanak egin zituzten...

Aurrelanen ondoren, elkarbizitzarako herritarren lehen bilera egin zuten, eta kokatu ondoren, Talde Eragilea eratu zuten (hainbat irizpide kontuan izanik: boluntarioa izatea, jatorri-aniztasuna, generoa, adina...), 13 herritarrekin, eta aurrera begirako funtzionamendua eta arauak zehaztu zituzten. Talde Eragileak, guztira, lau bilera egin zituen elkarbizitzako ikuspuntu globala lantzeko eta lehen fasean proposaturiko ekintzak 2014ko planifikazioan txertatzeko. Talde Eragilean, zenbait

alderdik elkarbizitzan izan beharreko papera landu zuten, eta horien inguruko ekintza zehatzak planifikatu zituzten: elkarbizitzaren aurreko zalantzak, harrera, euskararen papera, kulturartekotasuna...

Bilera horien ondoren, Talde Eragileko kideek Elkarbizitzako herritarrei eta herritar guztiei azaldu nahi izan zieten egindakoa, eta horretarako bilera bat egin zuten abenduan, ordura arte parte hartu zuten herritar guztiak propio gonbidatuta.

Prozesua, oro har, arrakastatsua izan zen, batez ere jende desberdin ugari elkartzea lortu zutelako, espero baino gehiago, eta baloratu zuten denbora gehiago behar zela lanerako, batez ere kolokan edo behar bezala finkatu gabe geratu ziren hainbat ideiatan sakontzeko: estereotipoak, aurreiritziak, jarrerak, definizioak...





## LOURDES ARENAZA LASKURAIN

Etxekoandrea  
57 urte

**"P**robatzeagatik joan nintzen elkarbizitzako prozesura. Pentsatu nuen gauza polita izango zela beste era bateko jendea ezagutzea, elkar ezagutzea, eta oso esperientzia aberasgarria izan da niretzat. Oso proiektu polita izan da, herrian hainbaten artean elkarlanean eraman duguna. Zerbait egin beharra zegoen eta ni ahalegindu nintzen nire ekarpentxoia egiten.

Bereziki gustatu zitzaidan proiektuan parte hartu zuen jendearen barietatea, aniztasun handikoa izatea, eta azpimarratuko nuke saioak izan zirela oso dinamikoak, biziak, gustagarriak eta errazak. Adin batetik aurrera, eskertzen da ohiko bilerak ez izatea, serioak, eta parte hartzea erraza izan zen, horretarako aukerak eman zirelako.

Prozesu hark segida izan du, eta Elkarbizitza Plana aurrera doa, programak eta ekintzak lantzen //



## JOSEBA GOIKOETXEA MALBADI

Mantentze industrialia  
32 urte

**"G**onbidapena jaso nuen parte hartzeko, eta zer egingo genuen oso argi ez izan arren, aukera ona iruditu zitzaidan nire ingurutik kanpoko jendea ezagutzeko.

Interesgarria iruditu zait, bakoitzak bere esperientzia pertsonalean oinarritutako iritziak eman dituelako, eta nik uste lortu dugula bakoitza bestearen azalean jarri eta ikustea arazoan konponbidea askotan ematen duena baino zailagoa dela.

Oso gustura ateratzen nintzen bileretatik, eta oso giro polita sortu zen, aberasgarria oso.

Bereziki zerbait azpimarratzekotan, jendearen elkarbizitza errazteko gogoia eta gaitasuna nabarmenduko nuke //

# UDAL-ERAIKINEN ERABILERA

## Noiz

2014ko irailetik abendura

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 2 lagun (biak emakumezkoak): ordezkari politikoa eta kanpo-aholkularia.

Herritarrek: helduak, 70 lagun (29 emakumezko, 41 gizonezko); 11-17 urteko gazteak, 33 lagun (29 emakumezko, 4 gizonezko)

zerbitzuak



**A**zken urteetan Antzuolan egin diren partaidetzazko prozesuetan, herritarrek behin baino gehiagotan aipatu zuten ez zeukatela garbi zein ziren herri-erakinak edo -ondasunak, eta komeni zela hausnartzea udal-erakinaren kudeaketaz eta horietarako irisgarritasunaz.

Hasteko, udal-teknikari eta -hautetsiak elkarlanean aritu ziren egoeraren aurre diagnosi egiten, 2014ko irailean eta urrian; horretarako, Udalaren eraikin eta aisialdigune bakoitzaren fitxa bat egin zuten, nolakoa zen definitzeko eta ezaugarri teknikoak azaltzeko. Halaber, horren lagungarri, hainbat herritarrengana eta elkartetara jo zuten udal-erakinaren gainean iritzia eskatzeko, horiei ikusten zizkieten indarguneak eta ahuleziak ezagutzeko.

Behin diagnostikoa osatutakoan, herritarrekin saioak egin zituzten, azarotik aurrera, egindako lana osatzeko eta aurrera begirako irizpideak finkatzeko. Alde batetik, gaztetxoekin saio bat egin zuten, eraikinen erabiltzaile garrantzitsuak zirelako eta lasaitasunez parte hartzeko eta beraien iritzia ere jaso ahal izateko. Bestalde, gainerako herritarrekin beste saio batzuk egin

zituzten, bi multzotan banatuta: batetik, araututako eraikin eta ekipamenduak; bestetik, arautu gabeko eraikinak eta ekipamenduak.

Prozesuaren amaieran, Antzuolako Udalak araudiak lantzeko konpromisoa hartu zuen, eta araudi horiek prozesuan parte hartu zutenekin kontrastatzeko ere bai.





# Aretxabaleta



Azalera: 26 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 6.995, aretxabaletarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), Aralar (3), EAJ-PNV (2)  
eta PSE-EE (1)

[www.aretxabaleta.com](http://www.aretxabaleta.com)



Parte-hartzearen ardura

**ANA BOLINAGA URIBARREN**  
(alkatea)

**AINARA IRAETA USABIAGA**  
(parte hartzeko teknikaria)





Herritarrak parte hartzen Aretxabaletan:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Hirigintza eta Herri-galdeketa	<b>GERNIKA PLAZAKO JOLASTOKIA</b>	Gernika plazako jolastokian haur-jolasak jartzeko eta mantentzeko proiektua erabakitzeko, herritarren iritzia kontuan izan zuten, pleguetan balorazio-irizpideetan puntuazio baten bidez.	Bozketan: 607 lagun (501 ikasle, 106 heldu)	2014ko irailetik abendura	✓
Tokiko plana / plan estrategikoa	Jarri gaitzen	Aretxabaletako diagnostiko komunitarioa egiteko prozesua, norbanako eta eragileen parte-hartzearekin, aurrera begirako erronkak identifikatu eta adosteko.	100 lagun (49 ♀, 51 ♂)	2013ko martxotik 2014ko otsailera	✓
Hezkuntza	<b>PAGIE EZKURTXTOTAN</b>	Ezkurtxo izena du Aretxabaletako monetak, eta herriko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 3. mailakoek jaso behar zituzten, 2015eko urtarrietik aurrera herriko gozoki-dendetan erosketak egiteko.	Kurtzebarri eskolako eta Arizmendi Ikastolako Almeneko LH3ko ikasleak: 71 haur	2014ko urritik aurrera	...

# GERNIKA PLAZAKO JOLASTOKIA

## Noiz

2014ko irailetik abendura

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean: alkatea eta bi teknikari (2 emakumezko, 1 gizonezko)

Bozketan: 607 lagun (501 haur, 106 heldu)

herri-galdeketa

hirigintza



**G**ernika plaza Aretxabaletako erdigunean dago. Aspaldian zeukan berritzeko premia, eta Udalak 60.000 euroko partida bat gorde zuen horretarako 2014ko udal-aurrekontuetan. Etorbizunean parke horrek nolakoa izan behar zuen landu zuen Udalak, hau da, zer baldintza eta ezaugarri bete behar zituen, eta plegu batzuetan idatzita jaso zituen. Kontratua lortzeko baldintzetan, ordea, bazegoen berezitasun nabarmen bat: ohiko irizpidez gain (ekonomikoa, teknikoa...), beste puntu-kopuru bat aurreikusi zuten herritarrek gustukoena zuten proiekturako.

Hasieran, udal-ordezkariek parkeko erabiltzaile nagusiekin edo eragindakoekin aritu ziren lanean. Proiektuaren berri emateko eta konpartitzeko, bilerak egin zituzten guraso-elkartekin, erretiratuen elkartekoekin eta ikastetxeetako arduradunekin. Gero, proiektuaren baldintzak zehaztu zituzten, eta horrelako lanetan aritzen ziren lau enpresa gonbidatu zituzten proiektuak egitera. Urriaren erdialdean, proiektuak esku artean, bilerak antolatu zituzten haurrekin eta helduekin, aurkezteko. Ondoren, azaroaren 7an eta 8an, bozkatzeko txanda zabaldu zen. Guztira

607 herritarrek bozkatu zuten: 106 lagunek eman zuten botoa Arkupen; Arizmendi Ikastolan, berriz, 219 ikaslek; eta, azkenik, Kurtzebarri eskolan, 282 ikaslek. Proiektu irabazleak 392 boto jaso zituen; bigarren geratu zenak, 204; eta azkena geratu zenak, 11. Proiektu irabazleak 15 puntu jaso zituen, eta hortik behera gainerako proiektuek, hiruko erregela erabilita. Gero, pleguetako beste irizpideak eta puntuazioak kontuan izanik, Gobernu Batzordeak azken erabakia hartu zuen eta abenduan gauzatu zen proiektua.

Proiektu honen bidez, Udalak aprobetxatu zuen jakiteko haurren jolastoki ideala nolakoa izango litzatekeen, etorkizuneko lanetan kontuan izateko. Balorazioari dagokionez, Gernika plazako eraberritze-prozesua oso ekimen aberasgarria izan zen, batez ere herritarren ahotsa entzuteko aukera izan zutelako. Erabiltzaile nagusiek, umeez, euren iritzia eman zuten eta oso lagungarria izan zen ikastetxeetara joan eta euren testuingurura egokitzea. Horrek parte-hartzea sustatu zuen eta gurasoak ere prozesura gerturatu zituen. Prozesuaren arrakasta bermatzeko, erabakigarria izan zen komunikazio-enpresarekin egindako lana.





## IBAI BENGOA JAUREGI

Diseinatzaile grafikoa  
37 urte

### Zerk bultzatu zaitu botoa ematera?

Herritar moduan parte-hartzea oso garrantzitsua dela uste dut. Gure zergak ordaintzen ditugu eta uste dut parte-hartzea gure diruaren kudeaketan parte hartzeko modu bat dela. Aita naizen heinean ere, denbora luze egiten dut parkean, eta, horrez gain, ez dut gero inor kexatzen entzun nahi, azkenean erabakia gure esku jartzen dutenean, aukera aprobetxatu behar da.

### Horrelako galdeketa gehiago egin beharko lirateke?

Nire ustez, dena egin beharko litzateke galdeketaren bidez. Hauteskundeetan pertsona bat aukeratzen dugu eta ondorioz pertsona horrek ardura eta betebeharrak batzuk ere baditu. Demokraziaren oinarria da eta herriko erabaki guztiak horrela hartu beharko genituzke.



## IZARO HERNANDEZ ETA ALAITZ URZELAI

8 urte

Arizmendi Ikastolako  
LH3ko ikasleak

### Parte hartu al duzue bozketan?

**Izaro:** Bai, nik hirugarren aukera bozkatu nuen, mendiaren ideia asko gustatzen zitzaidalako. Ez dago horrelakorik Aretxabaletan, eta, gainera, nire neba txikiek ere jolastu ahal izango lirateke bertan. Badakit, ordea, ez dela hori hautatua izan, baina konforme nago, gehienek beste bat aukeratu badute.

**Alaitz:** Nik bigarrena aukeratu nuen, sei metroko altuera duelako. Itzela da, eta txirrista izugarri luzea du. Gainera, elementu pila ditu bertan jolasteko, eskalatzeko. Badakit horixe izan dela aukeratua.

### Zer iruditzen zaizue zuen iritzia eskatzea?

**Alaitz:** Oso ongi, egia esan. Azkenean, gu izango gara erabiltzaile nagusiak, eta, noski, gure iritzia kontuan hartzea oso ongi iruditzen zait.

**Izaro:** Bai, niri ere ongi iruditzen zait, eta horrelako gauza gehiago egitea eta beste ekimen batzuetan iritzia eskatzea oso ona dela uste dut.

# PAGIE EZKURTXTOTAN

## Noiz

2014ko urritik aurrera

## Parte-hartzaileak

Kurtzebarri eskolako eta Arizmendi Ikastolako Almeneko LH3ko ikasleak, guztira 71 lagun

hezkuntza



**T**okiko ekonomia eta merkataritza indartzeko asmotan, herri batzuetan tokiko moneten esperientzia batzuk jarri dira martxan, herrian bertan erosketak egiten dituzten edo gastatzen duten herritarrek saritzeko. Lehendik ere, Debagoienan bertan bazeuden horrelakoen bi adibide: axtrokia, Eskoriatzan; eta txantxia, Oñatin. Esperientzia horien olatuan eta antzeko asmoekin, Aretxabaletako Udalak ezkurtxoa aurkeztu zuen, Aretxabaletako tokiko moneta. *Ezkurtxo* izenak, berriz, herriaren izena du jatorria: Aretxabaleta, berez, haritz zabalaren lekua da, eta haritzak ezkurra ematen du.

Beste herrietakoekin alderatuta, ordea, Aretxabaletako egitasmoa mugatuagoa zen, haurrak izango zituelako protagonista, ikasleengan oinarrituko zelako proiektua. 2015eko urtarriletik aurrera, Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako ikasleek diru-kopuru bat (*pagie*) jasotzen hasi ziren ezkurtxotan, eta herriko bi gozoki-dendatan egin ahal izan zituzten erosketak. Ezkurtxo horiek, gainera, herrian bertan eginak ziren, Lanbide Eskolan, hiru dimentsioko inprimagailu

bati esker, eta monetak txanpon hauek zeuzkan: 1 eurokoa (gorria), 2 eurokoa (berdea) eta 10 eurokoa (urdina). Aurrerago, beste erabilera bat emateko asmoa zeukaten (adibidez, eskolarako materiala erosteko edo kultur ekimenetarako). Dendariek, gero, udaletxera joan eta ezkurtxoen trukean euroak jasoko dituzte.



Egitasmo honen bidez, ikasleei garapenean laguntza eman nahi zieten, eta oinarrituko konpetentziak garatzeko ikaskuntza-irakaskuntza prozesuari buruzko ikuspegi konstruktibistan oinarritu zen. Halaber, elkarlaneko proiektua izan zen, bat egin baitzuten herriko ikastetxeek (Kurtzebarri, Arizmendi-Almen eta Lanbide Eskola), merkatarri-elkarteak (Aretxarte) eta Aretxabaletako Udalak.



## IDOIA ELEXPURU UGARTE

45 urte

**Aretxarte Aretxabaletako  
Merkatarien Elkarteko  
lehendakaria**

### Zer gustatu zaizu bereziki proiektu honetan?

Baliabideak herrian egonda eta herriko jendearekin aurrera ateratako ekimena dela. Nire ustez, garrantzitsuena da Lanbide Eskolak, Udalak eta Aretxartek bat eginik aurrera atera den proiektua dela, lana boluntario egindakoa eta oso emaitza politarekin. Gainera, Ikastolak eta Eskolak ere oso harrera ona egin diote hau eskolan aurrera ateratzeko, eta nahitaezkoa da, umeei zuzenduta baitago lehenik eta behin “Pagie ezkurtxotan” herri-ekimena. Umeei jolasaren bidez ikasi egingo dute eta gure arteko harremana sendotzeko balio izan du, gainera. Azkenik, herrian zein baliabide dauden ere jakiteko balio izan du eta gure buruarengan konfiantza irabazteko.

### Zer ikasi duzu?

Eta bigarrenez... ikusi dugu bakoitzak bere partetik apurtxo bat jarrita herriak irabazten duela eta denok pozik. Herria denon artean zaindu behar dugu elkarlana bultzatuz eta elkarri lagunduz.



## ASIER LOPEZ DE ARMENTIA ETA KARET ARMENDARIZ

8 urte

**Kurtzeberri Eskolako  
LH3ko ikasleak**

### Nola baloratzen duzu ekimena?

**Asier:** Oso ideia ona iruditzen zait, Eskolan ikasten ari garena (matematikak, kalkuluak egin, etab.) egiteko oso ongi etorriko zaigu. Eskolan klasean ikasten ari garena praktikan jartzeko balioko digu, kalean gauzak erosteko, gauzek zenbat balio duten ikasteko...

### Zertarako erabiliko duzu ezkurtxoa?


**Karet:** Batez ere litxarreriak erosiko ditugu, hau da, herriko dendetan txupatxusak eta horrelakoak erosteko. Bestalde, aukera izango dugu arkatzak, borragomak, tipexa, etab. erosteko. Hori guztia ezkurtxotan erosi ahalko dugu. Sanmigeletan ere azoka egin genuen, eta marmeladak eta horrelakoak saldu genituen. Hurrengo urtean agian ezkurtxotan egin ahal izango dugu.

### Eta nola eskuratuko dituzue ezkurtxoak?

**Karet:** Eskolan ikasi ditugun arauak betez: materiala zaindu eta konpartitu, eskua altxa hitz egiteko, lagunak errespetatu, besteak hitz egiten duenean entzun... Asteazkenean zehar arauak betetzen baditugu, ostiraletan ezkurtxo bat jasoko dugu bakoitzarentzat edo bi bikoteka.



# Arrasate



Azalera: 34,2 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 22.052, arrasatearrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (11), PSE-EE (4), EAJ-PNV (4),  
Aralar (1) eta PP (1)

Parte-hartzearen ardura

**JOSEBE LANDALUZE RUIZ DE ALEGRIA**

(zinegotzia)



[www.arrasate-mondragon.eus](http://www.arrasate-mondragon.eus)



Herritarrak parte hartzen Arrasaten:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Berdintasuna	<b>ANDREDETAN</b>	Arrasateko emakumeen parte-hartze soziopolitikoak bultzatzeko Udal Plana, emakumeen jabetze-soziopolitikoak sustatzeko.	50 lagun inguru (denak ♀)	2014ko urtarriletik irailera	✓
Zerbitzuak eta Hirigintza	<b>UDAL-AZOKA BIZIBERRITZEA</b>	Udal Azoka biziberritzeko prozesuaren baitan, 2013an proiektua definitu edo zehaztu egin zen, eta 2014an proiektua gauzatzeko fasea hasi zen.	76 lagun (48 ♀, 28 ♂)	2011tik aurrera	✓

# ANDREDETAN

**Noiz**  
2014ko urtarriletik irailera

**Parte-hartzaileak**  
Udalaren izenean: Berdintasuneko zinegotzia (emakumezkoa)  
Lantaldeetan: 50 lagun inguru (denak emakumezkoak)



2007an, emakumeen jabetze-eskolak antolatu zituzten beste emakume-txokoekin elkarlanean; azkenik, 2014an, esperientzia berritzaile eta aitzindari hau jarri zuen martxan Arrasateko Udalak: Andredetan, emakumeen partaidetza soziopolitikoak sustatzeko.

Proiektu honen muina hainbat galderaren erantzunetan dago: zer ezaugarri dituzte emakumeek parte hartzen duten eremuek? Bizitza publikoa eta pribatua bateragarriak dira? Herrigintza baliagarria da emakumeentzat? Parte hartzen dutenean, emakumeek beraien eskubideen alde egiten dute?... Funtsean, gizarte honetan emakumeen presentzia murrizta izan da betidanik, denbora luzez emakumeek zailtasunak izan dituzte alderdi politikoetan, instituzioetan eta gizarte-mugimenduetan parte hartzeko. Oztopoak ugari dira, hor diraute, eta proiektu honen bidez horien gainetik aurrera egin nahi izan zuten Arrasaten.



**1** 995ean, Emakume Saila sortu zuen Arrasateko Udalak, herrian berdintasun-politikak garatzeko; 2003an, berriz, Emakume Txokoa, emakumeentzako topalekuaren beharrari erantzuteko; lau urte geroago,



Prozesuan lau fase nagusi berezi zituzten:

- Lehenengoan, diagnostikoa egin zuten, eta parte-hartze soziopolitikora heltzeko emakumeen bizipenak eta oztupoak jaso zituzten. Elkarrizketak eta inkestak egin zituzten, eta emakumeentzako tailer zabalak ere bai.
- Bigarren fasean, helburu batzuk planteatu zituzten, parte-hartze soziopolitikoa indartzeko, parte hartzen duten emakumeen kopurua areagotzeko eta parte-hartzea erosoagoa izateko.
- Ondoren, hirugarren fasean, helburu horiek betetzeko ekintza-plana osatu zuten.
- Azkenik, laugarren fasean, Plana idatzi zuten eta Udalarri aurkeztu zioten.

Hori guztia egiteko, hainbat egitura berezi antolatu zituzten: Talde Motorra, Talde Eragilea, Dinamizatzaile Taldea...

Proiektuaren izenburua erraza da azaltzen: endredatu hitzak, berez, ez dauka esanahi positiborik, eragotzi edo oztopatu adierazi nahi duelako, baina hitz berberak adierazi nahi du gauzen bueltan ibiltzea, proiektuak sustatzea, gauzak elkarrekin trukitzea... Hitz jokoa egin nahi izan zuten, endredatu eta andre hitzekin, andreak animatu edo gonbidatu endredatzera.

Arrasateko andrak endredetan. Hori izan zen Andredetan ekimena, Arrasateko emakumeen parte-hartze soziopolitikoa sustatzeko asmoari forma eman zion partaidetza-prozesua. Ekimenak kolore anitzeko hari biloak izan zituen irudi, denak elkarri lotuta eta sarea osatzen. Irudi eta sinbologia horrekin jokatu zen, andreen (emakumeen) lan tradizional bat balioan jarri, aniztasunetik biloak endredatu (irauli) eta bestelako eredu bat irudikatzea xede bezala hartuta. Baina, betiere, iraultze hori prozesu bat zela ulertuta. Horregatik zen aditza iraunkorra, helburua Andredetan jarraitzea baitzen.



# UDAL-AZOKA BIZIBERRITZEA

## Noiz

2011tik aurrera

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean: alkatea, 5 zinegotzi eta 5 udal-teknikari (sei emakumezko, bost gizonezko)

Lantaldeetan: 76 lagun (48 emakumezko, 28 gizonezko)

zerbitzuak



hirigintza



**P**rozesu hau 2011n jarri zen abian, eta harrezkero bigarren eta hirugarren faseak ere gauzatu dira.

Bigarren fasearen helburu nagusia izan zen Udal Azoka berritzeko herritarren neurrirako proiektu kontsentsuatua egitea, eta horrekin batera, beste helburu hauek ere bete nahi izan zituzten: Azoka berritzeko prozesuan eragileak inplikatzeko, sentsibilitate desberdinak jasotzen zituen proiektu bat eraikitzea eta ikuspegi sozial eta ekonomikorik bideragarria izango zen azoka-proiektu bat egitea. Horretarako, lehen fasean lanean aritutako lantaldeak berriz ere martxan jarri ziren bigarren fasean, bakoitzak bere esparrua lantzeko eta proiektu orokorrari ekarpenak egiteko.

2013an zehar, Azoka berritzeko proiektuak definitu zituzten eta horien bideragarritasun-plana landu zuten: aurreko fasean identifikatutako proiektu, prozesu eta jardueren zehaztapena eta bideragarritasuna aztertu eta sailkatu ondoren, horietako batzuk lehenetsi egin zituzten. Horrekin batera, Azoka berriaren

diseinu arkitektonikoa landu zuten, Azokaren espazioa antolaera berrira egokitu; arkitekto-talde batek beharrezko azterketak egin zituen, lantaldeekin banan-banan landu zuten, lehenengo,



eta lantalde guztiak elkartuta ere bai, azkenean, proposamen adostu batera iristeko. Proiektuaren beste erronketako bat kudeaketa-eredua izan zen; gaia landu zen, baina ez zen lortu kudeaketa-sistema zehatzik proposatzea; bai, ordea, ondorioztatu zen gobernantza-sistema batean oinarritutako soluzioa izango zela bidea. Azkenik, aurreko hiru helburuak (proiektuak definitzea, diseinu arkitektonikoa eta kudeaketa-eredua) betetakoan, Azoka berriaren finantzazio-plana egin nahi



izan zuten, Azoka birmoldatzeko lanak nola finantzatuko ziren eta horretarako zer bide erabiliko ziren. Bigarren fasean, herritarren asistentzia zabala eta anitza izan zen, eta horrek herri-proiektuaren izaera eman zion Udal Azoka berrituari, herritar askoren gogoia islatzen baitzen bertan.

Hirugarren fasean, 2014an zehar, gauzatzea izan zen. Horretarako, hainbat lantalde izan ziren martxan: Lehen Sektorea, Jolasgunea, Kudeaketa Eredua, Diseinu Arkitektonikoa eta Talde Eragilea. Halaber, 2 saio ireki egin zituzten herritar guztiei zuzenduta, ibilbidea kontrastatzeko eta Azoka biziberritzeko prozesuari buruzko informazio zehatza emateko. Udaleko Tokiko Batzarrak onartu egin zuen Azoka birgaitzeko obren diseinu arkitektonikoaren proiektu gidatzailea, Arrasateko Udal Gobernuarentzat legealdiko proiektu

estrategikoetako bat baitzen. Proiektu horrek lau helburu nagusi zituen: aurreko faseetan irudikatutako azoka-ereduari forma ematea, obren kostuaren estimazioa kuantifikatzea, proiektuko faseak zehaztea eta prozesu osoaren kronograma zehaztea. Azokako ohiko jardueraz gain (postu finkoak, mugikorak eta baserritarrak) bestelako jarduera osagarriak ere aurreikusten ziren Azokan, eta ondorioz bi gune bereizi ere bai: gune finkoa (ohiko jarduerara zuzenduta) eta gune moldagarria (azoka-egunetan salmentarako postuekin, baina beste egunetan beste jarduera batzuetarako aukerarekin). Hain zuzen, jarduera osagarri horiei esker biziberritu zen Azoka, arrasatearrak Azokara gerturatuta. Horrela, 2014an, hainbat ekintza egin ziren Azokan: Hilero ElkarTruke azokak, Bizipoz Jaian bazkari herrikoia, Txatxilipurdiren gau-festako zati bat, haurren txokolatadak, etab.

# Bergara



Azalera: 77,05 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 14.831, bergararrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (9), EAJ-PNV (5), Aralar (2)  
eta PSE-EE (1)

Parte-hartzearen ardura

**JAIONE ISAZELAIA IGARTUA**

(alkatea)



[www.bergara.net](http://www.bergara.net)



## Herritarrak parte hartzen Bergaran:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Zerbitzuak	<b>AZOKA BERGARATZEN</b>	Udal Azoka biziberritzeko eta herritarrak Azokara hurbiltzeko saiakera.	185 lagun (105 ♀, 80 ♂)	2014ko otsailetik aurrera	...
Kirolak	Kirol Kontseilua	Kirol-politikarako ildo nagusiak eta ekintza konketuak proposatzea du xede. Bertan parte hartzen dute jarduera fisikoarekin edo kirolarekin zerikusia duten elkarteek, eta herritar guztiei irekita dago.	Batzorde Iraunkorrea: 10 lagun	2013ko ekainetik abendura	✓
Aniztasuna	<b>OSINTXUKO KULTURARTEKO PLANA</b>	Osintxu auzoan elkarbizitzarako plana egitea eta martxan jartzea.	17 lagun (8 ♀, 9 ♂)	2014ko martxotik uztaiera	✓

# AZOKA BERGARATZEN

## Noiz

2014ko otsailetik aurrera

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean: hiru zinegotzi eta bi teknikari (guztiak emakumezkoak)

Herritarrek: 185 lagun (105 emakumezko, 80 gizonezko)

zerbitzuak



**B**este herri askotako udal-azokek bezala, Bergarakoak ere garai hobekak ezagutu ditu indar, saltzaile, erosle, mugimendu eta abarrei dagokienez. Bizimodu- eta ohitura-aldaketak direla medio, gainbehera joan da azken urteotan, erosle-kopuruari eta saltzaile-postuei dagokienez. Larunbatetan jende gehiago joaten da erosketak egitera, baina astegunetan lagun gutxi ibiltzen dira, eta balorazio orokorra ez zen ona.

Horretaz arduratuta, Bergarako Udalak “Azoka Bergaratzen” egitasmoa jarri zuen abian, Oxirondo Azoka biziberritzeko eta herritarrek Azokara hurbiltzeko. Horrekin batera, lehenengo sektoreari (nekazaritzari) bultzada eman nahi izan zioten, Azoka indartuta baserriarrentzako salmenta-gune bihurtuta. Azkenik, Azoka leku bizi bihurtu nahi izan zuten, salerosketarako toki izateaz gain, aisialdirako erdigune bihurtuta haur eta familientzat, eta horretarako herriko ludoteka Azokako goiko solairura eraman zuten.

Proiektu honen baitan, lantalde espezifikoak sortu ziren: ekonomia lokala, herri-eragileak, lehen sektorea eta haurren eta gurasoen aisialdigunea. Lehenengo, lantalde bakoitzeko eragileak identifikatu zituzten, nor har zezakeen parte horietan; gero, eragile horiekin elkarrizketa-errondak egin zituzten, eta ondoren lan-saioak etorri ziren. Lantalde bakoitzetik hainbat ekimen sustatu zituzten, eta bakoitzaren ahaleginari esker, guztien artean Azokari bizitasun handiagoa eman zioten; besteak beste, honelakoak izan zituzten: domekako merkatu txikia, hileko lehen asteazkeneko baserriar-azokak, aisialdiaren inguruko mintegia...

2014ko maiatzetik aurrera, hileko lehen asteazkenetan baserriarren azoka bereziak egiten hasi ziren Oxirondon, eta baserriarrek oso pozik zeuden salmentekin, eta Azokara ordura arte inoiz joan ez zen jendea ere erakartzea lortu zuten. Proiektuak denbora gutxi zeraman martxan, sendotzeko gehiago beharko zuten, baina hasi zen pixkanaka fruituak ematen, eta Udala etorkizunean zer egin aztertzen ari zen. Izan ere, dinamika honek jarraitu beharra zeukan, ezin zuten izan epealdi jakin batekoa.

Goiko solairuan ludoteka jartzeak bizitasun handiagoa eman zion inguruari, ordituk umeen eta gurasoen joan-etorria etengabekoa izan baitzen. Aisialdi-taldeko saioetatik gurasoez eta hezitzaileez osatutako talde bat sortu zen, eta talde horrek hartu zuen bere gain aisialdi-gunearen kudeaketa.

Udalaren balorazioa oso positiboa izan zen, batez ere herritarren inplikazioa handia izan zelako. Bilera asko egin ziren, oso erritmo bizian.





## NERE ASPIAZU BASCARAN

Nekazaria  
26 urte

### Zergatik hartu zenuen parte prozesuan?

Barazki-ekoizlea naiz eta kontziente naiz azokak baserriarren eta bertako produktuen iraupenerako duen garrantziaz; bestalde, horrelako prozesuek kontsumo-eredu aproposagoa bultzatzen dutela kontuan hartuta, oso interesgarria iruditu zitzaidan bertan parte hartzea. Gainera, herritarren partaidetzaren bitartez aurrera eramango zela jakinda, are interesgarriagoa iruditu zitzaidan.

### Nola baloratzen duzu egindakoa?

Bilerak eta prozesu guztia oso aberasgarriak iruditu zaizkit, batez ere herriko baserriarrekin eta lehen sektorean interesa dutenekin batzeko aukera izan dugulako. Gainera, Azoka indartzeko beharra herrian nabarmen aditu da.

### Aurrera begira, zer ikasi duzu?

Taldean egindako gauzek, alde batetik, partaide bakoitza aberasten dute, eta iritzi desberdineko jendea batzeak proiektua bera ere aberasten du. Edozein proiektutan, zenbat eta partaidetza zabalagoa izan, orduan eta indartsuagoa izango da.



## ASIER LATORRE ARCE

Merkataria · 37 urte  
**Azokan jaki izoztuen  
postua dauka**

### Zergatik hartu zenuen parte prozesuan?

Azokako merkataria bezala, ezinbestekoa da niretzat Azokaren biziraupena eta biziberritzea. Nire negoziarako oinarrizkoa da. Bestalde, Azokak herriaren nortasunean balio handia dauka. Ez nuke nahi galtzea.

### Zer gustatu zitzaizun, bereziki?

Ekimena aurrera eramateko modua, bilera irekien bitartez, norbanakoen iritzi eta ideiak jasoz, asko gustatu zitzaidan. Batez ere bezeroek (edo bezero ez diren beste herritarrek) nola ikusten gaituzten jakiteko aukera.

### Aurrera begira, zer ikasi duzu?

Bezero eta bestelako herritarren ikuspegiaren garrantzia. Kontuan eduki behar dugu azkenean zerbitzu bat emateko gaudela, eta oinarrizkoa dela Azokako erabiltzaileen behar eta gustuak ezagutu eta horiei erantzun egokia ematea.

# OSINTXUKO KULTURARTEKO PLANA

## Noiz

2014ko martxotik uztaiera

## Parte-hartzaileak

17 lagun (8 emakumezko, 9 gizonetzko)

aniztasuna



**O**sintxu Bergarako auzo bat da, herrigunetik iparraldera, Soraluzerako bidean. 500 lagun inguru bizi dira bertan, eta auzoaren erdigunean frontoi bat, plaza bat eta elizatxo bat daude; inguruan, berriz, etxe eta lantegi ugari. Duela urte batzuk arte, baserri-giroko auzoa izan zen, baina azkenaldian badauka beste berezitasun nabarmen bat: Osintxun bizi diren herritarretatik % 20 pasatxo Espainiako Estatutik kanpo jaiotakoak dira (Bergarako herrigunean, proportzioa % 5koa da); Bergarara etortzen diren atzerritarretako askok Osintxu dute bizileku, alokairu-kostua herrigunean baino merkeagoa delako.

Azkenaldian, Osintxun, ikusi zen bazeudela hainbat elementu (aurreiritzi, diskurtso, mesfidantza...) bizikidetzaren egokirako aproposak ez zirenak. Horretaz arduraturik, Bergarako Udalak lan bat egin zuen, eta bertan agerian geratu ziren hainbat zailtasun: hirigintza aldetik, azkenaldian abandonatuta edo baztertuta egondako auzoa zen; haur ez-etorkinak auzotik kanpora joaten ziren haur-hezkuntzako eskolara eta etorkinak baino ez zebiltzan auzoko eskolan; ludoteka-zerbitzuan, berriz, bederatzi haur zebiltzan, eta guztiak ez-etorkinak ziren; bertako jendeak atzerritarrenganako jarrera ezkorra zeukan, bereizketa gero eta nabarmenagoa zen bertakoen eta kanpokoen artean...

Horren aurrean, Udalak ikusten zuen esku hartu ezean, zailtasunak areagotu egingo zirela, eta plan integral baten beharra antzeman zuen, bi norabidetan jarduteko: batetik, auzoaren degradazio estrukturalari aurre egiteko; bestetik, zailtasun soziologikoak gainditzeko eta bizikidetzaren hobetzeko.



Horrela sortu zen egitasmo hau, herritarrekin batera Osintxuko elkarbizitza sustatzeko planaren oinarriak adostu eta ezartzea helburu zuena. Auzoko elkarbizitzan eragin nahi zen, herriko eta herritarren aniztasuna aukera eta aberastasun gisa ulertuta.

Helburu nagusi horrekin batera, bestelako batzuk ere bete nahi izan zituzten: kohesio soziala lantzea eta bultzatzea, herriko eragileak eta herritarrak aniztasunaren inguruan sentsibilizatzea eta aniztasuna aukera gisa ulertzea, auzoaren eraikuntza kolektiboa bultzatzea, arazoak identifikatzeko eta lehenesteko gogoeta egitea, zailtasunei aurre egiteko plangintza bat zehaztea...

Proiektuan, bereziki zaindu nahi izan zuten parte-hartzaileen aniztasuna, eta proiektuan parte hartu behar zuten auzoko eragileek, norbanakoek eta Bergarako Udaleko hainbat arlotako ordezkariak. Baina ez zen guztiz bete; izan ere, auzoko eragile garrantzitsu batzuk kanpo geratu ziren eta emakumezkoen presentzia nahi baino txikiagoa izan zen.

Herriko pertsonen esperientzietan oinarrituta egin zuten lan. Beraien ikuspegi, bizipen eta gaiarekiko espektatibak kontuan hartu eta gogoeta kolektiboa egin zuten, besteen lekuan jartzea ahalbidetu eta aurrera begirako ildo komunak definitu eta adostu zituzten, elkarbizitza osasuntsua lortzeko aldaketarako giltza izateko. Hainbat batzarren bidez, Osintxuko elkarbizitza-planerako ildo nagusiak adostea lortu zuten, eta bi ildo identifikatu zituzten, nagusiki: topaguneak sortzea eta sentsibilizazioa lantzea. Hori guztia bideratzeko, taldetxo bat sortu zuten, eta 2014-2015erako kudeaketa-plana osatu zuten. Prozesuaren amaieran, 2014ko uztailan, egindakoa eta lortutako emaitza aurkeztu zuten Osintxuko herritarren eta komunikabideen aurrean.

Amaieran, Udalak prozesuaren balorazio positiboa egin zuen. Bertan jaitokoak eta beste jatorri batekoak elkarlanean aritu ziren, eta guztiek adierazi zuten oso aberasgarria izan zela.



# Elgeta



Azalera: 16,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.121, elgetarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Aralar-Independenteak** (4), Bildu (3)  
eta EAJ-PNV (2)

[www.elgeta.eus](http://www.elgeta.eus)



Parte-hartzearen ardura

**OXEL EROSTARBE TUBILLA**

(alkatea)





Herritarrak parte hartzen Elgetan:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Garapen iraunkorra eta Herri-galdeketa	<b>HONDAKINAK BILTZEKO SISTEMA ERAGINKORRENA ADOSTEA</b>	Udalean ordezkaturata zeuden alderdi politikoen adostasunetik abiatuta, hondakinak biltzeko sistema berria herri-galdeketa bidez erabakitzea eta sistema martxan jartzea.	Bozketan: 496 lagun (926tik)	2013ko martxotik 2014ko apirilera	✓

# HONDAKINAK BILTZEKO SISTEMA ERAGINKORRENA ADOSTEA

**Noiz**

2013ko martxotik 2014ko apirilera

**Parte-hartzaileak**

Udalaren izenean: alkatea eta teknikaria (1 emakumezko, 1 gizona)

Herritarrak, bozkatzen: 496 lagun

herri-galdeketa

garapen iraunkorra



**G**arapen iraunkorragoaren bidean, hondakinen kudeaketa egokiagoa mintzagai eta eztabaidagai izan da Gipuzkoako herri askotan: sistemarik eraginkorrena zein den, errauskailua eraikitzeko proiektua (bertan behera geratu zena)... Batzuetan eztabaida sanoa eta garbia izan da; beste batzuetan, berriz, sutsuagoa eta hondakinen kudeaketa ez beste arrazoi batzuk tartean zituena;

denetarik izan da eta herrialde osoan zehar, herri txiki nahiz handietan. Urte batzuk barru Europako araudia bete beharrak aldatetak egin beharra zekarren ezinbestean, hondakinak sailkatuta bildu beharra, araudiak 2020erako % 50 birziklatzea agintzen eta aurreikusten baitu (gaur egun, Gipuzkoan, gaikako bilketa % 35 ingurukoa da). Horregatik, Gipuzkoako herri guztietan hitz egin da hondakinez, baita Elgetan ere.



Elgetan, hondakinak biltzeko sistema eraginkorrena adosteko, abiapuntua Udaleko alderdi politikoak izan ziren. Lehenengo, alderdien arteko adostasun politikoa bilatu zen; gero, herritarrei informazioa eman zieten, eta herritarrekin batera sistema egokiena aukeratu zuten, bozketa bidez. Azkenik, sistema berria ezartzearekin batera, hondakin gutxiago sortzeko eta hobeto sailkatzeko neurriak jarri zituzten martxan.

Prozesuaren hasieran, Udaleko alderdi politikoek hainbat batzar egin zituzten; talde bakoitzak zenbait galderari erantzun zion, eta horietan oinarrituta, adostasun-puntuak identifikatuta, alkateak eta teknikariak txosten edo proposamen bat egin zuten, helburu nagusiekin eta horietara iristeko neurriekin. Testu horren gainean lanean jarraitu zuten alderdiek, eta behin-behineko testu adostua plenora eraman eta alderdi guztiek onartu zuten. Gero, testu hori herriko eragileei eta herritarrei aurkeztu zieten, eta bertan neurri zehatz batzuk ere proposatzen zirenez, horiek martxan jarri ziren. Funtsean, hauek izan ziren bilketa-sistema berriaren ezaugarriak: % 70-80ko sailkatutako bilketara heltzea, eta, horretarako, hondakinak

sailkatzeko ekarpen-guneak egokitzea herriko hainbat lekutan; segimendua egiteko, txipak irakurtzen zituzten edukiontzia eta ohiko edukiontzia erabiliko ziren.

Sistema adostu ondoren, Udalak Mankomunitateari helarazi zion proposamena, eta udalbatzaren erabakia berresteko, herri-kontsulta deitu zuen Udalak. Horrela, galdeketa 2014ko ekainaren 22an egin zuten, galdera soil eta garbi honekin: “Udaletxean adostu den hondakin bilketa-sistemarekin ados zaude?”. Bozketa egirik, emaitzak aldekoak izan ziren: 926 elgetarrek zuten botoa emateko aukera, eta horietatik 496ek eman zuten botoa; baiezko botoak 431 izan ziren (% 86,89) eta ezezkoak 61 (% 12,29). Azkenik, 2014ko abenduan jarri zen martxan elgetarrek hondakinak ondo kudeatzeko erabaki zuten sistema.

Beste leku batzuetan ez bezala, Elgetan hondakinak kudeatzeko sistemaren inguruko adostasun zabala lortu zen.



# Eskoriatza



Azalera: 40,4 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 4.090, eskoriatzarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (6), Elizateak (2), EAJ-PNV (1),  
PSE-EE (1) eta Ezker Anitza (1)



Parte-hartzearen ardura  
**IGOR EZPELETA OREGI**  
(zinegotzia)

[www.eskoriatza.eus](http://www.eskoriatza.eus)





Herritarrak parte hartzen Eskoriatzan:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Auzolana	Atxorrotzeko auzolana	Atxorrotzeko zenbait lan (ermitako paretak margotu eta kanpoaldeko harria txukundu) egiteko auzolana deitu zuten.	15 lagun (5 ♀, 10 ♂)	2013ko maiatzetik irailera	✓
Sozioekonomia	Eskohitza 2013: krisiaren aurrean, zer proposatzen duzu?	Udalak 2014ko aurrekontuetan 10.000 € gorde zituen krisiari aurre egiteko. Iritziak, ideiak eta proposamenak ezagutzeko bi bilera egin zituzten.	19 lagun (11 ♀, 8 ♂)	2013ko urritik abendura	✓
Tokiko plana / plan estrategikoa	<b>ESKOHITZA 2014. DENONA DELAKO</b>	2015eko aurrekontuari eta Udaleko gizarte-politikari buruzko erabakiak hartzerakoan herritarren iritziak eta ekarpenak jasotzeko.	65 lagun (37 ♀, 28 ♂) Gazteak: 24 gazte (12-16 urtekoak)	2014ko urritik abendura	✓
Kultura	Gaztelu Jaia	V. indusketen kanpainari amaiera biribila emateko, jai berezia antolatu zuten.	Ehunka lagun	2013ko irailean	✓
Kultura	Herritarrak epaimahaikide	Herrian antolatzen diren lehiaketetan herritarrek irabazleak hautatzeko aukera izateko, Internet bidez edo postontzietan botoa emanda.	3 lehiaketatan, 1.082 lagun	2013an zehar	✓
Komunikazioa	Komunikazio-ekintzak	Informazioa herritarrei eskuragarriago jartzea, hainbat bitartekoren bidez.	Herri osoa	2013an zehar	✓
Mugikortasuna	<b>OINEZKOAK LEHENENGO!</b>	Eskoriatzako mugikortasuna hobetzea, herritarrekin batera elkarlanean.	70 lagun inguru (% 50 ♀, % 50 ♂)	2013ko azarotik 2014ko irailera	✓



Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Hirigintza	Santa Mariñe plaza estaltzeko proiektua	Herritarrek gun e estali bat eskatzen zuten, eta herri erdian dagoen Santa Mariñe plaza nola eta zertarako estali zehazteko proiektu hau jarri zen martxan.	15 lagun (8 ♀, 7 ♂)	2014ko ekainetik aurrera	...
Hirigintza	Torrebasoko haur-parkea	Haurrek diseinatzea Torrebaso zuhaitz-parkearen bigarren fasea.	6 heldu (4 ♀, 2 ♂) 25 haur (15 ♀, 10 ♂)	2013ko azaroan	✓
Araudiak	Udal-bide publikoei buruzko ordenantza	Bide publikoen erabilera arautzeko ordenantza bat izatea. Bideen egoera ona bermatzea eta horien izaera publikoa gordetzea. Azkenean denen artean erabaki zuten ordenantza atzera botatzea eta ez aplikatzea.	85 lagun (gehienak gizonetzkoak)	2013an zehar	✓
Kultura	Zaldibar antzokia kudeatzeko proiektua	Zaldibar antzokiko funtzionamendua eta kudeaketa partaidetza bidezkoa izatea, kultur taldeek eta norbanakoek hitza eta botoa izatea.	8 lagun (5 ♀, 3 ♂)	2013ko abendutik aurrera	...

# ESKOHITZA 2014. DENONA DELAKO

## Noiz

2014ko urritik abendura

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean: 7 hautetsi eta 16 udal-langile (12 emakumezko, 11 gizonetzko)

Herritarrek: 65 lagun (37 emakumezko, 28 gizonetzko)

Eskohitza Gaztea: 24 gazte (12-16 urtekoak)

tokiko plana /  
plan estrategikoa



**L**augarren urtez jarraian, Eskohitza izan zen Eskoriatzan. Saio nagusia azaroaren 8an izan zen, kiroldegian, hiru urte lehenago egin zen bezala, eta 2014an bi helburu bete nahi izan zituzten: batetik, aurreko urteetako eskaerak zertan edo nola ziren azaltzea; eta, bestetik, hurrengo hiru urteetarako eskoriatzarren ekarpenak eta proposamenak jasotzea.

Kafea edan eta pastak jateko aitzakian, herritar ugari elkartu ziren, hiru orduko bileran. Hasteko, ebaluatu egin zuten orain arte egindakoa, bere garaian herritarrek proposatutako hartatik zer egin zen eta zer ez, eta egin ez ziren horiek zergatik geratu ziren egin gabe. Horretarako, hasteko, Udalak hiru urte hauetan egindako hainbat proiektu 1etik 10era baloratu zituzten herritarrek; ondoren, egin ziren arren, ondo egin ez edo hobetu zitezkeen proiektuak jarri ziren mahai gainean, eta denen artean sailkatu egin zituzten, zein ziren oso garrantzitsuak, zein garrantzi ertainekoak eta zein ez hain garrantzitsuak. Bukatzeko, bakoitzak aukera izan zuen nahi zituen beste batzuk aipatzeko.

Horretaz gain, beste lau proiekturi buruzko herritarren iritzia jaso nahi zuen Udalak, eta, horretarako, horiei buruzko informazioa jarri eta bakoitzaren ondoan kutxa bat ipini zen, herritarren iritzia biltzeko.

Beste berrikuntza bat ere izan zen 2014an: Eskohitza gaztea, gazteek Eskoriatza nola ikusten zuten jakiteko eta iritzia jasotzeko. Azaroaren 16an gazte ugari elkartu ziren Gaztelekuan, eta hainbat gai izan zituzten mintzagai: hirigintza, kirola, aisialdia, jaia, Gaztelekua...

Eskohitzaren ondoren erakusketa bat antolatu zen kultur etxean, eta bertan jarri ziren azaroaren 8ko bilerarako egindako panelak eta herritarren iritzia eskatzeko proiektuak. Orri bat banatu zen etxeetara herritarrek beraien ekarpenak egin zituzten.





Udalaren ikuspuntutik, egokiak izan ziren bai ekitaldiaren antolaketa eta horren berri emateko lanak: aldizkari bat banatu zen herriko etxeetan, mezu elektronikoak bidali zizkieten herritarrei, kartelak egin eta jarri zituzten, gonbidapenak banatu, jakin-mina pizteko "teaser" edo moskeo-bideo bat grabatu zen webgunean jartzeko eta sare sozialetan (facebook/twitter) ere zabaldu zen...

Udalaren ustez, ekitaldiko metodologia eta egitaraua egokiak izan ziren. Kiroldegia txukun eta erakargarri zegoen, baliabide guztiekin ondo prestatuta. Alkatearen aurkezpena egokia izan

zen, edukiaren eta iraupenaren aldetik. Talde-lanak oso ondo funtzionatu zuen eta herritarrek ekarpen asko egin zituzten. Oro har, jardunaldiaren balorazio positiboa egin zuen Udalak, eta herritarren parte-hartzea, kalitatearen aldetik, oso aberasgarria izan zen. Kantitatearen aldetik, ordea, espero baino jende gutxiago elkartu zen, eta hurrengo edizioetarako erronka nagusia hortxe jarri zuten, jende gehiago eta anitzagoa erakartzea: 20-30 urte artekoak, etorkinak, gaztelaniaz egiten duen jendea...



## ARANTXA MIGUEL MARTÍNEZ

Langile makinista  
45 urte

**"P**arte hartzea oso ariketa interesgarria iruditzen zait. Beti kexu gara ez gaituztelako entzuten, eta konprometitu egin behar dugu. Nik hemen egon nahi izan dut, eta parte hartu.

Denok bistaz ezagutzen dugu elkar, eta hau aukera ona da begietara begiratzeko eta elkarrekin jarduteko. Bakoitzak bere egunerokoa dakar hona, gehien ukitzen dien arazoak, eta konturatzten gara gutariko bakoitza mundu bat dela; herri txikia izan arren, errealitate desberdinak bizi ditugu, eta oso deigarria da zer nolako gogoia daukan jendeak konponbideak emateko. Udalak ere aukera hau eman izana oso ondo baloratzen dut. Jendea kexatu egiten da, eta honelako aukerak ematen direnean, etorri egin beharko litzateke, ekarpen ugari egin daitezkeelako, eta denok garelako beharrezko herria hobetzeko.

Entzun dut Eskohitza egin behar dela gazteentzat, eta ondo iruditzen zait, beraien eztabaidetatik eta iritzietatik gauza interesgarriak irtengo direlako, kontuan izatekoak //



## ALBERTO LETONA VITERI

Muntatzailea  
54 urte

**"N**ik parte hartu dut inportantea delako gauzak lortzeko. Etorri eta norberak pentsatzen dituen gauzak esan egin behar ditu, herrian zer falta diren-eta.

Aurreko urtean esandakoei buruz hitz egin dugu, eta gauza asko egin direla baloratu dugu. Aparkalekua herrirako bentaja handia izan da, Zaldibar antzokia, autobus-zerbitzua...

Nik oso gustura hartu dut parte. Hemen bakoitzak bere iritzia ematen du.

Aurrera begira? Ni Maringoia naiz, auzo batekoa, eta inbertsioetarako diru gehiago ailegatzea eskatzen dugu. Eta herri-mailan, autobus zerbitzua hobetzea, pelikulak jartzea Zaldibar antzokian... //



# OINEZKOAK LEHENENGO!

## Noiz

2013ko azarotik 2014ko irailera

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 8 lagun: alkatea, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia, Udaltzaingoa Zerbitzuko zinegotzia, udaltzainak, Obra eta Zerbitzuetako teknikaria, Komunikazio eta Ingurumen zinegotzia eta teknikariak (3 emakumezko, 5 gizonezko)

Herritarrak: 70 lagun inguru (% 50 emakumezkoak, % 50 gizonezkoak)



mugikortasuna

Ikusirik gabe, ibilgailuak ugaritzearekin batera, oinezkoek herrietan batetik bestera mugitzeko dituzten arazoak areagotu egin zaizkigu: gaizki aparkatutako autoek oinezkoen joan-etorria oztopatzen dute; abiadura handiegian dabiltzan ibilgailuek jendea harrapatzeko arriskua sortzen dute; kutsadura eta zarata... Oinezkoen espazioa galdu dugu, eta ibilgailuek irabazi.

Eskoriatzan ere lehenetsia eman nahi izan zuten oinezkoek, batez ere herrigunean. Proiektu estrategikotzat jo zuten, eta Eskoriatza 2013n hainbat jarduera barne hartzen zituen: biribilgune berria egitea eta trafikoko mugimendua aldatzea, autobus-geltokia lekuz aldatzea, aparkaleku berriak egitea eta zeudenak ondo jartzea, plazaren inguruaren zati bat oinezkoentzat izatea eta oinezkoen mugikortasuna bermatzeko obra gehigarriak egitea, ibilgailuen abiadura murrizteko lanak... Horiekin batera, kanpainak ere aurreikusita zeuden oinezkoen mugikortasuna lehenesteko eta ondo aparkatzeko.

Proiektuaren dimentsioengatik eta herritarren egunerokoan zuen eraginagatik, behar-beharrezkoa zen alternatibak herritarrei azaltzea, ekarpenak jasotzea eta beraiekin hainbat aspektu lantzea eta erabakitzea (ordutegiak, trafiko-aldaketak eta abar). Horretarako, bilerak egin zituzten herritarrek iritzia emateko eta ekarpenak egiteko, eta komunikazio-lan berezia egin zuten.

Herritarrekin bilerak egin eta landu ondoren, Udalak garbiago zeuzkan etorkizunean egin beharrekoak. Horrela, lehenetsi zuten plazaren inguruko trafikoa noranzko bakarrekoa izatea, oinezkoentzako ordutegia finkatu zen, herritarren zalantzak argitu egin ziren... Azkenik, Udalak aurreikusitako hobekuntzak ere azaldu ziren bilerotan: espaloi bat luzatzea, abiadura murrizteko oztopoak jartzea, errota bidezko aparkalekuak eta abar.

Proiektua atzeratu egin zen, baina halako batean amaitu zen. Behin inbertsio handienak eginda, trafikoa aldatzeko, abiadura murrizteko eta aparkalekuak jartzeko lan txikiak egin behar

zirenean, 3 bilera deitu zituzten, eta bertan proposamen zehatza azaldu zuten udal-ordezkariek, mapa baten gainean lanak eta aparkalekuak proposatu zituzten. Bileretan ekarpen eta ideiak jaso zituzten, eta aztertu ondoren, egingarriak zirenak egin zituzten. Behin lanak amaituta, proiektua bukatutzat eman zuten, eta hilabete batzuk geroago balorazio orokorra egin zuten oinezkoen mugikortasuna hobetu ote zen jakiteko, gaizki aparkatzearen arazoa konpondu ote zen aztertzeko eta abar.

Proiektuaren balorazioari dagokionez, Udalarena oso positiboa izan zen, helburuak bete zirelako, ideia eta ekarpen asko jaso zirelako (gehienak egingarriak) eta hainbat erabaki hartu zirelako. Herritarrek ere ondo baloratu zuten, ekarpen eta ideia ugari emateko aukera izan zutelako bileretan, eta gehientsuenak kontuan hartu zirelako. Hurrengo prozesuetarako kontuan hartzekoetan, berriz, Udalak hau nabarmendu zuen: bileren hasieran, Udalaren izenean joandako pertsona guztiak aurkeztu behar zirela, baita hitza eman ere, bileraren eta aurkezpenaren parte zirela adierazi; bestela, alkateak protagonismo handiegia hartzen zuelako.



# Oñati



Azalera: 108,2 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 11.282, oñatiarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (11) eta EAJ-PNV (6)



Parte-hartzearen ardura  
**NEREA ZUBIA BLAZQUEZ**  
(zinegotzia)

[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)



Herritarrak parte hartzen Oñatin:

Atorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Herritarrek harremanak	<b>AUZOTASUNA PROGRAMA</b>	Landa-eremuetako auzoei bideratuta, horietako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko eta auzotarren arteko harremanak sustatzeko.	16 auzo-alkate (1 ♀, 15 ♂)	2013tik aurrera	...
Kultura	<b>ELTZIA, HERRI-SORMENAREN ETXEA</b>	ETEO unibertsitate zaharra zertarako eta nola erabiliko den erabakitzeke prozesua.	35 eragile, 16 udal-sail, guztira 200 lagun inguru	2013ko ekainetik aurrera	...
Berdintasuna eta Hirigintza	Emakumea eta Hirigintza	Oñati emakumeen begiradatik aztertu nahi izan zuten, emakumeen eta herritar guztien ongizatea hobetzeko.	Batez beste 12 lagun bilerako (denak emakumezkoak)	2014ko otsailetik ekainera	✓
Bizikidetza	Gazte-lokalak	Gazte-lokalen gaiari erantzun orokorra emateko, eragindako guztien eskakizun eta beharrak asetzeko.	...	2015eko urtarriletik aurrera	...
Haurrak/gazteak/ adinekoak	Gazteria Plana	Oñatiko gazteriarri zuzendutako zeharkako plana, arloz arlo helburu zehatzagoak izango zituen.	120 lagun inguru	2014an zehar	...
Kirolak	Kirol Plana	Oñatiko jarduera fisikoaren eta kirolaren plana egitea, herriko hainbat kolektiborekin eta kirol-eragile aktiboekin lankidetzan.	30 lagun (4 ♀, 26 ♂)	2014ko apiriletik 2015eko martxora	...
Mugikortasuna	Mugikortasun Plana	Oñatiko mugikortasun iraunkorrerako plana osatzeko proiektua.	35 lagun	2013ko irailetik abendura	✓



# AUZOTASUNA PROGRAMA

Noiz  
2013tik aurrera

Parte-hartzaileak  
16 auzo-alkateak (1 emakumezko, 15 gizonetzko)

herritarrekin  
harremanak



Oñati Gipuzkoako udalerririk handiena da hedaduraren aldetik, 108 km<sup>2</sup> inguru baitauzka. Hainbesteko lurretan, landa-auzo ugari dauzka, hamasei, horietako batzuk herrigune nagusitik urrun samar; landa-auzo gehienak baserrigune txikiak dira, 100 biztanletik beherakoak, eta horien nahi eta beharrei erantzuteko sortu zuen Udalak “Auzotasuna” izeneko programa, 2013an, landa-auzoetako bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko eta auzotarren arteko harremanak sustatzeko.

Programa horren barruan, auzoetako batzordeek kreditu-lerro bat zuten eurek lehentasunezkoztat jotzen zituzten gastuak finantzatzeko, betiere auzotar guztientzako erabilgarri izango ziren gastu edo inbertsioetarako baldin baziren. Kontzeptu finantzarriak ziren, esaterako, auzotarrak biltzeko lokala eraberritzeko lanak, jaietako gastuak, hitzaldiak, auzotar guztiek erabiltzeko materiala... Irizpide horiek auzotarrekin eurekin landu zituzten. Besteak beste, diru-partida horrekin ondorengoak egin zituzten auzoetan: Araotzen, pilotalekuan sarea eta fokuak jarri, plazan apurtuta zeuden galtzada-harriak konpondu eta festak antolatu; Olabarrietan, berriz, bide bat zabaldu eta itxitura bat jarri, eta festetan karpa handi bat jarri, ia urteroko euriari aurre egiteko; Garagaltza auzoan galtzada

zahar bat berreskuratu zuten; Larraña auzoan Lahari izeneko auzo-elkartea sortzeko erabili zuten diruaren zati bat, eta beste bat sagardoaren gaineko jardunaldia egiteko...

2013an, programa horren partida orokorra 100.000 eurokoa izan zen, 16 auzoen artean banatzeko, biztanle- eta baserri-kopurua ponderatuta. 2014an ere diru-partida bat gorde zuten, 150.000 eurokoa.

Auzoetako bizi-baldintzak hobetzeaz gain, auzotarren arteko harremanak sustatzea ere bazen programaren helburua. Horretarako, Auzo Alkateen Foroa jarri zuten martxan, 2012an. Horrela, bi hilean behin, auzo-ordezkariek udal-ordezkariekin biltzen dira, auzo bakoitzaren berri zuzenean eman eta besteena jasotzeko, auzoetako errealitatea lehen eskutik ezagutzeko.

Programa positiboki baloratu zuten: lana erraztu egin zitzaizen guztiei (Udalari eta auzotarrei), ez zegoelako zertan eskean joan beti, eta diru-kopuru bat bazegoelako auzoetako gastuetarako; auzo-alkateek zioten beste lasaitasun batekin aritzen zirela, beraien esku zegoelako gauza batzuk gauzatzea, eta bazekitelako inork ez ziela eskaera atzera botako.





## JAVIER ARREGI

Erretiroaduna · 61 urte

## ANA MAIZTEGI

Ostalaria · 41 urte

**Arantzazuko egungo auzo-alkatea eta auzo-alkate ohia**



## AITOR LIZARRALDE AIAUSTUI

Unibertsitateko irakaslea  
37 urte

**Olabartako auzo-alkatea**

**"G**uretzat espazio honen sorrera oso aberasgarria izan da. Lehen, ez zegoen harremanik auzoen artean, eta, ondorioz, ez geneukan elkarren berri. Orain, maiztasun jakin batekin elkartzen gara eta herriko auzoen erradiografia osatua izaten lagundu digu, lehentasunak hemendik abiatuta jartzeko. Lehen joera genuen bakoitzak bere auzoko beharrak defenditzeko eta orain objektiboago baloratzen eta lehenesten ditugu beharrianak.

Bestalde, iruditzen zaigu, hau martxan denetik, auzoari kasu gehiago ere egiten zaiola lehen baino, auzotarrak gehiagotan biltzea derrigortzen duen heinean, komunitate-izaera hori indartzen ere lagundu digu. Beraz, auzotasun-espirtua handitu egin da, baita auzotarren inplikazioa ere.

Aipagarria iruditzen zaigu, baita ere, esleitzen zaigun diru-kopurua zertan inbertitu pentsatzeko ematen zaigun autonomia, eta, baita ere, diru-kontuei dagokienez, erakusten zaigun gardentasuna. Urte hasieran esaten zaigu zenbateko diru-partida egokitzen zaigun eta guk markatutako irizpideen arabera hori gatzatzeko askatasuna daukagu.

Eta hobetzeko kontuak aipatzekotan, esango genuke Administrazioaren prozedura konplexuen ondorioz, askotan, gure erritmoa moteldu egiten dela //

**"A**uzoetan bizi garenontzat aurrerapauso itzela izan da Auzo Alkateen Foroa eta Auzotasuna Programa martxan jarri izana.

Egitasmo hauek martxan jarri aurretik, auzo bakoitzeko hobekuntza-eskarien zerrenda bidaltzen zen udaletxera eta irizpide jakin barik erantzuten zitzaien eskaerei. Orain ere auzo bakoitzak bere eskariak prestatzen ditu, baina Auzo Alkateen Foroan eztabaidatzen dira eta lehentasunen arabera erabakitzen da zer lan egin. Orain, badakigu aurrekontua mugatua dela eta ezinezkoa dela guztiari aurre egitea; beraz, irizpide objektibo batzuk markatu eta lan hori elkarrekin egitera bultzatzen gaitu. Geu ere erabakiaren parte gara. Herriko auzo guztien ikuspegia ezagutzen laguntzen du.

Bestalde, Auzotasuna programak auzo bakoitzari autonomia ematen dio beharrezko ikusten dituen proiektu txikiak aurrera eramateko. Bide batez auzotarrek parte hartzea ere eskatzen du eta bi norabidetan, gainera. Batetik, egin beharreko lan edo proiektuak auzotar guztien gomendioak kontuan hartuta egiten direlako eta, bestetik, esleitzen zaigun diru-kopurua hobeto kudeatu eta aprobetxatzeko asmoz, lanak auzolanean egiten ditugulako, horrek duen balio erantsiarekin //

# ELTZIA, HERRI-SORMENAREN ETXEA



## Noiz

2013ko ekainetik aurrera

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean: 24 lagun (12 emakumezko, 12 gizonezko), sail edo eremu hauetakoak: Kultura, Euskara, Gazteria, Gizarte Zerbitzuak, Zerbitzuak, Hirigintza, Ogasuna, Idazkaritza, Berdintasuna, Prebentzioa, Administrazio Orokorra, Kirola, Turismoa, Udaltzaingoa, Kultur Etxea, Gaztelekua, Natur Eskola, Artxiboa, Oñati Irratia, *Kontzejupetik*

Herritarren izenean: 200 lagun inguru

kultura



**E**TEO eraikina San Lorenzo auzoan dago. 1960an jarri zen martxan, administrazio eta enpresako ikasketetara bideratuta, eta ohiko hezkuntza-ikastetxeaz gain, 90eko hamarkadan IVAPen euskara-barnetegia ere egon zen bertan. 2010ean, Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza fakultatea Ibarra auzora eraman zutenean, hutsik geratu zen eraikin zaharra, 6.000 m<sup>2</sup> guztira, lau solairutan banatuta, Udalaren jabetzakoa.

2013. urtean, herriko hainbat elkarte eta norbanakok ekimen batzuk gauzatzeko eskaria egin zioten Udalari, baina Udalak uste zuen osotasunean erantzun behar zitzaizola espazio horri, eta komunitatea bere buruaren jabe izateko urrats bat gehiago emateko aukera ikusten zen. Udal Gobernuak kanpoko aholkularitza batekin harremanetan jarri zen, elkarlanean egitasmo honi ekiteko eta kultura-, gizarte- eta sormen-proiektu komunitario hau garatzeko.

Herrigintzako proiektu bezala planteatu zuten, eta hasieratik argi zeukaten edonork izan behar zuela aukera parte hartzeko, horretarako kanalak ireki behar zituztela, eta Udala





beste eragile baten moduan kokatu zen. Eraikina (edukitzaila) udalaren jabetzakoa zen, baina barruan gertatuko zenaren (edukiaren) erantzule erabiltzaile guztiak izango ziren.

Egitasmoa honako kontzeptu hauetan oinarritu zen: kultura, sormena, elkarlana eta komunitatea. Helburuei dagokienez, hauek ezarri zituzten: komunitatearen garapen autoeratu sustatzea; sormenerako eta arte espresiorako esperimentazio-gunea diseinatzea; eta sormen-, gizarte- eta kultura-arloko proiektu komunitarioa sustatzea.

Proiektua abian jarri zenetik, 2 fase izan zituen: lehena, gizarteratzea eta herriko erradiografia/diagnostikoa egitea; bigarrena, definizioa, proiektuaren oinarriak finkatzea.

Lehen fasean, herriko eragile eta sortzaile norbanakoak identifikatu zituzten, eremu guztietakoak (kultura-, gizarte- nahiz sormen-esparruetakoak), eta, horren ondoren, eragile horiekin guztiekin elkarrizketatu ziren. Informazioa jaso eta gero,

taldekako lan-saioak antolatu zituzten, errealitatearen inguruko diagnostikoa egiteko; hori egin bitartean, espazioak auzolanean atondu eta interesatuei aukera eman zieten espazio erabiltzen hasteko, horrek elkarbizitza zer zen esperimentatzen hasteko aukera zabaltzen zuela sinetsita.

Bigarren fasean, definiziokoan, herriko eragileak eta sortzaile norbanakoak eltzeez ezberdinetan antolatu ziren, euren azaeraren arabera bereizita. Horrela antolatuta, Eltzia proiektua definitu zen. Guztira 5 eltzeez izendatu ziren: Musika Eltzia, Gorputz Eltzia, Herri Mugimenduen Eltzia, Sormen Eltzia eta Auzo Eltzia. Fase honetan, 2 galderari erantzuteko saiakera egin zuten, hasieran eltzeka banatuta eta ondoren, bateratze-saioetan: “Zer?”, hau da, zer-nolako espazioak egon beharko ziren proiektu honen barruan, espazioaren ezaugarrien definizioa eta deskribapena (metro koadroak, behar materialak...); eta “Nola?”, hau da, zer nolako kudeaketa eredia izan beharko zuen proiektu honek, zein izango ziren eltzekideen ardura eta erantzukizunak, koordinatzeko egiturak, komunikazio-sarea... Horrela, zehaztu egin zuten kudeaketa-eredua (“eredu partekatuan oinarritua, kudeaketa soziala duen eraikin publikoa”), hauek bereizita: Eltzia (egitasmoan elkarrekin bizi diren eragile eta norbanakoak, elkarbizitzarako egitura), Oñatiko Udala (erakunde publikoa, ordezkartza politiko nahiz teknikoa) eta Eltzia Koordinazio Taldea (bi eragileen elkarlan-eremua, proiektua zaintzeko eta oinarriak errespetarazteko). Proiektua oinarri nagusi hauen gainean eraikitzen hasi ziren: komunitate-garapena, elkartasuna, elkarlana, autoeraketa, partaidetzakoa, subjektu izatea, sostengarria, saregilea, jakintza librea, osagarria, ikasketa-prozesua, irisgarritasuna eta berdintasun-eskubidea, irabazi asmorik gabekoa, justizia soziala, kudeaketa partekatua...

Proiektua hasi besterik ez zen egin, eta jarraitzeko eta sendotzeko asmoa zeukaten.





**JOSU  
ZUBIA  
MARKULETA**

Ikaslea · 20 urte  
**Antzerkigintza**



**HIART  
ARRUE  
IGARTUA**

Tailerreko langilea · 37 urte  
**Txantxiki Famili Elkarte**

**"G**uk bagenuen espazio behar bat, eta, hala, eskaera egin genuen udaletxean. Handik denbora batera, Eltzia proiektuan parte hartzeko proposamena egin ziguten, eta erabaki genuen parte hartzea, nahiz eta hasieran zertan murgiltzen ari ginen oso argi ez izan.

Proiektu honek badu berezitasun bat. Kudeaketa- eta erabilera-eredua definitu aurretik, espazioaren erabiltzaile izaten hasi ginela, horrek dakartzan zailtasunekin. Bide horretan, gainera, Erabiltzaileen Koordinazio Taldea sortu zen eta bertako kide izatea ere egokitu zitzaigun. Hau da, egitura formala zeukan idatzi gabeko (baina idaztear eta idazten ari ginen) proiektu bateko kide eta horren espazioaren erabiltzaile izaten hasi ginen. Erabili bitartean, espazio horren kudeaketa eta erabilera moduak eztabaidatzen genituen etorkizuneko erabiltzaile izango ginenok/garenok. Bi prozesu paraleloan, nolabait esateko.

Bestalde, proiektutik gehien gustatu zaidana izan da eragileei, taldeei... finean, herritarrei parte hartzeko eman zaizkien aukerak. Hobetzeko gauza asko (gauza txiki asko) ikusi ditut, baina halako dimentsioa hartzen duen proiektu bat ikasketa-prozesu baten gisara ulertu behar dugu. Hori diot guk ere bertan ikasteko aukera dezente izan dugulako, bai talde bezala, baita Erabiltzaileen Koordinazio Taldeko partaide gisa ere //

**"E**ltzia proiektua aukera paregabea iruditu zitzaidan eskuartean geneukan proiektua aurrera eramateko: Txantxiki Famili Elkarte. Autokudeaketa eta parte-hartzea oso garrantzitsuak dira gure elkartearen barruan ere. Balorazioa oso positiboa da, nik inoiz ez dut parte hartu izan herri-mailan antolatutako ezertan eta Eltzian egotea esperientzia polita izaten ari da. Entzuna eta kontuan hartua sentitzen naiz, eta dena eginda eskatu baino, honek kide guztion inplikazioa eskatzen du.

Hobetzekoetan, Administrazioaren abiadura motela jarriko nuke, hau da, tramite gehiegi eta denbora luzeegia erabaki bat hartzeko. Eltzian egoteak Administrazioaren funtzionamenduz asko erakutsi dit.

Txantxiki Famili Elkarte seguruenek ezingo zen gauzatu Eltzia proiektuaren barruan ez bageunde.

Ea guztion artean proiektu eder hau aurrera eramaten dugun eta urte askotarako! //

# donostia



## Biztanleak

185.054 (gipuzkoarren % 25,88)

## Azalera

51,35 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 2,58)



# d

onostia da Gipuzkoako hiriburu eta udalerrri nagusia.

Urumea ibaiaren bokalean dago, Mendizorrotz, Urgull eta Ulia mendien artean. Hego-mendebaldean, Zubieta herriaren zati bat ere bere mende dago administratiboki, eta mendebaldean Igeldo herria; ekialdean, Landarbaso eta hegoalderago Urdaburu mendi-barrutiak ere Donostia udalerrriaren eremuan daude.

Hauek ditu mugakide: iparraldean, Kantauri itsasoa; ekialdean, Oarsoaldea; hegoaldean, Buruntzaldea; eta, mendebaldean, Urola Kosta.

Donostiak Urgull mendiaren oinetan du bere guneha zaharrena, Parte Zaharra izenekoa. XIX. mendearen bukaeran, gunehori ixten zuten harresiak eraitsi eta hiri hegoalderantz zabaltzen hasi zen pixkanaka. Horrela, erdialdeko zabalgunea osatu zen lehenik, eta geroago Gros eta Amara auzoak. Gaur egun, Donostia hurrengo auzo hauek osatzen dute: Amara Berri-Loiolako Erriberak, Amara, Zentroa, Parte Zaharra, Altza, Añorga, Ibaeta, Antigua, Aiete-Miramón, Zubieta, Egia, Gros, Ulia, Bidebieta, Intxaurren, Loiola, Txominenea eta Martutene.

XIX. mendearen amaieratik, turismoa izan da hiriaren euskarri ekonomiko nagusietako bat, hiri polita izateaz gain, urbanismoaren aldetik nahikoa orekatuta dagoelako eta naturaren aldetik ikuspegi ederrak dituelako. Merkataritzak eta bestelako zerbitzuek ere jendetza handia erakartzen dute probintziako herrietatik hiriburura. Halaber, zentro administratibo

garrantzitsua da: Gipuzkoako erakundeek eta Euskal Autonomi Erkidegoko zenbait organok Donostian dute egoitza.

Unibertsitateek pisu handia dute hiriaren bizimoduan, hiru unibertsitate-campus kokatzen baitira bertan, eta ikerkuntzaren arloan garrantzizko erreferentzia da.

Donostia puntu garrantzitsua da Europako errepide-sarean. Iparretik hegoaldera, E-05 errepidea (Glasgow-Paris-Algeciras), eta mendebaldetik ekialdera, E-70 (Coruña-Bordele) eta E-80 (Lisboa-Burgos-Pabe) errepideak Donostiatik igarotzen dira. Ibilbide horietan, Irundik etorrira, A-8 autobidetik sar daiteke Donostiara, eta Bilbotik etorrira autobide beretik. Madril-Gasteiztik etorrira, berriz, N-1 errepidetik egiten da sarrera. Donostiaren inguruan, errepide-gerriko edo -sare trinkoa dago. Gipuzkoa mendebaldeko kostaldeko herrietatik Donostiara etortzeko, azkenik, N-634 errepidea erabiltzen da.


Autobus-zerbitzuari dagokionez, hiri barruko zerbitzu zabala dauka Donostiak, Donostiako tranbia-konpainiaren bidez, baita Gipuzkoa osorakoa (Lurraldebus) eta herrialdetik kanporakoa ere.

Trenbideari dagokionez, Iparraldeko geltokian Espainiarako eta aldiriko trenak har daitezke, eta EuskoTren konpainiak Hendaiarako (*topoa*) eta Bilborako bidaiak eskaintzen ditu Easo plazako geltokitik.

Hegazkinez, Hondarribiko aireportua dago hiritik gertuen, baina hegaldi nahikoa mugatuak eskaintzen ditu, pista txikia daukalako.

Hiri txikia da Donostia, oinez erraz eta eroso zeharka daitekeena, oinezkoentzako kale eta ibilbideei esker ■

# Donostia



Azalera: 51,35 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 185.054, donostiarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (8), PSE-EE (7), PP (6)  
eta EAJ-PNV (6)

Parte-hartzearen ardura

**AXIER JAKA GOIKOETXEA**  
(zinegotzia)

**AMAIA AGIRREOLEA GOMEZ**  
(teknikaria)



[www.donostia.eus](http://www.donostia.eus)





**Herritarrak parte hartzen Donostian:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Herritarrekin harremanak eta Partaidetzako aurrekontuak	Auzo eta herriak Donostia indartzen	2012ko ekimenak segida izan zuen 2014ko martxotik aurrera, auzo eta herri bakoitzean: 2012ko proposamenak zertan ziren azaldu, auzo eta herri bakoitzeko egoera aztertu eta proposamenak zehaztu, Udalean horiek aztertu eta landu eta, azkenik, erantzun publikoa eman (2015eko udal-aurrekontuetan sartuta).	Oraindik amaitu gabe: 54 batzar, 213 ekarpen, 1.050 lagun	2014ko martxotik aurrera	...
Parte hartzeko sistema eta Araudiak	<b>DEMOKRAZIA ZUZENAREN ARAUDIA</b>	Donostiarrek erabaki politikoak zuzenean nola hartuko zituzten arautzeko prozesua.	Jardunaldian: 150 lagun Gizarte-eztabaidan: 57 lagun (24 ♀, 23 ♂) Gizarte Kontrasteko Taldean: 15 lagun Alderdietako ordezkariak (PP, PSE, BILDU eta EAJ): 5 lagun	2013ko urritik aurrera	...
Haurrak/gazteak /adinekoak	<b>DONOSTIA LAGUNKOIA</b>	Adineko jendearekin batera, hiri-plan lagunkoia eraikitzeko partaidetzako prozesua.	3 tailerretan, 40 lagun (25 ♀, 15 ♂) Tailer irekian, 110 lagun (62 ♀, 48 ♂)	2013ko apiriletik aurrera	...
Aniztasuna	Jatorri-aniztasuna eta elkarbizitza Donostian	Jatorri-aniztasunaren eta elkarbizitzaren diagnostikoa aurkeztea eta eztabaidatzea bost auzotan.	35 lagun (21 ♀, 14 ♂)	2013ko urrian	✓

# DEMOKRAZIA ZUZENAREN ARAUDIA

## Noiz

2013ko urritik aurrera

## Parte-hartzaileak

Jardunaldian: 150 lagun

Gizarte-etzabaidan: 53 lagun (25 emakumezko, 28 gizonetzko)

Gizarte Kontrasteko Taldean: 15 lagun

Alderdi politikoetako ordezkariak: 5 lagun

parte hartzeko sistema



araudiak



**D**emokrazia zuzena da boto bidez erabaki ahal izatea eduki politikoa duten gaiei buruz, hau da, gizarteari eragiten dioten gaiei buruz, zuzenean eta bitartekaririk gabe; gurean, sistema juridiko politikoak demokrazia zuzena alboratu egiten du, eta garrantzitsuena, nagusia edo bultzatzen dena ordezkaritza bidezko demokrazia da; baina gero eta ahots eta iritzi gehiagok eskatzen dute demokrazia zuzena, zuzenean erabakitzeko ahalmena, eta herritar ugarik demokrazia ordezkartzailearen zilegitasuna kolokan jartzen dute, ez direlako ordezkartuta sentitzen. Donostiako Udal Gobernuaren lehentasun politikoetako bat demokrazia zuzena bultzatzea zen, herritarren eskaerari men eginez. Horrela, bidea egiten hasi zen pausoz pauso Donostiako demokrazia zuzenaren mekanismoak garatu ahal izateko.

Hurrenez hurren, pauso hauek eman zituen Udalak: ezagutzea, trebatzea, elkarrizketa sustatzea, modu kolektiboan sortzea, prozedura garatzea eta ezagutaraztea. Horiek honela mailaka daitezke denboran:

- 2012ko azaroan, **Donostia Demokrazia Zuzenaren Foro Globalean**, Montevideon, Uruguain. 4 kontinentetako herrialde askoren Demokrazia Zuzeneko esperientziak eta sistemak ezagutu zituzten udal-ordezkariek, eta Demokrazia Zuzena defendatzen duten nazioarteko erakundeekin harremanetan jarri ziren.
- 2013ko urrian, **Tokiko Esparruko Parte Hartze Zuzenari buruzko jardunaldia**. Demokrazia Zuzenaren inguruko jardunaldia izan zen Miramar Jauregian, Donostiako Udalak antolatuta. Bertan, Juan Karlos Izagirre alkateak Udal Gobernuaren Demokrazia Zuzenaren inguruko ponentzia aurkeztu zuen, 150 herritar, eragile eta ordezkari instituzionalen aurrean. Ponentzia hartan, Donostiako alkateak galdera hau egin zuen: “Beharrezkoa al da Donostian Demokrazia Zuzenerako mekanismoak garatzea hiria denon artean eraikitzeko?”. Partaideen erantzuna argia izan zen: baiezkoa, eta harrezkero Udal Gobernuak lanean jarraitu zuen. Zein zen erroka eta hartutako konpromisoa? Donostiako Hiritar Kontsulten arautegia sortzea, baina emaitza hori modu kolektiboan herritarrekin lantzea ere bai, hau da, helmuga eta bidea.
- 2014ko maiatzean, Donostiako Udalak **bisita ofiziala egin zuen Helvetiako Konfederazioara**, Suitzara. Udaleko BILDU, PSE-EE eta EAJko ordezkariak Berna, Luzerna eta beste hiri batzuk eta Uri, Zurich eta beste kantoi batzuk bisitatu zituzten. Suitzako sistema politikoa ezagutu zuten, baita erakundeek, analista politikoez eta gizarte-erakundeek horri buruz zer iritzi zuten ere, eta bertatik bertara bizi zuten erreferendum nazionalako egun bat.
- 2014ko ekainean, **Gizarte Eztatxaidako Taldea**. 50 pertsonako talde batek (Udaleko BILDU, PSE-EE, PP eta EAJko ordezkarien parte-hartzearekin) kontsulta-sistema baten elementurik garrantzitsuenak definitu zituzten, baita horietan sakondu ere, Miramarren egindako 4 saiotan. Horrela, Oinarrizko

Dokumentua osatu zuten. Dokumentu hori urriaren 1ean aurkeztu zen jendearen aurrean, Miramarren bertan.

- 2014ko irailean, **Gizarte Kontrasteko Taldea**. Gizarte Eztabaidako Taldearen harira sortu zen, 15 kidearekin. Zeregina: kontsulten erregelamendu-eredua zehaztearen inguruan lan egitea eta Gobernuaren zein araudi-eztabaidako mahaiaren ekintzaren segimendua egitea.
- 2014ko urrian eta azaroan. Urriaren 1ean eztabaida sozialetik ateratako emaitza aurkeztu zuten Miramar Jauregian. Sozializatu egin zen abiapuntuko proposamena. **Erakunde Eztabaidako Taldeak** 3 lan-saio egin zituen, eta, hasieran, Udalbatzako talde politiko guztiek hartu zuten parte. Ondoren, PPK parte hartzeari utzi zion. Aholkularitza juridikoarekin, talde politikoek eztabaidatu egin zuten, eta Gizarte Eztabaidako Taldeak proposatutako ereduari ekarpenak egin zizkieten.
- 2014ko azaroaren 7a. **Herri Galdeketen Erregelamendua**. Gobernu Batzordeak Herri Galdeketen Erregelamendua onartu zuen, eta, ondorioz, Parte Hartzeari buruzko Arau Organikoa aldatu, juridikoki doitzeko. Pauso horrek beharrezko prozedura administratiboa ireki zion Hiritar Kontsulten Araudiari, eta Plenorako bidean jarri.

Azkenik, nagusiki hauek dira Hiritar Kontsulten Araudi Proposamenaren elementuak, Demokrazia Zuzena bultzatzeko eta iraunkortzeko:

**Zer galdetu ahal izango da hiritar-kontsultetan?** Udalaren eskumenerako gaiak. Ezingo da Kontsultarik proposatu emaitzek funtsezko eskubideak urratu baditzaizkete edo Toki Ogasunean edo Udaleko egonkortasun finantzarioan eragina izan badezakete.

**Nork bozka dezake?** Donostian erroldatuta egon eta 16 urte beteta dituen edozein pertsonak.

**Nork susta ditzake hiritar-kontsultak?** Udal ekimenez: Udal Gobernuak zein Udalbatzak. Hiritarren ekimenez: hirian



erroldatuta dauden 18 urtetik gorako hiru herritarrek (ezingo dira inongo instituzioetako ordezkari politikoak izan); elkarteen Udal Erroldan dagoen edozein elkartek.

**Zein izango da kontsulta-eremua?** Hiri-mailakoak: emaitzak hiritar guztiei eta hiri osoari eragiten badio. Lurraldekoak: emaitzak udalerriko lurralde zehatz bati baino ez badio eragiten.

**Zein da Hiritar Ekimenean aurkeztu beharreko sinadura-kopurua?** Erroldatutakoen % 4, hiri-mailako kontsultetan (6.500 sinadura inguru). Erroldatutakoen % 8, auzo-mailako kontsultetan. Sinadurak jasotzeko epea: 180 egun.

**Zein da bozketa-aldia?** Gehienez 7 egun, astelehenetik igandera. Inoiz ez hauteskunde-garaietan.

**Non eta nola bozkatuko da?** Auzo bakoitzean bozkagune bat gutxienez. Boto presentziala elektronikoarekin osatuko da.

**Eztabaida- eta informazio-fasea egingo da?** Bai. Norberak bere iritzia ezagueratik eta solasalditik sortzeko. Aukera ezberdinen inguruko informazioa eman eta eztabaidatuko da. Udalak oinarrizko informazioa bermatuko du eta aukera eta ikuspegi ezberdinak biltzen dituen buletina etxera bidaliko du.

**Zein berme-sistema erabiliko da?** Kontsulta baten argitasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna zaintzeko, Kontrol Batzordea egongo da. Kontsultaren bultzatzaileek, interesa duten elkarrekin, talde politikoek eta Administrazioako ordezkariak osatuko dute.

# DONOSTIA LAGUNKOIA

## Noiz

2013ko apiriletik aurrera

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 33 lagun (16 emakumezko eta 17 gizonezko): departamentu batzuetako teknikari eta arduradunak (Gizarte Ongizatea, Estrategia, Partaidetza, Hirigintza, Azpiegiturak, Berdintasuna, Mugikortasuna, Udaltzaingoa, Ingurumena, Euskara, Informatika Zentroa, 2016 Kultura Hiriburua, Dbus, Sustapena). Alkatea, Gizarte Ongizateko eta Partaidetzako zinegotziak eta udal-taldeen ordezkari politikoak.

Herritarak: 3 tailerretan, 40 lagun (25 emakumezko, 15 gizonezko)

Tailer irekian, 110 lagun (62 emakumezko, 48 gizonezko)

haurrak/gazteak/  
adinekoak



**M**unduko Osasun Erakundeak aspaldi adierazi zuen inguru lagunkoia lantzea oinarritzeko neurria zela adineko pertsonen ongizatea eta zahartze aktiboa bermatzeko. Donostiak bat egin zuen hiri lagunkoia eraikitzeko ekimenarekin, 2009an, baina proiektua urte batzuetan geldirik egon zen. 2013an, ordea, berriz ere martxan jarri zuten, Udaleko hiru hankaren gainean: Gizarte Ongizate saila, Partaidetza saila eta Estrategia bulegoa.

Zer kezka daukate adinekoek? Zer pentsatzen dute? Nolako ideiak daukate? Zer behar daukate? Adineko jendeak esperientzia eta jakituria handia dauka, eta hori aprobetxatu beharra zegoen Donostia lagunkoia eraikitzeko, guztion ongizatea handiagoa izateko. Partaidetzazko prozesu honen bidez, elkarlanerako eta elkar ezagutzeko gune

bat sortu nahi izan zuen Udalak, baita adineko pertsonak ahalduntzea ere.

Horretarako, bi mekanismo jarri ziren martxan:

- Alde batetik, **begirada estrategikorako eta balidaziorako taldea**. Hau izan zen prozesuaren sustatzaile nagusia. Talde mistoa izan zen: adineko pertsonak % 70 ziren, eta adinekoen errealitatearekin lotuak zeuden beste erakundeetatik % 30. Orotara, 40 lagun inguru izan ziren, eta 3 tailer egin zituzten elkarrekin taldea osatzeko, proiektua ezagutzeko, bizi-kalitatea beraientzat zer zen zehazteko, diagnostikoa egiteko eta proposamen estrategikoak egiteko. Taldeak bere gain hartu zituen, baita ere, bi ekimen komunikatibo: prentsaurrekoa eta beraien hausnarketa nagusiak biltzen zituen bideoa egitea. Aieteko topalekuan aritu zen lanean.





- Bestetik, **tailer irekia**. Bulebarren izan zen, ikusgai jartzeko egiten ari zirena eta balioa emateko egiten ari ziren lanari. Tailer horretan 110 pertsonak hartu zuten parte, eta helburua izan zen proiektua eta egindakoa gizarteratzea, diagnostikoa partekatzea eta ekintza-planean aurrera egitea proposamenekin. Tailer irekian Udaleko sail gehienetako teknikariek, Gobernu Taldeak eta gainerako alderdi politikoen ordezkariak hartu zuten parte.

Prozesu hori bukatu ondoren, udal-teknikariak batez ere barne-lanetan aritu ziren, adineko pertsonak azaldutako beharrak dokumentu tekniko batera eramaten (eta bertan jaso haiek adierazitako helburuak, lan-eremuak, jarduerak...). Dokumentu hori ontzat jo zuen Gobernu Batzordeak 2014ko ekainean, eta ordutik lanean aritu ziren udal-sailekin 2014-2015 Ekintza Plana definitzeko. Neurriei lehentasuna ematerakoan, honako irizpide hauek erabili zituzten:

1. Neurri zehatz horiek gauzatzekoan, adineko pertsonen parte-hartzea sustatzea.
2. Estilo desberdinetako jarduerak proposatzea, adineko pertsona guztiei parte hartzeko aukera emateko (kolektiboa oso heterogeneoa baita).
3. Ikusgarriak izatea (denbora luze zerematen lanean eta lan horren emaitza ikusi nahi zuten).
4. Egiten den horrek “kutsatzea”, zabaltzea, efektu biderkatzailea izatea.

Proiektu honi esker, adineko pertsonen beharrak, ikuspegjak eta desioak lehenengo pertsonan partekatu zituzten eta Udalak lehen eskutik jaso zituen. Halaber, balio izan zuen adinekoekin lan egiten duten elkarteetako kideak elkarren berri izateko eta elkarlanean jartzeko. Azkenik, adinekoen udal-plana egiteko eduki nagusiak eskuratu zituen Udalak, adinekoek galdera hauei erantzun baitzieten: “Adinekook zer behar dugu Donostiagandik? Eta zer eskaintzen diogu Donostiari?”.

Asistentzia ona izan zen, orekatua, partaideen perfilak markatzen zuen erritmoak kontuan izanik. Giro lasaia eta goxoa nagusitu zen. Parte-hartzaileek baloratu zuten aske sentitu zirela hitz egileko, eta oso ondo baloratu zuten gobernukideen presentzia, proiektuarekiko konpromisoaren adierazle. Partaideen inplikazioa prozesuan bikaina izan zen, eta guztien ahalduntzea ekarri zuen. Lanak ez ziren hor amaitu, eta Donostia lagunkoia ekimenak martxan jarraitu zuen.



## JULIA ARRIETA

Erretiroduna · 69 urte

**Helduen Hitzza**  
**elkarteko kidea**

### Zergatik hartzen duzu parte “Donostia lagunkoia” proiektuan?

Ilusioa sortzen duen proiektua da, eta uste dut adineko pertsona gisa eta beste adin batzuetako kolektiboekin batera egiten dudan ekarpenak lagundu egiten didala hirian egin daitezkeen beharrak eta hobekuntzak ikusten.

Gizarte honetan, adineko pertsonak eginkizun aktiboa dauka, eta bere eskarmentua eta ezagutza erabili egin behar dira parte har dezan.

### Nola baloratzen duzu egindako lana?

Ondo, gure hiria nola mugitzen den informazioa jaso dugu, eta horrekin alde zuzeneko proiektu bat egin dugu, lanean hasteko.

### Nola sentitu zara?

Oso ondo hartu naute, bai teknikariek, baita nire kideek ere. Geure artean oso adeitsuak izan gara, eta horixe gustatu zait gehien.

### Zer gustatu zaizu bereziki?

Proiektuak atal ugari dauzka: hirigintza, garraioa eta mugikortasuna, eraikinak, ekipamenduak eta etxebizitzak,

sareak eta gizarte-babesa, zahartze aktiboa, errespetua, aitortza, informazioa eta komunikazioa, gizarte-zerbitzuak eta osasuna. Ezingo nuke bakarra hautatu.

### Zure ustez, zer hobetu liteke?

Bizitzan dena dago hobetzea, baina pixkanaka joan behar dugu, eta gauzak ondo eginez.

### Zer emaitza izan ditu? Nolako ondorioak?

Gure elkarteetan parte hartzen duten pertsonen proiektua ondo ezagutzen dute eta hori lagungarria da proiektua handitzeko.

### Zer ikasi duzu?

Helduen bizitza partekatu beharra dagoela, eta guztion artean gizarte solidarioagoa egin.

### Herritarren parte-hartzeari dagokionez, zer proposamen daukazu etorkizunerako?

Lanean jarraitu nahi dut, lagundu egiten didalako era aktiboan zahartzen.

Bizi dugun une honetan boluntarioak garrantzitsuak dira, eta horretan jardun nahi dut.



## MARIA FERNANDEZ EZEIZA

Plus 55eko  
koordinatzailea

43 urte

Lahar Elkargoko kidea

### Zergatik hartzen duzu parte “Donostia lagunkoia” proiektuan?

Plus 55eko helburuek bat egiten dutelako proiektu honetakoekin.

### Nola baloratzen duzu egindako lana?

Etorkizunean hobeto eraikia eta lagunkoiagoa izango den gizartean, giltzarri iruditzen zaizkit pertsonekin aritzen garenean zeharkako lanaren garrantziaz jabetzea eta partaidetzazko diagnostikoak. Oraindik badago zer egina, baina honaino iritsi izana dagoeneko oso positiboa da eta beharrezkoa izan da “denok ontzi berean arraun egitea”, garen eta izango garen pertsona guztiak ondasun kolektibo izango denaren emaitzarik gertukoena edukitzea.

### Nola sentitu zara?

Egia esan, pertsonen ongizateko prozesu garrantzitsu baten parte. Arduratsu eta integratuta.

### Zer gustatu zaizu bereziki?

Entzutea eta ezagutzen nituen gauzen nire ikuspegia zabaltzea, eta ezagutzen ez nituenak ere bai. Diagnostikoan deskribatzen

ziren mugarrak gauzatzen hasi direla ikustea eta teknikari askoren konpromisoa ikustea.

### Zure ustez, zer hobetu liteke?

Diagnostikatzean praktikoagoak izaten saiatzea, zenbat eta praktikoagoak izan, orduan eta errazagoa izango da esku-hartzea.

Konponbideen kreatibitatea.

Prozesuak arinagoak izan litezke eta itzulketak zehatzagoak. Baina uste dut honen aldeko benetako apustua egin dela.

### Zer ikasi duzu?

Entzuten.

### Herritarren parte-hartzeari dagokionez, zer proposamen daukazu etorkizunerako?

Zabaldutako bideak bizirik mantentzea eta hor zer gertatzen den adi entzutea eta sormenezko konponbideak aukeratzeko zabalik egotea, nahiz eta horrek lehendik ezarritako oztopo batzuk puskatu beharra eragin.

# goierri



## Herriak (22)

Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga

## Biztanleak

69.628 (gipuzkoarren % 9,74)

## Azalera

424,5 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 21,34)





# g

oierrri eskualdea bi zatitan ere banatu izan da: batetik, Urola Garaia (Ezki-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarraga); bestetik, Oria Garaia (Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain).

Gipuzkoako probintziaren hego-ekialdean dago. Iparraldean, Urola Kosta eskualdea du muga; ipar-ekialdean, berriz, Tolosaldea; mendebaldean, Debagoiena; eta hegoaldean, Araba eta Nafarroa.

Urola eta Oria ibaiek jasotzen dituzte eskualdeko urak. Urola ibaia Aizkorriko mendietan sortzen da; Legazpi, Urretxu eta Zumarraga zeharkatu ondoren, irten egiten da eskualde honetatik, Azkoitirako bidea hartuta. Oria ibaia, berriz, Otzaurte aldean sortzen da, eta eskualdeko lurretan barrena doa Itsasondoraino, eta handik Tolosaldean barrena aurrera jarraituta, Orion itsasoratzen da; bidean, beste erreka askoren urak jasotzen ditu, besteak beste: Mutiloa, Estanda, Santa Luzia, Arriaran, Urtsuaran, Agauntza eta Zaldibiarenak.

Naturaren aldetik hainbat gune babestu daude Goierriin, besteak beste, hegoaldean, Aralar eta Aizkorri-Aloña-Leintz; iparraldean, berriz, Murumendiko gune naturala.

Beasain, Ordizia eta Lazkaoko herriguneez izan duten zabalkundearen indarrez, esan daiteke hiru udal-barruti horiek elkartu egin direla, eta eskualdearen buru egiten duen gunea sortu. Urola Garaian ere beste horrenbeste gertatzen da: Zumarraga eta Urretxu ia elkartuta daude.

Komunikabideetan, eskualdeko bizkarrezurra N-I (Madril-Irun) errepidea da; Nafarroa nahiz Araba aldera (Etxegarateko gaina, 658 m) lotzeko bidea da. Beasaindik GI-120 errepidea abiatzen da, Nafarroarekiko lotura egiteko (Lizarrustiko gaina, 618 m). Zumarraga eta Debagoienarekiko lotura (Deskargako gaina, 587 m) GI-632 errepidearen bitartez egiten da. Zumarragatik Urola Kostaldera jotzeko GI-631 errepidea erabil daiteke, eta Legazpi edo Debagoienara jotzeko (Udanako gaina, 617 m), berriz, GI-2630 errepidea. Azkenik, Urola Erdiarekin lotura GI-2635 errepidearen bidez egiten da, Beasaindik Azpeitira, Mandubiko gainetik (540 m).

Trenbideak ere garrantzi handia izan du eskualdearen bizitza eta egitura sendotzeko, Oriako haranetik sartzen baita Gipuzkoara: Urolan barrena Zumarragara heltzen da, eta handik berriz Oria aldera jotzen du, Irungo bidean Beasain eta Ordizia zeharkatuta.

Goierriko ekonomia industriaren gainean dago antolatua; sektore horretan aritzen dira, hain zuzen ere, eskualdean lan egiten duten langile guztien erdia baino gehiago. Lantegi gehienek metalgintzan jarduten dute, eta horietako batzuk garai batean oso enpresa handiak izan ziren, herrietan arrasto eta pisu nabarmenekoak, “herriko fabrika” izenez ere ezagunak: Patrizio Etxeberria, Legazpin; Esteban Orbegozo, Zumarragan; Aristrain, Olaberrian; CAF, Beasainen... Horien inguruan enpresa txiki eta ertainak sortu eta indarra hartu zuten, batez ere metalaren transformazio-lanetan espezializatuak, eta gaur egun ere hor diraute: Indar eta Estandako Fundizioa, Beasainen; Jaso eta Ampo, Idiazabalen; Irizar, Ormaiztegin; eta abar ■

# Arama



Azalera: 1,33 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 217, aramarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Aramako Herri Batzarra** (5)

[www.arama.eus](http://www.arama.eus)



Parte-hartzearen ardura  
**AXIER MUJIKA OTEGI**  
(alkatea)



**Herritarrak parte hartzen Araman:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Garapen iraunkorra	<b>AGENDA 21A BERRIKUSTEA</b>	Aramako Agenda 21aren ekintza-plana zehaztea herritarrekin batera.	40 lagun inguru (% 50 ♀, % 50 ♂)	2013ko abendutik 2014ko ekainera	✓
Kultura	<b>FESTAK AUZOLANEAN</b>	Herriko festak elkarrekin eta auzolanean antolatzea.	40 lagun inguru (% 40 ♀, % 60 ♂)	2013ko abuztutik azarora	✓

# AGENDA 21A BERRIKUSTEA

**Noiz**

2013ko abendutik 2014ko ekainera

**Parte-hartzaileak**

Talde Eragilean: 12 herritar (5 emakumezko, 7 gizonezko) eta koordinatzailea (emakumezkoa)

Lantaldeetan: 25 lagun inguru (% 50 emakumezkoak, % 50 gizonezkoak)



**A**genda 21a garapen iraunkorrari eusteko programa bat da, Nazio Batuek bultzatua eta mundu osoan zabaldua, eta gurean ere tresna oso garrantzitsua da herrien etorkizuna aurreikusteko eta zehazteko, batez ere txikiena, plan estrategikoaren izaera baitauka. Desio den herri-eredu horretara iristeko, ekintza-plan bat diseinatzen da,

eta ekintzak gauzaten doazen neurrian egiten da aurrera geroko herri hori errealitate bihurtzeko bidean.

Araman ere duela urte batzuk jarri zuten martxan Agenda 21 programa, bere ekintza-planarekin, eta ordutik garatzen joan zen. Hein handi batean bete egin ziren aurreikusitako ekintza nagusiak (% 75 inguruko betetze-maila); bete ez zirenak, batez

ere, herriaren eskumenekoak ez ziren ekintzak ziren. Hala ere, ikusi zen beharrezkoa zela ekintza-plan berria egitea, eta hori diseinatzeari ekin zioten. Agenda 21 programan, garrantzitsua da herritarren partaidetza, eta ekintza-plan berrian Udalak herritarren hitza bultzatu eta bermatu nahi izan zuen.

Horrela, Udalaren ekimenez, 2013ko maiatzaren bueltan, Talde Eragilea deituriko herritar-taldea osatu zuten, prozesu osoaren martxa eramateko, oinarriak finkatzeko, baldintzak zehazteko eta prozesua guztien artean diseinatzeko. Bertan, hamabi lagun aritu ziren, kolore eta pentsaera guztietakoak, eta etorkizuneko ekintza-plan egokia diseinatzeko jendearen inplikazioa lortu zuten. Taldeak guztira zazpi bilera egin zituen prozesuak iraun zuen bitartean.

Horrela, Agenda 21a berrikusteko proiektu honen baitan, hasieran egoeraren diagnostia egin zuten. Horretarako, herria nola ikusten zuten jakiteko, galdetegi bat prestatu eta herritarrei helarazi zieten, bereziki sektore batzuen ikuspegia ziurtatzeko: langabetuena, erretiratuena, baserritarrena, etorri berriena, gazteena... Ikuspegi desberdinak ziurtatuta, errealitatearen argazki anitza atera ahal izan zuten.

Behin diagnostia landuta, etorkizuneko ekintzak bilduko zituen plana garatzen jardun zuten. Horretarako, 3 sektoretan banatu zuten lana:

- Alde batetik, **baserritarren mahaia** osatu zuten, eta bertan, batez ere, nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin zerikusia zeukaten gaiak jorratu zituzten. Baserri-munduak bizirik irauteko herriaren beharrak landu zituzten.
- Bigarren taldea **herri-bizitzaz** arduratu zen, hau da, zer ekintza edo jarduera ziren beharrezkoak Arama herri bizia izateko.
- Azken taldeak, berriz, **hirigintzaz eta ingurumenaz** jardun zuen, herriaren etorkizuneko ikuspegiarekin.

Hiru lantalde horien bilerei dagokienez, bakoitzak bost egin zituen, eta asistentzian alde egon zen batetik bestera, batez ere generoaren aldetik: baserritarren taldean, gizonezkoak izan ziren nagusi; Herri Bizitza eta Ongizatea lantaldean, berriz, emakumezkoak gehiago izan ziren; eta, azkenik, Hirigintza eta Ingurumena lantaldean, parean izan ziren emakumezkoak eta gizonezkoak.

Lantalde bakoitza bere kasa aritu zen lanean, eta, ondoren, bakoitzetik ateratako emaitzak batzar orokorrera eramán zituzten, kontrastatzeko eta lan guztiak norabide berean jartzeko; batzarraren ondoren, erredakzio-lana etorri zen: idatzita geratu zen ondorengo 6-8 urteetarako Agenda 21eko Aramarako ekintza-plana.

Balorazioari dagokionez, Udalak espektatibak bete zituen eta pozik amaitu zuen. Azken finean, prozesuari esker, herriaren ondorengo 6-8 urteetarako norabidea finkatuta geratu zen, ekintzaz ekintza zehaztuta, eta herriaren gabezia eta beharrak zerrendatu egin zituzten. Eskura zeukaten hurrengo urteetarako lanerako gidoia.

Asistentziari dagokionez, udal-ordezkariek ohartu ziren herritarren parte-hartzea handiagoa zela bilerak gai konkretu batzuen inguruan izaten zirenean, hau da, monografikoak zirenean. Alegia, jendea erakartzeko, komeni zela bileretarako gai zehatz edo nagusi bat jartzea.





# FESTAK AUZOLANEAN

## Noiz

2013ko abuztutik azarora

## Parte-hartzaileak

40 lagun inguru (% 40 emakumezkoak, % 60 gizonezkoak)

kultura



**A**ramako jaiegun nagusia San Martin eguna da, azaroaren 11n, eta egun horren bueltan nahikoa ospakizun izaten da, herritarrak elkartzeko aitzakia ugari: gaztaina koskatzea (morkotsetik ateratzea), jan-kontuak (hamaiketakoa, bazkaria, afaria...), jolasak, musika- eta dantza-saioak... Azkenaldian, ordea, bazirudien festak gainbehera zihoazela, eta 2013an Udalak ahalegin berezia egin zuen festak ahalik eta ondoen antolatzeko eta ospatzeko. Horretarako, auzolana deitu zuen, eta 25 lagun inguruk eman zuten izena; bilera egin ondoren, bakoitzak bere egitekoak eta ardurak hartu zituen, eta guztira 40 lagun inguru aritu ziren festak antolatzen eta laguntzen.

Festak horrela landuta, lanak egokiago banatu ziren eta betikoek ez zuten hartu beste urte batzuetako adinako karga edo ardurarik; baina, horrez gain, herritar gehiago eta estuago konprometituta, jaiek asko irabazi zuten, mamitsuagoak eta pertsonalagoak izan zirelako. Emaiza oso ona izan zen, eta jaien arrakasta, handia.

Gainera, behin jaiak amaituta eta balorazioa eginda, agerian geratu zen Araman beharrezkoa zela kultur arloa landuko zuen eta herri-bizitza ziztatuko zuen talde iraunkorra sortzea, eta ez



bakarrik festetarako, urte garai jakin baterako. Horrela, Araman elkarte-izaerako talde bat sortzeko erronka ezarri zuten.



## JASONE ARAMBURU GARMENDIA

Erizaina  
44 urte

“**A**ramako herritarren arteko kooperazioa sustrai sendoak biltzen ari da, urtetik urtera gehiago dira herrian parte hartzeko prest agertzen direnak, eta hori gutxi balitz, askok euren burua boluntario aurkezten dute hainbat ekintzatan laguntzeko. Ez al da aberasgarria horrelako herri txiki batean herritarrek duten inplikazioa? Beste behin ere festak ate joka diren honetan, festen egitaraua prestatzeko hainbat bilera antolatu dira. Bilera horietan, herritarrek euren desioetatik abiatuta festak antolatzeko proposamenak bota dituzte. Antolaketa horien helburua herritar guztien interesak kontuan hartzea da, guztien gustuko festak izan daitezen.

Honen guztiaren inguruan, esan dezaket antolatzeko modu hau guztiz positiboa iruditzen zaidala, herritarren arteko harremana bultzatzen delako. Gainera, antolakuntza ezinbestekoa da zerbait aurrera eraman nahi bada, eta horretan interesatuta dagoen jendea baldin badago, lana errazago egiten da. Bide horretatik, uste dut ideia berriak sortzeko edota ateratzeko aukera gehiago dagoela, eta, azken batean, gauza berriek erakartzen dute jendea. Ondorioz, denok jar dezakegu gure partetik txikia dena handi bihurtzeko //



## MIKEL TURRIENTES GONZALEZ

Muntatzailea  
45 urte

“**H**erritar guztiok izan dugu aukera sortu diren dinamiketan (hala nola, Agenda 21a) parte hartzeko, baina nire ikuspuntutik, herritarren esku-hartzea, orokorrean, oso eskasa izan da.

Nire ustetan, herriak martxa izatea nahi badugu, maila guztietan, beharrezkoa dugu guztion parte-hartze sortzailea eta inplikazioa, horrela guztion, herriaren eta herritarren, onurarako helburuak lortu ahal izateko.

Hala eta guztiz, onartu behar da zenbait herritarrek buru-belarri jardun dutela lanean, eta horri esker bilera eta ekintza emankor batzuk egin ahal izan dira.

Honek aurrera jarraitzea nahi badugu, behar-beharrezkoa izango da guztion inplikazioa, eta horregatik, nahitaezko baldintza ikusten dut Agenda 21a, festak auzolanean eta abar sortu eta garatzea, eta herritarrok pixkanaka-pixkanaka prozesuak geureganatzea. Horrekin guztiarekin jarraitu beharra dago //

# Beasain



Azalera: 29,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 13.812, beasaindarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (6), EAJ-PNV (6), PSE-EE (2),  
Hamaikabat (1), PP (1) eta Aralar (1)

[www.beasain.eus](http://www.beasain.eus)



Parte-hartzearen ardura

**ZEZILIA HERRADOR GARIN**

(zinegotzia)



Herritarrak parte hartzen Beasainen:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Bizikidetza	<b>GAZTE-LOKALAK</b>	Gazte-lokalen errealitateari buruz hausnartzea eta etorkizuna guztien artean marraztea.	43 lagun (11 ♀, 32 ♂)	2014ko urtarriletik ekainera	✓
Hirigintza	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra	Plan Orokorren diagnosis egiteko prozesua jarri zuten martxan. Lehen urratsak egiten.	...	2014ko azarotik aurrera	...
Mugikortasuna	<b>MUGIKORTASUNA ETA BIZIKLETA, PARTE HARTZEKO ZIKLOA</b>	Beasaingo bidegorriaren inguruko iritziak jasotzea eta mugikortasunaren gaia lantzea.	Bileretan: 24 lagun (17 ♀, 7 ♂) Ekitaldietan, jende ugari	2013ko udaberritik udarara	✓
Partaidetzako aurrekontuak	Partaidetzako aurrekontuen bidean	Hasitako bidean aurrera egitea, beasaindarrei udal-aurrekontuei buruzko informazioa eta ekarpenak egiteko aukera emanda.	59 lagun (22 ♀, 37 ♂)	2013ko udazkena	✓



# GAZTE-LOKALAK

## Noiz

2014ko urtarrietik ekainera

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 7 lagun (4 emakumezko, 3 gizonzko):

5 udal-teknikari eta kanpoko aholkulariak (2)

Bileretan: 43 lagun (11 emakumezko, 32 gizonzko)

bizikidetza



**S**egurtasuna, bizigarritasuna, erabilera, bizikidetzarako eragina, aisialdi-alternatibak, *ghetto*ak... Horra hor gazte-lokalen gaia aitatzen denean askotan azaltzen diren hitzak, sarritan eztabaidagai, gazte-lokalen gaiak ertz eta helduleku asko baititu. Egia da, ordea, gaiaz hitz egitea komeni dela, hausnartu eta adostasun-puntuak bilatu eta identifikatu, eta Beasainen horretarako aukera sortu zuten, gazte-lokalen egoerari buruz hausnartzeko. Udal Gobernuak, ordea, beste helburu bat ere bete nahi izan zuen prozesu honekin: adosten zenarekin aurrerago lokalen erabilerari buruzko udal-arautegiaren zirriborroa osatzea, baita guztiek beteko zuten bizikidetza-gida ere.

Hausnarketa horretan, ondorengo galderei erantzun nahi izan zieten: zein da Beasaingo gazte-lokalen gaurko errealitatea? Betetzen al dituzte gutxieneko bizigarritasun- eta segurtasun-baldintzak? Zer paper jokutzen dute gazte-lokalek gaurko gazteen egunerokoan eta aisialdian? Zer gai dira hobetu beharrekoak? Nola? Zer paper du horretan guztian funtsezko eragile bakoitzak? Gaia lantzeko, inplikaturata zeuden edo gaien zeresana zeukaten eragile guztiak hartu zituzten kontuan:

gazteak, gazte-lokalen erabiltzaileak, lokalen jabeak, adingabekoen gurasoak, udal-ordezkariek... Lau bilera bereizi egin zituzten: gazteekin, bizilagunekin, lokalen jabeekin eta gazte-lokaletan ibiltzen ziren gazte adingabeen gurasoekin. Gero, guztiek elkarrekin bi bilera egin zituzten, eta hainbat puntu adostu zituzten bizikidetzarako.

Adostasunen dokumentu hori prozesuan parte hartu zuten guztiei pasa zieten, baita Udalean ordezkaritza zeukaten gainerako alderdie ere, eta horien guztien ekarpenak jasotakoan, behin betiko dokumentua egiteko asmoa zeukaten.

Balorazioari dagokionez, Udalak oso ondo baloratu zuen. Izan ere, deituriko eragile guztiak (gazteak, gurasoak, lokalen jabeak eta bizilagunak) egon ziren ordezkaturata, eta guztiek hartu zuten parte egoki eta era eraikitzailean. Udalak bereziki azpimarratu nahi izan zuen batez ere gazteek prozesuan izandako inplikazioa eta aldarte ona.



# MUGIKORTASUNA ETA BIZIKLETA, PARTE HARTZEKO ZIKLOA

Noiz

2013ko udaberritik udarara

Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 10 lagun (6 emakumezko, 4 gizonezko): alkatea, 6 zinegotzi, komunikazio-teknikaria eta kanpoko aholkulariak (2)

Herritarrek bileretan: 24 lagun (17 emakumezko, 7 gizonezko)

Herritarrek ekitaldietan: jende ugari

mugikortasuna



**A**zkenaldian, gero eta indar handiagoa hartzen ari da mugikortasun iraunkorraren kontzeptua: beharrezko baliabide-kopuru txikiena kontsumitzen duen mugitzeko era da, ingurumena eta etorkizuneko belaunaldiak errespetatzen dituen. Beasaingo Udal Gobernuak bat egin zuen kontzeptu horrekin, eta lortzeko bidean aurrerapausoak eman nahi zituen. Horregatik, Beasainen oinezkoek dute lehentasuna; ondoren, bizikletek; eta azkena daude autoak edo gainerako ibilgailuak.

Mugikortasun iraunkorra lortzeko bidean, lan handia egin beharra dago kontzientziazioan, eta Udalak, Aldundiaren laguntzaz, “Mugikortasuna eta bizikleta” zikloa jarri zuen martxan, bi ardatz nagusirekin: bata, mugikortasun iraunkorragorako kontzientziazioa lantzea eta neurri zehatzen inguruan hausnartzea; bestea, bidegorri berriaren ibilbidea aurkeztea eta beasainarren hobekuntza-proposamenak eta iritziak jasotzea.

Mugikortasun iraunkorragorako pausoak eman nahian, hiru bilera ere egin zituzten. Lehen, herriko lantegietako ordezkariekin, lantokirako joan-etorrietan autoa gutxiago erabiltzeko neurriak jasotzeko; bigarrena, ikastetxe guztietako eragileekin, ikastetxeetarako desplazamenduak bizikletaz, oinez edo autobusez egiteko zeuzkaten beharren berri jasotzeko; hirugarrena, mugikortasun urria zeukaten beasaindarrekin (beste gaitasun batzuk zituztenak, haur txikien gurasoak...) herrian zeuden oztopo arkitektonikoak detektatzeko eta hobetzeko proposamenak jasotzeko.

Besteak beste, auto-pilaketak non izaten ziren identifikatu zuten, oztopo nagusiak zehaztu zituzten... Horiekin batera, herria gjortzeko hainbat ekitaldi izan ziren: hitzaldiak (Aldundiaren bidegorrien plangintza aurkezteko, Euskadi Extrem 2013ko ekitaldiaren berri emateko...), erakusketak eta azokak (bizikleta-motak, bigarren eskuko bizikleten azoka...), argazki-proiekzioak eta bideo-emanaldiak, bizikleta-mekanikako ikastaroa... Halaber, bidegorria ezagutzeko eta proposamenak egiteko, bizikleta-txango bat egin zuten, eta ibilbideak hainbat aldaketa eragingo zituenez, bizilagunei bidegorriaren ibilbidea aurkeztu zieten, aldaketen berri emateko eta iritziak jasotzeko.

Balorazioari dagokionez, Udalak bereziki nabarmendu nahi izan zuen nahi edo espero baino jende gutxiagok hartu zuela parte; ustez komunikazioa ondo landu zen, baina jendearengana iristeak ez du bermatzen gero parte hartuko duenik, ez badu ikusten berari zuzenean dagokiola. Oso denbora gutxian (astebetean) oso ekintza desberdinak konbinatu zituzten (bilerak, hitzaldiak eta ekitaldi ludikoak), eta oso interesgarritzat jo zuten.



# Ezkio-Itsaso

Azalera: 21,2 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 609, ezkiotarrak, itsasoarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Ezkio-Itsasoko kideak (7)**

[www.ezkio-itsaso.net](http://www.ezkio-itsaso.net)



Parte-hartzearen ardura  
**GARIKOITZ Aiesta ETXANIZ**  
(alkatea)



**Herritarrek parte hartzen Ezkio-Itsason:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Herri-izaera	<b>HERRI-IZAERA ETA HERRIGINTZA INDARTZEKO PROZESUA</b>	Ezkio-Itsasoren herri-izaeraz hausnartzeko eta indartzeko prozesua.	Batez beste, 22 lagun (% 45 ♀, % 55 ♂)	2013ko irailetik azarora	✓
Auzolana	<b>ITSASO ETA ALEGIAKO GUNEETAN ELKARLANEAN</b>	Urtaro bakoitzean auzolan bat egitea, batez ere txukuntzeko eta konpontzeko.	Lau saio: 53-29-39-30 lagun (% 60 ♀, % 40 ♂)	2014an zehar	✓
Herri-izaera	<b>ITSASOREN BIDERAGARRITASUNA</b>	Itsaso herriak udalerrri izaera berreskuratzeko bidean, bideragarritasun ekonomikoa da oinarrietako bat, eta azterketa egin ondoren, itsasoarrekin konpartitu zuten.	Bi saio: 43-39 lagun (% 65 ♀, % 35 ♂)	2014ko uztailean	✓





# HERRI-IZAERA INDARTZEKO PROZESUA

## Noiz

2013ko irailetik azarora

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 3 lagun (1 emakumezko, 2 gizonzko):  
alkatea eta bi zinegotzi

Saioetan: batez beste 22 lagun (% 45 emakumezkoak,  
% 55 gizonzkoak)

herri-izaera



**E**zkio eta Itsaso herriek 1965ean egin zuten bat eta Ezkio-Itsaso udalerrri bakarra sortu. Elkartzea, berez, ez zen herritarren gogoz eta erabakiz egin, baizik eta Administrazioak behartuta, beste herri batzuekin gertatu zen bezala (adibidez, Hiruerrietarekin, hau da, Ikaztegieta, Orendain eta Baliarrain biltzen zituen udalerriarekin). Behartutako elkartze hark eragina izan zuen udalerrri berriaren izaeran, ia berrogeita hamar urte geroago, oraindik ere nabarmena baitzen herri bakoitzak eusten ziola bere izaerari eta berezitasunei. Ezkio-Itsasok, gainera, baditu beste bereizgarri batzuk: sei auzok osatzen dute udalerrria (Alegia, Ezkio, Itsaso, Mandubia, Aratz-Matxinbenta eta Santa Lutzik); Santa Lutzi auzoan bizi da jenderik gehiena (biztanleen erdiak); azkenaldian kanpotik jende asko etorri da bizitzera, baina horietako asko ez dira herri-giroan edo -bizitzan sartu...

Herri-izaeraz hausnartzeko eta herri-izaera indartzeko, Udalak parte hartzeko prozesu hau jarri zuen abian, horrekin batera beste helburu zehatzago batzuk ere bete nahian: herritarrek



elkar ezagutzea, herri-izaera nola bizi zuten partekatzea, auzo-izaera gaindituta herri gisa egitasmo zehatz bat gauzatzea, herritarrek proiektu baten inguruan elkarlanean jartzea... Horretarako, hiru saioko prozesua diseinatu zuten, eta Talde Eragilea sortu zuten lanak bideratzeko. Saiok Udaletxean egin ziren, eta, besteak beste, hauek landu zituzten: Ezkio-Itsaso sortu zenetik gertaera eta une gakoak, Ezkio-Itsasoren indarguneak eta ahuleziak, auzoen arteko komunikazioa eta botere-harremanak, aurrera begirako erronka nagusiak, aurrera begirako ildo eta ekintzak...

Horiek guztiak egin zituzten, baina prozesuaren gakoa herri-izaera bakoitzak nola ikusten zuen konpartitzea izan zen. Zergatik? Oso ikuspegi desberdinak zeuzkatelako, nondik begiratzen zen, eta batzuek kolokan jarri zuten udalerrri bakar izaten jarraitu behar ote zuten. Horrela, erronka nagusizat jo zuten gai horri heltzea etorkizunean, eta elkarrekin adostu zuten zer pauso eman, baina, aldi berean, ikusi zuten gainerako guztia ezin zutela bazterrean utzi eta beharrezkoa zela herri biziagoa izatea, eta horretarako ildo eta ekintza zehatz batzuk landu eta adostu zituzten.

Prozesu osoan giro ona izan zen nagusi. Eztabaidetan tentsio-uneak ere izan ziren, baina taldeak gaitasuna izan zuen aurrera egiteko. Metodologiak herritarren parte-hartzea bultzatu eta konfiantza-giroa erraztu zuen, lasai hitz egiteko eta sakonean zegoen desadostasuna agerian jartzeko. Bistan geratu zen guztiek ez zutela berdin bizi herri-izaera edo batzuek zeukaten deserosotasun edo mina, eta horrek kezka edo arduraren eragin zuen askorengan.

Herri-izaerako prozesuaren ondoren, etorkizuneko pausoak eta aukerak irudikatzen eta Itsaso herriak udalerrri izaera berreskuratzeko bidean, oinarrietako bat **bideragarritasun ekonomikoa** zen, zenbateraino zuen posible bakarrik egitea aurrera; horregatik, kanpoko enpresa batek azterketa teknikoa egin zuen eta ondorioak herritarrekin landu, bileren bidez. Horrela, itsasoarrekin uztailan partaidetzako bi saio egin zituzten, udalerrri gisa hurbileko eszenategia definitzeko: inbertsio-lehentasunak, faseak... Herritarrek gogotsu hartu zuten parte, eta oso saio dinamikoak izan ziren. Bideragarritasun-txostenak zioenez, bi herriak bideragarriak ziren bakoitza bere aldetik joanez gero, eta hurrengo pausoa izan zen aurreikustea nola geratuko zen herri bakoitza, bananduz gero: ikuspegi ekonomikotik, ondasunei zegokienez, zerbitzuak kontuan izanik...

2014ko amaieran, Udala pausoak ematen ari zen herritarrei iritzia eskatzeko, galdeketa bidez, eta harremanetan jarrita zegoen Aldundiarekin, beharrezkoak ziren urratsak egiteko.





## AIZPEA LASA MUXIKA

Diseinu eta Sorkuntza  
Graduko ikaslea EHU  
21 urte

“**P**rozesu honetan parte hartu nuen Itsasoren etorkizunerako berebiziko garrantzia zeukalako; izan ere, berriz udalerrri izateko oinarrietako bat ekonomikoki bideragarria izatea baita. Eraitza oso ona izateaz gain, inportanteena bertan elkartu zen jendetza izan zen. Horrek argi erakusten du gure herriaren etorkizuna gehienon kezka dela; eta Itsaso nolakoa izatea nahi dugun imajinatzen aritu ginen elkarrekin: zer egingo genukeen herria egituratzeko, garatzeko... Aurrekontuak ere partaidetzazkoak izan nahi ditugu hemendik aurrera”



## KAIO IRAETA OTAMENDI

Kaldereroa  
62 urte

“**E**lhuyarrek Itsason dinamizatutako parte-hartze prozesuari buruz nire balorazioa oso ona da. Aspalditik zetorren gaia, berriz udalerrri izatearena, eta lasai eta denok iritzia emanez, gaia jorratzea eta erraztea posible izan da. Gaia tabernatik edo etxeetatik modu formal batera pasatzea eta lantzea izugarritzko pausoa izan da.

Parte-hartzeak daukan garrantzia ikasi dugu eta herriko jendea mugitzeko bidea erakutsi digu”

# ITSASO ETA ALEGIAKO GUNEETAN ELKARLANEAN

Noiz  
2014an zehar

Parte-hartzaileak  
Lan-saioetan: 30-50 lagun artean  
(% 60 emakumezkoak, % 40 gizonezkoak)

auzolana



**JONE  
URAIN  
LARRAÑAGA**

Zeramikaria  
(Pott zeramika)  
46 urte



**I**tsason auzolanak bizirik dirau. 2014. urtean, lau auzolan-egun izan zituzten Itsason, urtaro bakoitzeko bat.

Martxoan, Itsasoko 53 lagun elkartu ziren herrigunean, eta lau taldetan banatuta, lan ugari egin zituzten: sasiak eta sastrakak ebaki, paretak garbitu, ubide berri bat egin, lurra simaurtu eta prestatu, landare aromatikoak eta loreak landatu...; ondoren, plazako eskolan elkartu ziren taloen epelera, sagardoarekin lagunduta. Maiatzean, berriz, 29 itsasoar elkartu ziren, eliza txukuntzeko eta konpontzeko: zorua, eskailerak, korua, kanpandorrea, argiteria...; ondoren, afari-merienda izan zen, eta tertulia ederra izan zuten. Hirugarren auzolanean, uztailan, Alegian 39 lagun elkartu ziren, eta batez ere lorategi bat egiten aritu ziren. Azkenik, laugarren auzolana San Lorentzo ermitan egin zuten itsasoarrek, urrian, eta, 30 lagun baino gehiago izan ziren; batez ere inguruko itxitura jartzen aritu ziren, eta paretetako harria eta leiho inguruak garbitzen.

**"P**rozesu honetan parte hartu dut ezinbestekoa ikusten dudalako elkarrekiko harremanak sendotzea eta, hausnarketa bakarka egin beharrean, taldeak erakusten digulako gure indarrak eta bata bestearen beharrak neurtzen. Auzolanari esker, herriaren kontzientzia fisikoa eta lan kolektiboaren garrantziaz jabetu gara. Harremanak adin guztietakoekin izan dira eta oso gustura sentitu naiz. Txukundu ditugun txokoak beste begi batzuek ikusten ditugu orain. Eta egin ahala, proposamen berriak sortzen zaizkigu jarraitzeko //



# Idiazabal



Azalera: 29,5 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 2.306, idiazabaldarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Izal Bai** (6) eta Bildu (5)

[www.idiazabal.eus](http://www.idiazabal.eus)



Parte-hartzearen ardura

**ALOÑA BARANDIARAN MUNDUATE**  
(zinegotzia)



Herritarrak parte hartzen Idiazabalen:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Komunikazioa eta herri-mugimendua	<b>PARTE-HARTZEA AHALBIDETZEKO WEB-ORRIA</b>	Idiazabalgo eragileen arteko sare-lana sendotzeko eta horiek antolatutako ekimenetan herritarren parte-hartzea handitzeko.	15 lagun (% 35 ♀, % 75 ♂)	2014ko maiatzetik 2015eko martxora	...

## PARTE-HARTZEA AHALBIDETZEKO WEB-ORRIA

**Noiz**

2014ko maiatzetik 2015eko martxora

**Parte-hartzaileak**

Herritarrak: 15 lagun (% 35 emakumezkoak, % 75 gizonezkoak)



**G**ipuzkoako herri askotan jarri dituzte martxan udalek komunikaziorako tresnak, herri-mugimenduko elkarten eta eragileen lana bateratuta jasotzeko eta herritarrentzat erreferentzia nagusia izateko, eta Idiazabalen ere martxan jarri zuten web-orri bat sortzeko prozesua.

Komunikaziorako tresna izateaz gain, web-orriak herritarrek parte hartzeko tresna ere izan nahi zuten, eta horrekin batera herri-sentimendua indartu, herri barruan parte hartzeko sarea osatu, Udala beti erdigunean egon beharra edo Udalarekiko mendekotasuna apurto eta sareko beste elementu bat gehiago

bezala kokatu, elkarten arteko elkarreragina hobetu, herritarren parte-hartzeak dakartzan onurak ikusarazi... Prozesu osoan ahalegin berezia egin zuten gardentasuna bermatzeko eta sustatzeko.

Egitasmoak hainbat fase izan zituen, eta horietako bakoitzaren barruan ekintza zehatzak:

- **Lehen fasean**, Udala harremanetan jarri zen eragile eta gero erabiltzaile izan zitezkeenekin, eta proiektua aurkeztu zien. Horretarako, hasteko, eragileen eta balizko erabiltzaile edo interesatuen zerrendak egin zituzten; gero, harremanetan jarri

ziren horietako bakoitzarekin, eta herri guztiak jakiteko, asmoen berri eman zen Idiazabalgo herri-aldizkarian.

- **Bigarren fasean** web-orria diseinatu zuten, eta horretarako, hasteko, elkarlanak ekar zitzakeen onurak elkarbanatu zituzten, beste herri batzuetako esperientziak ikusi zituzten eta web-orriaren diseinurik egokiena prestatzen hasi ziren (edukiak, itxura, sare sozialekin harremana...).
- **Hirugarren fasean**, web-orria sortu zuten, eta horretarako Udala harremanetan jarri zen kanpoko enpresa batekin.
- **Laugarren fasean**, web-orria nola dinamizatu eta erabiliko zen adostu zuten elkarteetako ordezkariekin batera. Elkarte bakoitzetik nori kudeatuko zuen erabaki zuten, eta lagun horiei trebakuntza eman zieten. Horrela lortu nahi zuten web-orriaren elikadura ohiko zeregina bihurtzea eta tresna bizirik mantentzea.
- **Bosgarren eta azken fasean**, web-orria aurkezteko asmoa zuten: prentsaurrekoa, udal-aldizkarian horren berri eman... Eta, gero, aldi batera, ebaluazioa eta balorazioa egiteko asmoa zeukaten, helburuak zenbateraino bete ziren, erreferentziala zen, erabiltzaile-kopurua... neurtzeko eta baloratzeko.





# Itsasondo



Azalera: 8,94 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 666, itsasondoarrak

Udalbatzarraren osaera:

Bildu (7)

[www.itsasondo.eus](http://www.itsasondo.eus)



Parte-hartzearen ardura

**ERKUDEN MENDIZABAL SAN SEBASTIAN**  
(zinegotzia)





**Herritarrak parte hartzen Itsasondon:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Auzolana	<b>AUZOLAN-TALDEA</b>	Auzolana berreskuratzeko asmoz, taldetxo bat hasi zen lanean, herrian lan txikiak egiten.	10 lagun (1 ♀, 9 ♂)	2013ko urritik aurrera	...
Hezkuntza eta Haurrak/gazteak/adinekoak	<b>ITSASONDO HAURREN HERRIA</b>	Benetako Herri Eskola eraikitzea eta 0-30 urte bitartekoentzat dauden zerbitzuen berri ematea.	9 lagun (6 ♀, 3 ♂)	2013ko irailetik aurrera	...
Herri-izaera eta Parte hartzeko sistema	Lantaldeak	Hiru lantalde aritu ziren lanean: Hirigintza eta Lurralde Antolamendua, Ongizatea eta Herri Bizitza. Hilean behin biltzen ziren eta bertan udal-teknikariek, zinegotziek eta herritarrek parte hartzen zuten.	Lurralde Antolamendua: 6 lagun (1 ♀, 5 ♂) Ongizatea: 6 lagun (5 ♀, 1 ♂) Herri Bizitza: 17 lagun (11 ♀, 6 ♂)	2013ko ekainetik aurrera	...


# AUZOLAN-TALDEA

## Noiz

2013ko urritik aurrera

## Parte-hartzaileak

10 lagun (1 emakumezko, 9 gizonetzko)



**A**uzolanak batez ere herri txikietan irau du bizirik, ohikoa da auzokoen arteko elkarlana, batez ere zenbait lan egiteko: herriko eraikinak konpontzeko, herri-bideak txukuntzeko, norbaiti zoritxarren bat gertatzen zaionean laguntzeko, uzta txandan-txandan jasotzeko... Udalek zerbitzu batzuk bere gain hartzearekin eta ematen hastearekin batera, ordea, badirudi auzolanaren garrantzia txikitzen joan dela herrietan, eta herritarren papera zerbitzu-hartzailearena dela, kontsumitzaile hutsarena. Zenbait lekutan, ordea, horri buelta eman nahi diote, uste dutelako auzolanak herritarren arteko lankidetzarako aukerak ematen dituela, auzolanak abantaila ugari dituela: herriaren eta herritarren egoera hobetzea, herritarrek hobeto ezagutzea elkar eta harremanak egitea edo sendotzea, jende berria ezagutzea...

Itsasondon, lantalde batek berriz ere heldu nahi izan zion lehengo ohiturari, herriarentzat onuragarria izango zelakoan. Horretarako, herriko lagun batzuen ekimenez, afari baterako deialdia egin zuten, eta han elkarturik, auzolanaren nondik norakoak azaldu ondoren, denen artean proposamenak landu zituzten; ondoren, proposamen horiek banan-banan aztertu eta aurrera nola eraman eztabaidatu zuten; azkenik, lehentasunak markatu zituzten.

Afari hartatik, hiru auzolan egin zituzten Itsasondon: plaza konpontzeko, frontoiari itxitura jartzeko eta eskolako baratzekeo txabola muntatzeko.

Egindakoaren balorazioa oso positiboa izan zen, auzolanerako talde finko bat lortu zutelako, baina ikusten zuten beste era bateko jendea ere inguratu behar zutela taldera, anitzagoa izateko: emakumezkoak, gazteak, jubilatua... Ikasitakoetan, berriz, nabarmendu zuten komeni zela lan txikiak edo errazak hartzea, tamainakoak eta goiza (hamaiketakoak barne) pasatzeko modukoak, eta on egiten zuela auzolan-saioen artean denbora-tarte bat uzteak.





## NIKOLAS RODRIGUEZ DE CASTRO

Mantentze-lanetarako  
teknikaria  
35 urte

“Auzolan-taldeak auzoetan edo herri txikietan sortzen diren lantaldeak dira. Boluntarioen lantalde hauek herriak edo auzoak behar dituen lanak egiten dituzte (hesiak edo bankuak margotu, igeltserotza-lan txikiak eta abar), herri txikiak jenderik edo mediorik ez daukatenean.

Auzolanak aukera ematen dizu herria edo auzoa hobetzeko. Lan hauekin jendea ezagutzen da, bizilagunen arteko harremanak sendotzen dira, gazteei parte hartzeko aukera ematen zaie eta, horiekin batera, egindako lanarekiko erantzukizuna.

Honelako proiektuak gehiago bultzatu beharko lirateke; horrela, lehenago balioak berreskuratuko lirateke: altruismoa, solidaritatea... //



## UNAI ALDASORO JAUREGI

Biltegiko langilea  
40 urte

“Auzolan-taldeko partaide naizen aldetik, esan behar dut horrelako ekintza baten aldeko hitz onak besterik ez dudala, gehienbat ondorengo hiru arrazoi hauengatik:

- Itsasondo herri txikia izanik eta jakinik kanpoko herrietatik etorritakoak asko garela, talde honek herrian integratzeko ematen digun aukera.
- Herriko konponketak auzolanean egiten direnean, egiten diren konponketa horiekiko sentitzen den ardura.
- Auzolanean antolatzean, herriko ume eta nerabeei transmititzen dizkiegun balioak, hala nola, elkartasuna eta solidaritatea.

Eta horregatik guztiagatik, aurrerantzean ere Itsasondon auzolan-taldeak antolatzen jarraitzeko nahia agertu nahi nuke //

# ITSASONDO HAURREN HERRIA

## Noiz

2013ko irailetik aurrera (2015eko apirilean amaitzea dago aurreikusita)

## Parte-hartzaileak

9 lagun (6 emakumezko, 3 gizonetzko)

hezkuntza



haurrak/gazteak/  
adinekoak



**G**ero eta herri gehiagotan jartzen da arreta hezkuntzan, haurrenean zein helduenean, formalean zein ez-formalean, are gehiago kanpotik datozen “erreformen” mehatxua hain nabarmena denean, eta han-hemenka oso proiektu interesgarriak sortzen ari dira. Horietako bat da “Itsasondo haurren herria”.

Haur-eskola eta eskola aspalditik daude herrian, baina azken urteetan haurrentzako eta gazteentzako ekipamendu ugari zabaldu dira: ludoteka, gaztelekua... Horiek, ordea, ezin dira hartu aparteko zerbait bezala, baizik eta dena bat da, haur berberak dabiltzalako batzuetan zein besteetan, eta horixe landu nahi izan zuen proiektu honek: benetako herri-eskola. Itsasondo bezalako herri txikietan, oinarrizko leku bihurtzen dira haur-eskola, eskola, ludoteka eta gaztelekua, eta herriari bizitasuna ematen diote. Gauza ederra da hori, babestu beharrekoa, eta asmo horrekin jaio zen proiektu hau: elkarlanean arituta, haurren zerbitzu horiek indartzeko eta herriari are bizitasun handiagoa emateko.

Gaur egun zerbitzuetara joaten diren haurrak izango dira etorkizuneko itsasondoar helduak, eta hezkuntzak paper garrantzitsua jokatzen du haurren sozializazio-prozesuan.

Zerbitzu horietatik, umeen izaera pertsonala garatzeaz gain, umeen herritar-izaera garatzen ere lagundu dezakete, euren herrietako sustraiak eta erroak ezagutaraziz eta haietaz harro sentiaraziz.

“Itsasondo ekinez egina” garatu zenean ere azaldu zen ideia hori, eta honela jaso zen: “Herriaren eta eskolaren arteko lotura bermatu, sendotu: eskola txikien egitekoa ezagutzera eman, Udaletik eskola bultzatu, Guraso Elkarteak indartu”. Horretarako, proiektu hau aurrera eramateko, aurrena Talde Eragilea sortu zen, proiektua gidatzeko eta segimendua egiteko. Proiektua aurrera eramateko, gainera, Haurren Mahaia edo Lantaldea





sortu zen apirilean eta harrezkero hilean behin elkartu zen; besteak beste, honelakoak landu zituen: haur-eskolari, eskolari eta gaztelekuari izena jartzeko prozesua; logoa aukeratzeko prozesua (protagonistak haurrak izan ziren, eta nola izan zen ikusteko, dena bideo batean grabatu zuten); esku-orriak egin eta herritar guztiei banatu, zerbitzuen berri emateko; eskolak bere urteroko bideoa egin zuen, baina 2014an herriko hainbat eragilek parte hartzea bultzatu zuen; abesti bat sortu eta grabatu zuten; eskolako matrikula-kanpainarako Guraso Elkarteak bideo bat egin zuen...

Horrela, lantalde horren lanari esker, denena zen egitasmo bat eraman zuten aurrera elkarrekin; halaber, Itsasondo ardatz hartuta, talde-lana, elkarlana bultzatu zuten eta herrira begirako egitasmoa irudikatu zuten; eta, azkenik, hainbat profesionalen (hezitzaile, irakasle, guraso eta teknikarien) arteko sare-lana lortu zen.

Egindakoa baloratzeko, ikasturtearen amaieran, ekainean, taldeak ebaluazio-saio bat egin zuen. Bertan baloratu zuten herritarrek ez zutela ezagutzen egitasmoa edo egiten ari zirena, eta askotan zaila zitzaieela azaltzea zertan ari ziren. Horregatik, 2014-2015 ikasturterako egitasmoa ikusgarriago egin nahi zuten, eta horretarako hainbat lan eta ekintza prestatu zituzten. Horrez gain, hasieran finkatutako helburuak lortzeko lanean jarraitzeko asmoa zeukaten.

Proiektua hasi berria zen eta ibilbide motza egin zuen, baina oso talde polita jarri zen lanean, eta garbi zeukaten bakoitzak bere zerbitzutik eta denek elkarrekin lanean, are gauza politagoak egin zitezkeela.



## AINARA URTEAGA

33 urte

Itsasondoko Udaleko suspertzailea eta "Haurren herria" egitasmoaren bultzatzailea

“Haurren herria orain urtebete sortu genuen Itsasondoko Udaleko Gazteria sailetik. Hasieran, ez genekien nora eramango gintuen honek guztiak. Guk garbi genuen, ordea, haur eta gazteekin lan egiten genuen profesionalak bat egin behar genuela. Horrela, haur-eskolako hezitzaileek, eskolako irakasleek, Guraso Elkarteko kideek eta nik osatu genuen lantaldea.

Lehen bileran, ekarpen positibo ugari jaso ziren eta ikusi genuen jendea lanerako gogotsu zegoela. Bertan, oinarri batzuk ere finkatu genituen eta lehen ikasturte honetan, horiek landu ditugu eta emaitzarekin pozik gaude. Ikasturte bukaeran balorazioa egin genuen eta guztiok ere pozik ginen lehen ikasturteak eman duenarekin.

Ibilbide motza egin dugu eta oraindik ere ez dakigu jarraitu behar dugun bide hori nolakoa izango den, baina profesionalen arteko sare-lana sortu dugu eta denok sinesten dugun egitasmo bat irudikatu dugu. Aurrera eramateko konbentzitura gaude eta horixe izango da gure bidea //

# Lazkao



Azalera: 11,4 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 5.465, lazkaotarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), EAJ-PNV (5) eta PSE-EE (1)

Herritarrek parte hartzeko webgunea:

[www.lazkaotarrok.eus](http://www.lazkaotarrok.eus)

[www.lazkao.eus](http://www.lazkao.eus)



Parte-hartzearen ardura  
**URTZI IRUIN ARRUTI**  
(zinegotzia)



Herritarrak parte hartzen Lazkaon:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Herritarrekin harremanak	<b>AUZOZ AUZOKO PARTE HARTZEKO PROZESUA</b>	Lehendik auzokako bileretan jasotako ekarpenei emandako erantzuna azaltzea eta herritarren keza eta ekarpenak jasotzea.	100 lagun (35 ♀, 65 ♂)	2013ko maiatzetik azarora	✓
Hirigintza eta Herri-galdeketa	<b>LAZKAOMENDIRAKO OINEZKOEN PASABIDEA</b>	Lazkaomendira eta hilerrira joateko oinezko pasabidea egiteko. Lehen fasean, hirigintza-teknikariek aukerak aurkeztu zituzten eta horiek jendaurrean erakutsi ziren, ekarpenak, galderak, zalantzak... jasotzeko. Bigarren fasean, behin betiko aukerak erakusgai jarri ziren jendeak bozkatzeko.	Herritarrak erakusketan: 210 lagun (104 ♀, 106 ♂) Herritarrak batzar informatiboan: 23 lagun (6 ♀, 17 ♂) Herritarrak bozkatzan: 768 laguna (381 ♀, 387 ♂)	2014ko irailetik abendura	✓

# AUZOS AUZOKO PARTE HARTZEKO PROZESUA

## Noiz

2013ko maiatzetik azarora

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 12 lagun (5 emakumezko, 7 gizonetzko): 7 hautetsi eta 5 teknikari

Herritarrak: 100 lagun (35 emakumezko, 65 gizonetzko)

herritarrekin  
harremanak



Lazkaon 2012an hasi ziren auzokako bilerak egiten, “Herritarrei hitza” izeneko ekimenarekin, eta harrezkero urtero egin dute berdin, Udala herritarrengana gerturatzeko eta lazkaotarren arazo, kexa, kezka eta abarrekoak aurrez aurre ezagutzeko eta jasotzeko.

2013an, maiatzetik azarora bitartean egin zituzten saioak, auzoka, guztira hiru bilera, herritarren parte-hartze aktiboa bilatzeko herriko erabakietan eta Udalaren eta herritarren arteko harremanak estutzeko. Bilera guztiek egitura berberari jarraitu

zioten: sarreraren ondoren, udal-ordezkariek egindakoaren berri ematen zuten, aurreko bileretan proposatutakoek zer ibilbide izan zuten eta aintzat hartu ez baziren, horretarako arrazoiak; gero, herritarrek hartzen zuten hitza, proposamenak egiteko, kexak adierazteko...

Udalak oso ondo baloratu zuen ekimena, harreman zuzen horretatik ekarpen ugari jaso zituelako. Hobetzekoetan, Udalak azpimarratu zuen asistentzia handiagoa nahi izatea, espero baino txikiagoa izan baitzen, baina bertaratuak gogotsu eta giro onean aritu ziren.

parte hartu<sup>+</sup>  
Lazkao



# LAZKAOMENDIRAKO OINEZKOEN PASABIDEA

## Noiz

2014ko irailetik abendura

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 4 lagun (1 emakumezko, 3 gizonezko): alkatea, parte hartzeko zinegotzia, udal-aparejadorea eta parte hartzeko teknikaria

Herritarrak erakusketan: 210 lagun (104 emakumezko, 106 gizonezko)

Herritarrak batzar informatiboan: 23 (6 emakumezko, 17 gizonezko)

Herritarrak bozkatzan: 768 (381 emakumezko, 387 gizonezko)

hirigintza



herri-galdeketa



Lazkaoko herrigunetik Lazkaomendi eta hilerrri aldera oinez joateko, errepidea zeharkatu beharra dago, baina jendea behar ez zen tokitik pasatzen hasi zen, bide laburrenetik. Oinezkoen segurtasuna bermatzeko eta herritar askok egindako eskaera aintzat harturik, Udalak obra hau onetsi eta parte hartzeko prozesu hau bultzatu zuen, herritarrak herriko erabaki garrantzitsuetan partaide izateko. Horrela, hainbat aukeratutik gustukoena edo egokiena hautatu zuten lazkaotarrek.

Funtsean, prozesuak hiru fase izan zituen:

- Lehen fasean (irailean) hirigintza-teknikariek aukerak aurkeztu eta jende aurrean erakutsi zituzten hainbat lekutan. Berrehun lagunek baino gehiagok hartu zuten parte eta guztira hogeitau galdera/ekarpen jaso zituen Udalak.
- Bigarren fasean, batzordeetan landu ondoren, ikusi zen bazirela beste bi aukera bideragarri eta horiek ere



aukeratzekoen artean sartu zituzten. Halaber, Udalak herritarren galderei erantzun eta ekarpen batzuk proiektuetan integratu zituen.

- Hirugarren fasean (azaroan), erabakitzeko unea izan zen, bozketaren bidez. Guztira zortzi aukera proposatu zituzten, bakoitza bere berezitasunarekin: pasabidea errepidearen azpitik edo gainetik, igogailuarekin edo arrapalaren bidez...

Bozkatzeko, ondorengo irizpideak edo baldintzak hartu zituzten kontuan: 2014ko irailaren 1ean Lazkaon erroldatuta egotea; gutxieneko adina, berriz, 2014an 16 urte betetzea; norberak ematea botoa (boto delegaturik ez); aukeran jarritako edozein lekutan bozkatzea; eta, azkenik, erroldatuta zegoela ziurtatzeko, nortasun-agiria.

Bozketa-egunen aurretik, hitzaldia izan zen Arerian kultur gunean, proposamenak aurkeztu eta zalantzak argitzeko. Bozkatzeko lekua, berriz, ez zen izan finkoa, baizik eta ibiltaria, aurrez jakinarazitako egutegi eta ordutegi baten baitan goizez eta arratsaldean, ahalik eta erraztasun gehien emateko herritarrei.

Bozketa azaroan izan zen, lau egunetan. 4.511 herritarrek zeukaten bozkatzeko eskubidea, eta 768k (% 17k) eman zuten. Botorik gehien Maizpide sarrerako kotatik lurpeko pasabidearen proposamenak jaso zuen (240 boto, % 31).


Baloraziori helduta, alkateak bereziki azpimarratu zuen herritarren ekarpenak ere oso baliagarriak izan zirela prozesuan eta lazkaotarrek lur azpiko pasabidearen alde zeudela nabarmen (bozkatu zutenen % 80). Prozesuak Udalaren aurreikuspenak gainditu egin zituen, prozesua eta bozkatzen hautatzeko era berria izanagatik herritar askok adierazi zutelako nahi zutena. Udalak proiektua lantzen eta idazten hasteko asmoa zeukan, eta 2015ean ez bazen, 2016an hastekotan ziren lanak.



**MIRIAM  
TALAVERA  
FONDON**

Ikaslea  
19 urte

“Nire ustez ondo egon da herriari iritzia eskatzea eta, alde horretatik, niri gustatu zait prozesu hau. Nire ustez ondo dago herriak hau edo bestea esatea. Entzun egin behar zaio”



**XABIER  
BARCINA  
NEIRO**

Ikaslea  
17 urte

“Niri amak esan zidan bide bat egin behar zutela eta bozka nezakeela 16 urterekin eta, orduan, pentsatu nuen zein proposatzen zuten eta bozkatzea etortzea erabaki nuen. Aukera emanez gero, oso argi neukan bozkatzera etorri behar nuela. Uste dut beharrezkoa dela zure herrian zerbait egin behar badute herritarrek bozkatzea”

# Legazpi



Azalera: 41,8 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 8.608, legazpiarrok

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), EAJ-PNV (3), PSE-EE (2)  
eta Hamaikabat (1)



Parte-hartzearen ardura  
**SAGRARIO ETXABE LASA**  
(zinegotzia)

[www.legazpi.eus](http://www.legazpi.eus)





Herritarrak parte hartzen Legazpin:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Garapen iraunkorra	Agenda 21eko foroak	Hainbat bilera, gai zehatzak lantzeko: udal-aurrekontuetako inbertsioak, biodibertsitatea, iraunkortasun-adierazleak, industria-ondarea, Laubide auzoko etxeen aurrealdea konpontzea, Kale Nagusia oinezkoentzat...	Batez beste, 20-25 lagun (% 50 ♀, % 50 ♂)	2001etik hilero	...
Hirigintza	<b>HIRIGINTZAKO ONDAREA BABESTEKO ETA ZAINZKEKO PLAN BEREZIA</b>	Plan Berezia aurkeztea, auzoz auzoko bileretan, eta herritarren ekarpenak jasotzea.	Lau bileratan, 88 lagun (40 ♀, 48 ♂)	2014ko urtarriletik martxora	✓
Haurrak/gazteak /adinekoak	<b>LATXARTEGIKO HAUR-JOLASAK</b>	Parkeko haur-jolasak berritzeko proiektua haurren botoen bidez aukeratzea.	501 boto	2013ko ekainetik uztaileira	✓



# HIRIGINTZAKO ONDAREA BABESTEKO ETA ZAINTZEKO PLAN BEREZIA

## Noiz

2014ko urtariletik martxora

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 7 lagun (4 emakumezko, 3 gizonezko): alkatea, udal-arkitektoa, Planaren idazleak (3) eta kanpoko aholkulariak (2).

Herritarrek: 4 bileratan, 88 lagun (40 emakumezko, 48 gizonezko)

hirigintza



**H**irigintza-ondareari dagokionez, Legazpi oso herri aberatsa da, inguruan gutxi bezalakoak: Espainiako Estatuan, 100 industria-ondare onenetako bat da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, 10 industria-multzo onenetako bat. Horretaz jakitun eta ondare horri balioa eman nahian, gaian aditua zen talde batek hilabete batzuetan herriko ondarea katalogatu egin zuen, etorkizunean babestutako eremu izendatzeko. Hori guztia babesteko eta zaintzeko, Plan Berezia egin zuen Legazpiko Udalak.

Plan hori hurrengo zortzi urteetan gauzatzeko asmoa zegoen, guztira bost milioi euro inbertitzea aurreikusi zuen Udalak eta 2013ko abenduan hasierako onarpena eman zion. Behin Udalak onartuta, denbora-tarte bat (hiru hilabete) zabaldu zen alegazioak egiteko. Babestu beharreko elementu bakoitzak fitxa bat zeukan Planean, eta fitxa bakoitza zegokion bizilagunari bidali zioten, behar zen kasuetan, alegazioak jarri edo iradokizunak egiteko. Horrekin batera, ordea, babestutako



auzoetako herritarrentzako aurkezpenak antolatu zituen Udalak, zuzeneko informazioa emateko.

Auzoetan egin ziren bileretan, beti eskema berberari jarraitu zioten:

- Hasteko, Planaren helburua azaltzen zuten (Legazpiko ondarea babestu eta hobetzea).
- Ondoren, Plana egiteko arrazoiak azaltzen zituzten.
- Gero, Plana zer zen azaltzen zuten: legezko agiri bat, udalerriko baliozko elementuak babesteko, 3 babes-mailarekin.
- Amaitzeko, udal-ordezkariek auzoko fitxa bakoitzaren xehetasunak azaltzen zituzten.

Gaia aurkeztu ondoren, auzotarrek hartzen zuten hitza, eta hainbat gogoeta eta ekarpen egin zituzten, gehienak Planarekin zerikusia zeukatenak, baina bestelako arazo eta gaiak ere azaldu ziren.

Saioen amaieran balorazioa egin zuten parte-hartzaileek. Bereziki eskertu zuten hurbiltasuna, informazioa lehen eskutik jasotzea eta Planaren edukia bertatik bertara ezagutzeko aukera; halaber, adierazi zuten Plan Berezia oso tresna lagungarria zela Legazpiri eta auzoei laguntzeko, baina ezinbestekoa zela herritar guztiak kontzientziatzea. Baten batzuek komentatu zuten Plana ondo zegoela, baina komeni zela erantzutea auzoetan dauden bestelako arazoei eta beharrei: trafikoa, irisgarritasuna...



Bestalde, babesten zena industria-ondarea zenez, herriko hainbat eraikin industrial ere babestu egin zituzten. Eraikin horietan hainbat enpresak (besteak beste, CIE Automotive, Bellota Herramientas, Gerdau, UZ eta Fundiciones Bereciartu) lanean jarraitzen zuten, eta Udala beraiekin bildu zen Planaren eraginak zuzenean azaltzeko eta enpresen kezkek eta iradokizunak jasotzeko.

Udalak ere balorazio positiboa egin zuen, batez ere Plana garatzeko ekarpen ugari jaso zituelako.

# LATXARTEGIKO HAUR-JOLASAK

## Noiz

2013ko ekainetik uztaiera

## Parte-hartzaileak

Bozketan: 501 haur

haurrak/gazteak/  
adinekoak



Latxartegi parkea Legazpiren erdigunean dago. Nahikoa egoera kaskarrean zegoen, hainbat tresna puskatuta, eta berri beharra nabarmena zen. Udara gainean zegoen eta une egokia zen lanak egiteko. Beraz, horretan aritzen ziren enpresa batzuei parkearen inguruko proposamenak egiteko eskatu zieten udal-teknikariek. Parkeak bi gune izan behar zituen: bata, 2-6 urtekoentzat; bestea, 7-12koentzat. Berritzeko lan horietan, haurrei (parkearen erabiltzaile nagusiei) hitza ematea erabaki zuen Udalak: aukeran ematen zitzaizkien bost proiektuetatik haurrek beraien gustukoena hautatzea.

Berritzeko proposamenak udaletxera iritsi zirenean, Legazpiko Udalak parte hartzeko eskatu zien haur eta gaztetxoei. Horretarako, ordea, ezinbestekoa izan zen herriko ikastetxeen inplikazioa: Domingo Agirre ikastetxeko zein Haztegi ikastolako 5-12 urteko haurrek aukerak ikusi eta aztertu ondoren, gustukoaren zuten parkearen aldeko boto ezkutua eman zuten. Ondoren, irakasleekin arrazoiak eta ondo mantentzeko zein konpromiso hartu behar ziren jaso zuten. Zer parke nahi zuten adierazteaz gain, haurrek

bizikidetzarako arauak adostu zituzten, eta betetzeko konpromisoa hartu ere bai; baina horiek guztiak hitz gutxitan laburbildu zitezkeen: lagunekin, jolasean, solasean, partekatuz, gozatu, zaindu, maitatu, etab.

Prozesuari urrutitik begiratuta, esan behar da haur eta gaztetxoak harrিতa gelditu zirela Udalak iritzia eskatu zirenean, eta are harrituago gehienek aukeratutako parkea jarri zenean. Izan ere, Udalak aintzat hartu zituen, beraien ahotsa eta iritzia kontuan hartua izan zen eta prozesuak erakutsi zuen herrigintzan aritzeko adin guztiak ezinbestekoak direla.

Prozesuaren balorazioari dagokionez, Udalaren ustez aurrerapauso garrantzitsua izan zen. Ordura arte, hirigintza-arloan haurrentzat zerbait egin izan zenean, gutxitan gerturatu ziren erabiltzaileengana, beraien ikuspegia ezagutzeko. Parte hartzeko kultura bultzatzeko, Udalak garbi zeukan herritarrak txikitatik hezi beharra dagoela.





# Mutiloa

Azalera: 8,8 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 262, mutiloarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Mutiloako Herri Kandidatura** (5)

[www.mutiloa.net](http://www.mutiloa.net)



Parte-hartzearen ardura  
**IÑAKI UGALDE ALUSTIZA**  
(alkatea)





**Herritarrak parte hartzen Mutiloan:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Auzolana	<b>AUZOLANA</b>	Bi auzolan egin zituzten, herriko hainbat leku txukuntzeko.	15 lagun (4 ♀, 11 ♂)	2014ko hasieran eta maiatzean	✓
Herri-izaera	Zerain eta Mutiloa elkarlanean*	Bi herrien arteko harremana eta elkarlana estutzeko eta sendotzeko, zerbitzuak konpartitzeko... proiektua.	50 lagun inguru (% 60 ♀, % 40 ♂)	2013ko apiriletik aurrera	...

\*Proiektu honen azalpena Zerainen atalean dago, **187. orrialdean**

# AUZOLANA

**Noiz**

2014ko hasieran eta maiatzean

**Parte-hartzaileak**

15 lagun (4 emakumezko, 11 gizonetzko)



**B**este herri askotan bezala, garai batean auzolana oso sustraitua zegoen Mutiloan, baserri-bideak konpontzeko, baso-bideak auzotarren artean garbitzeko eta abar; herritar gehienek hartzen zuten parte, eta ezin zuenak beste era batera laguntzen zuten, adibidez, hamaiketakoaren zati bat ordainduta. Baina pixkanaka auzolana indarra galtzen joan zen, eta ia desagertu ere egin zen.

Mutiloan bazeuden lan batzuk oso egokiak auzolanean egiteko, eta herri-bilera batean, herritar batek proposamena egin zuen. Hasteko, auzolanean egiteko moduko lanak identifikatu zituzten, eta 2014an, bi auzolan egin zituzten, bi goizetan: lehenengoan, elkartearen aurreko lorategia txukundu, Eskola Txikitik Ludotekara liburuak eraman eta txukundu eta, azkenik, jolastokiaren inguruan hesia jartzea; bigarrenean, berriz, Errotatxo ingurua txukundu zuten (sasi eta sastrakak kendu).



Auzolanak oso ondo baloratu zituen Udalak, batez ere hainbat balio indartzeko balio izan zutelako: elkartasuna, elkarlana, parte-hartzea... Lana herriaren onerako izan zen, eta parte hartu zutenak gustura aritu ziren, zerbait positiboa egin izanaz jabetuta. Aurrera begira, auzolan gehiago egiteko asmoa zeukaten.

# Ordizia



Azalera: 5,65 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 9.803, ordziarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7), **EAJ-PNV** (5) eta **PSE-EE** (1)

Parte-hartzearen ardura

**IZARO INTSAUSTI ZINKUNEGI**  
(zinegotzia)



[www.ordizia.eus](http://www.ordizia.eus)



**Herritarrak parte hartzen Ordizian:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Garapen iraunkorra	Atez atekoaren inguruko partaidetza-prozesua	Atez ateko bilketa-sistemaren informazioa eman eta ordiziarrek beraien beharrei erantzungo zien sistema diseinatzeko prozesua.	1.355 lagun (792 ♀, 563 ♂)	2013ko maiatzetik uztaiera	✓
Partaidetzazko aurrekontuak	<b>AUZOZ AUZO</b>	2014ko udal-aurrekontuak prestatzeko, auzoz auzo bilerak, herritarren ekarpenak jasotzeko.	61 lagun inguru (% 60 ♀, % 40 ♂)	2013ko urritik azarora	✓
Euskara	<b>EUSKARA-PLAN BERRIA</b>	2014-2018rako Ordiziako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana diseinatzeko.	Eragileak eta herritarrak: 12 lagun (7 ♀, 5 ♂)	2014ko otsailetik abendura	✓
Garapen iraunkorra	Oianguko Talde Eragilea	2012an egindako partaidetza-prozesuan lehenetsitako proiektuei segimendua egiteko.	8 lagun (4 ♀, 4 ♂)	2013tik aurrera	✓
Partaidetzazko aurrekontuak	<b>ORDIZIA ZABALIK</b>	Auzoz auzoko bilera-errondaz gain, eragile guztiekin beste bilera batzuk egin zituzten 2015eko aurrekontuari begira.	60 lagun inguru (% 60 ♀, % 40 ♂)	2014ko ekainetik abendura	✓

# AUZOS AUZO ETA ORDIZIA ZABALIK



## Noiz

2013ko urritik 2014ko abendura

## Parte-hartzaileak

120 lagun inguru (% 60 emakumezkoak, % 40 gizonezkoak)

partaidetzazko  
aurrekontuak



**2**013an, Ordiziako Udalak “Auzoz auzo” ekimena jarri zuen martxan, hainbat helbururekin: auzoetako errealitatea ezagutu, beharren berri jakin eta asetzen ahalegindu, auzoetako antolamendua (sarea) osatzen hasi eta hurrengo urteko (2014ko) aurrekontuan sartzeko proiektu batzuk jaso... Oso esperientzia positiboa izan zen, eta orduan auzotarrek proposatutako proiektu asko gauzatu egin zituzten: Otegi-Eneako arrapala egin, Okorro parkea egokitu, Plaza Nagusiko komunak berritu... 2014. urtean, berriz ere jarri zen abian “Auzoz auzo” ekimena, 2015eko aurrekontuei begira, baina berrikuntza nabarmen batekin: herriko eragileak eta elkarteak ere sartu ziren tartean.

Aurrekontuetarako proposamenak egiteko, bi lan-bilera egin zituzten eragileek, lehena irailaren 18an eta bigarrena urriaren 2an. Lehen bileran, eragileen proposamenak eta beharrak jaso zituzten; bigarreanean, berriz, horiek lehenetsi eta erabakiak hartu zituzten. Batez beste, bileretan 50 lagunek hartu zuten parte, eta guztira 295 ekarpen egin zituzten, mota guztietakoak. Proposamen horiek udal-teknikariek aztertu zituzten, eta herriko beharrei benetan erantzutea eta egingarriak izatea irizpidetzat

harturik, Udalak lehentasuna eman zien 41 proposameni. Gainerako ekarpenak ez ziren baztertu, eta lantalde, batzorde edo eragileekin aztertu zituzten bileretan, azterketa sakonagoa edo pausatua ere merezi zutelako. Ahal zuten kasuetan, lehenetsitako proposamen horiei diru-kopuru zehatza jarri zieten eta 2015eko udal-aurrekontuetan sartu zituzten.

Eragileekin bilerak egin ondoren, aurreko urteetako dinamikari jarraituz, auzoz auzoko bilerak egin zituzten, auzotarrek hobekuntzak proposatzeko auzorako edo herri osorako.

Udalak oso ondo baloratu zituen “Auzoz auzo” eta “Ordizia zabalik” ekimenak. Berez, lan handia eskatzen zuen antolatzeak eta aurrera eramateak, baina auzotarrekin eta eragileekin elkarrekin lan eginda, horien guztien nahien eta premien berri lehen eskutik jasotzen zen eta aukera ematen zuen udal-aurrekontuak benetan herritarren beharrak asetzerantz bideratzeko.





# EUSKARA-PLAN BERRIA

## Noiz


2014ko otsailetik abendura

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 10 lagun

(6 emakumezko, 4 gizonezko): 2 hautetsi eta 8 teknikari

Herritarrak: 12 lagun (7 emakumezko, 5 gizonezko)



**G**oierriren bihotzean, Ordizia oso herri euskalduna da, baina azken datu soziolinguistikoen arabera, bazegoen arduratzeko arrazoirik: gero eta euskaldun gehiago egonagatik, etxe barruko erabilera ez zen areagotzen; euskararen transmisioan, joera beherakoa zen; hurrek eta gazteek egiten zuten gehien euskaraz, baina zenbat eta helduago, orduan eta gutxiago... Euskara zaintzeko eta lantzeko, Ordiziako Udalak aspalditik zeukan martxan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, eta 2014an ESEPer (Euskara Sustatzeko Ekintza Planera) egokitu beharra zegoenez, 2014-2018 epealdirako, partaidetzako prozesu honen bidez aukera hori aprobetxatu zuen eragileak eta herritarrak inplikatzeko.

Proiektu honetan, hasteko, aurrelanak egin zituzten, 2014ko otsailean: informazio bildu, partaideak aukeratu, espazioak prestatu... Ahalegin berezia egin zuten Ordiziako eragile eta sektore desberdinen iritzi eta ekarpenak jasotzeko.

Martxoan eta apirilean, bilerak egin zituzten eragileekin eta herritarrekin, egoera diagnostikatzeko eta etorkizuneko planaren helburu, erronka eta abarrekoak zehazteko. Hasteko, azterketa

kualitatiboa egin zuten, eta, ondoren ekintzak esparruaren arabera antolatu zituzten; esparruak, berriz, helburu estrategiko bakoitzaren arabera (euskararen jabekuntza, erabilera eta elikadura). Bestalde, helburu estrategikoez gain, beste zeharlerro bat identifikatu eta jaso zuten: euskararen aldeko sentsibilizazioa eta motibazioa.

Azterketa kualitatibotik abiatuta, parte-hartzaileek lehenasunezko esparruak aukeratu zituzten: familia-transmisioa, irakaskuntza, euskalduntzea, arlo sozioekonomikoa, aisialdia eta kirola, corpus-plangintza eta kalitatea, hedabideak eta sentsibilizazioa-motibazioa. Euskararen egoera 2017an nolakoa izango zen irudikatuta, hitz edo ideia hauek errepikatu ziren: hizkuntza-eskubideak bermatu, oztoporik ez, esparru guztietan, harremanetarako hizkuntza... Euskaraz bizi, azken finean, euskararen normalizazioa bultzatzeko azpiegitura sendoarekin eta norbanakoak, elkarteak eta erakunde publikoak norabide berean lanean.

Partaidetzako prozesuan landutakoa Euskararen Aholku Batzordera eraman zuten, osatzeko, eta Planaren segimendu egokia egiteko, Euskararen Aholku Batzordearen osaera eta funtzionamendua ezarri zituzten. Hortik aurrera, abenduan udalbatzarrak aho batez onartu zuen Plana.

Prozesuaren balorazioari dagokionez, Udalak azpimarratu zuen herriko eragile garrantzitsuenak bildu zirela eta Udaleko sail askoren (Migrazioa, Kultura, Kirola, Berdintasuna...) inplikazioa lortu zela; hobetzekeotan, berriz, nahi baino herritar gutxiagok hartu zutela parte.

# Ormaiztegi

Azalera: 6,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.305, ormaiztegiarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (3), Ormaiztegiako Bizilagunak  
Elkarlanean (3) eta Ormaiztegiako  
Herri Taldea (3)

[www.orm aiztegi.net](http://www.orm aiztegi.net)



Parte-hartzearen ardura  
**AITOR IRAETA SIMON**  
(zinegotzia)



## Herritarrak parte hartzen Ormaiztegin:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Herri-izaera	<b>400. URTEURRENA</b>	Hiri-gutuna jaso zuenetik 400 urte beteko zirela-eta, herritarren artean ospakizuna antolatzeko asmoa zeukaten egitaraua, ekitaldiak...	Lehen bileran, 27 lagun (15 ♀, 12 ♂) Bigarren bileran, 10 lagun (5 ♀, 5 ♂) Hirugarren bileran, 14 lagun (10 ♀, 4 ♂) Laugarren bileran, 16 lagun (10 ♀, 6 ♂)	2014ko irailetik aurrera	...
Kultura	Kalean josteko eguna	Kalean josteko eguna ekimena aprobetxatuz, denen artean girlanda luze bat egin zuten eta tren-zubia apaindu zuten.	28 lagun (27 ♀, 1 ♂)	2014ko ekainean	✓
Kultura	Liburutegia	Liburutegia beste era batera antolatzeko proposamena egin zitzaion Guraso Elkarteari, eta herriko gaztetxoek liburutegiko txokoak apaindu eta liburutegiko kartelak sortu zituzten.	13 lagun (denak ♀)	2014ko apiriletik maiatzera	✓
Komunikazioa	Sare sozialak	Herritarrekin komunikatzeko, sare sozialak erabili zituzten, eta google formularioak izena emateko, iritzia eskatzeko (adibidez, zinemaren inguruan).	Zinemaren inguruko galdetegian, 24 lagun	2014 osoan zehar	✓

# 400. URTEURRENA

## Noiz

2014ko irailetik aurrera

## herri-izaera



## Parte-hartzaileak

Lehen bileran, 27 lagun (15 emakumezko, 12 gizonezko)

Bigarren bileran, 10 lagun (5 emakumezko, 5 gizonezko)

Hirugarren bileran, 14 lagun (10 emakumezko, 4 gizonezko)

Laugarren bileran, 16 lagun (10 emakumezko, 6 gizonezko)



**1** 615. urtea garrantzitsua da ormaiztegiarrentzat, urte hartan jaso zuelako Ormaiztegi hiri-gutuna edo -titulua, hau da, hiri independentearena. Harrezkero, gero berriz ere bat eginda ibili zen beste herri txiki batzuekin, “Zegamakoa” izeneko taldean, baina esan daiteke duela lauhun urte hasi zuela bere ibilbide propioa herriak. 2015ean urteurren biribila zeukaten, herriaren 400. urteurrenarena, eta gertaera berezi hori ospatzeaz gain, herrigintzarako eta herri-izaera lantzeko edo areagotzeko aprobetxatu nahi izan zuten.

Lanak garaiz hasi nahi izan zituzten, urtebete lehenago, eta ahal zen herriko eragile, elkarte eta herritar gehien inplikatu antolakuntzan eta ospakizunetan. Azken finean, urteurrenarena aitzakia baino ez zen ormaiztegiarrek elkarlanean jartzeko, bakoitzak egiten zuen horrekin besteena osatu eta elkarrekin aritzeko.

Udako oporraldiaren ondoren, bi tailer egin zituzten hainbat herritarrek, 400. urteurrena antolatzeko. Lehenengoan, 6 alor

desberdinetako 38 pertsona deitu zituzten, eta 27 elkartu ziren. Alorka edo gaika banatu ziren: historia, zabalkundea, musika-ekintzak, artea, jan-edana eta kirola. Talde bakoitzak berea landu zuen, eta emaitzak oso aberasgarriak izan ziren.

Bigarren tailerra irailaren 24an izan zen, eta aurrekoan baino herritar gutxiago elkartu ziren (10 lagun), ia denak aurreko tailerrean izandakoak. Nolanahi ere, hainbat elkartek adierazi zuten ezin zirela joan baina interesa bazeukatela, eta horiekiko lotura ziurtatuta zeukaten. Nagusiki, bi lantalde jarri ziren martxan: historia lantzeko taldea (besteak beste, hauek jorratzen: datuak eta kronologia, hitzaldiak eta herri-antzerki baterako oinarria) eta arlo musikalean dabilen lantaldea (alarde moduko bat egiteko asmotan). Antzerkiaren eta alardearen ideiak gauzatzen zihozten neurrian, eragile eta herritar gehiago sartu ziren proiektuan, eta hasierako helburua (herrigintza eta herri-izaera sendotzea) betetzeko bidean jarri zuten.

Urteurrenaren aitzakiarekin, antzeko interesak zeuzkan Ormaiztegi hiri aktiboena elkarrekin lanean jarri ziren, eta normalean herri-ekintzetan parte hartzen ez zuen jendea ere inguratu zen, gogotsu lanerako.





# Segura



Azalera: 9,2 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.480, segurarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (5) eta Segura Lantzen (4)

[www.segura.eus](http://www.segura.eus)



Parte-hartzearen ardura  
**AXIER ALUSTIZA TAPIA**  
(zinegotzia)



## Herritarrak parte hartzen Seguran:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Garapen iraunkorra	Atez ateko sistemaren balorazioa eta egokitzapena	Hondakinak biltzeko sistema baloratzeko eta egokitzapenak egiteko.	51 lagun (21 ♀, 30 ♂)	2014ko irailetik 2015ko urtarrilera	...
Garapen iraunkorra	Auzokonpostaren kanpaina	Hondakin organikoa herrian bertan tratatzeko, herritarrekin auzokonpost-kanpaina.	19 lagun (8 ♀, 11 ♂)	2014ko urtarrietik martxora	✓
Auzolana	Auzolana	Urtean zehar pare bat auzolan, txoko eta zerbitzu zaharkitu edo kaltetuak txukuntzeko edo konpontzeko.	38 lagun (17 ♀, 21 ♂)	Urtero	...
Parte hartzeko sistema	Batzordeak eta herri-batzarrak	Herritarrek informazioa jasotzeko, eztabaidatzeko, proposamenak egiteko eta herriko hainbat gaitan erabakitzaile izateko bilguneak.	Batzordeetan: 39 lagun Herri-batzarretan: 40-45 lagun (% 25 ♀, % 75 ♂)	Urtero	...
Hirigintza eta Herri-galdeketa	<b>ERREBOTE ERAIKINA: BOTA EDO MANTENDU?</b>	Lehen fasean, Errebote eraikinaren etorkizuna erabaki zuten, herri-kontsultaren bidez. Bigarreanean, hor zer egin erabakitzeko asmoa zeukaten.	Eskolako ikasleak: 150 lagun Herritarrak: 80 lagun Herri-kontsultan: 519 boto	2014ko martxotik aurrera	...
Berdintasuna eta Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteen arteko indarkeria matxista	Nerabeen eta gazteen prozesu batean, gazteen indarkeria matxistaren kezka azaleratu zen, eta gai hori landu zuten.	28 lagun (20 ♀, 8 ♂)	2013ko azarotik 2014ko maiatzera	✓
Haurrak/gazteak/adinekoak	Gaztelekuaren sorrera	Zerbitzua 12-16 urteko gazteekin batera diaseinatzeko: ordutegia, lokala atontzea...	22 lagun (12 ♀, 10 ♂)	2014ko uztailetik irailera	✓
Berdintasuna	Goierriko indarkeria matxistaren aurkako protokoloa	Goierriko herrien artean, eskualdean izaten diren indarkeria matxistako kasuen aurka protokoloa diseinatzea izan zuen helburu.	27 lagun (% 90 ♀, % 10 ♂)	2013ko azarotik 2014ko azarora	✓

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Kultura	Herri-antzerkia: antzerki komikoa	Kultura herrikoa sustatzeko eta herritarrek kultura egiteko, 2014ko sanjoan jaietan antzerki bat eszenifikatu zuten.	Antzezleak: 9 lagun (6 ♀, 3 ♂) Ikusleak: 300 herritar inguru	2014ko urtarriletik ekainera	✓
Kultura	Herri-antzerkia: memoria historikoko antzerkia	1950-1973. urteen artean kokatzen den antzezlan honek, 8 eszenatan, garai haietako segurarren bizipenak jasotzen ditu.	Antzezleak: 31 lagun (12 ♀, 19 ♂) Ikusleak: 700 lagun inguru	2014ko otsailetik abendura	...
Euskara	Herriko euskarazko hitzen bildumaren sorrera	Herriko euskara-elkartearekin elkarlanean, Segurakoak diren baina egun galtzen ari diren euskarazko hitzen bilduma egiteko proiektua.	Antolatzaileak: 9 lagun (3 ♀, 9 ♂) Elkarrizketatuak: 15-20 lagun (% 50 ♀, % 50 ♂)	2014ko urritik aurrera	...
Haurrak/gazteak /adinekoak	<b>HERRIKO TXIKIENKIN ERAIKITZEN</b>	Haurren iritziak, proposamenak eta kekek lehen iturritik ezagutzeko bilgunea da.	5-12 urte bitarteko haurren ordezkariak: 15 lagun (8 ♀, 7 ♂)	Urtero	...
Hezkuntza	Herritarrek eskola-komunitatearen parte	Eskola-komunitatean herritarren parte-hartzea areagotzeko, Herri Eskolak Kultur Aste berezia antolatu zuen. Programazioan, herritarren bizipenak izan ziren ardatz.	Helduak: 7 lagun (4 ♀, 3 ♂) Herri Eskolako ikasle entzuleak: 120 lagun	2014ko otsailean	✓
Kultura	Jai eta azokak herritarrekin antolatzen	Urtez urte egiten diren kultur jai eta azokak berriazko batzordean antolatzen dira.	30 lagun (% 40 ♀, % 60 ♂)	Urtero eta urte osoan zehar	...
Zerbitzuak eta Haurrak/gazteak /adinekoak	<b>LOKALAK BERRAZTERTZEA ETA GAZTEEN AISIALDIA</b>	Lokal huts batzuk nola antolatu definitzeko, batez ere 14-25 urteko gazteekin gauzatua.	Gazteak: 40 lagun inguru (% 40 ♀, % 60 ♂) Herri-batzarra: 25 lagun (16 ♀, 9 ♂)	2012ko abendutik 2014ko otsailera	✓
Kultura	Miñaripe lehiaketa	Mihiluze telebistako lehiaketaren Segurako bertsioa. Bi edizio egin ziren.	Antolatzaileak: 12 lagun (7 ♀, 5 ♂) 1. edizioan: 9 gazte (1 ♀, 8 ♂)	2014ko otsailean eta abenduan	✓

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Partaidetzazko aurrekontuak	Partaidetzazko aurrekontuak	2014an, herriko elkarteei eta taldeei diruz laguntzeko 85.000 euroko diru-partida nola banatuko zen beraienkin landu zen (irizpideak).	Batzordeetako herritarrek: 6 lagun (4 ♀, 2 ♂) Elkarteetako ordezkariak: bakoitzeko 2 (% 45 ♀, % 55 ♂)	2014ko azarotik abendura	✓
Berdintasuna	Segurako I. Berdintasun Plana	Herritarrekin egindako diagnostikoan oinarrituta, lehendabizikoz Segurak izango duen Berdintasun Planaren diseinua segurarekin gauzatu zen.	23 lagun (15 ♀, 8 ♂)	2014ko apiriletik abendura	✓

## ERREBOTE ERAIKINA: BOTA EDO MANTENDU?

**Noiz**  
2014ko martxotik aurrera

herri-galdeketa

**Parte-hartzaileak**  
Herri Eskolako ikasleak: 150 lagun  
Herritarrek: 80 lagun  
Herri-kontsultan: 519 boto

hirigintza



**E**rrabote eraikina Seguraren erdigunean dago, herriko plazaren eta parkearen ondoan. Itxura modernoko eraikina da, 80ko hamarkadan egina, baina herritarrek oso gutxi erabilia: garai batean eskulan-ikastaroak

eman zituzten, bertan komun publikoak egon ziren baina itxi egin zituzten... Azkenaldian, postariaren bulegoa eta baserritarren buzoiak baino ez zeuden han, eta eraikina oso egoera kaskarrean zegoen, hezetan-arazoekin, besteak beste, eta ez zituen beharrezko segurtasun-neurriak betetzen.







Horrekin batera, 2013ko partaidetzako aurrekontuetan garbi geratu zen herritarrek begiz jota zeukatela eraikina, zegoen lekuan egonda zerbait egin beharra zegoela, eta Udalak konpromisoa hartu zuen 2014an gaia lantzeko eta erabakitzeko: partaidetzako prozesu baten ondoren, galdeketa egitea proposatu zuen, eraikinarekin zer egin behar zen (bota edo mantendu) erabakitzeko.

Hasteko, Udalak informazioa zabaldu zien herritarrei, asmoen berri emateko. Ondoren, maiatzaren hasieran, herri-batzarra antolatu zuten, eta bertan, Udaleko ordezkariak eta udal-arkitektoak eraikinaren inguruko azalpenak eman zituzten, baita Udalaren planteamendua eta zer aukera zabalitzen ziren ere. Batzarraren ondoren, hurrengo asteetan, herritarren zalantzak argitu eta iritziak jaso zituzten, kalean eta sektoreka. Azkenik, maiatzaren 18an, galdeketa-eguna izan zen, galdera honekin: “Zer egingo zenute Errebote eraikinarekin? Bota/txukundu”.

Kontsulta horretan, ordea, izan zen nobedade garrantzitsu bat: beste batzuetan ez bezala, haurrek ere aukera izan zuten bozkatzeko. Izan ere, haurrekin lan berezia egin zuten, eskolan, gaia lantzeko. Baina horretara iristeko, bide batetik ibilbide oparoa egin zuten Segurako haurrek eta Udalak, elkarrekin: **“Herriko txikienekin eraikitzen”** izeneko proiektua. 2013an jarri zen martxan, haurrei hitza emateko, Udalak eta haurrak

elkarrengana gerturatzeko, eta lankidetzarako gunea sortu zen; horrela, aldiari behin elkartu egiten dira bileran, eta bertan ordezkaturata daude ondorengoak: 5-12 urteko haurrak (7 inguru), Eskolako irakasleak, Eskolako Zuzendaritza Batzordea, Guraso Elkarteak, Eskolako atsedendaldietako begiraleak eta Segurako Udala. Helburua da haurren iritziak, proposamenak eta kekek zuzenean adieraztea eta jasotzea, beraien kontuak udal-ordezkariak helarazteko aukera izatea. Gaiak, normalean, eskolakoak izan ohi dira, baina asko herri-mailakoak ere bai, eta hizketaldietatik alde bakoitzak bere konpromisoak hartzen ditu, ordezkari bitartez, hurrengorako. Horrela, lortu nahi da haurrak arduratzea beraien arazoez eta arrazoizko pertsona kritikoak izatea, eskolan eta bizitzako arlo edo esparru guztietan.

Errebote eraikinaren kontsultari berriz helduta, haurren eta helduen botoak bereizteko kolore desberdinak erabili zituzten: 6-16 bitarteko herritarrek kolore urdineko txartelekin bozkatu zuten; 16 urtetik gorakoek, berriz, laranja kolorekoekin. Emaitzak, berriz, hauek izan ziren: 519 lagunek hartu zuten parte kontsultan (bozkatzeko aukera zeukatenetik % 41ek); horietatik, 480 pertsonak (emandako botoen %92k) eraikina botatzea bozkatu zuten; 36 pertsonak (% 7k), berriz, txukuntzea; eta 3 pertsonak zuri bozkatu zuten. Azkenik, bozkatzaileen profila hau izan zen: 67 herritar 6-16 urte bitartekoak, eta 452 herritar 16 urtetik gorakoak.

Bozketaren emaitzak ikusita, herritarrek garbi adierazi zioten Udalari egin beharrekoa, eta beste fase bati ekiteko asmotan ziren: Errebote eraikina botata (2015eko hasieran), plaza ingurua antolatzea. Kontsultaren bidez, demokrazia zuzenaren tresna nagusia (herri-kontsulta) erabili zen lehen aldiz Seguran, eta oso esperientzia positiboa izan zen.

# LOKALAK BERRAZTERTZEA ETA GAZTEEN AISIALDIA

## Noiz

2012ko abendutik 2014ko otsailera

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 4 lagun (2 emakumezko, 2 gizonezko)

Gazteak: 40 lagun inguru (% 40 emakumezkoak, % 60 gizonezkoak)

Herri-batzarrean: 25 lagun

haurrak/gazteak/  
adinekoak



zerbitzuak



**S**egurako gazteek aspalditik eskatzen zuten lokal bat beraientzat, biltzeko eta aisialdirako, erreferentziazko leku bat nahi zuten urtean zehar antolatzen zituzten ekintzak aurrera eramateko, beraien gabeziak asetzeko. Gainera, Seguran bazeuden udal-lokal batzuk hutsik, Beheko Eskoletan, guztira zortzi, herritarrek erabiltzeko modukoak, eta horiek etorkizunean nola erabiliko zituzten parte hartzeko prozesu honen bidez zehaztu nahi izan zuten.

Horretarako, lehenik eta behin, herriko gazteen egoeraz hausnartu zuten, eta ondoren, gazteen interesak eta gainerako herritarren gabeziak kontuan izanik, lokal horiek nola erabil zitezkeen proposamena egin zuten. Ondoren, proposamen hori gainerako herritarrekin kontrastatu zuten batzordeetan eta herri-batzarrean, eta behin betiko erabileraz zehaztu zuten.

Azken proposamenera iristeko bidea, ordea, luzea izan zen, urtebete baino gehiago iraun zuena eta gorabehera handiak izan zituena, ertz eta eragindako askorekin: udal-ordezkaririk,

Gazte Asanbladako kideak eta gainerako gazteak, Udaleko zerbitzuetako langileak, herri-batzarreko kideak, eraikinen ondoko bizilagunak...



Funtsean, prozesu honetan herriko gazteak (norbanakoak eta antolatuak) Udalarekin elkarlanean aritu ziren, egunerokoan zeuzkaten arazoez eta nahiez eztabaidatzeko eta konponbideak bilatzeko, baina ondora ere begiratu zuten, gainerako herritarren beharrak ere aintzat harturik. Udalaren eta gazteen arteko elkarlana indartzeko aitzakia ona izan zen.

Esperientzia honek bi fase nagusi izan zituen: lehenengoan, gazteek eta Udalak parte hartu zuten; bigarrengoan, berriz, gazteek eta Udalak elkar hartu zuten (proposamen adostu batekin) eta gainerako herritarrekin aritu ziren, Udaleko batzordeen bitartez edo herri-batzarraren bidez, eta ondorenean ere gazteen eta Udalaren arteko harremanek jarraitu egin zuten.

Prozesuaren emaitza nagusia gazteen eta Udalaren arteko lan-harreman oparoa izan zen. Ordura arte, Segurako gazteen ahotsa edo hitza ahula zen, eta prozesu honi esker, aktibatu eta herriaren parte egin ziren. Gazteek proposamen aberatsa eta berritzailea egin zuten, zerbitzu berriez hornitu zuten herria, eta hori herritarrek aitortu eta onetsi egin zieten. Herriko eragileek eta Udalak prozesuaren emaitza errespetatu egin zuten, eta etorkizuneko Segurarentzat eraikin horientzat adostutakoa praktikan jarri zuten.

Balorazioari dagokionez, esperientzia aberatsa izan zen Udalarentzat, baina gogorra ere bai, aldi berean. Izan ere, zaila zen guztien beharrei eta espektatibei erantzutea, zaila zen herritarrek norbere gogoei uko egin gabe herri-ikuspegiz jokaraztea. Gorabehera handiko prozesua izan zen, tirabirez betea, zenbait momentutan luzeegia ere bai, herriaren esku ez zeuden faktore batzuegatik. Baina esperientzia orokorrean

hartuta, ahalegina oparoa izan zen. Garrantzitsua izan zen gazteei entzuteko eta hitz egiteko gune bat sortzea.

Ikasitakoari dagokionez, udal-ordezkarien ondorengoak azpimarratu zituzten: bereziki arreta handia jarri behar dela aurretiko antolaketan, batik bat, prozesuaren faseak zehaztean eta horiek denboran kokatzean, eta horiek uneoro errespetatu behar direla. Halaber, komeni dela hasiera-hasieratik gardentasunez hitz egitea eta asmoak eta helburuak prozesuan zehar errepasatzea, gaizki-ulerturik ez izateko eta parte-hartzaileek espektatiba errealak sortzeko. Azkenik, ahal den neurrian, komeni dela kanpo-faktoreak eta erabakiak aurreikustea, prozesua ez moteltzeko eta ondorioz giroa ez gaiztotzeko.



# Urretxu



Azalera: 7,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 6.890, urretxuarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (6), EAJ-PNV (4), PSE-EE (2)

eta Hamaikabat (1)

Parte hartzeko webgunea:

[www.urretxubiziz.eus](http://www.urretxubiziz.eus)

[www.urretxu.eus](http://www.urretxu.eus)



Parte-hartzearen ardura

**OIHANE ZABALETA MUJIKA**

(alkatea)

**JON ALTOLAGIRRE ASKASIBAR**

(zinegotzia)





Herritarrak parte hartzen Urretxun:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Sozioekonomia	Bertatik bertara	Lehen sektorea sustatzeko parte hartzeko prozesua, baserritarrak, kontsumitzaileak eta administrazioen arteko mahaiez osatua (inguruko beste udal batzuekin batera).	70 lagunetik gora	2013ko otsailetik aurrera	...
Kultura	Herri-opera	Urretxu eta Zumarragako herriko kultur ondarea jaso eta aitortzeko prozesu eta egitasmo kulturala, herriko kultur eragileak elkarrekin lanean jartzeko, estilo guztietakoak (klasikoa, herri-musika eta rocka, besteak beste) eta arte-diziplina ugariatako sortzaileekin (Zumarragako Udalarekin elkarlanean).	600 lagun (% 40 ♀, % 60 ♂)	2013ko urtarriletik 2014ko ekainera	✓
Herri-mugimendua	<b>HERRIGINTZA INDARTZEA ETA EGONKORTZEA</b>	Herriko elkarte eta eragileak indartzeko eta sendotzeko prozesu iraunkorra, aurrera begirakoa.	160 lagun (98 ♀, 62 ♂)	2013ko urtarriletik aurrera	...
Hirigintza	<b>IRIMO</b>	Irimo eremuan parte hartu: hiri soziala ehuntzen. Eredu bat herriarentzat berreskuratzeko partaidetzazko prozesu iraunkorra.	70 lagun (% 30 ♀, % 70 ♂)	2012ko urtarriletik aurrera, hainbat fasetan	...

# HERRIGINTZA INDARTZEA ETA EGONKORTZEA

## Noiz

2013ko urtarriletik aurrera

herri-mugimendua



## Parte-hartzaileak

Talde Eragilean: 8 lagun (2 emakumezko, 6 gizonetzko)

Sektoreetan (lantaldeetan): 87 lagun (32 emakumezko, 55 gizonetzko)



**U**rretxun herri-mugimendua bizia da, elkarrekin asko dira eta horiek gizarte aberats eta dinamikoaren erakusle dira. Baina mugimendu hori zaindu egin behar da, mimatu, lagundu, babestu, indartu eta horretan ari da Urretxuko Udala. Ez da, ordea, prozesu puntual bat edo epe jakin baterakoa, baizik eta apustua iraunkorra da, epe luzerakoa. Udalak kultura politiko berri bat gauzatu nahi du, eta herritarren eta Udalaren arteko informazioa eta elkarlana handiagotu.

Asmo nagusia herrigintza indartzea eta egonkortzea izanik, sektore bat baino gehiago izan zen lanerako. Sektore horietan egin ziren bileren bidez, sektoreak subjektu modura eta eragile modura eratu ziren, herriaren aurrean ekitaldiak antolatzen hasi ziren, eta beraien lana, pixkanaka, gero eta ikusgarriagoa egin zen. Horrela, gainera, herritarren eta udal-gestioaren arteko tartea laburtu nahi izan zuten. Lanerako, bi motatako estrategiak aurreikusi ziren: iraunkorrak, hau da, urtez urte landu beharrekoak; eta puntualak, hau da, hasi eta bukatu egiten zirenak.

Iraunkorretan, martxan zeuden sektoreetan akuilatzeko lanak egin zituen Udalak. Besteak beste, mahai sektorial hauek aritu ziren lanean: Berdintasuna, Ingurumena, Auzoak, Euskalgintza, Aniztasuna, Soziala, Kultura, Irimo eta Baserritarrak. Halaber, ahalegin berezia egin zen komunikazio-sarea ehuntzeko: eskura zeuden bitartekoak aztertu zituzten eta herritarrek, herri-elkarteek eta Udalak elkarri eragiteko modurik egokienaren arabera antolatu zituzten, besteak beste, honelakoekin: buzoi eta panelak, bideo blogak, blogak, *Kaixo* udal-aldizkaria, auzo-bilerak, herri-batzarrak, bandoak, Urola telebista, prentsaurrekoak... Azkenik, lan berezia egin zuten udal-areakontuak eta urteko Gestio Plana gizarteratzeko.

Estrategia puntualei zegokienez, Parte Hartze eta Komunikazio Araua formulatu eta konpartitu ere egin zuten mahaietan eta udal-teknikariekin. Halaber, erabakitzeko protokoloa (edo parte hartzeko sistema/arkitektura) ere amaitzeko asmotan ziren. Azkenik, Festa Batzordean ere herritarren eta eragileen partaidetza areagotzeko ahalegin berezia egin zuten (2013ko ekainetik aurrera).

Egindako lanari begiratuta, aurreikusita zeuden gehienak aurrera eramane ziren eta gutxi batzuk geratu ziren egin gabe. Herritarren partaidetza, oro har, mantendu egin zen eta kasu batzuetan hobetu ere bai, eta giro onean egin ziren bilerak.

Aurrera begira, bazeuden hainbat alderdi etorkizunean kontuan hartzekoak: herrigintzatik egin zen lana instituzionalizatzea eta arautzea, iraunkortasuna bermatze aldera; eskualdeko herrien arteko elkarlana estutzea eta areagotzea; sektoreen arteko elkarrekin bilatzea; auzoetako jarrera eskatu eta eskatu izan beharrean, auzotarren ekimena bultzatzea...



## MARISOL ERDOCIÁIN

Erretiroduna · 65 urte  
Mahai Sozialeko kidea

“Oso ondo iruditzen zaizkit prozesu hauek, ekimen hauek partaidetza bidez egitea, aukera ematen digutelako kaleko jendeari sentitzen duguna eta dauzkagun ideiak esateko. Ni neure inoiz ez nintzen sartu herriko kontuetan, eta orain ikusi dut gauza pila bat egiten dela, gauza horiek egitea asko kostatzen dela, eta baloratu egiten dut horien atzean dagoen lana. Hau da, orain % 100 baloratzen dut mahai honetan egiten dena.

Aurrera eraman dugun dinamika oso ondo iruditzen zait; gai sozialak oso gai trinkoak eta mamitsuak dira, konplexuak, eta gai batzuk aukeratzeko dituzunean, beste batzuk baztertu egin behar dituzu, ezinezkoa delako guztiei heltzea.

Bestalde, jende gehiagoren falta sumatzen dut, jende gehiagok parte hartzea. Normalean, honelako dinamiken aurrean, jende gehienak paso egiten du, nik orain arte egiten nuen bezala. Agian zaila izango da jendearengana iristea, baina orain konturatzen naiz nire ekarpena eginda gauza asko egin daitezkeela //



## JAVIER AGUADO GOÑI

Kazetaria eta paleontologoa · 60 urte  
Alde Zaharreko partaidetza-prozesuan hartu zuen parte

“Partaidetza-prozesuaren ekimenak estilo berri baten sentsazioa ematen du, eta auzotarrari protagonismoa eman nahi dio. Auzotarrak berak bultzatzea jarduerak eta egitasmoak, beharrezkoak dira. Beste kontu bat da oraindik ere bide luzea egin beharra dagoela orokortzeko, eta auzotarrei emandako eginkizun honetan, lehenetsia orokorra izatea eta ez horretatik ateratzea bakoitzak bere onura. Albiste ona da bideari ekin diogula, eta orain falta dena da jendea konbentzitzea bide honetatik ondo goazela.

Oro har, jende gehienak ez dio kasurik egiten honela, hainbeste jendekin, parte hartzeko eskaintzari, eta aztertu egin behar da zergatik. Arrazoi asko daude; batzuk ez datoz bat ideologikoki; beste batzuek, berriz, erraz-erraz parte hartzeko aukera eman arren, ez dute arduratsu jokatzeko //

# IRIMO

## Noiz

1. fasea: 2012ko abendutik 2013ko irailera; 2. fasea: 2013ko irailetik 2014ko uztaileira; 3. fasea: 2014ko uztailetik abendura, eta hortik aurrera ere jarraituko du

## Parte-hartzaileak

Talde Eragilean: 13 lagun (5 emakumezko, 8 gizonezko)  
Lantaldeetan: 70 lagun

hirigintza



Irimo izeneko industrialdea Urretxun dago, herrigunetik Legazpi alderako bidean, eta eremuak 75.000 m<sup>2</sup>-ko azalera du. XX. mendean, hor egon ziren industria garrantzitsu batzuk (adibidez, Sarralde), Urretxu eta inguruko garapen ekonomikorako motorra izan zen, baina azken urteotan jarduerarik gabe zegoen.

Urretxuko Udala aztertzen hasi zen Irimo guneari zer erabilera eman, eta, horretarako, herritarrekin batera parte hartzeko prozesu bat ireki zuen. Garai batean, industria-erakin zaharrak bota egiten ziren eta horiek zeuden lekuetan zonalde industrial edo erresidentzial berriak sortzeko joera egon zen, baina azkenaldian beste iritzi batzuk ere nagusitu ziren, memoria industrial mantentzearen aldekoak, ondasun horiek beraien baitan balioa dutelako. Irimo zen Urretxuri garapen-esparrua zabaltzeko geratzen zitzaien gune bakarrenetako bat, eta, horrez gain, kultura biziberritzeko proiektuetan ere inbertitu beharra zegoen. Aukera asko eskaintzen zituen Irimo inguruak, eta aukera horiek ondo bideratzeko ezinbestekoa





zen Urretxuko herritarren iritzia entzutea, eta horretarako jarri zen martxan partaidetzazko prozesua.

Irimokoa epe luzeko proiektua da, pixkanaka egiten edo eraikitzen ari dena, eta bere baitan hainbat fasekoa.

Lehen fasean, 2012ko abendutik 2013ko iraila bitartean, proiektuaren helburu nagusiak finkatu zituzten. 70 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten lantaldeetan, eskualdeko eta herriko ordezkari gisa: alderdi politikoei, garapen-agentziak, bizilagun-elkarteei, gazteriei ordezkariak, lurren jabeek, enpresariak, Adifek, Sprilurrek, Foru Aldundiak... Hasteko, ingurua birgaitzeko baldintzak adostu zituzten, besteak beste: garapen ekonomiko, sozial eta kulturala oinarri izatea; inguruarekiko, ingurumenarekiko eta pertsonetikiko arduratsua izatea; ekonomikoki jasangarria edo iraunkorra izatea; garapen endogenoa bultzatzea, eta, horrela, inguruko beharrei erantzutea; eraldaketa progresiboa eta malgua izatea, etorkizuna baldintzatu gabe... Prozesuaren baitan, ondorengo lan-ildoak garatzea erabaki zuten, besteak beste: pixkanaka garatzea, zatika eta progresioan, etorkizuneko planei aterik itxi gabe; Irimo ingurua herrian integratzea, aktibitate osagarrietarako eremu bezala; espazio publikoa erabiltzen hastea, ondare arkitektonikoa erakusgarri jarrita; garbiketa eta deskontaminazioan aurrerapausoak ematea; ekonomia-mota ezberdinak garatzeko leku bezala ulertzea; erabilera anitzak izan zituzten lan egitea; eskualdean enplegua sustatzea...

Bigarren faseari ekiteko, lehen faseko ordezkariak batekin Talde Eragile edo Motorra sortu zuten. Talde horren helburua izan zen lehen faseko emaitzak jasotzea eta hirigintza-eredu berria martxan jartzea, eta hiru zutabe nagusi izan zituzten lanerako: ekonomia, ingurumena eta hirigintza-prozesuak. 2014rako hainbat ekintza antolatu zituzten, eta, horrela, tokiko enplegua sustatuz lehen egokitzapen-lanak egin zituzten 2014ko

ekinetik aurrera, herritarrek gunea ezagutzeko eta eremua bistaratzeko, zati bat erabilgarri jarrita; halaber, ekintza batzuk egin zituzten herritarrek proiektuari buruz gehiago jakiteko, foroak eta hitzaldiak antolatuko zituzten...

Honelako proiektu konplexu eta iraunkor batean, garrantzitsua zen antolara eta egituraketa, eta hauek ezarri zituzten: Talde Eragilea (Urretxu eta Zumarragako pertsonen eta hainbat alorretako adituez osatua), lantaldeak edo azpibaldeak (komunikazioa, hirigintza, koordinazioa...), Talde Politikoen Mahaia (udaletako alderdi politikoei ordezkariekin) eta Jabeen Mahaia (Irimoko lurzoruren baten jabe zirenez osatua). Lanerako, berriz, honela aritu ziren: lantaldeen edo azpibaldeen ekintza-proposamena eta hausnarketak Talde Eragileraren eraman, onartzeko, eta ondoren Talde Politikoen Mahaian azaldu, horrek ere onespina emateko.



# Zaldibia



Azalera: 16,2 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.558, zaldibiarrek

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7) eta Zaldibia Herrigintza (2)

Parte hartzeko webgunea:

[www.zaldibia.org](http://www.zaldibia.org)

[www.zaldibia.eus](http://www.zaldibia.eus)



Parte-hartzearen ardura

**EÑAUT HERNANDEZ IRASTORZA**

(zinegotzia)



**Herritarrak parte hartzen Zaldibian:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Tokiko plana / plan estrategikoa	<b>NOLAKO ZALDIBIA NAHI DUZU?</b>	Etorkizuneko Zaldibiaz hausnartzeko eta hitz egiteko partaidetzazko prozesua.	200 lagun (% 60 ♀, % 40 ♂)	2014ko apiriletik abendura	✓

# NOLAKO ZALDIBIA NAHI DUZU?

**Noiz**

2014ko apiriletik abendura

**Parte-hartzaileak**

200 lagun inguru (% 60 emakumezkoak, % 40 gizonezkoak)

**tokiko plana / plan estrategikoa**



**H**orixe izan zen Zaldibiako Udalak herritarrei egin zien galdera, etorkizunean nolako herria nahi zuten, eta erantzunak jasotzeko eta geroko Zaldibia irudikatzeke parte hartzeko prozesu hau jarri zuten abian. Izan ere, udal-ordezkariek premia sumatu zuten geldialdia egin eta herritarren lehenetsun eta beharrak ezagutzeko, iritzi ezberdin edo kontrajarriak zeuzkaten puntuak adosteko eta zehazteko, eta gauza bakoitzak herritarrentzat zer lehenetsun zuen jakiteko. Normalean, udalean, dirurik ez izateak baldintzatu edo zaildu egiten du proiektu jakinak egitea, eta askotan diru-laguntzak lortu ahala egiten dira; oraingoan, ordea, zain egon gabe, aurrea hartu nahi izan zuen Zaldibiako Udalak. Gainera,

Udaleko bi alderdi politikoeak babes osoa adierazi zioten prozesuari, eta horrek sendotasun handiagoa eman zion.

Prozesuaren hasieran, lehenengo batzar orokor bat egin zuten, asmoak azaltzeko, eta ondorenean abiatu zuten prozesua, hiru faserekin:

- Lehen fasean, herritarren eta elkarten beharrak eta nahiak jaso zituzten, sektoreen araberako bilerak eginda (erretiratuak, gurasoak, herriko talde eta eragileak...).
- Bigarren fasean, behar edo nahi horietatik garrantzitsuenak aukeratu zituzten eta erabaki batzuk hartzen hasi ziren.

- Hirugarren fasean, azkenik, hizketan jarraitu zuten, beste erabaki batzuk hartu eta lehentasunak ezarri zituzten.

Besteak beste, plaza inguruaren berrantolaketa jarri zen mahai gainean: nolako udaletxea nahi zuten herritarrek, zer estilotakoa eta barrualdearen banaketa; edo plazako frontoia estali bai ala ez eztabaidatu zuten, baita nola ere; edo Artxanberri eraikinaren azpialdeko 1.200 metro koadroko lokalari zer erabilera emango zitzaion; edo haur-eskolaren egoera kaskarra konpondu eta jangelaren izaera pentsatu... Oso gai zehatzak ziren, eta horietan herritarrek bazeukaten zer esana eta zer proposatua.

Balorazioari dagokionez, Udalarentzat prozesua positiboa izan zen, jende ugari eta gogoz hartu zuelako parte eta herritarrek beraien beharrak jarri zituztelako mahai gainean. Prozesuak balio izan zuen jendeak Zaldibiaz zeukan iritzia jakiteko, baina erabakietako batzuk potoloak zirenez, etorkizunerako erronka bat ere jarri zuten: jende gehiago biltzeko gai izatea eta ateratako ideiak gauzatzea. Balorazioan, udal-ordezkariek adierazi zuten, ideia politikoetatik haratago, herritarren ahotsak berebiziko garrantzia du herria behar bezala eraikitzeke. Halaber, prozesua bideratzen kanpoko laguntza izatea oso ondo baloratu zuten, batez ere aurreiritziak baztertzeko.



## UXUE CASTELLANO ETXEBERRIA

Ikaslea · 19 urte

Gazte Asanbladako kidea

### Zergatik hartu zenuen parte prozesuan?

Herritar bezala, nik ere zer esana badudalako. Nire kasuan, bereziki, Gazte Asanbladako kide izanik, antzokiaren erabilera, plaza estaltzea... bezalako gaietan erabakiak hartzeko orduan, gure (gazteon) hitza ere kontuan hartzea nahi nuelako.

### Nola baloratzen duzu egindakoa?

Ez dut gogoan nik beste parte hartzeko prozesurik herrian; horregatik, nire aurreneko aldia zela ikusita, ongi baloratzen dut.

### Nola sentitu zinen?

Oso gustura eta eroso sentitu nintzen.

### Zer gustatu zitzaizun, bereziki?

Bertako giroa azpimarratuko nuke, eta horretan, iruditzen zait erabilitako metodologiak (talde txikietan lan egiteak) asko lagundu zuela.





## MARIA DOLORES ARANBURU GARMENDIA

Idazkaria, aurretik  
erretiratu · 64 urte

**Beti Gazte Jubilatu  
Elkarteko kidea**

### Zergatik hartu zenuen parte prozesuan?

Benetan beharrezkoa iruditzen zitzaidan. Adinekoen taldeak pisu handia dauka herrian eta prozesu honek gure ideiak elkarrekin trukatu, iritziak eman, kontuan har daitezen, eta denon artean etorkizuneko Zaldibia “lagunkoia” bihurtzeko aukera emango digu.

### Nola baloratzen duzu egindakoa?

Lan txukuna eta positiboa.

### Nola sentitu zinen?

Gustura. Gaia garrantzitsua zen eta gure aportazioa egiteko aukera izan genuen.

### Zer gustatu zitzaizun, bereziki?

Aurrez aurre ia inoiz egon gabeko gazteekin hain garrantzitsuak diren gaiak lantzea, inolako mugarik gabe. Besteengandik ikasteko aukera izan dugu.

### Zein izan dira emaitzak? Zer ondorio izan ditu?

Lan egiteko modu edo estilo berria gustatu zait, eta egokia iruditu zait.

### Aurrera begira, zer ikasi duzu?

Herria hobetzen saiatzeko udal-erabakietan parte hartzea garrantzitsua dela eta gure iritzi eta proposamenak kontuan hartzen direla.

### Herritarren partaidetzari dagokionez, aurrera begira, badaukazu proposamenik?

Herria berrantolatzeko bileretan parte hartzeko aukera asko ez dira izaten. Ez daukagu ohiturarik, baina parte-hartze zabalagoa lortu beharko litzateke.

# Zerain

Azalera: 10,37 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 263, zeraindarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Zeraingo Independentek** (3 zinegotzi).

Udaleko lantaldea 6 lagunekoa da.

[www.zerain.eus](http://www.zerain.eus)



Parte-hartzearen ardura

**ARANTZAZU MUÑOA ERRASTI**

(laguntzailea)



Herritarrak parte hartzen Zerainen:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Auzolana	<b>AUZOLANA</b>	Herriko leku batean lanak egiteko auzolana deitu zuen Udalak.	15 lagun (6 ♀, 9 ♂)	2014ko ekainean	✓
Tokiko plana / plan estrategikoa	<b>ZERAIN ETA MUTILOA ELKARLANEAN</b>	Bi herrien arteko harremana eta elkarlana estutzeko eta sendotzeko, zerbitzuak konpartitzeko... proiektua.	50 lagun inguru (% 60 ♀, % 40 ♂)	2013ko apiriletik aurrera	...

# ZERAIN ETA MUTILOA ELKARLANEAN

**Noiz**  
2013ko apiriletik aurrera

tokiko plana /  
plan estrategikoa



**Parte-hartzaileak**  
Udalaren izenean, 6 lagun (3 emakumezko, 3 gizonezko):  
Udaleko kide bat eta 5 herritar  
Herritarrak: 50 lagun (% 60 emakumezkoak, % 40 gizonezkoak)



**Z**erain eta Mutiloa herriak elkarren ondoan daude, bi herriguneen artean apenas dauden 2 kilometro, eta biak herri txikiak izanik, antzeko gauza asko konpartitzen dituzte. 2012ko espazio irekiaren bileran, ikusi zen komeni zela bi herrien arteko harremana estutzea lankidetzarako, eta horretarako jarri zen abian proiektu hau.

Hasteko, lantalde bat (Talde Eragilea) sortu zuten bi herrietako ordezkariekin, eta uztailean lanean hasita, 2013ko urrian egiteko, espazio irekiko beste saio bat prestatu zuen. Saioa Zerainen egin zen, “Mutiloa eta Zerain eskuz esku etorkizunari begira: zer eta nola?” izenburupean. Egun osokoa izan zen, sagardotegi batean, eta egunean zehar, hiru hizketaldi nagusitan, besteak beste gai hauek jorratu zituzten:

- **Hezkuntza eta denbora libre:** gurasoek zer behar eta gabezia zituzten aztertu zuten, eta bi herrien artean hilean behin ekintzaren bat (zinema, jolasak...) antolatzea adostu zuten, denek elkar ezagutzeko.
- **Beste herriein elkarlana:** eskualdeko ikuspegia kontuan izanik, elkarlanean jartzea inguruko herriein. Halaber, ekintza zehatz batzuk ere proposatu zituzten: herri-lanak elkarrekin egitea auzolanean, 5-6 herriren artean hitzaldi-zikloa antolatzea, baliabideak partekatzea...
- **Herri bakoitzaren identitatea:** bakoitzak bere izaerari eustea eta libre izatea bere erabakiak hartzeko, baina mahai gainean jarri zen erabaki batzuk elkarrekin hartzeko aukera.

- **Azpiegiturak eta baliabideak partekatzea:** zerrenda bat egitea herri bakoitzak zer daukan eta zer falta zaion, dagoena partekatzeko eta ez dagoena erosteko. Azpiegitura handiak (frontoia, igerilekua...) egin edo berriro aurretik hausnartzea, bi herrien artean erabili ahal izateko.
- **Mugikortasuna:** Segurarako zerbitzua hobetzea (autobus-linearekin koordinatuta eta umeen eskola-ordutegiarekin bat), asteburuetak gauetak zerbitzua bi herriotara iristea, data jakin batzuetan (jaiak, feriak..) zerbitzua izatea, taxi-zerbitzua martxan jartzea...
- **Koordinazioa:** elkarlanak iraunkorra izan behar zuen, eta erabaki zen koordinaziorako talde bat sortzea.
- **Ekintza zehatzak epe motzera:** kultur astea, ekintzen kartelak bi herrietan jartzea, *Xaguartea* aldizkaria bi herrietan banatzea, ekintza informalak (afariak, ibilaldiak, festak)...
- **Adineko jendea elkarrekin:** jubilatuek zerbait antolatu nahi zuten baina ez ziren elkartzen behar adina lagun, eta proposatu zen herriak elkartuta taldeak osatzea eta gustuko ekintzak antolatzea. Halaber, zaintzaren gaia ere aztertu zuten (jende nagusi asko are jende nagusiagoa zaintzen).
- **Mutiloa eta Zerain 2100. urtean:** nolakoak izango diren herriak handik 90 urtera. Honela imajinatu zituzten: lurrari lotuta, baina fibra optikoarekin, garraio automatikoekin, autogestio energetikoa eginez, baserriak bizirik eta komunitatean biziz...
- **Turismoa:** “Mutiloak eta Zerainek zer eskain dezakete elkarrekin?” galderari erantzun zioten. Paisaia, meatzaritza, ibilbideak, sagardoa eta gazta, Ehun Miliak, eskaintza gastronomikoa, Santiago bidea, bi herrietako pertsonaia ospetsuak...

Lanerako, “espazio irekia” izenekoa erabili zuten, Zerainen ezaugarrietara ondo egokitzen dena, eta oso motibagarria izan zen parte hartu zutenentzat. Saioa prestatzeko eta garatzeko kanpoko laguntza izan zuten, eta aipatu zen aurrera begira ona litzatekeela inguruko norbaitek saioak dinamizatzen ikastea edo trebatzea.

Saioa amaitu zenean, bertan landutakoaren txostena herritar guztien eskura jarri zen eta Talde Eragileak lanean jarraitu zuen, hilean behin elkartzen, txandaka Zerainen eta Mutiloan. Ordutik beste ekimen batzuk ere gauzatu dituzte: Zeraingo *Xaguartea* hilabetekaria mutiloarren eskura jartzea eta hango berri ere Zerainen jasotzea; Guraso Elkartea haurrekin hainbat ekimen bateratu egitea (talo-jana, bideo-emanaldia...); mendi-ibilaldi bat elkarrekin, Zerain eta Mutiloa lotuz...

Gerturatzea poliki-poliki hasi zuten, pixkanaka, bazekitelako elkarlanean sakontzea ez dela erraza herri bakoitzak bere lan-ohiturak eta inertiak dituenen. Baina gogotsu zeuden elkarlanean jarraitzeko.







## LOLI GONZALEZ GARATE

Administrari komertziala  
60 urte

**"B** ageneukan soro eder eta emankor bat, baina belar txarrez eta sasiz josia. Azolanean garbitu egin dugu eta orain lurra prest dago landatzeko. Bertan, landare ezberdinak, anitzak... orokorrean, bakoitzak nahi duena landatu dezake. Denbora alferrik galdu gabe, landatu, ureztatu eta zaintzen badugu, ziur uzta oparoa jasoko dugula! "



## ANDONI ALUSTIZA ASEGINOLAZA

Ikaslea  
20 urte

**"N** iretzat ez zen ezezaguna Oiharten egitera gindoazen espazio irekiko saioa, aurrez ere, urtebete lehenago, Zeraingo elizan egin genuen 'Zerain herri proiektua: nola etengabe berritu eta egokitu' saioan izana bainintzen. Gaia, ordea, Zerain eta Mutiloaren arteko elkarlana, oso berria zen, eta horrek errezelo apur bat sortzen zidan. Hala ere, deialdia ikusi eta bertan parte hartzea erabaki nuen. Bi herrien artean jorrazeko moduko gai mordo atera ziren mahai gainera, oso motibatuta igaro genuen eguna, bai zeraindarrok, baita mutiloarren ere. Energiatz beteta eta indarrez gainezka atera ginen saiotik. Kezka nagusi batekin, ordea: nola eman jarraipena han landutako guztiari? Badakit jarraipen-taldearen bidez hainbat gai lantzen ari direla orduz geroztik ere, baina sentsazioa dut horrelako saioak egiten direnean bertan sortzen den ideia-jasari kontinuitatea ematea kosta egiten dela "


# AUZOLANA

## Noiz

2014ko ekainean

## Parte-hartzaileak

Auzolanean: 15 lagun (6 emakumezko, 9 gizonetzko)



**2** 014ko maiatzeko herri-bileran, proiektu baten berri eman zen: Jauregiren eta Gurea Taldeko blokeen arteko zati bat, “Txaleta” deitzen zaion bidearena, eraberritzeko proiektua gauzatzeko asmoa zegoen; aspalditik zegoen noiz egingo, eta aukera ezin hobea sortu zen Udalak diru-laguntza lortu zuenean Gipuzkoako Foru Aldunditik. Herri-bileran komentatu zuten komeni zela festen aurretik egitea lanak, zehazki, hauek: sarea kendu, lurra berdindu, zuhaitz eta landare batzuk kendu, beste batzuk txukundu, eserleku batzuk jarri, argiteria berria jarri... Bileran bertan, proposamen gehiago ere izan ziren, eta lanetako asko samurrak eta edozein herritarrek egiteko modukoak zirela ikusirik, auzolana deitzea erabaki zuten.

Lan guztiak ez ziren amaitu, eta esperentziaren arrakasta ikusita, seguru asko etorkizunean berriz ere antolatuko da.



# LEGAZPI, URRETXU ETA ZUMARRAGAKO UDALAK ELKARLANEAN

## UROLA GARAIKO ESKOLA AGENDA 21A

Noiz  
2013-2014 ikasturtea

garapen  
iraunkorra



### Parte-hartzaileak

Udalen izenean, 6 lagun (3 emakumezko, 3 gizona):  
udal bakoitzetik teknikari bat (3) eta alkateak (3)

Eskoletan: 3.000 ikasle, gutxi gorabehera.

Irakasleek eta guraso-taldeek ere hartzen dute parte  
(guztira: 16 emakumezko, 5 gizona)



**L**egazpi, Urretxu eta Zumarraga elkarren ondo-ondoan daude, oso antzekoak dira tamainan eta beste ezaugarri askotan. Hirurek ere aspalditik daukate martxan Agenda 21 programa, eta hiruretan lantzen da gaia herrietako ikastetxeetan. Beraz, logikoa da herri bakoitzak berea landu beharrean elkarrekin aritzea, elkarlanean.

Eskola Agenda 21aren bidez, eskoletako ikasleak bultzatu egin nahi dituzte herriko kudeaketan parte hartzera, eta, baita ere, herrian lantzen den Agenda 21 programako gaiak eskola-komunitate osoari helaraztera (ikasle, irakasle, guraso, langile...) eta horiek guztiek ere programan parte hartzera.

Horretarako, hasteko, bilerak egin zituzten udal-teknikariek, irakasleek eta aholkulariek, hurrengo urtean ikasleek landuko zuten materiala prestatzeko; gero, ikasleek hori ikasgelan landuta, emaitza udaletara bueltatu behar zuten. 2013-2014 ikasturtean “biodibertsitatea eta hondakinak” gaia landu zuten: inguruari begiratu eta egoera aztertuta, egoera hobetzeko egin zitezkeen ekintzak proposatu zituzten, baita ikasleek beraien hartzeko konpromisoak ere, eta horiek zenbateraino bete zituzten neurtzeko, adierazle-sistema bat landu zuten. Baina, horrez gain, proposamen zehatzak egin zizkieten udalei eta erantzunak eskatu ere bai; udalek konpromiso batzuk hartu zituzten, eta horien segimendua egin behar zuten gero ikasleek, agindutakoa zenbateraino bete zen jakiteko.

Ikasleek nahitaez hartu behar izan zuten parte, eskola-orduetan landu zutelako, baina, hala ere, oso gogo onez aritu ziren, gogotsu eta langile, eskolatik kanpo ere lan asko egin behar izan baitzuten (informazioa bilatu, familietan eta inguruan datuak bildu eta galdeketak landu, irteerak, etab.).

Lanerako oinarri nagusia fitxa-eredu bat izan zuten, gai desberdinak lantzeko: inkestak, dibulgazioak, etab. Fitxak orokorrak ziren, guztientzat berdinak, baina ikastetxe bakoitzak beretzat egokienak zirenak aukeratu zituen, gaia, berez, zabalegia zelako. Fitxa horietan, zer gai landu behar zen, lanerako era desberdinak proposatzen ziren: batzuetan, inguruko informazioa bildu eta egoeraz hausnartu taldeka; beste batzuetan, arazo zehatzen aurrean proposamenak landu... Segimendua egiteko metodoa ere bazeukaten ikasleek, beraien konpromisoak zenbateraino bete zituzten neurtzeko, udalei egindako proposamenen betetze maila neurtzeko...

Honelako proiektuetan, garrantzitsua da prozesua ikasleei egokitzea; izan ere, gai bakoitza lantzeko modua ikasleen ezaugarriei egokituz gero, guztien parte-hartzea posible da.

# kosta



## Herriak (5)

Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaia

## Biztanleak

42.120 (gipuzkoarren % 5,93)

## Azalera

101,27 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 5,09)





**e**skualde honen bereizgarri nagusia itsasertzarekin edo kostarekin daukan lotura da. Iparreko muga Kantauri itsasoa da, eta herri guztien lurrek ukitzen dute, gainera; ekialdean, Donostia, Buruntzaldea eta Tolosaldea dauzka; hegoaldean, berriz, Goierrri eta Urola Erdia; eta, azkenik, mendebaldean, Debabarrena.

Sarritan, eskualde handiago baten barruan ere azaltzen dira hemengo herriak, Urola Erdikoekin bat eginda: Urola Kosta izenekoan.

Bi ibai nagusi itsasoratzen dira eskualde honetan: Urola (Zumaian) eta Oria (Orio eta Aia artean).

Eskualdeko biztanleriaren bilakaerak goranzko joera izan du, oro har, eta kostaldean egoteak erakarmen berezia dauka, batez ere udan. Halaber, Gipuzkoako eskualderik euskaldunenetako bat da.

Zerbitzuen sektorean eta industrian lanean ari diren kopuruak berdintsuak dira –% 40 inguru–; era berean, eraikituntza eta lehen sektorean kopuru berdintsuak ari dira lanean

–% 8 inguru–. Lehen sektoreak beste eskualdeetan baino pisu nabarmenagoa dauka Kostan, bereziki baxurako arrantzak Getarian eta Orion, eta nekazaritzak, Aian.

Komunikazioei dagokienez, A-8 (Bilbao-Behobia) autobidea doa Orio eta Zumaia artean, baita N-634 kostaldeko errepidea ere. Urolaren bailararekin lotura GI-631 errepidearen bitartez egiten da (Zumaiatik Zumarragara). EuskoTrenek, berriz, geltokiak ditu Getarian ez beste herri guztietan eta ondo lotzen ditu herriak elkarrekin eta Donostiarekin. Autobus-zerbitzua ere badago, Lurraldebusek eskainia, eta Zumaia da abiapuntua, bai Donostia aldera, baita Zumarraga aldera ere.

Turismoari lotutako jarduerak garrantzi handikoak dira kostaldean, batez ere hondartzekin erlazionatuak (adibidez, Zarautzen). Azkenaldian, berriz, indar handia hartzen ari da Zumaia ingurua, geoparkearekin eta harraldearen inguruko eskaintzarekin. Azkenik, eskualdean nahikoa ohikoak dira oporretako “bigarren etxeak” eta udaldiko alokairuzkoak, batez ere Zarautzen eta Zumaian ■

# Aia



Azalera: 55,10 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 2.039, aiarak

Udalbatzarraren osaera:

**EAJ-PNV** (6) eta Bildu (5)

[www.aia.eus](http://www.aia.eus)



Parte-hartzearen ardura

**IGOR ITURAIN IBARGUREN**

(alkatea)



Argazkia: Oñintza Leste (Uroia Kostako Hiriza)


**Herritarrak parte hartzen Aian:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Sozioekonomia	<b>AIA, BIZI-ITURRI</b>	Turismoaren Plan Estrategikoa egiteko prozesua, turismoaren alorrean lan egiten duten eragileekin elkarlanean.	7 lagun (5 ♀, 2 ♂)	2014ko otsailetik uztaiera	✓

# AIA, BIZI-ITURRI

**Noiz**  
2014ko otsailetik uztaiera

**Parte-hartzaileak**  
Lantaldean: 7 lagun (5 emakumezko, 2 gizonezko)



**G**ipuzkoako herri asko dira ezagunak turista askoren jomuga izateagatik, eta gero eta herri gehiago ari dira ahalegintzen turistak erakartzen, eskaintza erakargarri eta berezien bidez, arlo sozioekonomikoarentzat (eta batez ere hirugarren sektorekoentzat, zerbitzukoentzat) onuragarria delakoan.

Aia da horietako herri bat. Pagoetaren magalean, naturaz gozatzeko eta mendian ibiltzeko aukera bikainak eskaintzen ditu eta asko dira Aian geldialdia egiten duten kanpotarrak. Horiek noiz etorriko zain egotea ez da nahikoa, ordea, eta beharrezkoa da erakartzeko eta prest egoteko plangintza egitea, eta horretarako jarri zen martxan “Aia, bizi-iturri” proiektua: Aiako

herrian Turismoaren Plan Estrategikoa egiteko, Aian turismoari begira lan-ildo bat markatzeko, epe laburrera, ertainera eta luzera. Hori egiteko ardura Aiako Udalak hartu zuen, baina garbi zeukan turismoaren alorrean aritzen ziren eragileekin elkarlanean egin behar zuela: herriko tabernariekin, jatetxeekin, nekazaritza-turismoko etxeekin, gaztagileekin, sagardogileekin, txakolingileekin, Pagoeta Parke Naturaleko arduradunekin eta gaiarekin zerikusia zeukaten beste hainbatekin batera.

Plan Estrategikoa egiteko, deialdi irekia egin zuen Udalak, baina bereziki turismoaren alorrean lan egiten dutenei, eta zazpi lagunez osatutako lantaldea jarri zen martxan. Lantalde horrek, bost bileratan, plana gauzatu zuen, eta gainerako eragileekin unean uneko informazioa jaso zuten eta ekarpenak egiteko aukera ere izan zuten, 35 lagunek, gutxi gorabehera. Behin idatzitakoan, Udalbatzarrak onartu egin zuen, urrian, eta ondoren Udalak jendearen aurreko aurkezpenak egin zituen, Plana ezagutarazteko. Hasieran, Udalak hartu zuen lidergoa, baina asmoa zegoen pixkanaka sektorekideek gero eta ardura handiagoa hartzeko. Garrantzitsutzat jotzen zuten epe motzerako pausoak ematea, emaitzak ahalik eta azkarren ikusteko, sendotasuna eta seriotasuna ikusteko eta turismoaren arloan aritzen zirenek ere parte hartze zuzena izan behar dutela jabetzeko.



# Getaria

Azalera: 10,60 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 2.726, getariarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (5), **EAJ-PNV** (5) eta **Aralar** (1)

[www.getaria.net](http://www.getaria.net)



Parte-hartzearen ardura

**AITOR IRIGOIEN ODRIOZOLA**

(zinegotzia)





Herritarrek parte hartzen Getarian:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Auzolana	<b>GETARIAUZOLANEAN</b>	Herriko txukuntze- eta konpontze-lan batzuk auzolanean egitea.	20 lagun inguru (% 50 ♀, % 50 ♂)	2014ko urrian	✓
Partaidetzazko aurrekontuak	<b>GUZTIOK BAT!</b>	Udal-aurrekontuak herritarrei aurkeztea eta herritarrekin lantzea.	70 lagun (35 ♀, 35 ♂)	2013ko urritik 2014ko urtarrilera	✓
Herritarrekin harremanak eta Komunikazioa	Udala informatzen	Hilean behin Udalak bilera baterako deialdia egiten du, herritarrei zuzeneko informazioa emateko.	20-40 lagun (% 70 ♀, % 30 ♂)	2013ko abendutik aurrera	...

# GETARIAUZOLANEAN



Noiz

2014ko urrian

Parte-hartzaileak

Herritarrak: 20 lagun (% 50 emakumezkoak, % 50 gizonezkoak)

auzolana



**D**uela hainbat urte, Getarian, eta Euskal Herriko herri askotan, oso ohikoa zen herria txukundu eta konpontzeko herritarrak elkartzea eta auzolanean aritzea. Azken hamarkadetan, ordea, kultura hori nolabait galdu egin da, eta Getarian ere bai. Azken urteotan berreskuratzeko ahalegin txalogarri baten esperientzia bazegoen, ordea, Surf Elkarteak bultzatuta: urtean behin, Gaztetape hondartza garbitzeko auzolan-deialdia egiten da, eta oso egokia eta arrakastatsua izaten da.

Aspalditik zeukan asmoa Udalak auzolana bultzatzeko, herriarentzat eta herritarrentzat onuragarria delako: herritarrek elkar –gehiago– ezagutzeko, harremanak estutzeko, komunitaterako hobekuntza... Horregatik jarri zuen Udalak martxan Getariauzolanean proiektua, urtean behin, gutxienez, herrian ekintzaren bat auzolanean egiteko.

Auzolaneko lehen saiorako, Katxapo ingurua aukeratu zuten. Getariaren bereizgarrietako bat San Anton mendia da, itsasoan barneratzen dena; portutik gora doan errepidetik jarraituta, paolaren inguruetan, San Antonen paraje ederrak daude aisialdirako, itsasoari begiratzeko leku bikainak. Mendiaren goienean, berriz, Katxapo dago, garai batean talaia izandakoaren

eraikina. Talaia itsasoa zaintzeko lekuak dira: enbata edo ekaitzaren etorrera, kortsarioen etorrera, arrainen edo baleen presentzia... Jakina, gaur egun ez da horretarako erabiltzen, baina ikuspegia lehen bezain ederra da. Eraikinari dagokionez, XX. mendekoa da, eta azken urteetan nahikoa utzita zegoen, alferrik galduta. Horregatik, bazegoen zer egina: barrua eta kanpoaldea garbitu, txukundu, eraikina kanpotik eta barrutik margotu...

Lehen deialdia urriaren 11rako egin zuten, eta hainbat adin, jatorri eta lanbidetako getariarrak elkartu ziren; goiz-goizetik hasita, 13:00ak arte aritu ziren lanean; gero, Berdura plazan otordua egin zuten, harmonia ederrean. Lan guztiak ez zituztenez amaitu, hurrengo asterako geratu ziren berriz ere.



# GUZTIOK BAT!

## Noiz

2013ko urritik 2014ko urtarrilera

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 5 lagun (2 emakumezko, 3 gizonezko):  
alkatea eta Gobernu Taldeko zinegotziak

Saioetan: 70 lagun (35 emakumezko, 35 gizonezko)

partaidetzazko  
aurrekontuak



**L**egealdiari ekin zionean, Gobernu Talde berriak gauzak beste era batera egiteko asmoa zuen. Horretarako, ideia batzuk txertatu nahi zituen Getariako Udalaren gestioan: herritarren parte-hartzea areagotzea, herritarrak protagonistak izatea udal-erabakietan, Udalaren eta herritarren arteko distantziak murriztea... Gobernu Taldeak nahi zuen herritarrak subjektu aktibo bilakatzea, hau da, partaidetzazko demokrazia eraiki pixkanaka. Horretarako, legealdia hasi zenetik, hainbat neurri hartu zituen: mahai irekiak martxan jartzea Udalean (kultura-euskara, kirola, ingurumena...), “Udala informatzen” hileroko aurkezpenak, Udaleko egoera ekonomikoaren berri emateko aurkezpena...

2012ko aurrekontuak lantzean, informazio-formazio ahalegin berezia egin zuten herritarrekin: aurrekontuen osaera, kapituluak, aurkezpen publikoak... 2013an, berriz, lehen aldiz Getarian, Partaidetzazko Aurrekontuen prozesua gauzatu zuten. GUZTIOK BAT! izena eman zioten prozesuari, eta helburu nagusia zen herritarrek aurrekontuak lantzen parte hartzea, euren proposamenak egitea. Balorazioa oso positiboa izan zen: guztira 5 bilera ireki egin zituzten (auzoka zein sektoreka), 63 herritarrek hartu zuten parte eta 40 proposamen egin zituzten.

2014rako aurrekontua osatzean, partaidetzazko aurrekontuetan sakondu egin zuten, are eta parte hartze handiagoa eta proposamen kopuru handiagoa lortzeko asmoz. Horretarako, ohiko formatua erabili zuten: herritarrekin bilerak edo batzarrak. 2013ko urrian hasi ziren lanean, eta Getaria osora iristeko ahalegin berezia egin zuten: herritar guztiengana, auzoetakoak barne; herriko talde, elkarte eta eragileengana; udal-langile eta -teknikari guztiengana; eta, azkenik, Udal Gobernu eta Udaleko alderdi politiko guztietara.

Dena abian jartzeko, prozesua aurkeztu ondoren, zazpi bilera ireki egin zituzten, honela banatuta: Kirola-Kultura-Euskara-Gazteria, Turismoa, Hirigintza-Zerbitzuak, Ingurumena eta hondakinen kudeaketa, udal-langile eta -teknikariekin, Auzoak 1 (San Prudentzio-Askizu) eta Auzoak 2 (Meaga-Eitza). Bilera horietan, batez ere edukiez, herriko beharrez, ideiez eta egitasmoez hitz egin zuten eta ez hainbeste zenbakiez. Gobernu Taldeak konpromisoa hartu zuen jasotzen ziren ekarpen guztiei erantzuna emateko (baiezkoa edo ezezkoa izanda ere). Ekarpinak edo proposamenak errazago egiteko, herriko etxe guztietara “Proposamenak egiteko fitxa” bidali zuten, eta Udalari helarazteko, postontzia jarri zen; halaber, fitxa hori Udalaren web-orrian ere jarri zuten, Internet bidez betetzeko.

Aurkezpenen ondoren, ekarpenak jasota eta horietako batzuk aurrekontuetan txertatuta, behin-behineko aurrekontuak aurkeztu zituzten, eta maiatzean onartu zituzten behin betikoak.

Udal Gobernuak prozesuaren balorazio positiboa egin zuen: guztira 142 proposamen jaso zituzten, eta horietako batzuk aurrekontuan barneratzea eta gauzatzea lortu zuten. Gainera, nabarmendu zuten partaidetzazko aurrekontuen dinamika errotzen ari zela herrian. Aurrera begira, erronkatzat jo zuten ahalik eta jende gehienarengana iristea, eta herritar guztiak barneratzea aurrekontua guztion arteko lana zela, proposamenak egiteko aukera bazutela.

# Orio



Azalera: 9,8 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 5.694, oriotarrak

Udalbatzarraren osaera:

EAJ-PNV (6), **Bildu** (5) eta Orain (2)

Parte-hartzearen ardura

**AMAIA DORRONSORO PORTULARRUME**  
(zinegotzia)



[www.orio.eus](http://www.orio.eus)





Herritarrak parte hartzen Orion:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Herri-izaera eta Hezkuntza	<b>ORIOKO CURRICULUMA</b>	Orioren eta oriotarren berezitasunak jasotzen dituen curriculumaren edukiak zehaztea, materiala biltzea, idaztea eta gizarteratzea.	Lantaldean: 10 lagun (8 ♀, 2 ♂) Ekimenetan: jende ugari	2012tik aurrera	...

# ORIOKO CURRICULUMA

**Noiz**

2012tik aurrera

**Parte-hartzaileak**

Udalaren izenean: Kulturako zinegotzia eta euskara-teknikaria (2 gizonetzko)

Lantaldean: 10 lagun (8 emakumezko eta 2 gizonetzko)

Ekimenetan: jende ugari



**2**012an jarri zen Orioko curriculumaren proiektua. Funtsean, oriotartasunaz hausnartu nahi zuten, zein ziren Orioren eta oriotarren bereizgarriak eta nortasuna, zertan egiten zuten bat oriotarrek eta etorkizunean zer eduki nahi zuten, zer transmititu behar zieten hurrengo belaunaldiei... Proiektuaren hasieran, lantalde iraunkor bat jarri zuten martxan, Udaleko ordezkariekin eta herriko hezkuntza-eragile nagusiekin, eta talde horrek lanerako oinarriak finkatu zituen.

2013an, bi lan nagusi izan zituen curriculumak, kanpora begira:

- **Udaberriko jardunaldiak:** 2013ko apirilean antolatu zuten herrian “Orio iruten” II. jardunaldia, “Hezkuntza Sistema Nazionalaren bidean” lelopean. Jardunaldia oso arrakastatsua izan zen eta parte-hartzea oso handia. Jardunaldiaren helburuetako bat zen “Orioko curriculumak sortzen” kultur elkarteak ezagutzera ematea eta, horretarako, besteak beste, bideo bat ere egin zuten.

- **Curriculum osatzeko lanak:** 2013ko urritik aurrera hasi ziren lan horiek. Kultur elkarteak eratu ondoren, langile bat kontratatatu zuten, Orioko curriculumaren bilketa-lanari ekiteko eta komunikazio-lanez arduratzeko. Langile horrek hainbat bilera egin zituen arloka, eragile eta elkarteekin (adibidez, musika-alorrekoekin, natur taldeekin...). Bilketa-lana 2014ko ekainera arte luzatu zuten, betiere herritar askoren partaidetzarekin eta laguntzarekin.

Beraz, 2013an batez ere sendotzeko lanak egin zituzten, lantaldea egonkortzeko eta azpiegiturak/baliabideak ezartzeko. Udaberriko jardunaldiaren bidez, berriz, kanpora begirako oihartzuna izan zuen curriculum osatzeko proiektuak, eta ezaguna egin zen herritarren artean. Alorrez alor landu zituzten curriculumaren edukiak, bilera irekien bidez eta elkarrizketa sakonen bidez. Bileretara alor bakoitzeko eragileak deitzen zituzten, baina irekiak izaten ziren, interesa zuen edozeinek parte hartzeko. Bileretan esandakoak kultur elkarteko langileak jasotzen zituen eta oinarrizko dokumentu bat osatzen zuen horrekin.

2013an, kultur elkarteak hiru astean behin bildu zen, eta lanerako eztabaida-talde bat sortu zen Interneten, “Orioko curriculum” izenekoa, oso martxa onarekin; bilerekin gain, komunikatzeko ohiko bidea bihurtu zen, hain zuzen ere, eta kideen arteko harreman horizontalak ahalbidetu zituen.

Oro har, herritarrek oso harrera ona egin zioten proiektuari, eta eskatzen zietenean prest agertu ziren laguntzeko. Lantaldeko kideek ere balorazio ona egin zuten, ikusten zutelako egiten ari zirena polita eta baliagarria zela.

Aurrera begira kontuan izan beharrekoetan, ondorengoak nabarmendu zituzten: garrantzitsua zela eragile guztiei ematea parte hartzeko aukera; Udalaren eta herriko eragileen arteko

harremanek jarraiak eta sarriak izan behar zutela; prestakuntza-lana ondo egin behar zela, eta jendea ekarpena eskatzeko garaia etortzen zenerako, oso garbi eduki behar zela zer eskatuko zitzaion bakoitzari; eta, azkenik, inplikazio-maila desberdinak definitu behar zirela eta bakoitzari zegoen neurrian eskatu behar zitzaizela ekarpena, inork ez zezan atzera egin gehiegizko karga hartzeko beldurrez.

Bilketa-fasearen ondoren, curriculum idazteko eta ezagutarazteko fasea etorri zen, eta hori 2014ko ekainetik aurrera hasi zuten oriotarrek. Idazketaz pertsona bakarra arduratzea aurreikusi zuten, hainbat arrazoiengatik (batez ere estiloa, koherentzia... mantentzeko); baina, orduan arte curriculum lantzeko izandako partaidetzako ereduari eutsiz, garbi zeukaten elkartekoek ahalik eta jende gehien inplikatuko behar zutela idazteko fasean ere, eta, bereziki, hezkuntza-alorreko eragileekin lan egin, dokumentuek izan beharreko itxura, osaera eta abar adosteko.

Idazketa-lanarekin batera, ahalegin berezia egiteko asmoa zeukaten proiektua ezagutarazteko. Herriko bi ikastetxeetan aplikatzekoa zen curriculum, eta horixe zen, berez, gizarteratzeko modu garrantzizkoena; baina, horrez gain, hainbat ekitaldi gauzatzea aurreikusi zuten, herritarrei egindakoa erakusteko, besteak beste: musika-jaialdi bat ekainean, curriculumaren musika-alorreko lana aurkezteko eta elkarrekin Orioko kantak abesteko; 2014ko urritik abendura “Ijitoen akordioa” deitutakora atxikimendu gehiago biltzeko prozesua, hezkuntzari buruzko kezka zuten guztiak egoteko akordio horretan; azkenik, 2015eko apirilean III. jardunaldiak egiteko asmotan ziren, proiektuaren azken emaitza azaltzeko eta prozesuari bukaera egokia emateko.

Curriculum idazteko lanak 2015eko ekainean amaitzea espero zuten.

# Zarautz



**Azalera:** 14,3 km<sup>2</sup>

**Biztanleak:** 22.890, zarautzarrak

**Udalbatzarraren osaera:**

**Bildu** (9), EAJ-PNV (6), PSE-EE (3),  
Aralar Ezker Batua Berdeak (2) eta PP (1)



Parte-hartzearen ardura  
**JABIER ETXABURU ELU**  
(zinegotzia)

[www.zarautz.org](http://www.zarautz.org)



Herritarrak parte hartzen Zarautzen:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Mugikortasuna	Alde Zaharra oinezkoentzat jartzea	Alde Zaharra oinezkoentzat jarri behar zutela-eta, bilera informatiboak egin zituzten herri-lanetakoek merkatariekin eta bizilagunekin, lanen berri emateko.	Daturik ez	2013ko azaroan	✓
Euskara	Batzordeak	Euskara sailak sustatutako ekimenen segimendua eta balorazioa egiteko. Hiru azpibatzerdi osatu zituzten: euskara administrazioan, euskara hirugarren sektorean eta euskara hezkuntzan, gaztedian.	Herriko hainbat talde eragilerek: 72 lagun (55 ♀, 17 ♂)	2014ko udaberrian (4 bilera) eta udazkenean (4 bilera)	✓
Kirola	Irailaren 20an	Zarautz eta Getariaren arteko errepidea itxi egin zuten, herriko taldeek sustatutako kirolak erakusteko.	Ehunka herritar	2014ko irailean	✓
Kultura	Kultur Mahaia	Kulturaren bakoitza bere esparrutik, bere kontura eta koordinatu gabe ari zela-eta, ahalegina egin zen askotariko kultur eragileak bateratuta aritzeko, elkarri enbarazurik ez egiteko, baliabideak egoki partekatzeko eta komunikazio eraginkorragoan urratsak emateko.	Herriko hainbat talde eta eragile: 38 lagun (13 ♀, 25 ♂)	2014ko martxotik aurrera	...
Hirigintza eta Herri-galdeketa	<b>PARKEEN ESTALPEA HAUTATZEA</b>	Herriko bi haur-parke nola estali behar ziren hautatzea herritarren esku utzi zen, bozketa bidez.	1.407 boto	2014ko irailean	✓
Trebakuntza	Partaidetzan trebatu	Zarauzko Udaleko zinegotzi eta langileak trebatuz herritarren partaidetzan oinarritutako lan-kultura sustatzeko egitasmoa.	12 lagun (7 ♀, 5 ♂)	2014ko uztailean eta irailean	✓



Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Zerbitzuak	TAO-zerbitzua ebaluatzea	Aurreko urtean martxan jarritako TAO-eredu berria ebaluatzeko hainbat bilera egin zituzten, hutsuneak eta hobetzeko proposamenak jasotzeko.	134 lagun (56 ♀, 78 ♂)	2013ko azarotik 2014ko urtarrilera	✓
Partaidetzako aurrekontuak	Udal-aurrekontuak: auzoz auzoko bilerak	2011n, 2012an eta 2013an partaidetzako aurrekontuen prozesuak aurrera eraman ondoren, 2014koak lantzeko, auzoetako batzarrez gain, sailetako batzarrak egin zituzten udal-langileekin eta galdetegjak zabaldu herritarren ekarpenak jasotzeko.	123 auzokide (41 ♀, 82 ♂) 30 udal-langile (25 ♀, 5 ♂) Eragileak: 96 lagun (46 ♀, 50 ♂) Buzoien bidez: 28 ekarpen (18 ♀, 10 ♂) Webgunearen bidez: 11 ekarpen (6 ♀, 5 ♂)	2014ko urtarriletik otsailera	✓
Parte hartzeko sistema	<b>UDALA ANTOLATZEKO PARTAIDETZAZKO PROZESUA</b>	Zarauzko Udaleko lanpostuak berrantolatu behar zirela-eta, Udal Gobernuak barruko baliabideekin landu zuen gaia, eta urtebeteko lanaren ondoren, Udal Batzarrak lanpostuen zerrendak, organigramak eta funtzioen eskuliburuak onartu zituen.	Udal-langileak: 222 lagun (120 ♀, 102 ♂)	2013ko ekainetik 2014ko irailera	✓

# PARKEEN ESTALPEA HAUTATZEA

Noiz

2014ko irailean

Parte-hartzaileak

1.407 herritar

hirigintza

herri-galdeketa



guztiak izan zuten botoa emateko aukera, eta bi maila bereizi ziren: 2-12 urte bitarteko zarauzarrak eta 12 urtetik gorako zarauzarrak. Guztira 1.407 herritarrek eman zuten botoa (2-12 urtekoak, 457; 13 urtetik gorakoak, 950), eta proiektu irabazleak 621 boto lortu zituen; bigarren geratu zenak, 461; eta, azkenik, hirugarrenak, 320. Proiektu irabazlea hautatzean, guztiak bat etorri ziren gainera, bai udal-teknikariak, bai helduak, bai haurrak, eta hori poztzekoa izan zen.

Azkenean, proposamen irabazlea herritarrek eta epaimahaiak emandako puntuazioak gehituta erabaki zuten, hiru irizpide nagusiren arabera:

- Proposamenaren egokitasun arkitektonikoa eta teknikoa (gehienez ere 75 puntu)
- Proposamenaren balorazio ekonomikoa (gehienez ere 10 puntu)
- Herritarren gustukoena (gehienez ere 15 puntu)

Proiektu irabazlea hautatutakoan, abenduan proiektua idazteko fasea egiteko asmotan ziren, 2015eko martxoan lanak esleitu eta 2015eko abuztuan amaitu lanak.

Udalak oso balorazio positiboa egin zuen, eta uste zuten asmatu zutela proiektuak kalean erakutsi eta bozka emateko aukera zabala ematearekin. Halaber, Udalak baloratu zuen honelako bozketak gehiagotan egin behar zirela eta eskaintzen ziren baliabideak hobetu beharra zegoela: botoa online emateko aukera zabaldu, informazio teknikoa gehitu, informazio ekonomikoa argi eta garbi eman...

**B**este herri batzuetan bezala, Zarautzen aspalditik zegoen parke estali baten eskaria, egun euritsuetan haurrek eta gurasoek non egon, jolastu eta babestua izan zezaten. Behar hori asetzeko, Zarauzko Udalak erabaki zuen herrian parke bat estaltzea, Igerain gainekoa, baina beste haur-parke bat ere estaltzeko aukera ere kontuan hartu zuen: Pilartxo-eneako parkea. Bi parke horiek hautatzeko, irizpide nagusiak hauek izan ziren: parkeotan jolasean ibili ohi zen haur-kopurua eta biztanleriaren banaketa.

Proiektuak hautatzeko, Udalak ezinbestekotzat jo zuen herritarrek parte hartzea, bozketa bidez, eta partaidetzazko prozesu hau jarri zuen martxan.

Hasteko, lehenik eta behin, ideia-lehiaketa bat antolatu zuen Udalak, eta parkeak estaltzeko proiektuak aurkeztu ahal izan ziren. Pilartxo-enea estaltzeko, guztira 12 proiektu aurkeztu ziren; Igerain gainerako, berriz, 28. Balorazioak egin ondoren, parke bakoitzerako 3 proposamen aukeratu zituen epaimahaiak, eta irailaren 1etik 6ra jende aurrean jarri zituzten erakusgai, panelen bidez, Lege Zaharren enparantzan.

Informazioa zabaltzeko fasearen ondoren, herritarrek iritzia eman ahal izan zuten, bozketa bidez. Bi urtetik gorako zarauzarrak

# UDALA ANTOLATZEKO PARTAIDETZA-PROZESUA

## Noiz

2013ko ekainetik 2014ko irailera

## Parte-hartzaileak

222 langile (120 emakumezko, 102 gizonetzko)

parte hartzeko  
sistema



Zarauzko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako lanpostuen antolaketa egitea beharrezkoa zela iritzita, Udal Gobernuak barruko baliabideekin lantzea erabaki zuen gaia. 2013ko ekainetik aurrera, giza baliabideetako teknikaria prozesu hau gidatzen aritu zen, eta horretan laguntzaile izan zituen Langile Komiteko ordezkari bat, Partaidetzako teknikaria eta Giza Baliabideetako praktiketako teknikari bat. Helburua garbia zen, baina aldi berean konplexua ere bai: lanpostuak aztertuta, organigrama berria eta lanpostuen deskribapen-fitxen eskuliburu berria idaztea.

Barrura begirako prozesua izan zen, ez zuzenean herritarrekin egitekoa. Baina parte-hartzea ahalik eta horizontalena izatea bultzatu zuten, administrazio barruko hierarkiak gehiegi aintzat hartu gabe, eta betiere berdintasun-printzipioa hobetsita. Horretarako, departamentuka langile guztiekin bilerak egitea hobetsi zuten. Horrela jokatzeko ez zen batere ohikoa Zarauzko udaletxean, eta langile guztiak elkarrekin bileretan elkartzeak ohitura-aldaketa ekarri zuen.

Prozesuaren hasieran, lantaldeak babes osoa eskatu zion Korporazioari, berme hori funtsezkoa zelakoan prozesuak ondo irteteko. Izan ere, horrelakoetan ohikoa izaten da urduritasuna,

egonezina... Udalaren eginbeharrak eta funtzionamendua bera dira hausnartzeko gaiak, eta aldaketak etor daitezkeenez, langileek beldurra edo kezka izan dezakete egoera berriaren aurrean. Horregatik, prozesua gidatu zutenek Korporazioari eskatu zioten lanek irauten zuten bitartean lantaldeari ematea erreferentzialtasun osoa, eta langileen eskaera konkretuen aurrean, erantzuna bat eta bakarra izatea: lantaldeak jaso eta aztertuko zituela eskaerak.





Funtsean, prozesu honen baitan, pauso hauek eman zituzten:

- 2013ko ekaina-uztaila: Gobernuko eta oposizioko zinegotziekin bildu ziren, Udalaren barne-antolaketaren diagnosi orokorra egiteko. Ondoren, departamentuekin lehenengo bilerak egin zituzten. Bilera bat egin zuten Korporazioarekin, lehen ondorioen berri emateko.
- 2013ko uztaila-abuztua: organigramaren zirriborro bat aurkeztu zuten, eta iritzia jasotzeko, beste bilera-erronda bat egin zuten, departamentuka.
- 2013ko iraila: kanpoko enpresa batek 2011n Udalarentzat egindako lanpostuen deskribapen-fitxak banatu zizkieten langile guztiei, hutsetik ez abiatzeko. Gero, langile guztiak elkarriketatu zituzten, baita ekarpen idatziak jaso ere.
- 2013ko urria-azaroa: langileen ekarpenak jaso eta aztertu ondoren, deskribapen-fitxak egiteko irizpide batzuk finkatu zituen lantaldeak, eta horien arabera, lehen zirriborroa idatzi zuen. Halaber, zinegotzien aurrean aurkeztu zuten organigrama-proposamena, adosteko, gero norabide

horretatik jarraitzeko lanean. Zirriborroa langile guztiei ere eman zieten, ekarpenak egiteko, eta langileek batzar bat egin zuten.

- 2013ko abendua: bilerak egin zituzten departamentuka.
- 2014ko urtarrila-otsaila: deskribapen-fitxa berriak idatzi zituzten.
- 2014ko martxoa: irizpen edo txostena prestatu zuten, eta espedientea batzorderako prest utzi zuten. Horrekin batera, Korporazioak organigrama berria txertatzen joateko lehentasunak finkatu zituen, gero Zarauzko Udaleko Giza Baliabideen Plana osatzeko.
- Azkenik, 2014ko martxoa-iraila: Udal Gobernuak eta oposizioko talde politikoek gaiaren inguruko eztabaidetan jardun zuten, eta irailean, Udalbatzarrak akordio-proposamena ontzat jo zuen.

Prozesuaren emaitza nagusia organigrama berria izan zen eta horri egokitutako lanpostu bakoitzaren funtzioak. Gero, funtzio horiekin, lanpostuen balorazioa egiteko asmoa zeukaten (kanpoko aholkularitza batek lagunduta). Horretaz gain, lan-estilo berri bat ezartzeko aukera izan zuten, eta, besteak beste, Herritarren Arretarako Zerbitzu berria irekitzeko asmoa zeukaten 2015aren hasieran, zerbitzua balio hauetan oinarrituta: gertutasuna, gardentasuna, eraginkortasuna, ulergarritasuna...

Udalak oso balorazio positiboa egin zuen. Lan handia izan zen, baina gauza asko lortu zituzten bidean. Ikasitakoari dagokionez, bereziki azpimarratu nahi izan zuten asko zegoela egiteko udal-administrazioetan lan-estilo berriak ezartzeko, baina erronka polita zela eta merezi zuela ahaleginak. Gainera, udal-langileak prest agertu ziren beste era batera lan egiteko eta zerbitzu hobe eskaintzeko.



# Zumaia



Azalera: 11,3 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 9.734, zumaiarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (6), EAJ-PNV (5), PSE-EE (1)  
eta Aralar (1)

[www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus)

Parte-hartzearen ardura

**MAITANE AGIRRE ARRIETA**

(zinegotzia)



**Herritarrak parte hartzen Zumaian:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Aniztasuna	<b>ANITZEN SAREA</b>	Hainbat arlotako eragileekin eta elkarteekin egindako prozesua, sare bat sortzeko.	Bileretan: 37 lagun (20 ♀, 17 ♂) World Coffeean: 25 lagun	2014ko abuztutik azarora	✓
Berdintasuna	<b>BERDINTASUN-PLANA</b>	Zumaiako Emakumeen eta Gizonen I. Berdintasun Planaren ebaluazioa egin, egungo egoeraren gakoak identifikatu eta II. Plana diseinatzeko prozesua.	Herritarrak, udal-langileak eta -hautetsiak: 30 lagun inguru (% 80 ♀, % 20 ♂)	2014ko otsailetik urrira	✓

# ANITZEN SAREA

**Noiz**  
2014ko abuztutik azarora

**Parte-hartzaileak**  
Udalaren izenean, 3 lagun (2 emakumezko, 1 gizonetzko): aniztasun-teknikaria eta kanpoko aholkulariak (2)  
Bileretan: 37 lagun (20 emakumezko, 17 gizonetzko)  
World Coffeean: 25 lagun



**Z**umaian, 2012an, beste jatorri bateko zumaiarren inguruko ikerketa kuantitatiboa egin zuten, eta pare bat ondorio bereziki deigarriak izan ziren: bata, zumaiarren % 45 ez ziren Zumaian jaioak, eta horietatik, gehienak

Euskal Herrian jaioak zirela; bestea, munduko 53 herrialdeetatik etorritako zumaiarrak zeudela herrian. Urtebete geroago, 2013an, Zumaiako Udalak erabaki zuen ikerketa kualitatiboa egin behar zuela herritarren iritzia jasotzeko, eta horrela aniztasunaren gaia landuko zuen egitura sortu, elkarteekin eta eragileekin elkarlanean.

Anitzen Sarea partaidetza-prozesuaren baitan, Zumaiako eragile eta elkarteekin harremanetan jarri ziren, eta bilerak antolatu zituzten arloka, 2014ko irailean, eta orotara, 15 elkarterekin bildu ziren, informazio hau lortzeko: kultura eta jatorri desberdinetako Zumaiako herritarren arteko harreman-, ezagutza-, errespetu- eta aitortza-maila; elkarteen egoera jatorri aniztasunari zegokionez; elkarte edo eragileen arteko elkarlanaren egoera; kulturen arteko elkarren aitortza sustatzeko zeuden aukerak... Funtsean, aniztasunaren inguruko hausnarketa eta eztabaida bultzatu nahi izan zuten, baita iritzia jaso ere, diagnosis osatzeko, ondoren Anitzen Sarea edo Gunea



sortzeko, elkar ezagutu eta elkarren arteko harremana bultzatzeko.

Bileren lehen txandaren ondoren, urrian World Coffee bat antolatu zuten, jatorri, kultura eta identitate desberdinetako zumaiarrak bildu eta ikuspegiak trukatu eta elkar aberasteko, elkar ezagutzeko. Proposamen zehatzak ere egin zituzten; besteak beste, adierazi zuten aniztasunaren inguruko egun bateko festak ondo zeudela, baina ez zela nahikoa, hurbilketa errazteko zerbait sendoagoa behar zela, elkarrekin konpartitzeko zerbait: kirola, zaletasunak, kultur ekitaldiak edo festak... Halaber, beste ideia bat ere nabarmendu zen, batzeko ezinbestekoa: berdintasunarena; izan ere, anitzak izanagatik, berdintasuna bultzatu beharra azpimarratu zuten eskubideei edo oinarriko beharrak asetzeari zegokienez.

World Coffeearen ondoren, bileren bigarren erronda egin zuten eragile eta elkarteekin Anitzen Sarearen sorreraz hitz egiteko, eta erantzuna baiezkua izanez gero eta aurrera egitea erabakiz gero, sare hori definitu eta adostu: egiturak (partaideak), funtzionamendua, funtzioak, plangintza (lan-ildoak, ekintzak, proiektuak...) lantzeko eta prozesuari amaiera emango liokeen lehen ekitaldi, ekintza edo jaialdi nagusia definitzeko.

Prozesua amaitu gabe zegoen, baina Anitzen Sarea sortzeko bidean zen, eta Udalak balorazio positiboa egin zuen, batez ere herritarrek elkar ezagutzeko oinarriak finkatu zituztelako; azkenik, ikasitakoetan bereziki azpimarratu zuten garrantzitsua izan zela eragileekin hasieran zuzenean jartzea harremanetan, gero dena ondo joateko.



## SIRE DAMBA ETA MARI TURRE

Etxeko lanak eta sukaldaria  
Biek 36 urte

“A rgi genuen beharrezkoa zela gure kultura nolakoa den ezagutaraztea herrian, eta oso onuragarria iruditu zitzaigun horrelako zerbait lantzea, batez ere gure kulturaren ezaugarriak erakusteko, guztiongana iristeko.

Prozesutik, bereziki gustatu zitzaigun bertako eta beste herrialdeetako jendearekin harremanetan jartzeko aukera, eta eskertzen dugu Udalak elkarbizitza eta elkarren ezagutza sustatzeko irekitako bidea. Anitzen Sarea sortu da, bai, baina orain ikusi beharko dugu ea jendeak hasierako gogoari eusten dion. Uste dugu ondorio positiboak ekar ditzakeela proiektuak, baina batez ere epe luzerakoak.

Udalak ardura hartu behar du sare dinamizatzen, behintzat, sareak autonomia lortu arte; bestela, desagertzeko arriskua izan dezake. Sarea osatzen dugunok saiatu behar dugu sare ehuntzen eta zabaltzen. Harremanari eutsi behar diogu, eta jende berriari parte hartzeko aukera eman //



# BERDINTASUN-PLANA

## Noiz

2014ko otsailetik urrira

berdintasuna



## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 4 lagun (denak emakumezkoak): berdintasun-teknikaria, Berdintasuneko zinegotzia eta kanpoko aholkulariak (2)

Udal-langileak: 14 lagun (8 emakumezko, 6 gizonezko)

Udal-hautetsiak: 3 lagun (denak emakumezkoak)

Herritarrak: 10 lagun (denak emakumezkoak)



**Z**umaiako Udalak 2010ean onartu zuen I. Berdintasun Plana, emakume eta gizonen berdintasuna lantzeko eta lortzeko, eta 2014an indarraldiaren amaierara iritsirik, ebaluatu egin zuten, eta emaitzetatik abiatuta, II. Planaren helburuak ezarri, 2015-2018 epealdirako.

Beraz, hasteko, I. Planaren helburu eta neurrien betetze-maila aztertu zuten, ea udal-sailek genero-ikuspegiarekin lan egiten zuten eta aurrera begirako lan-ildoak eta lanerako tresnak zehazteko informazioa eskuratu zuten; azken horiei zegokienez, beste hauek ere egin zituzten: hurrengo urteetarako egitasmoak zehaztu (gobernantzan eta mainstreaming edo zeharkakotasunean), ekintzak aurrera eramateko baliabideak eta aukerak neurtu, udal-teknikariak eta ordezkari politikoak inplikatu Planaren garapenean, herritarrekin berdintasunaren inguruko hausnarketa egin, udal-mailan eta herrian egiturak indartu eta talde-sena sorrarazi eta Berdintasun Planaren arrakastarako baldintzak sortu.

Lanerako, berriz, hiru gune edo egitura nagusi izan zituzten: batetik, udal-langileak, udal-barrukoa lantzeko; bestetik, batzordearen bidez ordezkari politikoekin (hautetsiekin) egin zen lan; eta, azkenik, herritarrekin: ikastetxeak, emakume etorkinen elkarteak, kirol-elkarteak, herritarrak, Osasun Zerbitzuko emagina, gazteen hezitzaileak...

Balorazioari dagokionez, Udalak ondo baloratu zuen egindakoa. Bereziki azpimarratu zuen malgutasunez jokatu beharra horrelako prozesuetan, ahalik eta jende gehienarekin lan egiteko (adibidez, eragileekin elkartzeko ordutegi jakin batean jardun beharra); izan ere, askotan bilera bakarrerako deialdia egiten da, arratsalde, denak etorriko direlakoan, baina hori ez da bide bakarra edo egokiena.







**SILVIA CARRIZO** · Kazetaria

### **Zergatik hartu zenuen parte prozesuan?**

Zumaiako emakumeen elkarte batean (Malen Etxean) parte hartzen dudalako.

### **Nola baloratzen duzu egindakoa?**

Ondo, baina inplikazio falta sumatzen da herrian eta Udalean (inplikazio politikoa). Udalak ez du konpromiso politikorik, eta hori funtsezkoa da horrelako prozesuetan.

### **Zer gustatu zitzaizun, bereziki?**

Parte-hartzea. Ilusioa sortzen dizu prozesuak, eta Plana lantzen dugun heinean, positiboa izan daiteke herriarentzat.

### **Zer ikusi zenuen hobetzeko?**

Gauza asko, badakigu beti dagoela zerbait aldatzeko, baina, bereziki, herrian dauden sareak eta aliantzak hobetu beharko lirateke.

### **Zein izan dira emaitzak? Zer ondorio izan ditu?**

Zumaiako II. Berdintasun Plana, eta prozesuak izan dituen ondorioak honakoak dira: hainbat eragilerekin dugun harremana sendotzea (ikastetxeak, Osasun Zerbitzua...) eta Berdintasun Foroaren ikusgarritasuna lortzea. Foroa espazio garrantzitsua izan da prozesuan. Uste dut oinarriak jarri ditugula gauzak egiteko ikastetxeekin, Berdintasun Foroarekin... eta horren adibidea izan daiteke azaroaren 25ean ikastetxeekin egindako giza katea. Hori bai, gai izan behar dugu beste aliantza batzuk sortzeko.

### **Aurrera begira, zer ikasi duzu?**

Bi ikuspegitatik azalduko dut. Batetik, nik neuk asko ikasi dut administrazio publikoari buruz: aurrekontuen kudeaketa, eguneroko funtzionamendua...; eta, bestetik, taldekide izan naizen ikuspegitik, onartu behar dut emakume etorkinen iritzia jasotzea ahalbidetu digula.

### **Herritarren partaidetzari dagokionez, aurrera begira, badaukazu proposamenik?**

Funtsezkoa da topaguneak sortzea, hasieran, zumaiarren artean interes komun bat dutelako (berdin du zein den interesa), ondoren, parte hartze politikoa lortzeko. Inork ez du politikoki parte hartuko, ez badu aurretik taldeko parte-hartze bat garatzen. Feministek historian zehar horrela egin dute, norbanakotik politikora pasatzeko. Gaur egun, uste dut aliatuak baditugula herrian (ikastetxeetako irakasleak, Osasun Zerbitzuko medikuak...) behar bezalako estrategia garatzeko.

# oarsoaldea



## Herriak (4)


Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaia

## Biztanleak

71.136 (gipuzkoarren % 9,95)

## Azalera

114,9 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 5,78)



# g

ipuzkoaren ipar-ekialdean dago. Iparraldean, Kantauri itsasoa dauka; ekialdean, berriz, Bidasoaldea eta Bortziriak; mendebaldean, aldiz, Donostia eta Buruntzaldea; eta, azkenik, hegoaldean, Nafarroa.

Berez, eskualdearen izena nahikoa berria da, duela hogeit hamar urte inguru sortua eta pixkanaka errotzen joan dena. Euskaltzaindiak Oiertzaldea izendatzen du eskualde zabalagoa, herri horiez gain, Hondarribia eta Irun ere barne hartuta.

Pasaiako badiaren inguruan eta Oiertzungo mendien artean kokatutako eskualdea da, eta Jaizkibel mendia eskualde honen bereizgarri garrantzitsua da. Aiako Harria Parke Naturalaren zati bat ere eskualde honetako parte da.


Gizarte eta ekonomiaren aldetik begiratuta, Donostiak itzal handia dauka eskualdean, eta harekin ondo komunikatuta dago. Horrela, sorburua eskualdean duten lau autobus-lineaz

gain (Pasaiatik, Oiertzungo eta Errenteriatik), EuskoTreneko (*topoa*) nahiz Renfeko burdinbideek lotzen dute eskualdea Donostiarekin. Horrekin batera, Oarsoaldetik A-8 autobidea eta N-I errepidea igarotzen dira, eskualdea Donostiarekin eta Bidasoaldean nahiz Lapurdirekin lotzen dute. Halaber, eskualdeak portu bat du, Pasaiakoa, Gipuzkoako handiena. Hondarribiko aireportua, gainera, oso gertu dago.

Oarsoaldea leku estrategikoan dago, orografiarengatik eta kokapenagatik, Baiona-Donostia EuroHiriaren barruan, 600.000 biztanleko metropoli-korridore batean. Pasaiako portuko jarduerak industria-garapen handia ekarri zuen bere garaian, baina gaur egun eskualdeko biztanle gehientsuenek zerbitzuen arloan egiten dute lan (biztanleria aktiboaren % 60); industrian, berriz, biztanleria aktiboaren % 21 aritzen da; azkenik, nekazaritzan eta arrantzan % 1,05 baino ez da aritzen ■



# Errenteria



Azalera: 31 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 39.230, errenteriarak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (8), PSE-EE (7), EAJ-PNV (3),  
PP (2) eta EB (1)

Parte-hartzearen ardura

**JULEN MENDOZA PEREZ**  
(alkatea)

[www.errenteria.eus](http://www.errenteria.eus)





Herritarrak parte hartzen Erreterian:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Herritarrekin harremanak	<b>AUZO-BATZARRAK</b>	2011n bezala, auzo-batzar irekiak egin zituzten. Bertan, 2011n egindako eskaerak errepasatu zituzten (zer egin zen, zer zegoen egin gabe eta zer ez zen egingo) eta eskaera eta proposamen berriak jaso zituzten.	700 lagun inguru	2014ko otsailetik apirilera	✓
Tokiko plana / plan estrategikoa	Erreteria 2025 Plan Estrategikoa	Udalerrriak etorkizunean zer edo nolakoa izan behar zuen ikuspegi partekatua lortzeko eta hori gauzatzeko proiektuak zehazteko.	300 lagun inguru	2013ko urtarriletik irailera	✓
Kultura	<b>JAI-BATZORDEA</b>	Madalenak antolatzeko Jai Batzordeak lanean jarraitu zuen: proposamenak egiten, programazioa eta aurrekontuaren banaketa adosten, lanak eta ardurak banatzen...	Herriko eragileen ordezkariak: 36 lagun (12 ♀, 24 ♂) Gazteen Jai Batzordean: 12 lagun (8 ♀, 4 ♂) Haurren Jai Batzordean: 30 lagun inguru	Urtero, urtarriletik uztaiera	...

# AUZO-BATZARRAK

## Noiz

2014ko otsailetik apirilera

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 2 lagun (biak gizonezkoak)

Bileretan: 700 lagun inguru

herritarrekin  
harremanak



**2**011ko udazkenean, auzo-elkarteekin elkarlanean, Errenteriako Udalak batzarrak deitu zituen Errenteriako auzoetan, bizilagunengandik udal-kudeaketa egokirako beharrezko informazioa eskuratzeko asmoz. Udalaren eta herritarren arteko harremanak sendotzeko beharra abiapuntutzat hartuta, 15 auzo-batzar egin zituzten, 1.500 pertsonak hartu zuten parte eta bertaratuen eskaera ugari jaso zituen Udalak. Batzar horietan jasotako informazioa balio handikoa izan zen; izan ere, neurri handi batean, Udalaren gida bihurtu zen geroko.

Batzar haiek egin zirenetik bi urtera, eta batzar haietan adostutakoa eta agindutakoa bete nahian, udal-ordezkariek auzo guztietara joan ziren berriro ere. Bigarren txandaren helburua izan zen herritarrei jakinaraztea 2011n jasotako eskaera haiek zertan ziren, eta, horretaz gain, “auzozaina” izeneko polizia-eredu berria azaltzea eta 2015eko maiatzera arte Udalaren jarduna erabakiko zuten iradokizun eta eskaera berriak jasotzea.

Ekimen honekin, berriro balioan jarri nahi izan zuten herritarren parte-hartzearen garrantzia udal-kudeaketa hoberako tresna gisa, herritarrak baitira, beren eguneroko errealitatekin, auzoetako benetako beharrak zein diren ondoen dakitenak.



# JAI-BATZORDEA

## Noiz

Urtero, urtarriletik uztaiera

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean: Kulturako zinegotzia eta kultur dinamizatzailea (biak emakumezkoak)

Bileretan: 36 lagun (14 emakumezko, 22 gizonezko)

Gazteen Jai Batzordean: 12 lagun (8 emakumezko, 4 gizonezko)

Haurren Jai Batzordean: 30 lagun inguru

kultura



**E**rrenteriako jai nagusiak madalenak dira, eta uztaieraren 21etik 25era ospatzen dira. Duela urte batzuetatik, Jai Batzordea hilabete batzuk lehenago biltzen hasten da jaiak antolatzeko, eta batzordean biltzen dira herriko eragileak (jaietan ekintzaren bat antolatzen duten kulturako, aisialdiko, kiroltako eta elkarte gastronomikoetako kideak), kultur dinamizatzailea eta Kulturako zinegotzia. Halaber, Txosna Batzordeko ordezkariak ere hartzen dute parte.

Oso garaiz hasten dira jaiak prestatzen, urtarrila aldera. Lehen bilerean, Jai Batzordearen egutegia adosten dute, baita aurrekontuaren banaketa ere. Aurrekontuak bi atal ditu, nagusiki: gastu finkoak eta gastu aldakorak. Hain zuzen, azken horri dagokion kopurua Jai Batzordeak erabakitzen du nola gastatu. Horretarako, taldeetan bildu eta eztabaidatu egiten da. Taldeetako hausnarketa denen artean partekatu eta aurrekontuaren banaketa onartzen da.





Jai Batzordea lantaldeetan banatzen da, besteak beste, hauetan: herri-bazkaria eta txupinazoa antolatzekeo lantaldea; txupinazoaren emanaldia edo streaminga eta plazan jartzen den pantaila erraldoia lantzekeo lantaldea; musika-lantaldea (musika-programazioa lantzen duena)... Jai Batzordea hilean behin biltzen da normalean, eta bileretan lantalde bakoitzak landu duen proposamena aztertu eta onartzen da. Lantaldeak eta Jai Batzordea

dinamizatzeaz (deialdia egin, dokumentazioa prestatu, aktak jaso, bilerak dinamizatu...) kultur dinamizataileak eta Kulturako zinegotzia arduratzen dira.

2014an, ahalegin berezia egin zuten adin guztietako herritarrek parte hartzeko jaiak antolatzen, eta aurreko urteetako hutsunea bete nahian, gazteen eta umeen egitaraua bereziki lantzeko, Gazteen Jai Batzorderako deia egin zuten; halaber, 12 urtetik beherako umeek zuzenean erabaki zuten, inolako bitartekaritarik gabe, zer nahi zuten jaietan. Kolektibo horien nahiak bideratzeko, bi lantalde berezi jarri zituzten martxan: 12-16 urteko Gazteen Jai Batzordea eta Haurren Jai Batzordea.

Gazteen Jai Batzordeari dagokionez, DBHko ikasleekin lan berezia egin zuten, hainbat bileraren bidez, jaiari buruzko iritzia eskatzeko, hobetzekoak identifikatzeko, hutsuneak azpimarratzeko... Horrela, festetarako proposamen zehatzak landu zituzten eta programazioan nola txertatu adostu zuten.

Haurren Jai Batzordeari zegokionez, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako umeentzat (3-11 urteko haurrek) ekitaldiak antolatu zituzten, eta horretarako bi saio berezi egin zituzten: lehen saioan, haurrek ametsetako jaiak marraztu zituzten, eta marrazkiak erakusketa txiki batean jarri eta gometxen bidez umeek bozkatu egin zituzten; bigarren saioan, berriz, ametsetako jaiak gauzatzeko bidean jarri zituzten, ideiarik bozkatuenak haurrekin elkarlanean errealitatera eramanez nahian. 30 neska-mutil inguruk hartu zuten parte, oso esperientzia polita izan zen eta etorkizunean ere haurren parte-hartzea lantzen jarraitzeko asmoa zeukaten.

Balorazioari dagokionez, Udalak oso balorazio ona egin zuen, eragileen parte-hartzea oso ona eta aktiboa izan zelako. Aniztasun handiko batzordea da, Errenteriaren izaeraren isla, kulturako oso arlo desberdinekin. Halaber, oso baliagarria izan zitzaizen eragileek elkar ezagutzeko eta elkarren arteko harremana lantzeko. Gazteen Jai Batzordeari dagokionez, ez zen erraza izan gazteekin lan egitea, gazterik aktiboena hamaika saltsatan (musika, dantza, kirola...) sartuta zeudelako.



# Lezo



Azalera: 12,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 6.007, lezoarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (9), EAJ-PNV (3) eta PSE-EE (1)

[www.lezo.eus](http://www.lezo.eus)



Parte-hartzearen ardura

**MIKEL ARRUTI SALABERRÍA**  
(zinegotzia)



Herritarrak parte hartzen Lezon:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Partaidetzazko aurrekontuak	<b>ALTAMIRA AUZOAN</b>	Altamira auzoan zer ekipamendu hobetu behar ziren erabaki zuten auzotarrek, Udalak gordetako 50.000 € zertan erabiliko zituzten.	100 lagun (55 ♀, 45 ♂)	2014ko martxotik apirilera	✓
Berdintasuna	Berdintasun Plana	Langai nagusiak: gobernantzarako eredia ezartzea, balioak aldatzea, emakumeak boteretzea, erantzunkidetasuna eta denboraren erabilera eta indarkeria sexistari aurre egitea.	30 lagun (% 45 ♀, % 55 ♂)	2014ko martxotik ekainera	✓
Partaidetzazko aurrekontuak	San Pedro-Pysbe auzoan	Auzoan egiteko inbertsioak lehenestea eta erabakitzea herritarren beharren arabera.	37 lagun (20 ♀, 17 ♂)	2014ko azaroa	✓



# ALTAMIRA AUZOAN

## Noiz

2014ko martxotik apirilera

partaidetzako  
aurrekontuak



## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 4 lagun: alkatea eta 3 zinegotzi  
(1 emakumezko, 3 gizonezko)

Bileretan: 100 lagun (55 emakumezko, 45 gizonezko)

Bozketan: 44 lagun



**A**ltamira Lezoko auzo bat da. Lehenengo etxeak 1980 inguruan eraiki zituzten, eta ordutik, bere historia laburrean, hainbat arazori egin behar izan die aurre: sortu eta segituan, urbanizatzeko lanak ez amaitzeari eta droga-trafikoak eragindakoei; 90eko hamarkadan, autobidearen aferari; gero, erosketak egiteko dendarik ez izateari... Auzo zaildua da, gabezia ugari izan dituen eta borrokalaria.

2014an, Lezoko Udalak partaidetzako prozesu bat jarri zuen martxan Altamira auzoan, han egin beharreko inbertsioak zehazteko, hau da, diru-kopuru jakin bat (50.000 €) zertan eta nola inbertituko zen auzotarrek beraien erabakitzeke. Horretarako, bi bilera egin zituzten Altamirako bizilagunekin; lehenengoan, martxoaren amaieran, auzoko ekipamenduak hobetzeko Udalaren proposamena (bizilagunek egindako eskaerak aintzat hartuta egina) aurkeztu zieten eta herritarren proposamen gehiago jaso zituzten. Bigarren bileraren aurretik, bizilagunek egindako gainerako proposamenak aztertu zituen


Udalak, bideragarriak ziren edo ez ikusteko; azkenik, bigarren bilera apirilaren hasieran izan zen, eta auzotarrei galdetu zieten egitasmo guztietatik zein proiektu gauzatu nahi zituzten.

Bigarren bilerara, 12 proposamen bideragarri eraman zituzten, auzotarrek bozkatzeko. Guztira 50 lagun inguruk hartu zuten parte, eta bakoitzak bost proposamen hautatzeko aukera zeukan. Horrela, proposamen hauek hautatu zituzten: auzoko bi haur-parkeak guztiz berritzea, espaloietako zuloak konpontzea, hamar aulki eta bost mahai jartzea, kaleko argi gehiago eta barandak jartzea. Beste eskaeretako bat mikrobus-zerbitzua jartzea zen, baina alboratu egin zuten, aurrekontutik kanpo gelditzen zelako, hauren parkeak berrituta ez zegoelako dirurik horri aurre egiteko. Lan horiek guztiak 2014. urtean egin zituen udalak.

Balorazioari dagokionez, guztiena oso ona izan zen. Altamirako bizilagunek ikusi zuten aintzat hartu zituztela beraien eskaerak, aukera izan zuten erabakitzeke zer lan egin behar ziren, eta oso epe laburrean eginda ikusi zituzten. Udalaren ustez ere esperientzia positiboa izan zen, herritarrek izan zutelako hitza eta erabakia, eta asmo sendoa adierazi zuen esperientzia hurrengo urteetan beste auzo batzuetan berriz ere egiteko.



# Oiartzun



Azalera: 60 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 9.970, oiartzuarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (10), EAJ-PNV (2)

eta Hamaikabat (1)

[www.oiartzun.org](http://www.oiartzun.org)

Parte-hartzearen ardura

**OIHAN TELLO LOIARTE**  
(zinegotzia)





## Herritarrak parte hartzen Oartzunen:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Hirigintza eta Mugikortasuna	<b>ALTZIBAR AUZOA</b>	Altzibar auzoko kaleak berrantolatzeke, oinezkoak seguruago ibiltzeko eta lehentasuna emateko.	60 lagun	2014ko maiatzetik aurrera	✓
Partaidetzako aurrekontuak	<b>AURREKONTUAK</b>	Lehenengo fasean auzoetan ikusitako beharrak jaso zituzten. Bigarren fasean, auzotarrek erabaki zuten horietatik zein gauzatuko ziren.	1. fasean: 150 lagun inguru 2. fasean: 100 lagun inguru	2014ko ekainetik uztaiera 2014ko azarotik abendura	✓
Garapen iraunkorra	Eskola Agenda 21a	2013-2014 ikasturtean, energiaren kontsumoa landu zuten. Bitan bildu ziren Udaleko teknikari eta ordezkari politikoekin.	Ikasleak (1.400 inguru)	2013-2014 ikasturte osoan	✓
Hirigintza	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra	HAPOaren hasierako dokumentua herritarrei aurkeztea, erakusketa eta tailerren bidez; tailerretan teknikariak aritu ziren zuzenean azalpenak ematen.	187 lagun (96 ♀, 91 ♂)	2013ko otsailetik abendura	✓
Kultura	Jai Batzordea	Xanistebanak antolatzeke eta baloratzeko bilerak.	Elkarteetako ordezkariak, musikariak, herritarrak: 30 lagun inguru	Urtero, martxotik irailera	...
Kultura eta Hirigintza	Kultur Etxeari buruzko tailerra	Kultur Etxearen proiektua egokitzeko tailerra, kulturgintzako herritarrekin.	Kulturgintzako eragileak: 15 lagun	2013ko urrian	✓
Trebakuntza	Parte hartzeke prestatzea	Parte-hartzea udalgintzan eta Udalaren funtzionamenduan txertatzeko partaidetzaren inguruko ikastaro praktikoa.	Udal-hautetsi eta -teknikariak: 15 lagun inguru	2014ko otsailetik martxora eta ekainetik uztaiera	✓

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Haurrak/gazteak/ adinekoak eta Kiroiak	Skate-parka	Skate-parka egiteko eskaerari erantzuteko, parte hartzeko saioak gazteekin.	...	2015eko martxoan baino lehen hasteko	...
Komunikazioa	Udalaren webguneko parte hartzeko tresnak	Herritarrek parte hartzeko tresna erabilgarriak eta lagungarriak jartzea webgunean.	10 lagun (adituak Interneten, sare sozialetan...)	2015eko otsailean	...

## AURREKONTUAK

### Noiz

Lehen fasea, 2014ko ekainetik uztailera;  
bigarren fasea, 2014ko azarotik abendura

### Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 9 lagun  
(6 emakumezko, 3 gizonezko):  
Gobernu Taldeko zinegotziak

Herritarrek: lehen fasean, 150 lagun inguru,  
bigarren fasean, 100 lagun inguru



**E**sperientzia luzea dauka Oiartzungo Udalak aurrekontuak egiteko garaian herritarrekin harremanetan jartzen. Partaidetzazko esperientzia horrek bilakaera nabarmena izan du azken urteotan: duela urte batzuk, herritarrekin batzarrak soilik informatiboak ziren, Udalaren hurrengo urteko aurrekontuak aurkezteko besterik ez; gero, beste urrats bat egin zuten, eta informatzeaz gain, herritarren nahiak eta beharrak ere biltzen hasi zen Udala, eta horiek udal-aurrekontuen baitan

txertatzen; 2013an, berriz, berrikuntza nabarmen bat gehitu zen: prozesua bi fasetan egitea, eta herritarren erabakitzeko ahalmena gehitzea; azkenik, 2014an ere berdin egin zuten, baina prozesua finduta edo hobetuta.

Partaidetzazko aurrekontuetan, 2014an, Oiartzunen, bi fase bereizi zituzten:

- **Lehenengo fasean** –udan–, Oiartzungo auzoetara joan ziren udal-ordezkarriak. Horietan, auzotarren eskaerak eta nahiak zerrendatu egin zituzten, 2015ean auzo bakoitzean egiteko obra eta abarrekoekin. Gero, udan, udal-teknikariek eskaera horiek kuantifikatu egin zituzten, hau da, alderdi teknikitik eta ekonomikitik zer zekarten zehaztu zuten.



- **Bigarren fasean** –azaroan–, berriz ere udal-ordezkariek auzo auzo ibili ziren, eta eskaerek zer ibilbide izan zezaketen azaldu zuten: zein ezin ziren egin eta zergatik; zein jotzen zen estrategikotzat eta zenbat diru behar zen... Azkenik, auzotarrek diru-kopuru jakin bat hurrengo urtean zertan inbertituko zen erabaki zuten.

Oiartzun lur-hedadura handiko herria da, auzo ugarikoa, eta partaidetzako aurrekontuetan funtsezkoak dira auzoetako batzarrak. Horregatik, Gobernu Taldeko zinegotzi bakoitzak auzo baten ardura hartu zuen, segimendu zehatzagoa egiteko eta auzotarrek ere erreferentziatzeko hautetsia izan zezaten; hautetsi bakoitza bere ardurapeko auzora joan zen, beste hautetsi batek lagunduta, eta azalpenak hautetsi arduradunak eman zituen. Halaber, bilera horiez gain, garrantzi handia dauka udal-teknikarien lanak, bakoitzak dagokion alorrean: kontu-hartzaileak diru-kontuetan, arkitekto eta delinearzaileek jasotako eskaeren kuantifikazio teknikoak eta ekonomikoak egitean eta abar.

Prozesuari esker, 2015eko udal-aurrekontuen atal batean –auzoenean–, herritarrek erabaki zuten zein ziren lehentasuneko lanak, eta hurrengo urtean gauzatzeko asmoa zeukaten.

Balorazioari dagokionez, gorabeherak izaten dira, batez ere sarritan arreta handiegia jartzen delako batzarretara joaten den jende-kopuruan (alegia, jende gutxi = “frakaso”, jende asko = “arrakasta”). Batez ere azpimarratu edo ondo baloratzekoa izan zen parte hartu zutenen jarrera positiboa eta eraikitzailea, eta jendea oso sentsazio onarekin geratzea, bilerak emankorrak eta eraginkorrak izan zirelako. Udalarentzat, berriz, aurrekontuetako batzarrak tresna ezin hobeak izaten dira auzoetako kezka-iturriak zein diren jakiteko.



## JON DEL OLMO LARRAÑAGA

Ikertzailea · 26 urte

Elizalde auzoko bizilaguna

“Aurrekontuen prozesuan parte hartu nuen, interesgarria iruditzen zitzaidalako jakitea diruarekin zer egiten den eta zer malgutasun zegoen guk gauzak aukeratzeko. Informazioa jasotzeko era bat da.

Nik uste merezi duela parte hartzea. Batzuetan asistentzia txikia izan da, baina hori lanketa eta pedagogia kontua da. Jende gutxi egotearen alderdi on bat da errazagoa dela entzuna izateko. Herritar bezala, lehendabizi ikasi egin behar dugu parte hartzen, modu edukatuan eta jakiten bilerak zertarako diren eta gauza bakoitza non esan behar den. Pentsatzen dugu zinegotzi bat aurrean dugulako erantzun guztiak dituela. Bestetik, atera dudan ondorioa da Udalak eta zinegotziek pedagogia asko egin behar dutela, informazioa eman, jendeari interesatzeko moduan aurkeztu... Askotan deialdi oso orokorrak egiten dira eta mezua galdu egiten da orokortasunean //



## LOLI DUARTE ALCANTARA

Aldi baterako erizain  
laguntzailea · 55 urte

**Arragua auzoko  
bizilaguna**

“Oso interesgarria da etortzea eta ikustea zer dagoen sobran edo faltan auzoan. Nahiz eta denbora asko daraman Udalak batzarrak egiten, oraindik etortzeko ohitura falta da, edo kontzientziarioa da akaso. Informazio asko eman behar zaio jendeari oraindik.

Arragua oso handia da eta ez dira berdinak beheko edo goiko auzoak; arazoak ere oso ezberdinak dira. Obrak bertan behera gelditu ziren, eta urbanizazioan asko falta da. Beheko auzoa pixka bat desorekatua dago: ez dago aparkatzeko tokirik, daudenak nahiko gaizki daude, topoaren geltokiaren ingurua bukatu gabe... Hori da jendeak esaten duena”



## IDOIA REKALDE LEKUONA

Irakaslea · 52 urte

**Ugaldetxo auzoko  
bizilaguna**

“Aukera bat eta betebeharrak bat da, herritar bezala. Eskubide asko eskatzen ditugu, baina betebeharrak ere badaude. Zerbait nahi izanez gero, ez bazaude bertan, ez duzu lortuko. Baldin bazaude Udalak edo erakundeek antolatzen dituzten bileretan, baduzu eskubidea zure ahotsa entzunarazteko. Gainera, ideiak, asmoak... bideratzeko eta azaltzeko guneak dira.

Auzoan egiten direnean, auzotar gisa, zerbait hobetzeko badagoela uste dudanean, momentua eta aukera da esateko. Udal-ordezkariek ideiak hartzen dituzte, badakit entzuten dutela eta konturatzen naiz kontuan hartzen dituztela. Gero, gaur egun dauden arazo ekonomikoengatik gauza batzuk baztertu egiten dituzte, baina arrazoitzen dute zergatia. Agian beti ez zaude ados, baina ezinezkoa da. Uste dut lehen gehiago mugitzen ginelan, baina ez da Oiartzungo kontua, gizartea bera da aldatu dena. Etxean ditut gazteak eta guk bultzatzen ditugulako parte hartzen dute gauza gehienetan”



# ALTZIBAR AUZOA

## Noiz

2014ko maiatzetik aurrera

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 5 lagun  
(1 emakumezko, 4 gizonezko):  
alkatea, 2 zinegotzi, udal-arkitektoa  
eta udaltzainburua

Herritarrak: 60 lagun

hirigintza

mugikortasuna



**A**ltzibar Oiartzungo auzo bat da. 60-70eko hamarkadan asko hazi zen, etxe berri asko eraiki zituztelako, eta kanpotik jende ugari etorri zen bizitzera. Auzoak bi zati nagusi ditu: “behea” edo auzoaren erdigunea, kale estuekin, komertzioarekin... ; eta “goia”, 60-70eko hamarkadetan eraikitako pisu-blokeekin.

Auzotarren aldetik bazegoen eskaera zerbait egiteko auzoaren erdiguneko kaleetan, batez ere Mikelete kalea oinezkoentzako eremu bihurtzeko. Kale hori estua da berez, eta ibilgailu asko ibiltzearen ondorioz, oinezkoek kontuz ibili beharra zeukaten. Auzotarren eskaera kontuan izanik, udal-teknikariak eta udaltzainek bi proposamen zehatz egin zituzten, betiere oinezkoek lehentasuna izatea irizpide nagusia izanik: bata, Mikelete kalea oinezkoentzat jartzea, beste aktuaziorik gabe; besteak, berriz, ikuspegi orokorragoa biltzen zuen, eta neurri gehiagorekin (aparkaleku batzuetan denbora-muga jartzea, bide batzuetatik autoz auzotarrak baino ez ibiltzea, autoei oztopo fisikoak jartzea...).

Altzibarrerako proposamena aurkezteko eta auzotarren iritzia jasotzeko, bilera antolatuta zuten Udalak auzoan bertan. Udalaren izenean, hiru hautetsi, udal-arkitektoa eta udaltzainburua joan ziren. Azalpenak entzun eta zalantzak argitu ondoren, bilera parte hartu zutenek bigarren proposamenaren alde egin zuten eta Udalak abian jarri zuen; probarako hilabete batzuen ondoren, abenduan balorazioa egin zuten. Balorazio horretan, ondorioztatu zuten aldaketekin lortu zela oinezkoen segurtasuna hobetzea, eta hobetzeko zenbait puntu ere identifikatu ziren. Horrez gain, auzoko merkatariak kezka batzuk agertu zituzten eta Udalak beraiekin lanketa berezia egiteko konpromisoa hartu zuen bere gain. Ereduak norabide zuzena markatu duelakoan dago Udala, eta lanean jarraitzeko konpromisoa adierazi zuten udal-ordezkariek, auzoei zuzenean eragingo dieten aldaketa/proposamenak auzotarrekin konpartitzen eta lantzen.



# Pasaia



Azalera: 11 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 15.929, pasaitarrak

Lau barruti ditu: Pasai Antxo, Pasai Donibane,  
Pasai San Pedro eta Trintxerpe

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (8), PSE-EE (3), EAJ-PNV (3),  
PP (2) eta Ezker Anitza-IU (1)

[www.pasaia.net](http://www.pasaia.net)



Parte-hartzearen ardura

**OIHANE OROÑOZ ELZAURDI**

(zinegotzia)



Herritarrak parte hartzen Pasaian:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Garapen iraunkorra	<b>HONDAKINAK BILTZEKO SISTEMA BERRIA PASAI ANTIXON</b>	Pasai Antxon hondakinak biltzeko sistema berriaren informazioa ematea herritarrei, eta behin betiko sistema elkarrekin zehaztea, herritarren iritzi, zalantza, ekarpen eta proposamenak kontuan izanik.	601 lagun (341 ♀, 260 ♂)	2013ko azarotik abendura	✓
Garapen iraunkorra	Hondakinak biltzeko sistema berria Pasai San Pedron eta Trintxerpen	Pasai San Pedron eta Trintxerpen hondakinak biltzeko sistema berriaren informazioa ematea herritarrei, eta behin betiko sistema elkarrekin zehaztea, herritarren iritzi, zalantza, ekarpen eta proposamenak kontuan izanik.	268 lagun (142 ♀, 126 ♂)	2014ko ekainean	✓
Kultura	<b>PASAI SAN PEDROKO GUNE ETA EKIPAMENDU SOZIOKULTURALAK</b>	San Pedroko eragileekin eta norbanakoeekin batera, barrutiko behar eta gabezia soziokulturalak aztertzea eta horiek asetzeko edo betetzeko eman beharreko pausoak zehaztea.	43 lagun (13 ♀, 30 ♂)	2013ko abendutik 2014ko maiatzera	✓



# HONDAKINAK BILTZEKO SISTEMA BERRIA PASAI ANTXON

Noiz

2013ko azarotik abendura

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 5 lagun (4 emakumezko, 1 gizonetzko): alkatea, bi zinegotzi, kanpoko bi aholkulari

Saioetan, herritarrek: 601 lagun (341 emakumezko, 260 gizonetzko), baina batzuek saio batean baino gehiagotan hartu zuten parte

garapen  
iraunkorra



**P**asaiako Udalak konpromisoa hartu zuen garapen iraunkorrarekin, eta hondakinak biltzeko sistema berria ezartzean, erabaki irmoa hartu zuen zaborra sortzetik hondakinak baliatzera pasatzeko. Hori lortzeko bidean, biltzeko sistema berria barruti guztietan ezarri zuen, pixkanaka. Pasai Antxori dagokionez, barrutiaren berezitasunak aintzat harturik, Udalak bilketa-sistema propioa proposatu zuen, zintzilarioak eta lokal berezien erabilera konbinatuta, eta horren berri emateko eta sistema herritarrekin hobetzeko, hainbat bilera antolatu zituen, Antxoko herritarren iritzia, zalantza, ekarpen eta proposamenak jasotzeko.

Funtsean, bi bilera-erronda egin ziren herritarrekin. Lehenengoan, udal-ordezkariek informazioa eman zieten herritarrei, aldaketaren oinarria azaltzeko eta behin-behineko proposamena erakusteko. Bigarren errondan, berriz, lehenengoan jasotako ekarpen eta iradokizunak kontuan izanik, Udalak proposamen hobetua eraman zuen eta eztabaidagai zeuden zenbait kontu argitu zituzten herritarrekin.

Saioak jendetsuak izan ziren, eta herritarrek aukera izan zuten informazioa eskuratzeko. Sistema zehazteko lanetan gogotsu hartu zuten parte eta ekarpen onak egin zituzten. Zenbait saiotan, ordea, herritar batzuen jarrera oztopo izan zen informatu eta parte hartu nahi zutenentzat, aurkako batzuek giroa nahasi eta berotu zutelako.

Balorazioari dagokionez, Udalak oso positiboki baloratu zuen prozesua. Informazio guztia erraz ikusteko moduan eraman zuten, eta hori oso lagungarria izan zen. Une gatazkatsuak ere izan ziren, batzuen jarrera oldarkorra eta itxia zela medio, eta horrelakoetan ikusi zen zein garrantzitsua zen teknikarien lana. Hondakinen kudeaketaren eta bilketa-sistemaren inguruan behar bezalako informaziorik ez zegoen, eta horrelakoetan zaila izaten da herritarrek natural parte hartzea. Une gogor eta desatseginetatik ere asko ikasten da, ordea. Azkenik, saio guztiak antzeko egiturarekin antolatuta ere, malguak izaten ikasi zuten: parte-hartzailea informazioa jasotzera ez zetorrenean, haren erritmora egokitu, baina saioaren helburuekin aurrera jarraitu, azkenean saioaren partaide bihurtzeko.

Sistema berria 2014ko otsailean jarri zen abian Pasai Antxon, eta emaitzak ikusgarriak izan ziren, 54 puntu egin baitzuen gora birziklapen-tasak (% 30etik % 86,54ra).



# PASAI SAN PEDROKO GUNE ETA EKIPAMENDU SOZIOKULTURALAK

## Noiz

2013ko abendutik 2014ko maiatzera

## Parte-hartzaileak

Talde Eragilean, 9 lagun (3 emakumezko, 6 gizonezko): 3 hautetsi, 2 teknikari, Proisako 2 ordezkari eta kanpoko 2 aholkulari

Saioetan: 43 lagun (13 emakumezko, 30 gizonezko)

kultura



**P**asai San Pedro barruti bizia da, bere baitan kultur elkarte eta eragile asko dituen. Indargune nagusia pertsonak dira, pertsona horiek antolatzen eta egiten dituztenak, eta elkarrekin aritzeko gaitasun handia daukate, oso herri parte-hartzailea da. Azken urteetan, Proisa izeneko eraikinak asko lagundu zuen horretan, han bat egiten baitzuten eragile eta elkarte ugari elkarlanerako; baina eraikin hori egoera txarrean zegoen, arriskutsua izan zitekeen barruan zebiltzanentzat, eta tirabirak sortu ziren erabiltzaileen eta Udalaren artean. Gainera, beste hainbat zailtasun eta gabezia ere bazeuden: lokal batzuk gehiegiz erabiltzen ziren, jarduera batzuk ez ziren egiten lekurik egokienean eta lokal egokiak falta ziren, ekipamenduak erabiltzeko erraztasun gutxi ematen ziren... Horren guztiaren aurrean, Udalak prozesu hau abiatu zuen, Pasai San Pedroko eragile eta herritarrekin behar soziokulturalak identifikatzeko eta definitzeko, eta horiek kontuan hartuta, etorkizunean gune edo eraikin soziokulturalak nolakoak izan behar zuten eta nola erabiliko ziren adosteko.

Hasieran, prozesua antolatzeko fasean, Talde Eragilea jarri zen abian, eta dena martxan jarri zuen: garapeneko fasea prestatu, prozesuaren komunikazioa, eragileak eta herritarrak gonbidatu, galdetegiak zehaztu eta bideratu (40 banatu eta 18 jaso ziren)...

Prozesua garatzeko fasean, lau lan-saio egin zituzten herritarrekin. Saio irekiak izan ziren, eta ahalegin berezia egin zuten herriko elkarteek eta sektore desberdinetako kideek parte hartzeko.

Saioetan, hauek landu zituzten:

- **Lehen saioan**, prozesua azaldu, balioak landu, galdetegiaren ondorioek konpartitu, egoera soziokulturalaren diagnostikoa osatu, behar soziokulturalak identifikatu...
- **Bigarren saioan**, Pasai Sai Pedroko behar soziokulturalak asetzeko proposamenak egin eta adostu.
- **Hirugarren saioan**, Pasai Pedroko eraikin soziokulturalen kudeaketarako/erabilerarako irizpideak zehaztu eta adostasunak identifikatu.

- **Laugarren saioan**, adostasunak berretsi eta etorkizuneko Talde Eragilea eta hurrengo urratsak zehaztu.

Saio horiek hamabostean behin izan ziren, larunbat goizetan, eta pixkanaka, saioz saio, elkarrekin lan eginez eta eraikiz, ondorengoak landu zituzten: Pasai San Pedoren azken 20 urteetako bilakaera soziokulturala; une horretako egoera soziokulturala (mapa eta sarearen irudikapena); beharrak eta horiek asetzeko proposamen zehatzak; eta udal-ekipamenduen etorkizuneko gestioa eta etorkizunean eman beharreko urratsak.

Emaiza nagusia dokumentu bat izan zen, adostasunena, eta funtsean bi izan ziren:

- Proisa edo Proisa bezalakoa izango zela etorkizunean Pasai San Pedroko gune soziokultural nagusia, eta horren arabera antolatuko zirela gainerako udal-erakinak.
- Beharrezkoa zela Udalak erraztasun eta laguntza gehiago eta handiagoak ematea kultur eragile eta elkarteei, etorkizunean bizirik eta indartsu jarrai zezaten.

Amaieran, prozesuko ondorioak gauzaten joateko eta aurrerapausoak emateko, Talde Eragilea sortu zuten, eta prozesuan parte hartu zutenek lanean jarraitzeko konpromisoa adierazi zuten. Hala ere, emaitza nagusia adostasunen dokumentua izanik ere, prozesuan nora iritsi ziren bezain garrantzitsua izan zen guztiek egindako bidea, elkarrekin emandako pausoak. Izan ere, Udalaren eta kultur eragile edo elkarte batzuen arteko harremana normalizatzeko bidean jarri zen.

Prozesuaren balorazioari dagokionez, saio bakoitzaren amaieran balorazioa egin zuten parte-hartzaileek, hainbat teknikaren bidez, eta saioak ondo edo oso ondo baloratu zituzten, jendea gustura aritu da lanean. Bereziki azpimarratu zituzten egindako

lana eta erabilitako metodologia, aukera ematen zuelako parte hartzeko. Hobetzekoen artean, berriz, bereziki nabarmendu ziren asistentzian izandako hutsune batzuk eta batzuen helburuak edo espektatibak ez bete izana.

Udalak ere balorazio positiboa egin zuen. Prozesuak balio izan zuen aurreiritzi asko apurtzeko eta egiaztatzeko aurrera begira elkarlana zela aukerarik egokiena. Herritarrengan ilusioa piztu zen, eta etapa berri bati ekin zitzaion. Hobetu edo zuzendu beharrekoetan, berriz, bereziki nabarmendu nahi izan zuten udal-ordezkariek jokatu beharreko papera herritarren saioetan: prozesua babesteko edo informazioa emateko hor egon behar dutela, baina arriskutsua izan daitekeela prozesurako zuzenean parte hartzea. Ikasitakoetan, berriz, adierazi zuten partaidetza-prozesuek lan handia eskatzen dutela prestatzen eta bideratzen, baina ondorioei begiratuta, merezi duela; nolana ere, ikusten zuten lan handia dagoela egiteko, gizartea oraindik ere ez dagoelako prestatuta parte hartzeko eta guztiok daukagulako zer ikasia.





## PEIO SANZ GARCIA

Irakaslea  
56 urte

### Zergatik hartu zenuen parte?

Herritar bezala parte hartzea derrigorrezkoa iruditzen zaidalako. Herritar guztiok izan behar dugulako tokia, denbora eta egoera elkarren artean hartu-emanen aritzeko, eta, bide batez, ardura eta papera guregan ere badagoela erakusteko.

### Zer izan zenuen gustuko?

Alde pedagogikoa, hots, lehendabizi ikasi behar dugulako nola egin daitekeen eztabaida edo debate batean mundu guztiak bakoitzaren iritzia emateko eta besteon iritzi eta argudio sendoak entzuteko. Bestalde, eredugarria da parte hartuz nola prozesu osoaren garrantziari buruz jabetzen garen guztiok.

### Nola baloratzen duzu?

Oso ondo, nahiz eta pedagogian gehiago sakondu behar den. Adibidez, ez da nahikoa joatearekin, parte-hartzearekin eta behin bukatu eta gero, bakoitza etxera joan eta kito; horrela ez da/dugu zabaltzen prozesuen mamia, garrantzia, hiritartasuna...

### Zer ikasi zenuen?

Benetan demokrazia zer den ez dugula sakon ulertzen, ezin dela sinetsi bakoitzaren iritzia irabazi behar duela besteen aurrean, ez dugula benetan sinesten herritarrok egin behar dugula bidea gauzak guztiontzat ondo eta guztion artean aurrera eramateko. Hots, herritar guztiok bidea egin behar dugula eta ordezkariak kudeatzaile onak izan behar dutela, besterik gabe.

# tolosaldea



## Herriak (28)


Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa eta Zizurkil

## Biztanleak

47.127 (gipuzkoarren % 6,59)

## Azalera

325,79 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 16,38)





**L**ehen Toloserri izenez ere ezaguna zen, baina gaur egun Tolosaldea izendapena nagusitu da.

Gipuzkoaren ekialdean dago. Iparraldean, mugakide ditu Kosta eta Buruntzaldea; ekialdean, Nafarroa; hegoaldean, Goierri; eta, azkenik, mendebaldean, Urola Erdia.

Eskualde menditsua da, baina ez dira mendi altuak; Herniok eta Herniozabalek ozta-ozta gainditzen dituzte 1.000 metroak, eta Larrunarri edo Txindoki da inguruko altuena, Aralarren ertzean, 1.346 metroekin. Ibai-sarea, berriz, garrantzitsua da, eta Gipuzkoako ibairik luzeena, Oria, igarotzen da eskualdetik, hegoaldetik iparraldera.

Tolosa da eskualdeko herri nagusia eta hortik hartzen du izena; historikoki, gainera, udalherri guztiak Tolosaren parte izan ziren, eta handik banantzen eta udalherri berriak sortzen joan ziren, pixkanaka. Tolosa bailararen erdigunean dago, eta haren bueltan-bueltan daude gainerako herriak, gehienak oso txikiak. Gipuzkoako herri gehien biltzen dituen eskualdea da.

Herri batzuek, ordea, Tolosaldeaz kanpoko beste herrigune batzuen eragina dute: Amasa-Villabonak, Zizurkilek eta Adunak, adibidez, Donostiarena; kontrakoa ere gertatzen da: Beizama, berez, Urola Erdiko herria da, baina Tolosaldearen eraginpean bizi da.

Etxebizitza bakanetan (baserrietan eta antzekoetan, alegia) bizi den biztanleriaren proportzioa Gipuzkoako handiena da

eskualdean: biztanleriaren % 15. Herri txikietan ehuneko hori are handiagoa da.

Komunikabide-sarearen elementu nagusiak bi dira: N-I (Madril-Irun) errepidea eta trenbidea. Ibilbide laburretan, trenak garrantzi handia dauka eskualde honetan. Gipuzkoak Nafarroarekin aspaldidanik izan duen lotura zaharra (N-130 errepidea, alegia) guztiz bazterturik utzi du A-15 (Andoain-Irurtzun) autobideak. Beste errepide nagusiak hauek dira: Tolosatik Azpeitira doan GI-2634 errepidea eta Tolosatik Leizara doan GI-2130 errepidea.

Industria da jarduera ekonomiko nagusia eskualdean. Tolosaldeko langileria 16.000 lagunek osatzen dute, eta horietatik, % 43,8 bigarren sektorean aritzen dira lanean. Tolosaldeko industria gehienak txikiak dira, metalgintzan eta papergintzan aritzen direnak. Papergintzako lantegiak teknologia aldetik zaharkiturik gelditu ziren, eta horren eraginez enpresa asko itxi egin ziren eta beste askok berregituratu egin behar izan zuten. Bestalde, Tolosak eta Amasa-Villabonak industriagintzarako lurra prestatzeko arazoak dituztenez, industria berri asko eskualdeko beste herri batzuetara joan dira (Aduna, Zizurkil, Anoeta eta abar). Langileen % 42,7 zerbitzuen sektorean ari da lanean. Inguru guztiko herriak oso txikiak eta biztanle gutxiokoak direnez, ez da harritzekoa eskualdeko zerbitzurik gehienak Tolosan bertan bildurik egotea.

Tolosa da epai-barrutiko burua, eta ospitale bat dauka ■

# Abaltzisketa



**Azalera:** 11,2 km<sup>2</sup>

**Biztanleak:** 329, abaltzisketarrak

**Udalbatzarraren osaera:**

**Herritarrak** (7)

[www.abaltzisketa.net](http://www.abaltzisketa.net)



Eskerrak eman nahi dizkiegu  
Abaltzisketako herritar guztiei,  
eta bereziki era batera edo  
bestera gure herria eta  
bizimodua hobetzeko parte  
hartzen dutenei. Biba zuek!



**Herritarrak parte hartzen Abaltzisketan:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Parte hartzeko sistema	<b>ETORKIZUNERAKO ERRONKAK ETA EKINTZA-PLANA</b>	Urtean zehar herri-bilerak egiten dira, Udaleko eta herriko gaiez hitz egiteko.	Herri-bileretan, 45-50 lagun (% 40 ♀, % 60 ♂)	2013an eta 2014an zehar	...
Sozioekonomia	<b>HERRIKO LAN-HOBIAK AZTERTU ETA ENPLEGUA BULTZATU</b>	Abaltzisketa herri bizia izateko, lan eta zerbitzu berrien aukerak aztertzea, ahal ziren aukera guztiak martxan jartzeko.	Hainbat bileretan, 7-35 lagun artean (% 40 ♀, % 60 ♂)	2014an zehar	✓

# ETORKIZUNERAKO ERRONKAK ETA EKINTZA-PLANA

**Noiz**

2013an eta 2014an zehar

**Parte-hartzaileak**

Udalaren izenean: alkatea eta zinegotziak

Herri-bileretan: batez beste 45-50 lagun (% 40 emakumezkoak, % 60 gizonezkoak)



**B**este herri txiki batzuetan bezala, Abaltzisketan ere udal-hauteskundeetarako zerrenda bakarra osatzen dute herritarrek, inolako alderdi politikoren tutelarik edo esku-hartzerik gabe. Hauteskundeak baino

hilabete batzuk lehenago, herritarrek izenak proposatzen dituzte hautetsi izateko eta lanerako, eta 20-25 emakumerik eta gizonik bozkatuenak bilera batean elkartuta, geroko udalbatza osatzeko fasea hasten da. Batzuetan ez da erraza izaten, baina



beti lortzen dute zerrenda osatzea, eta zerrenda horrek herritarren babes handia lortzen du (azken hauteskundeetan, botoa eman zuten herritarren % 96ena).

Urtean zehar, herri-bilera ugari egiten dira, era askotakoak: batzuk Udaleko proiektuen berri ematekoak; beste batzuk informatiboak (energiari buruzkoak, nekazaritzako aldaketa fiskalekoak...); beste batzuetan, batez ere proiektu potoloak edo estrategjkoak direnean, herritarrei iritzia ere eskatzen zaie. Bilera horietan herritar askok hartzen dute parte (herritarren

% 15 inguruk), eta horrek nahikoa indarra ematen die hurrena beste bilera bat egiteko. Zinegotzietako batzuek legealdi bat baino gehiago egiten dute eta hori oso lagungarria da hautetsi berrientzat, laguntzeko eta bukatu gabe geratutako proiektu eta asmoekin aurrera egiteko.

Seguru asko, abaltzisketarren parte hartzeko sistema ez da izango onena, ez da izango perfektua, baina iraun egin du denboran eta osasuntsu dago, gainera. Beste lekuetan bezala, Abaltzisketako herritarrek udal-ordezkariei lan egiten uzten diete, ez dago presio politikorik edo alderdikeriarik; Abaltzisketan ez dago taberna edo lokal batzuk alderdi jakin batekoentzat eta beste taberna edo lokal batzuk bestekoentzat. Edozeinek du eskubidea nahi duen ekintzetan parte hartzeko eta horiek antolatzeko edo laguntzeko, politika ez da sekula tartean egon. Herritar guztiak berdinak dira, maila beretik begiratzen diote elkarri, eta berdin hautetsiek ere: harremana oso ona da, sana eta konfiantzazkoa. Zerbait oker eginez gero edo gaizki irudituz gero, kritika egiteko aukera dago eta herritarrek egiten dute, lasai ederrean, baina beti eraikitzeko eta benetan horrela pentsatzen delako. Herritarrek jakin badakite ez dagoela inor munduan dena ondo egiten duenik, eta horrek lagundu egiten du elkarbizitzan.

Beraz, goraipatu beharra dago Abaltzisketako herritarra, herrigintzan parte hartzen duelako, zerbait antolatu behar den guztietan boluntarioak erraz azaltzen direlako eta batez ere udal-ordezkariei lan egiten uzten eta laguntzen dielako.





## ARANTXA TOLOSA OTAMENDI

*(Pilingo Arantxa)*

Administraria eta  
etxeakoandrea

38 urte

“Udaletik herriko informazioa pasatzen dute zer egin duten esplikatzeko. Gai batzuei buruz (sagardotegia, zaborrak, aparkalekua...) herri-bilerak ere antolatzen dituzte herritarren iritzia jakin nahi dutelako. Herri-bilera horietara herritar gutxi azaltzen da, eta beti jende berdina. Ez dakit zer den... Motibazio falta? Interes eza? Bakoitzari berari interesatzen zaion gaira bakarrik azaltzea?

Udaleko alkate eta zinegotziei buruz, berriz, alkatea bileretan hor izaten da, eta ikusten zaio informatuta joaten dela, hitz egiten eta entzuten badaki; zinegotziei buruz, berriz, ikusten dut bileretara ez direla horrelako interesarekin edo informazioarekin joaten, eta, gainera, gutxi joaten dira //



## JOSE LUIS ZUBELDIA GOROSTIDI

*(Kareako Joxe Luix)*

CAFeko langilea

58 urte

“Iritzi orokor bat ematekotan, Abaltzisketako Udalaren gestioa egokia dela aipatuko nuke. Herrian eragina duten erabakiak hartzeko garaian bilera irekiak egiteaz gain, etxe guztietara gutuna bidaltzea oso positiboa iruditzen zait.

Bileretan aukera ematen da herrian gertatzen denaren berri izateko, erabakiak hartzean nor bere iritzia alde egiteko eta besteen iritzi eta ideiak kontuan hartzeko; beraz, iruditzen zait probetxugarria dela. Azken batean, bilerara azaldu ez eta erabakia hartu ondoren kexatzea zentzugabea iruditzen zait.

Hobetzeko zerbait aipatzekotan, esango nuke herritarrek gehiago parte hartzea bultzatu behar dela, nahiz eta aukera eskaintzen den, asko ez baitira agertzen //

# HERRIKO LAN-HOBIAK AZTERTU ETA ENPLEGUA BULTZATU

## Noiz

2014an zehar

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean: alkatea eta pertsona kontratatu bat (biak gizonezkoak)

Herritarrak: 7 eta 35 lagunen artean

(% 40 emakumezkoak, % 60 gizonezkoak)

sozioekonomia



**1** 995. urte inguruan, oso erabaki garrantzitsua hartu zuten Abaltzisketan etorkizunerako: etxebizitza berriak eta Eskola Txikia eraikitzea. Erabaki hari esker, orduan gazte zirenak herrian bertan geratu ahal izan ziren bizitzen, seme-alabak ekarri eta bertan hazi; erabaki hari esker, gaur egun Abaltzisketa herri gaztea da, neska-mutilek koadrila herrian bertan daukate, eta zerbitzuez ere oso ondo hornituta dago herria: tabernak, elkarteak, pilotalekua, gimnasioa, kultur etxea, gazteentzako lokalak... Garrantzitsua da lo bakarrik ez, bizimodua ere herrian bertan egitea eta horretarako baliabide eta baldintzak jartzea jarduera ekonomiko egokiekin eta zerbitzu berrieekin, abaltzisketarrek aisialdi-garaia ere herrian bertan pasatzeko, neurri handi batean, eta Abaltzisketak bizirik irauteko.

Asmo horrekin, eta diru-laguntza batzuez baliatuta, urtebeteko saiakera bat egin zuen Udalak sozioekonomiaren arloan. Hasteko, langile bat kontratatu zuten asmoak gauzatzeko, eta, ondoren, Udalak proiektuaren berri eman zien herritarrei, ikusteko zer aukera zegoen herriko produktuak kontsumitzeko herriko elkarte, eskola, taberna eta etxeetan. Gero, galdetegi bat bidali zuten etxe guztietara, ikusteko baserritarrek zer eskain zezaketen eta zein zegoen prest proiektu honetan sartzeko. Horrela, Eskolan, adibidez, baserriar-elkarte batek eramandako euskal produktuekin prestatzen hasi ziren bazkariak, eta aurrera begira, azterketak zenbait aukera berri adierazi zituen: ile-apaindegia zabaltzea posible zela, kontsumo-talde bat sortzeko gune bat prestatzen hasi ziren, zerbeza eta pasta ekoizteko gune bat prestatzeko proposamena egin zuten... Azken finean, lana non edo zertan egon zitekeen identifikatzeko ahalegina egin zen, eta ahalik eta erraztasun gehien eman nahiak edo asmoak gauzatzeko.

Sozioekonomian, Abaltzisketako beste ardatzetako bat turismoa da, eta batez ere Larraitx ingurukoa, jende ugari ibiltzen baita joan-etorrian. Hango jatetxe bat herriarena da, baina aspaldian ezinean zebilen, eta herri-bilera batean proposatu zuten jatetxe-zerbitzua beste jarduera batzuekin osatzea, aterpetxe edo pentsio batekin, kanpotik zetozenek asko eskatzen zutelako zerbitzu hori, gaua pasa ahal izateko... Baina asmo hori ez zen gauzatu.

Udal-ordezkariek kontziente ziren horrelako asmoak aurrera ateratzea oso zaila zela hain herri txikian, ezinbestekoa delako herritar guztien inplikazioa, eta jendea oso okupatuta dago bere zereginetan, askorentzat honelako proiektuek ez daukate lehenetsunik.


# Aduna

Azalera: 7 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 471, adunarrak

Udalbatzarraren osaera:  
**aurreko legealdian EAE-ANVko  
zinegotziak izandakoak (7),  
egoerak behartuta**

[www.aduna.net](http://www.aduna.net)



Parte-hartzearen ardura  
**JOSU AMILIBIA ALSUA**  
(alkatea)



Argazkia: Txulobi Elkarte



**Herritarrak parte hartzen Adunan:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Garapen iraunkorra	<b>AGENDA 21A: URTEROKO PROGRAMAZIOA</b>	Agenda 21aren urteroko programazioa herritarrekin batera lantzea.	8 lagun (2 ♀, 6 ♂)	2013ko urritik azarora	✓

# AGENDA 21A: URTEROKO PROGRAMAZIOA

**Noiz**

2013ko urritik azarora

**Parte-hartzaileak**

Udalaren izenean, 3 lagun (1 emakumezko, 2 gizonetzko): alkatea eta kanpoko aholkulariak

Herritarrak: 8 lagun (2 emakumezko, 6 gizonetzko)



**A**dunako Udalak Ernioaldeko Udaltalde 21 proiektuarekin bat egitearekin batera eman zion hasiera Tokiko Agenda 21aren programari, 2004an. Programa horren dokumentu nagusia, Aduna iraunkortasunaren bidean jarriko zuena, Tokiko Agenda 21aren Ekintza Plana izan zen, eta 2007ko otsailean onartu zuen Adunako udalbatzak.

2007tik aurrera, Agenda 21aren Ekintza Plana gauzatzen joan zen Udala. Baina 2012an, ezarpen-mailaren eboluzioa ikusirik (2011n % 51 lortu zuen), berrikusi eta berritu beharra zegoela

erabaki zuen. Horrela, Garapen Iraunkorrerako II. Ekintza Plana edo Plan Estrategikoa osatzeko lanari heldu zioten 2012. urtean.

2013ko otsailean onartu zuen Udalak Plana eta, ordutik aurrera, urtero-urtero, Plan Estrategikoa ebaluatu egiten da exekuzio-maila ezagutzeko, eta herritarrei horren berri ematen zaie, bilera baten eta Udalaren webgunearen bitartez. Gainera, urte amaieran, Planaren ekintzetatik hurrengo urtean gauzatzeko egokienak hautatzen dira herritarrekin batera.



Horixe egin zen, hain zuzen ere, prozesu honetan: Iraunkortasunerako II. Plan Estrategikoan jasotako ekintzetatik, 2014an egiteko ekintzak hautatu. Horretarako, bere garaian Plana osatzen parte hartu zuten herritarrek eta, oro har, Adunako herritar guztiak bi lan-saiotara gonbidatu zituen Udalak.

Lehen foroan, informazioa eman zuten, Plana onartu zenetik eta 2013an zehar zer ekintza egin ziren. Horren ondoren, lehenetasun handiko ekintzak aurkeztu zituzten (Plana osatzeko prozesuan herritarrekin zehaztu zen lehenetasuna); gero, horietatik, 2014an gauzatzeko ekintzak hautatzeari ekin zioten.

Bigarren foroan, berriz, lehenetasun handiko ekintzak lehenesten jarraitu zuten, eta behin horiek zehaztuta, Udalak konpromisoa hartu zuen ahal zuten neurrian horiek 2014. urteko plangintzan txertatzeko.

Prozesu honi esker, Udalak Garapen Iraunkorrerako II. Plan Estrategikoaren 2014. urterako ekintzen programazioa egin zuen herritarren partaidetzarekin, eta 2014. urtean zehar ekintza horien gauzatzeko-mailaren berri eman zien herritarrei. Udalaren balorazioa positiboa izan zen orokorrean, ekintzen programazioa herritarrekin egin zelako, baina hobetzeko artean ikusi zuen herritarren eta herriko beste eragile eta sektore batzuen partaidetza, nahi baino txikiagoa izan baitzen; ildo horretatik, azpimarratu zuten herritar gehiagok parte hartzeko eta prozesuetara erakartzeko mekanismoak aztertu beharra.



# Albiztur



Azalera: 12,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 327, albizturtarrak

Udalbatzarraren osaera:

Aralar (7)



Parte-hartzearen ardura

**GREGORIO IRAOLA TEJERIA**

(alkatea)

[www.albiztur.com](http://www.albiztur.com)



**Herritarrak parte hartzen Albizturen:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Parte hartzeko sistema	Herri-batzarrak	Udaleko gai guztiak herri-batzarrera eramaten dira erabakitzeko: hondakinak, Plan Orokorra, lanak, tasak... Gai erabakigarriak bozkatu egiten dira.	30-35 lagun inguru (% 30 ♀, % 70 ♂)	Legealdiaren hasieratik (2011tik)	...
Garapen iraunkorra	<b>HONDAKINAK KUDEATZEKO EREDU BERRIA</b>	Hainbat bilera egin ziren herritarrekin hondakinak biltzeko sistema berria lantzeko eta erabakitzeko.	40 lagun (% 35 ♀, % 65 ♂)	2012tik aurrera	✓

# HONDAKINAK KUDEATZEKO EREDU BERRIA



**Noiz**  
2012tik aurrera

**Parte-hartzaileak**  
Udalaren izenean, alkatea eta zinegotziak: 7 lagun (1 emakumezko, 6 gizonezko)  
Herritarrak: 40 lagun (% 35 emakumezkoak, % 65 gizonezkoak)



**G**ipuzkoako beste herri gehienetan bezala, hondakin kudeaketari heldu nahi izan zioten Albizturen. Aurretik ez zen gauza handirik egin, baina etorkizunean kudeaketa iraunkorra helburu izanik, nahitaez heldu beharrekoa iritzi zion Udalak, eta pixkanaka jorratu zuen: lehenengo, egoera aztertu zuten; gero, aukerak

ikusitu eta baloratu; azkenik, horietako baten alde egin eta ezarri egin zuten. Helburua garbia zen: Albizturen, hondakin kudeaketa ahalik eta iraunkorrena izatea, eta biltzeko sistema ahalik eta merkeena.

Herritarrekin gaia lantzeko, egitura nagusia herri-batzarra izan zen, eta pixkanaka joan ziren. Bileren aurretik, udal-aldizkariaren bidez informazioa etxe guztietara zabaldu zuten, eta herri-batzarretan hartu zituzten erabakiak. Berez, herri-batzarrera joaten diren herritar guztiak daukate bozkatzeko aukera, eta erabakiaren garrantziaren arabera, batzuetan ahoz eta beste batzuetan paper ezkutuan ematen da botoa. Erabakiak batzarrean hartzen direnez, horiek ontzat jotzen dituzte gainerako herritarrek. Hondakin kudeaketan ere bai: gaur egun hondakinak bereizita jasotzen dituzte, eta organikoak atez ate. Batzuetan kostatu egiten da ohiturak aldatzea, baina gero eta jende gehiagok hartzen du parte.

Udalak balorazio positiboa egin zuen. Informazio egokia esku artean izanda, herritarrek hartu zuten erabakia eta herritarrek beraiek hartu zuten erabakitakoa betetzeko ardura.



# Alegia



Azalera: 7,59 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.744, alegiarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7) eta **EAJ-PNV** (2)

[www.alegia.eus](http://www.alegia.eus)



Parte-hartzearen ardura

**UNAI IRAOLA AGIRREZABALA**  
(alkatea)





Herritarrak parte hartzen Alegian:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Garapen iraunkorra	<b>ALEGIAKO BARATZE-PARKEA</b>	Belostegi parajea, Udalak baratzeak jartzeko lurra utzi zizkien herritarrei.	Batzarretan, 24-29 lagun (% 40 ♀, % 60 ♂) Baratzeetan, 35 lagun (11 ♀, 24 ♂)	2013an eta 2014an zehar	✓
Haurrak/gazteak/ adinekoak	<b>ALEGIAKO HAURREN, NERABEEN ETA GAZTEEN SUSTAPEN-SISTEMA</b>	Haurren eta gazteen nahiei eta beharrei erantzungo dien gazte-lokalaren edo gaztelekuaren bidez zerbitzua ematea.	Elkarriketak: 17 lagun Gazteen eztabaida-taldea: 14 lagun (3 ♀, 11 ♂)	2014ko maiatzetik aurrera	...
Sozioekonomia	Alegiako Merkatarien Taldea	Herriko dendeekin elkarlanean eta bertako kontsumoa bultzatzeko asmoarekin.	23 saltokitako ordezkariak	2014 udazkena	...
Auzolana	Auzolanak	Ibai- eta erreka-bazterrak garbitzeko (hezkuntza-zentroekin); Langurre atsedenekua txukuntzeko eta garbitzeko; Franconi eraikina garbitu, txukundu eta pintatzeko...	Jende ugari	2012tik aurrera	✓
Haurrak/gazteak/ adinekoak	Gazteentzako asteburuetak aisialdia	6-17 urte bitarteko haurrentzat aisialdirako programa lantzea, gurasoekin elkarlanean.	6-11 urte: 55 gaztetxo 12-17 urte: 25 gaztetxo (% 50 ♀, % 50 ♂)	2014ko urrian	✓
Hirigintza	HAPOa berritzeko prozesua	Lehen fasea 2013ko azaroan eta abenduan, hiru bilera. 2014an bigarren fasea garatu zen.	25 lagun bilera bakoitzean	2013ko azarotik aurrera	...

# ALEGIAKO BARATZE-PARKEA

## Noiz

2013an eta 2014an zehar

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean: alkatea eta aparejadorea (2 gizonetzko)

Herritarrak: 35 lagun (11 emakumezko, 24 gizonetzko)

Bi herri-batzarretan: 24 eta 29 lagun

(% 40 emakumezkoak, % 60 gizonetzkoak)

garapen  
iraunkorra



**G**ero eta herri gehiagotan ari dira sortzen udalek bultzatutako baratzeak, herritarrek erabiltzeko, eta Alegian ere gero eta handiagoa zen herritarren eskaria. Horri erantzuteko jaio zen egitasmo hau.

Alegiako Belostegi auzoa Tolosa aldera dago. Lehen ere egon ziren baratzeak hor, baina bi metro beherago, eta Udalak, hasteko, bete-lana egin zuen eta errepidearen maila berean jarri zuen lurra. 60 metro koadroko 44 baratze jarri zituen, eta 36 erabiltzailek eman zuten izena.

Horrelako baratzeen helburu nagusietako bat ekoizpen ekologikoa bultzatzea izaten da, aisialdi aktiboarekin batera, baina proiektuak bazuen helburu sozial bat ere: erabiltzaileak elkarren artean harremanetan jartzea, baratzeak belaunaldien arteko topagune izatea eta gizarte-talde jakin batzuei (bizitza publikoan presentzia txikiagoa zeukatenei) aukera bat ematea.

Baratze-parkea sortzeko, Udalak parte hartzeko prozesu hau jarri zuen martxan. Hasteko, herritarren beharrak identifikatu

zituen, eta gero, komunikazio- eta informazio-kanpaina bat eraman zuen aurrera. Horren ondoren, interesa zuten herritarrek izena emateko tarte egon zen, eta interesatuek formazioa jaso zuten nekazaritza ekologikoaren gainean. Baratze-parkea kudeatzeko, elkarre bat sortu zuten erabiltzaileek, eta batzarren bidez funtzionatzea hautatu zuten. Ordura arte, Udalak hartzen zituen bere gain ardura nagusiak (bilera-deiak egin, prestatu...), baina elkarre bat sortu ondoren, Zuzendaritza Batzordeak hartu zuen ardura osoa (komunikazioa, koordinazioa, gestioa...).

Udalaren balorazioa oso positiboa izan zen. Izan ere, aisialdiko praktika egokia izateaz gain, integrazio-elementu bezala ere funtzionatu zuen, eta erabiltzaileak ez ziren gainerako herritarrek ere lehen degradatua eta erabilpenik gabe zegoen gunen bat nola berreskuratu zen ikusi zuten.



# ALEGIAKO HAURREN, NERABEEN ETA GAZTEEN SUSTAPEN-SISTEMA

Noiz

2014ko maiatzetik aurrera

Parte-hartzaileak

Udalaren izenean: alkatea, kultur dinamizatzailea eta hezitzailea

Elkarrizketak: 17 lagun

Gazteen eztabaida-taldean: 14 lagun (3 emakumezko, 11 gizonetzko)

haurrak/gazteak/  
adinekoak



**G**aztematika Gipuzkoako haur eta gazteen sustapenerako sistema da, Foru Aldundiak eta Gipuzkoako udalek osatutako sare egonkorra, Gipuzkoako haur eta gazteei gaikuntza, laguntza eta baliabideak emateko. Alegiako Udala sistema horretako partaide zen 2010. urtetik, eta urte hartan hitzarmen bat sinatu zuten Alegiako haurren eta gazteen sustapen-politikak indartzeko. Elkarlan horri jarraipena eman zioten harrezkero, urtero hitzarmena berrituta.

Hitzarmen horren baitan, lehen urteetan udalekuetako eskaintza hobetu zuten, baina nabarmena zen gehiago ere behar zela, Alegiako haurrei, nerabeei eta gazteei eskaintza berezia egiteko. Horregatik, 2014an, haur, nerabe eta gazteen ekimenak eta parte-hartzea bultzatzeko zerbitzua landu zuten elkarlanean udal-ordezkariek eta Aldundiko Bulego Teknikoko kideek, eta nerabeekin gaia aztertu ondoren, Udalak erabaki

zuen zerbitzua martxan jartzea. Horrela, lehen urteko hitzarmena zena epe ertain-luzeko lankidetzaz bihurtu zen. Horren arabera, etorkizunean Udalean zerbitzu bat sortuko zuten, eta bi aurrebaldintza ere ezarri zituzten: Udalean erreferente tekniko bat izatea eta konpromiso politikoa egotea.

Lankidetzaz horren baitan, hurrengo urteetarako lanerako proposamena diseinatzeko, hasteko aurrediagnostikoa egin zuten. Horretarako, Alegiako ohiko datu estatistikoetatik abiatuta, zerbitzurako kontratatu zuten hezitzaileak hamazazpi lagun (alkatea, gurasoak, gazteak, gizarte-langilea, kirol- eta kultura-elkarteetako kideak...) elkarrizketatu zituen maiatzean eta ekainean. Ondoren, herriko gazteekin eztabaida-saio bat antolatu zuten, gazteen ikuspegia jasotzeko, eta 18-29 urte bitarteko 14 lagunek hartu zuten parte. Material horrekin guztiarekin, diagnostikoa egin zuten, eta bertan ondorengoak jaso zituzten: Alegiaren deskribapena eta kokapena; Alegiako haurren, nerabeen eta gazteen egoera eta beharrak; Alegiako haurren eta gazteen sustapenerako politikak; eta, azkenik, ondorioak.

Diagnostiko eta ondorio horietan oinarrituta, 3 urterako helburuak jasotzen zituen proposamena egin zuten, eta Alegiako Parte Hartzea Bultzatzeko Zerbitzua (PBZ) zehaztu zuten. Halaber, 2014-2015 epealdirako kudeaketa-plana ere aurkeztu zuten, eta hori aintzat hartu zuten Udalak.

Prozesua amaitzerako, Franconi eraikina egokitze lanak hasiak ziren, auzolanean, gazte nahiz nerabeen parte-hartzearekin, eraikin hori aukeratu baitzuten Gazteleku izateko. Zerbitzuak denbora gutxi zeraman martxan, eta zaila zen balorazioa egitea, baina prozesua positiboki baloratu zuten Udalak, eta helburua gazte aktibo eta parte-hartzaileak formatzea izanik, espero zuten epe motzean emaitzak ikusten hastea.

# Alkiza



Azalera: 11,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 373, alkizarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Alkizako Abertzale Ezkertiarrak (7)**

[www.alkiza.net](http://www.alkiza.net)



Parte-hartzearen ardura

**JON UMEZ URREZOLA**

(alkatea)





**Herritarrak parte hartzen Alkizan:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Hirigintza	<b>HAPO-A BERRITZEKO PROZESUA</b>	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berritu beharra zegoen, eta herritarrek zer esana izan zuten etorkizuneko Alkizan.	Lehen bileran: 40 lagun (% 30 ♀, % 70 ♂) Galdetegiak beteta: 54	2014ko irailetik aurrera	...

# HAPO-A BERRITZEKO PROZESUA

**Noiz**

2014ko irailetik aurrera

**Parte-hartzaileak**

Lehen bileran: 40 lagun  
(% 30 emakumezkoak, % 70 gizonetzkoak)

Galdetegiak beteta: 54



**B**este herri batzuetan bezala, Alkizan ere Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiteari ekin zioten. Izan ere, lehendik zeuden arauak agortuta zeuden eta ez zeuden egokituta legedira. Plangintza orokor berria egitea ekimen korapilatsua eta luzea izan ohi da, arkitektoen eta teknikarien laguntza eskatzen duena, eta prozesuan herritarrek ere parte hartu beharra daukate. Horretarako, irizpideak, norabideak eta aukerak aurreikusi zituzten, ahalik eta adostasun-maila handienarekin hartzeko erabakiak, Alkizaren geroari buruzko ikuspegi bateratua lortzeko eta garatzeko.

Hasteko, abiapuntuko planoak jende aurrean jarri zituzten erakusgai, hamabost egunean, eta horrekin batera, irailean herri-batzarra egin zuten, asmoen berri eman eta hurrengo pausoak azaltzeko. Erakusketarekin batera, galdetegiak zabaldu zituzten etxe guztietara, euskaraz eta gaztelaniaz, etxe bakoitzean erroldatuta zeuden pertsona heldu adina galdetegi, alkizarrei hainbat alderdiri buruzko iritzia eskatzeko: landa-eremuaren antolamendua, herri-ekipamenduen antolamendua, azpiegiturak... Horietako bakoitzean, galdera zehatzak zeuden, “bai”, “ez” eta “ez dakit” erantzuteko. Galdetegiak udaletxean jarritako kutxa batera bueltatu behar ziren, eta 54 galdetegi jaso zituzten. Horietatik, ondorio nagusi hauek atera zituzten aurrera begira: herritarrek beharrezkotzat jotzen zutela baserriak etxebizitzarako egokitzeko erraztasunak ematea, eskolako ekipamenduak bateratzeko beharra edo nahia, herrian elkarte bat egitea... Ondorioen berri eman eta partekatzeko, beste herri-batzar bat deitu zuten, hurrengo faseari ekin aurretik.

Prozesua aurrera zihoan, eta 2015ean jarraitzeko asmoa zeukaten. Hasteko, etxebizitzak egiteko eremu aproposenak zehaztu behar zituzten. Ondoren, arauetan sartu beharreko beste irizpideak formulatzeko asmotan ziren.

# Altzo



Azalera: 9,8 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 400, altzotarrak

Udalbatzarraren osaera:

Bildu (7)

[www.altzo.net](http://www.altzo.net)



Parte-hartzearen ardura

**AITZOL GALARRAGA LIZARAZU**

(zinegotzia)



Herritarrak parte hartzen Altzon:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Kultura	<b>OLENTZERO JAKIN-MINEZ</b>	Gabonen bueltan, kultur jardunaldi bereziak, hainbat ekitaldirekin.	Herritar ugari	2013ko abenduan	✓
Parte hartzeko sistema	Parte-hartzea Altzon 2013an eta 2014an	Udalaren bilera edo batzar bereziak zenbait gai lantzeko eta erabakiak hartzeko: hondakinak biltzeko sistema berria, udal-eraikin berria...	Festetan: 150 lagunetik gora Deialdi orokorretan: 40 lagun inguru Deialdi berezietan: 10 lagun inguru	2013an eta 2014an zehar	...

# OLENTZERO JAKIN-MINEZ

**Noiz**

2013ko abenduan

**Parte-hartzaileak**

Herritarrak: herritar ugari



**B**este era batera, baliabide xumeagoekin, baina herri txikietan ere kulturak badauka adierazpidea eta lan handia egiten da; horren adibidea da azken urteotan Altzon egiten duten “Olentzero jakin-minez” ekimena, neguaren hasieran, eta lagunarteko afariarekin edo jan-festarekin amaitzen dena.

2013an egin zenean, lau egun beteak izan zituzten: Iñaki Epelde pintore hil berriaren omenezko erakusketa udaletxeko ganbaran; pilotari buruzko mahai-ingurua, Jon Ander Albisu, Ekaitz Saralegi eta Joxean Tolosarekin, beraien esperientzia, ibilbidea eta pilotaren gaur egungo egoeraz eta etorkizunaz hitz egiteko; Ze esatek! taldearekin solasaldia egin zuten gaztelekuan; Loatzo musika-eskolaren eskutik emanaldia izan zen; haurrentzat ikuskizuna ere bai, Irrien Lagunak Klubaren eskutik; eta hori guztia ondo amaitzeko, Elordi elkartean talo-afari arrakastatsua izan zen, karaoke eta guzti.





# Amasa-Villabona



Azalera: 17,70 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 5.888, billabonatarrak, amasarrek

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (9), **EAJ-PNV** (3) eta **PSE-EE** (1)



Parte-hartzearen ardura

**NORA URBIZU AROZENA**

(zinegotzia)

[www.villabona.eu](http://www.villabona.eu)

Argazkia: Pedro Alonso





## Herritarrak parte hartzen Amasa-Villabonan:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Parte hartzeko sistema	Ados lan-mahaiak	Mahai irekiak, batzorde informatiboen antzekoak, landutakoa herritar zein eragileekin partekatzeko.	2 lan-mahaitan, 15 lagun inguru (% 55 ♀, % 45 ♂)	2012tik aurrera	...
Garapen iraunkorra	<b>AMASAMENDIREN KUDEAKETA</b>	Udalaren jabetzako Amasamendi etorkizunean nola kudeatu eta zertarako erabiliko zen erabakitzeko.	20 lagun (5 ♀, 15 ♂)	2014ko apiriletik uztaiera	✓
Partaidetzazko aurrekontuak	Balorazioa, aurkezpena, 30.000 € (2014)	Galdetegi baten bidez, auzotarrei auzoarekiko zeukaten asetasun-maila galdetu zieten, eta inbertsioetatik 30.000 € bizilagunen esku jarri zituzten.	40 lagunek bete zuten galdetegia	2013ko azaroan	✓
Partaidetzazko aurrekontuak	Balorazioa, aurkezpena (2015)	Abenduan, etxe guztietara esku-orria zabaldu, iazkotik egindakoaren berri emateko eta galdetegi batekin.	52 lagunek bete zuten galdetegia (% 50 ♀, % 50 ♂)	2014ko abenduan	✓
Kultura	Jai Batzordea	Urtero maiatzetik uztaiera biltzen da batzordea, herriko jaiak antolatzeko.	Batez beste, 20 lagun (% 35 ♀, % 65 ♂)	Urtero	...
Parte hartzeko sistema eta Araudiak	<b>PARTE-HARTZEA ARAUTZEKO ORDENANTZA</b>	Herritarrek udal-kudeaketan non eta nola parte hartuko duten arautzea.	50 herritar (24 ♀, 26 ♂)	2013ko urritik 2014ko uztaiera	✓

# AMASAMENDIREN KUDEAKETA

## Noiz

2014ko apiriletik uztaiera

garapen  
iraunkorra



## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, alkatea, ingurumen-teknikaria eta kanpoko aholkularia: 3 lagun (1 emakumezko, 2 gizonezko)

Herritarrak: 20 lagun (5 emakumezko, 15 gizonezko)



**A**masa-Villabonak ia 200 hektareako mendi publikoa du. Azken urteetan pinua landatzeko eta hazteko erabili da, baina Udalak zerbait gehiago nahi zuen eta hausnartzen hasi zen baso- eta mendi-kudeaketa berrien inguruan: biomasa, bizikletaz ibiltzeko parkea, bertako basoa... Horretan, ordea, herritarrak ere inplikatu nahi izan zituen eta partaidetzako prozesu hau jarri zuen abian.

Hausnarketara, herritar guztiak gerturatu nahi izan zituen Udalak, baina ahalegin berezia egin zuen sektore jakin batzuk erakartzeko: abeltzainak, nekazariak, mendizaleak, naturazaleak, txirindulariak, ehiztariak, motorzaleak... Guztiei ere, galdera baten inguruan pentsatzeko proposatu zieten: “Nolako Amasamendi nahi duzu?”, eta prozesu honen bidez etorkizunean kudeatzeko irizpide nagusiak adosten ahalegindu ziren.

Guztira hiru bilera egin zituzten:

- Lehen bileran: eragile eta erakunde bakoitzak mendiari ematen zion erabilera azaldu zuen, baita mendiari ikusten zizkion arazo

eta erronkak ere. Horrela, erabiltzaile guztien artean, mendiaren erabilerean diagnosi moduko bat osatu zuten.

- Bigarren bileran: herritik kanpoko kudeaketa-eredu ezberdinak ezagutu zituzten (kontserbazionista, esplotazio turistikoa, biomasa...).
- Hirugarren bileran: aurreko bilerako ideiak eztabaidatu zituzten eta aurreko bi bileretan jasotako ildoen inguruan irizpideak zehaztu zituzten. Azken bileran lau puntu azpimarragarri eztabaidatu zituzten, irizpideak jarri nahian: biomasa, lur publikoaren erabilera pribatiboa, bertako baso heldua eta aisia-turismoa.

Azkenean, hirugarren bileraren amaieran, batzorde bat eratzea erabaki zuten, hiru bilerak motz geratu zirelako eta lan handia zegoelako egiteko, batez ere lau ildo horiek are gehiago lantzen eta zehazten. Halaber, haurrei ere galdetu zieten nolako Amasamendi nahi ote zuten etorkizunean, eta marrazkien bidez erantzun zuten.

Zeharkako helburuetako bat mendiaren erabiltzaileen arteko gatazkak leuntzea zen (batik bat ehiztari, baserritar, mendizale eta motorzaleen liskarrak). Proiektuak balio izan zuen, sikiera, elkar ulertzeko eta elkarlanean aritu ziren mendia babesteko. Azkenik, hobetzeko artean, azpimarratzekoa izan zen emakumeen presentzia txikia bileretan.



# PARTE-HARTZEA ARAUTZEKO ORDENANTZA

Noiz

2013ko urritik 2014ko uztaiera

Parte-hartzaileak

Herritarrak: 50 lagun

(24 emakumezko, 26 gizonezko)

araudiak



parte hartzeko sistema



Legealdi hasieratik, Udal Gobernuaren arduetako bat izan zen herritarren parte-hartzea sustatzea, eta ahalegin handia egin zen bide horretan. 2013ko uztailean, ordea, hondakinak biltzeko sistema berria zela-eta, herrian eztabaida piztu zenean, hutsune handia sumatu zioten partaidetzazko demokraziari: herri-galdeketa aukera.

Gertakari haietatik ikasteko eta berriz horrelakorik ez gertatzeko, joko-arauak zehaztea erabaki zuten, herritarrekin eta alderdi politiko guztiekin batera landuta, eta herritarren parte-hartzea arautuko zuen ordenantza idazteko prozesua hasi zuten.

Ordenantza lantzeko, oinarria herritarrekin egindako bilerak izan ziren, eta horiek antolatzeko eta segimendua egiteko, Talde Eragilea sortu zuten. Halaber, Batzorde Politikoa ere eratu zuten, Udalean ordezkariak zuten alderdi politikoekin, ahalegin berezia egin zelako oposizioak ere proiektuan parte hartzeko.

Udaleko alderdien parte-hartzea bermatu ondoren, proiektua aurkeztu zieten herritarrei, eta gonbidatu ere bai parte hartzera; saiakera berezia egin zen herriko eragile kultural, sozial eta politiko guztiak erakartzeko, eta proiektua aurkeztean aniztasunaren irudia nabarmendu nahi izan zuten.



Behin proiektua aurkeztuta, ordenantza idazteko, hiru bilera egin zituzten:

- Lehen bileran: parte-hartzearen inguruko hausnarketa orokorra egin zuten. Indargune eta ahuleziak identifikatu zituzten, parte-hartzearen hiru pausotan eta hiru norabidetan (herritarrak, udala eta eragileak). Azkenik, partaidetzazko ordenantza bat ezagutu zuten.
- Bigarren bileran: partaidetzazko ordenantza baten artikuluetatik batzuk hautatu eta eztabaidatu egin zituzten, eta bereziki jorratu zuten herri-galdeketa gaia.
- Hirugarren bileran: eztabaidatutako artikuluetan denon adostasuna bilatu zuten, batez ere ordenantza herrira egokitzeko.

Hirugarren bileraren ondoren, denbora-tarte bat zabaldu zuten ekarpenak jasotzeko. Azkenik, guztien onospena lorturik, 2014ko uztaileko Osoko Bilkuran, aho batez onartu zuten ordenantza.

Prozesu honen bidez, lehen aldiz partaidetzazko demokraziaren gaineko hausnarketa sakona eta anitza egin zuten Amasa-Villabonan. Amaieran, herritarren partaidetza arautzeko arautegia lortu zuten, baina urrunago ere joan zen: lehen aldiz, kolore eta izaera guztietako eragile sozial, kultural eta politikoak elkartu egin ziren; lehen aldiz, alderdi guztietako ordezkariak elkarrekin eta herritarrekin parez pare lanean aritu ziren. Ahalegin berezia egin zuten aniztasuna bermatzeko, batez ere deialdiak egiten zirenean, eta horrek proiektua aberastu egin zuen.

# Amezketeta



Azalera: 20,6 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 968, amezketarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (6) eta Amezketarrok Elkar Lanean (1)

[www.amezketa.org](http://www.amezketa.org)



Parte-hartzearen ardura

**JOKIN ARTOLA ARRETXE**  
(laguntzailea)





**Herritarrak parte hartzen Amezketan:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Hirigintza	<b>ETXEBIZITZA HUTSAK</b>	Amezketako etxe hutsen kopurua murrizteko. Horretarako, galdeketak, elkarrizketak, informazio-hitzaldia eta parte hartzeko bilerak egin zituzten.	42 lagun (13 ♀, 29 ♂)	2014ko apiriletik ekainera	✓
Haurrak/gazteak/ adinekoak	<b>NERABEEN PARTAIDETZARAKO ZERBITZUA</b>	Gaztelekuan egindakoa baloratzeko eta hurrengo hilabeteetako programazioa prestatzeko, bilera bereziak.	28 lagun (18 ♀, 10 ♂)	2013 eta 2014an zehar	✓

# ETXEBIZITZA HUTSAK

**Noiz**

2014ko apiriletik ekainera

**Parte-hartzaileak**

42 lagun (13 emakumezko, 29 gizonezko)

hirigintza



**G**ipuzkoako beste herri askotan bezala, Amezketan ere etxebizitza huts asko daude. Udalaren ustez, egon bazeuden etxebizitza alokairuan nahi edo behar zuten herritarrak eta etxebizitza-eskaria asetzeko ez zegoen etxe berririk eraiki beharrik, baizik eta nahikoa zen hutsik zeuden etxeak ahal zen neurrian merkatuan ipintzea. Horretarako, partaidetzazko prozesu hau jarri zuen martxan.


Hasteko, Udalak informazioa bildu zuen galdetegi baten eta elkarrizketa batzuen bidez. Herritarrei galdetu zieten ea interesik bazeukaten etxe bat alokairuan hartzeko, eta 23 lagunek erantzun zuten baietz (erdiak baino gehiago 26-45 urte artekoak ziren) eta 15 herritarrek adierazi zuten prest zeudela hartzeko; etxejabeei dagokienez, hamar hautatu zituzten zozketaz eta horiek elkarrizketatu egin zituzten asmoen berri

azaltzeko edo etxebizitzak alokatuko zituzketen galdetzeko. Datuek argi adierazten zuten egoera: Amezketan 411 etxebizitza zeuden, eta horietatik 80 hutsik (% 20); hutsik zeuden horietatik, sei besterik ez zegoen alokagai; alokagai zeuden etxebizitzetan % 16 erortzeko arriskuan, egokitzeko aukerarik gabe edo lege-arazoekin zegoen, eta % 69 oso ondo zeuden, zuzenean bizitzera joateko moduan.

Azterketaren ondorioen berri emateko, informazio-hitzaldia antolatu zuen Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariekin, alokairurako bideak azaltzeko (Alokabide eta agente homologatuak, adibidez).

Hitzaldiaren ondoren, herritarrek hartu zuten hitza, eta zenbait bileraren bidez, proposamen zehatza egin zuten Udalak jokatu behar duen paperaz: bitartekari izateko eskatu zioten, etxea alokairuan eman eta etxea alokairuan hartu nahi zuten herritarren artean.

Baloraziori dagokionez, Udalarena oso positiboa izan zen. Gaia herrian azaleratzea lortu zutelako, herritarrei zer pentsatu ematea. Parte hartu zuen jendea gustura sumatu zuten, metodologia egokia erabili zelako. Zerbitzua egituratzeko eta eraikitzeko bileretara, ordea, ez ziren herritar asko joan. Prozesu honek beste partaidetzako prozesu bat egiteko oinarri polita utzi zuen, baina komeni zen Udalak aintzat hartzea prozesuko proposamena, hau da, garrantzia ematea.





## AINITZE LABAIEN TOLOSA

Irakaslea · 27 urte

### Zergatik hartu zenuen parte prozesu honetan?

Beti iruditu izan zait etxe huts asko daudela eta pena dela horiek ez erabiltzea. Interes pertsonala ere badut, etxetik irteteko aukera dudanean herrian bertan geratzeko.

### Nola baloratzen duzu egindakoa?

Positibotzat jotzen dut; etxe hutsen datuak herritarron eskura jarri dira, baita horiek alokairuan jartzeko edo alokatzeko dauden modu ezberdinak ere.

### Nola sentitu zara?

Nahiz eta gauza batzuen inguruan ideia handiegirik ez izan, prozesuaren formatuak eroso sentiarazi nau, eta nire dudak argitzen laguntzeaz aparte, nire aportazio txikiak egiteko aukera ere eman dit.

### Zer ikusi duzu hobetzeko?

Jendearen asistentzia nahiko eskasa izan da. Ez da erraza jendea halakoetara joatea, baina ahaleginetan jarraitu beharra dago.



## SEBASTIAN BERNARAS ARTOLA

Jubilatua · 66 urte

### Zergatik hartu zenuen parte prozesu honetan?

Alde batetik, etxe hutsen egoerarekin zerbait egiteko beharra ikusi nuen eta parte hartzea pentsatu nuen; bestetik, etxe huts baten jabea izanik, motibatua nengoen.

### Nola baloratzen duzu egindakoa?

Prozesu hau zerbaiten hasierako lehen pausoak izanik, oso ondo baloratzen dut. Prozesua aurrera eramane dutenek lan handia egin dute. Gustura sentitu naiz.

### Zer ikusi duzu hobetzeko?

Egin den lanak aurrera jarraitzeko bermeak behar ditu, eta Udala oraindik geldirik dago proposamena martxan jartzeko.

# NERABEEN PARTAIDETZARAKO ZERBITZUA

## Noiz

2013an eta 2014an zehar

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean: hezitzailea

Herritarrek: 28 lagun (18 emakumezko, 10 gizonzko)

haurrak/gazteak/  
adinekoak



**2**012an, Amezketako Gaztelekua jarri zen martxan, nerabeekin beraiekin egindako partaidetzazko prozesu baten ondoren. Zazpi tailerretan, Gaztelekua nolakoa nahi zuten diseinatu eta zehaztu zuten, eta abian jarri ondoren, ikusi zen beharrezkoa zela aldi berean behin geldialdia egitea, egindakoa baloratzea eta aurrera begirakoaz hitz egitea; horregatik, hezitzaileak eta nerabeek Gaztelekuan bilerak egiten dituzte hiru hilean behin, egindakoa edo eskainitakoa

baloratzeko eta hurrengo hilabeteetarako programazioa prestatzeko. Adin-tarteka, nerabezeroan bi etapa bereiztea badago, 12-14 urte eta 15-17 urte, eta nerabeen saio horiek ere bi multzotan egiten zituzten.

Saio horien metodologiari dagokionez, parte hartzeko moduak ere desberdinak aurreikusi zituzten, talde bakoitzaren adinari edo ezaugarriari egokituta: gazteenekin jolasa izan zen helburuetara eta emaitzetara iristeko estrategia nagusia; zaharrenekin, berriz, dinamikak eta eztabaida.

2013an eta 2014an, ahalegin berezia egin zuten saioetan herriko nerabe guztiek parte hartzeko, eta guztiengana iristeko hainbat bide erabili zituzten (eskutitzak, sare sozialak eta kartelak).

Proiektu honi esker, Gaztelekuaren eskaintza nerabeen behar eta nahietara egokitu zen, nerabeak herriko ekimenetan parte hartzen eta herriari zuzendutako ekintzak egiten hasi ziren. Halaber, balio izan zuen nerabeak parte-hartzearen garrantziaz jabetzen hasteko, parte hartzeko bideak ezagutzen hasteko eta parte hartzeko gogoia pizteko.





# Anoeta



Azalera: 4,1 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.893, anoetarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7) eta EAJ-PNV (2)



Parte-hartzearen ardura  
**ARATZ LUISA URKOLA**  
(zinegotzia)

[www.anoeta.net](http://www.anoeta.net)



Herritarrak parte hartzen Anoetan:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Herritarrekin harremanak	Auzoetako egoera	Auzoetako egoera aztertzeko bilerak, arazoez hitz egiteko eta herritarren kekek eta ekarpenak jasotzeko.	200 lagun inguru	2014ko otsailetik apirilera	✓
Garapen iraunkorra	<b>AUZO-KONPOSTA</b>	Herrian auzo-konposta martxan jarri zenean, bilera batzuk antolatu ziren herritarrekin.	180 familia inguru	2013ko ekainetik aurrera	...
Aniztasuna	Guretzako	Anoetako eta lurako jatorri desberdinetako emakumeentzako gune bat sortzea, elkartzeko, elkar ezagutzeko...	15 lagun (denak ♀)	2014ko irailetik aurrera	...
Garapen iraunkorra	<b>HERRI-BARATZEA</b>	Udalak herri-baratzea jarri zuen martxan Galbaio izeneko parajeen.	Baratzerako izena eman zutenak: 35 lagun (17 ♀, 18 ♂)	2014ko otsailetik aurrera	...
Kultura	Truke-dinamikak	Dirurik gabeko dinamikak martxan jarri nahian, Truke Azoka antolatu zen, herritarren artean sare bat sortzeko.	30 lagun (denak ♀)	2014ko maiatzetik aurrera	...
Kultura	Udal-lokal berrien erabilera	Hiru lokal zituen Udalak eraikin berri batean, eta horien erabileraren inguruko prozesua.	12 lagun (5 ♀, 7 ♂)	2014ko urtarriletik otsailera	✓

# AUZO-KONPOSTA

## Noiz

2013ko ekainetik aurrera

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 2 lagun: alkatea eta ingurumen-zinegotzia (2 gizonetzko)

Herritarrak: 180 familia inguru

garapen  
iraunkorra



**2**013ko ekainean, Anoetan hondakinak biltzeko sistema berria jarri zuten martxan, atez atekoa. Horrekin batera, auzo-konposta sustatzeko kanpaina egin zuen Udalak, herrian sortutako hondakin organikoak herrian bertan kudeatzera animatzeko herritarrak.

Konposta zer den eta nola egiten den azaltzeko eta auzoan konposta egiteko guneek nola funtzionatuko zuten arautzeko, bilera batzuk antolatu zituen Udalak; izan ere, askorentzat gai berria zen, eta askok zeuzkaten galderak, zalantzak, ekarpenak eta abar gaiaren inguruan. Guztira, 180 familia inguru hasi ziren auzo-konposta egiten, horretarako herrian atondu ziren bederatziguneeetan. Hondakin organikoak horrela jasotzeak abantaila nabarmen bat dauka: konpostagailuak eguneko 24 orduetan daudela erabiltzaileen eskura, asteko edozein egun eta ordutan atera daiteke etxeko materia organikoa.

Parte hartzen zuten familiek beraien erabilerarako baliatu zuten konposta (lorategiak, etxeko landareak...).





**ALAITZ  
DARCELES  
TIFE**

Sukaldaria  
36 urte

“Oso egokia eta onuragarria iruditzen zait auzo-konposta egitea, aprobetxa daitekeena aprobetxatzea eta onura ateratzea. Guk etxe ondoan dauzkagu kontenedore organikoa eta konpostagailua; orduan, ez dit esfortzu gehiago eskatzen.

Gainera, auzo-konposta egiten etekina ateratzen da hondakinetatik, gero baratzean-edo erabiltzeko. Hondakin organikoak bota ondoren, pixka bat mugitu behar duzu konpostagailu barrukoa, eta horrek denbora pittin bat gehiago eskatzen du, baina berehala egiten da. Guztiz gomendagarria iruditzen zait sistema hau ”



**KOLDO  
ORIA  
MUÑAGORRI**

Irakaslea  
56 urte

“Lehendik ere egiten nuen konposta. Baratzea nuenean, bertan konpostagailua nuen. Baratzean ateratakoa bertan erabiltzen nuen. Baratzerik gabe geratu nintzen etxeak egin behar zituztelako, eta auzo-konposterako aukera jarri zenean, natural atera zitzaidan. Desabantailarik ez diot ikusten. Norberaren ardura da bere hondakinak kudeatzea. Abantailak: bertan sortutakoa bertan geratzen da, ez dago kamioietan atzera eta aurrera erabili beharrik. Ilusioa egiten dit pentsatzeak nire hondakinak lurra ongarrizeko eta aberasteko baliagarri direla ”



# HERRI-BARATZEA

## Noiz

2014ko otsailetik aurrera

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 2 lagun: alkatea eta ingurumen-zinegotzia (2 gizonetzko)

Herritarrak: 35 lagun (17 emakumezko, 18 gizonetzko)

garapen  
iraunkorra



**G**albaio izeneko soroa Anoetaren hegoaldean dago, lkastolaren ondoan, eta Udalak bertan kokatu nahi izan zuen herri-baratzea, hainbat helburu bete nahian: herritarren arteko hartu-emanak bultzatu (eta bereziki belaunaldi desberdinetako anoetarrenak), herritarrak naturarekin kontaktuan jarri eta aisialdirako beste aukera bat eman, baratze zaintza ekologikoa bultzatu...

Guztira 40 m<sup>2</sup> inguruko 40 lur-sail prestatu zituen Udalak, eta horiekin batera baratzezaintzarako beharrezko azpiegitura guztiak ere jarri zituen (ur-hartuneak, lanabesak gordetzeko etxolak, bide-sarea, etab). Baratzeak erabiltzeko, zenbait baldintza ezarri zituzten: aisialdirako erabiltzea, ekoizitakoa norberaren kontsumorako izatea (ez saltzea), produktu kimiko eta fitosanitariorik ez erabiltzea, nekazaritza ekologiko eta tradizionalen erabili ohi diren produktu eta laboreak lantzea...

2014ko otsailaren erdialdean Udalak deialdia zabaldu zuen herrian, horrelako baratze batean aritzeko zenbat herritar interesatuta zeuden jakiteko. Ondoren, ekainaren erdialdean, bilera informatiboa egin zen, eta 40 pertsona inguru joan ziren. Bileraren ondoren, Udalak baratzeen funtzionamendua

arautzeko ordenantza landu zuen, eta urrian aukera eman zien anoetarrei izena emateko. Azkenik, baratzea erabiltzeko baimena hiru urterakoa zen, eta erabiltzaileek urtean 100 € ordaindu behar zituzten alokairu gisa.

2015. urtearen hasieran martxan jartzeko asmoa zeukaten.

Udalak prozesuaren balorazio positiboa egin zuen, herritarrekin proiektu honetan elkarlanean lan egiteko aukera izan zuelako. Atzeritarrekin ere bereziki landu zuten gaia, partaide izan zitezten, eta erantzunarekin oso gustura gelditu zen Udala.





**ANE JOSUNE  
GONZALEZ  
ARTIMUZO**

Biltegi-laguntzailea  
34 urte

“**N**i apuntatu egin naiz herri-baratzeen proiektura, udaran etxean tomateak eta letxugak jartzen ditudalako, baina ez daukadalako leku askorik. Horregatik, baratze bat edukitzeko gogoia daukat. Abantaila asko ikusten dizkiot: nire barazkiak, lekak eta frutak nire lanaren ondorio izango dira, eta horrek ilusioa egiten dit. Gainera, ez dute ongari kimikorik edukiko! Eta baratzeak ekipatuak izango dira: biltegia, ura..., gehiago ezin da eskatu”



**ANDER  
APAOLAZA  
ARTIEDA**

Arotza  
26 urte

“**O**so ideia ona iruditzen zait herri-baratzeena, bestela ez dudalako baratzea izateko aukerarik. Abantaila asko ikusten dizkiot egitasmo honi; adibidez, nik modu ekologikoan ekoiztutako barazkiak jan ahal izatea. Desabantaila bat esatekotan, adibidez, esango nuke urteko kuota garesti xamarra dela. Proiektu horretarako Udalak lursail handiagoa jartzea eskertuko nuke, jende gehiagok parte hartu ahal izateko eta partzela bakoitza handixeagoa izateko”

# Asteasu



Azalera: 16,6 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.523, asteasuarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Asteasu Batuz** (6), Bai Asteasuri (2)  
eta EAJ-PNV (1)

Parte-hartzearen ardura

**PILAR LEGARRA KORTAJARENA**

(alkatea)



[www.asteasu.net](http://www.asteasu.net)




Herritarrak parte hartzen Asteasun:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Kultura	Irakurzaletasuna eta udal-liburutegiaren erabilera	Irakurzaletasuna bultzatzeko, haurrei zuzendutako egitasmoa. Halaber, irakurketa-kluba ere sortu nahi zuten.	46 lagun (42 ♀, 4 ♂)	2014ko irailetik aurrera	...
Mugikortasuna	<b>OSASUN-BIDEA</b>	Oinez ibiltzeko zirkuituak hobetzeko eta oinez ibiltzearen abantailez ohartarazteko.	30 lagun (26 ♀, 4 ♂)	2014ko maiatzetik irailera	✓
Garapen iraunkorra	<b>TEORIATIK PRAKTIKARA ETA PARTE-HARTZETIK ALDAKETARANTZ</b>	Ikastetxeko haurrekin hondakinaren gaia lantzea, sorreratik hasita ziklo osoa, sentsibilizatzeko, kontzientziatzeko eta jarrera aldatzeko.	10-11 urteko ikasleak eta horien gurasoak (zeharka)	2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetan	...

## OSASUN-BIDEA

**Noiz**  
2014ko maiatzetik irailera

**Parte-hartzaileak**  
Udalaren izenean, 3 lagun (2 emakumezko, 1 gizonetzko):  
gizarte-langilea, kiroletako arduraduna eta aparejadorea  
Herritarrak: saio bateratuan 30 lagun (26 emakumezko, 4 gizonetzko)



**J**arduera fisikoa egiteko era asko daude, eta horietako bat oinez ibiltzea da. Herri gehienetan daude oinez ibiltzeko bide aproposak, hainbat baldintza betetzen dituztenak: aldapa handirik ez, oinezkoek lehentasuna

izatea, lasaitasuna, bista politak, beste jendearekin harremanak izateko aukera... Oinez ibiltzea oso jarduera osasungarria da, gero eta gehiago bultzatzen dena.

Asteasun ere jende asko ibiltzen da paseatzen, badira oinezkoen ibilbideak. Baina garrantzitsua da ibilbide horiek ahalik eta ondoen egotea eta ibiltzeko ahalik eta erraztasun gehien ematea. Halaber, garrantzitsua da oinez ibiltzeko ohiturarik ez duten pertsoneri erakustea ibiltzea zer ona den. Hori guztia lortzeko, partaidetzazko prozesu hau jarri zuen martxan Asteasuko Udalak. Prozesua herri osoari zabalik egin zen, baina ahalegin berezia egin zen hiru kolektiborekin: pertsona helduak, emakumezkoak eta gazteak. Horiekin lan egiteko, Udaletik gizarte-langilea, kiroletako arduraduna eta aparejadorea jarri ziren, kanpoko aholkularitza batek lagunduta, eta Asteasuko sendagilea ere bai.



Hasteko, bilera bana egin zuten kolektibo bakoitzarekin, ariketa fisikoa egiteko baliabideak eta gomendioak emateko. Prozesua azaldu ondoren, kolektiboaren barruan gaiaz hitz egitea sustatu nahi zuten. Ekainean, berriz, Udalak zein ibilbide proposatzen zituen ezagutarazi zien. Azkenik, uztailean, elkartu egin ziren guztiak bilera bakarrean eta osasun-bide izateko zer behar ikusten zituzten adierazi zuten, baita horien artean lehentasunak ezarri ere. Irailean Udalak proiektua idatzi egin zuten eta herritar guztiei aurkeztu zien, eta aukera egon zen azken aldaketak edo zuzenketak proposatzeko. Urte amaiera baino lehen hasi ziren Osasun Bidea egokitzeako obrak eta lanak.



Udalak oso ondo baloratu zuten esperientzia, eta batez ere bi alderdi azpimarratu zituen: batetik,

belaunaldi desberdinetako jendeak parte hartzea oso aberasgarria izan zela, ikuspegi desberdinek elementu berritzaileak ekarri zituztelako; eta, bestetik, parte hartu zutenek etorkizunean jarraitzeko erakutsi zuten gogoia, esperientzia positiboa izan baitzen.



## MARIA JESUS HIDALGO SANTAMARÍA

Gaztagilea  
43 urte

“Asteasuko Emakume Taldean hartzen dut parte, eta paseatzea gustukoa dut. Gaia interesatzen zitzaidan, eta animatu egin nintzen.

Oso positiboa izan zen, dibertigarria. Jendeak asko dauka esateko, ideia pila bat atera zen... Oso eztabaida politak izan ziren, betiere jarrera onean.

Osasun Bideko elementuei ekin genien prozesuan (argiztatu ala ez, komuna jarri ala ez...), baina badaude beste zenbait gai tratatu ez genituenak (bizikletaren eta oinezkoen arteko bizikidetasuna, adibidez).

Prozesuan ikasi dut entzuten, komunikatzen, argudiatzen... Eta talde-dinamiken inguruko gauza batzuk ere bai.

Aurrera begira, uste dut gazteekin lan egin behar dela bereziki, herrian beraientzako espazioak sortu. Herri txikia denez, ondoko herrietara jotzen dute ”



**JUAN CARLOS  
MARTÍN  
GARCÍA**

Langilea  
51 urte

**"P**arte hartu nuen betidanik gustukoa izan dudalako beste batzuekin aritzea, eta laguntzerik badut, are gehiago.

Prozesua oso interesgarria izan zen eta azpimarratuko nuke guztiongan eragina duten gaietan jende ezberdina inplikatzeari lotu zela. Bereziki gustatu zitzaidan taldearen aniztasuna, adin ezberdineko lagunek hartu genuen parte, eta ikuspegi ezberdin horiei esker eztabaidak oso interesgarriak izan ziren.

Orain prozesuari jarraipena eman behar zaio, eta hartu ziren erabakiak martxan jarri "



**ALFONSI  
PÉREZ  
GÓMEZ**

Jostun erretiratua  
67 urte

**"P**arte hartzeko arrazoi nagusia izan zen esan zigutela nagusientzako onurak ekarriko zituela.

Prozesuan, bereziki gustatu zitzaidan proposamenak egiteko aukera eta adostasunetara iristeko erraztasuna. Parte-hartzaileon artean komunikazioa oso ona izan zen.

Guk Osasun Bidea aztertu genuen, baina badaude herrian beste gune batzuk horrelako prozesu baten bitartez hobetu daitezkeenak "

# TEORIATIK PRAKTIKARA ETA PARTE-HARTZETIK ALDAKETARANTZ

## Noiz

2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetan

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 2 lagun (biak gizonetzkoak):

Ingurumeneko zinegotzia eta udal-teknikaria

Herritarrek: 10-11 urte bitarteko ikasleak (30 inguru),  
horien irakasleak eta gurasoak (zeharka)

garapen  
iraunkorra



Ikerketa batetik ondorioztatu zutenez, ingurumenarekin zerikusia zeukaten praktika onak aurrera eramateko orduan, herritarrek ez zeukaten jarrerarik egokiena, eta hori aldatu nahian, iraunkortasunarekin erlazioz atutako balioen kontzientzia handitu nahian, programa hau garatu zuten Asteasun.



Funtsean, 10-11 urteko ikasleekin hondakinen frakzioak aztertu zituzten, teorian eta praktikan, eta sortzen ditugun hondakinek zer ibilbide egiten duten eta non amaitzen duten ikusi, hau da, zikloa osorik, eta Asteasuko hondakinen sailkapenean eta horiek murrizteko sentsibilizazioan laguntzeko, material didaktiko batzuk sortu zituzten. Horrela, ikasleek hondakin-frakzioak aztertu zituzten eskolan eta etxean, eta irteerak egin zituzten hondakinak sailkatzeko plantetara.

Hori guztia lantzeaz Behatokia arduratu zen, hau da, gazteen hezkuntzarekin zerikusia duten eragileak (ikastetxeko irakasleak, Udala, kultur teknikaria, kirol-teknikaria eta Guraso Elkarte) biltzen zituen foroa.

2013an planifikazio-lanak egin zituzten, eta 2014an jarri zen praktikan programa.

Haurrekin egin zen lan batez ere, baina helduek ere parte hartu zuten, zeharka bazen ere.

# Baliarrain



Azalera: 2,8 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 130, baliarraindarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Herritarrak** (4)



[www.baliarrain.net](http://www.baliarrain.net)





**Herritarrak parte hartzen Baliarrainen:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Hirigintza	<b>BALIARRAINGO PLAN OROKORRA</b>	Etorkizuneko Baliarrain irudikatu zuten herritarrek, Plan Orokorra landuta.	Herriko 49 etxeetatik, 43 etxetako ordezkariak Herri-batzarrean, gazteak eta haurrak: 52 lagun (23 ♀, 29 ♂)	2014ko uztailetik azarora	✓

# BALIARRAINGO PLAN OROKORRA

**Noiz**

2014ko uztailetik azarora

**Parte-hartzaileak**

Etkez etxekoaren fasean: Baliarraingo 49 etxeetatik, 43 etxetako ordezkariak

Herri Batzarrean: 34 lagun (17 emakumezko, 17 gizonetzko)

Gazteen eztabaida-taldean: 7 lagun (4 neska, 3 mutil)

Haurrak: 11 haur (2 neska, 9 mutil)



**L**ehen arau subsidiario edo ordezkatzzaileak zirenak gaur egun plan orokorrak dira, eta berebiziko garrantzia daukate herrien etorkizunerako. Izan ere, herri- eta landa-lurrak eta horietan eman daitezkeen erabilerak antolatzen ditu; hau da, zer, nola eta non egin daitezkeen

finkatzen du. Gure kale, plaza, lur eta etxeetan zer egin, nola edo non egin erabakita, gure herria aldatzen ari gara: trafiko eta aparkalekuak gure beharretara egokitzen ditugu, etorkizuneko ekonomia-jarduera eta lanpostuak bultzatzeko ateak ireki edo itxi egiten ditugu, etxebizitza-eredu berriak irudikatzen ditugu...



Baliarrainen, aurretik, bi plan orokor egin zituzten (1997an eta 2003an), eta hirugarrena egiteko garaia iritsitakoan, baliarraindarrekin batera egiteko asmoa azaldu zuen Udalak. Prozesu honen bidez, etorkizuneko Baliarrain marraztu nahi izan zuten, baliarraindar guztiekin batera, hausnarketa eta eztabaida sana baliatuta, eta prozesua aprobetxatu nahi izan zuten irizpide eta ideia berriak lortzeko eta herri-giroa hauspotzeko.

Hasteko, atzera begiratu beharra zegoen, eta ordura artekoa baloratu: herria nola zegoen, bilakaera egokia izan zen, zer alde

on eta txar ikusten ziren, zer aldatzea komeni zen... Honelako prozesuetan informazioa gakoa zela jakinik, ahalegin berezia egin zuten herritarrei ahalik eta informazio gehien emateko, Baliarrain osoari begiratzeko eta ikuspegi orokorra izateko.

Honela landu zen Plan Orokorra herritarrekin:

- Herri txikia eta denek elkar ezagutzen zutelako aprobetxatuta, etxetik etxera erronda bat egin zen, proiektua azaltzeko eta guztien iritzia jasotzeko.
- Irailean, herri-batzarra egin zuten.
- Aurreko iritzi guztiak kontuan izanda, galdetegi bat banatu zieten herritarrei; halaber, kolektibo batzuen (haurrak, gazteak eta hirugarren adinekoak) iritzia jasotzeko, mahai bereziak egin zituzten.

Bereziki azpimarratzeko modukoa izan zen hurrekin egindako lana. Izan ere, haurrentzat propio egokitutako teknika eta dinamika berezi batzuen bidez, gehien interesatzen zaizkien gaien inguruko iritzia jaso zuten: eskola, aisialdia, mugikortasuna..., baina baita Planeko beste alderdiei buruzko iritzia ere.

# Belauntza



Azalera: 3,4 km<sup>2</sup>


Biztanleak: 260, belauntzarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Denok bat** (4) eta

Belauntza berreginez (3)

[www.belauntza.net](http://www.belauntza.net)



**Herritarrak parte hartzen Belauntzan:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Hirigintza	<b>HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA</b>	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra herritarrekin batera lantzeko prozesua.	30 lagun (% 30 ♀, % 70 ♂)	2014ko martxotik apirilera	✓

# HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

**Noiz**  
2014ko martxotik apirilera

**Parte-hartzaileak**  
Herritarrak: 30 lagun inguru (% 30 emakumezkoak, % 70 gizonezkoak)



**H**APOa berritzeko prozesuaren baitan, Belauntzako Udalak aurreagiria ontzat jo eta plazaratu egin zuen. Horren ondoren, denboraldi bat jarri zuen jende aurrean ikusgai, herritarrek edo beste edozeinek iritzia emateko, alegazioak aurkezteko..., bai udaletxean, baita webgunearen bidez ere. Jendearen aurreko fasean, garrantzitsua izaten da herritarrek ondo ulertzea zer planteatzen den, herriaren etorkizuna baitago jokoan, eta Belauntzako Udalak ahalegin berezia egin zuen asmoak ezagutarazteko, komunikazioan lan berezia eginda eta partaidetza-prozesu honen bidez.

Hasteko, HAPOaren eduki nagusiak triptiko xume eta ulergarri batean jarri zituzten, eta herriko etxe eta enpresa guztietara banatu zuten. Triptiko horretan, besteak beste, hauek jasotzen ziren:

- Herrigunea birgaitzeko eta erakargarriagoa izateko hainbat proiektu.
- Etxebizitza berriak: eskariari erantzuteko proposamenak (non eta nolako etxeak).
- Industrialdeak: hainbat proiektu.

Triptikoa zabaldu ondoren, herri-bilera bat egin zuten, udaletxean, eta herriko enpresak ere gonbidatu zituzten. Bileran, hasteko, udal-ordezkariek HAPOaren azalpenak eman zituzten; ondoren, herritarrek aukera izan zuten iritzia emateko, kezka adierazteko, galderak egiteko... Bilera oso emankorra izan zen, eta giro onean egin zen.

Balorazioari dagokionez, Udalaren balorazioa positiboa izan zen, ona, eta espektatibak erabat bete ziren. Izan ere, parte-hartzea esanguratsua izan zen eta herritarrek beraien iritzia azaldu zuten. Prozesuak balio izan zuen, gainera, bestelako behar eta premia batzuk ere nabarmentzeko, baita horiei erantzuteko ere (adibidez, baserrien eta industrialdeen seinalizazioa).



# Berastegi

Azalera: 45,90 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.056, berastegiarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (9)



Parte-hartzearen ardura  
**ARITZ MUGIKA SAIZAR**  
(alkatea)

[www.berastegi.eus](http://www.berastegi.eus)



Herritarrak parte hartzen Berastegin:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Mugikortasuna	Herriko plaza oinezkoentzat	Udal Taldeak mugatu egin nahi zituen ibilgailuak herriko plazan, eta herritarrei galdetu zien horretaz.	Lehen saioan: 9 lagun (6 ♀, 3 ♂) Bigarren saioan: 25 lagun (17 ♀, 8 ♂)	2014ko azaroan	✓
Kultura	<b>KULTUR ETXEA UDALETXEAN</b>	Kultur ekintzetarako aretoa eta liburutegia non eta nola jarriko ziren herritarrek proposatzeko.	24 lagun (15 ♀, 9 ♂)	2014ko martxotik irailera	✓

# KULTUR ETXEA UDALETXEAN

**Noiz**  
2014ko martxotik irailera

**Parte-hartzaileak**  
24 lagun (15 emakumezko, 9 gizonezko)



**B**erastegiko udaletxea eraikin berezia da, beste garai batekoa, handia eta harri sendokoa, monumentu-izaera ere aitortutakoa eta aspaldian berritzeko premia zeukana. Diru-laguntza handi bat lortuta, berritzeko lanak abiatu zituen Udalak, baina lehen ez bezala, solairu guztiak erabiltzea planteatzen zen, udal-bulegoak han egoteaz gain, eraikina bera izan zedila herriko jardueren (kultura, osasuna, turismoa, aisialdia...) erdigune eta dinamizatzaile.

Udaletzeko lehen solairuan, administraziorako edo udal-funtzionamendurako gorde ziren. Bigarren solairuan, berriz, liburutegia jartzeko asmoa zegoen hasieratik, baina herritarrekin eta eragileekin batera aztertu eta erabaki nahi izan zuten



zertarako erabiliko zen eta nola banatuko zen espazioa. Horrela, herritarrekin bi bilera egin zituzten. Halaber, amaieran erabaki zen batzorde bat eratzea, proposamenen segimendua egiteko eta proiektuan irizpideak gauzatzen ari zirela ziurtatzeko. Irizpide edo nahi horiek kontuan izanik, Udalak aurreproiektua landu zuen, eta batzorde horri aurkeztu, onespina emateko.

Prozesuaren balorazioa ona izan zen, eta herritarrek aukera eskertu egin zuten.



## ELIXABET AZPIROZ ATXUKARRO

Euskara-irakaslea  
46 urte

**"S**ekulako ilusioarekin hartu nuen nik parte liburutegiaren diseinuan; izan ere, aspaldiko ametsa eta beharra zena, herrian bertan liburutegia eta kultur ekintzetarako gunea izatea, gauzatzeko bidean gara.

Aberasgarria iruditzen zait adin eta arlo desberdinetako herritarrek elkartu eta, iritziak denon artean konpartituz, helburu jakin batzuetara iristea. Nahiz eta denok aurretik elkar ezagutu (batzuk besteak baino gehiago), halako parte hartzeko prozesu batean elkarrekin jarduteak bide eman zigun egunerokotasunetik haratago joateko eta gure artean hain ohikoak ez ditugun elkarrizketetan aritzeko.

Herritarrok egiten dugu herria, horregatik pentsatzen dut udal-ordezkariek halako egitasmoetan parte hartzeko aukera ematen digutenean, ahal izanez gero, behintzat, erantzun egin behar dela "



## URKO ATXUKARRO OTEGI

Elektronikako teknikaria  
28 urte

**"H**erriko talde baten partaide naiz, eta behar batzuk genituelako, egoki iruditu zitzaidan joan eta nire iritzia partekatzea. Azken finean, udaletxea herriarena eta herriarentzat erabilgarria izatea du helburu.

Prozesuan oso gustura jardun dut, egokia izan da, eta bereziki gustatu zait herri guztiarentzat zabaldua egotea eta herritar guztion iritziak kontuan hartzea.

Hobetzekoetan, bat aipatzekotan, jende gehiagok parte hartzea esango dut. Baina hori herritarren esku dago.

Aurrera begira, nabarmendu nahi dut horrelako beste zerbait egitea tokatuz gero, ona dela berriro ere herritarren laguntza eskatzea. Azken finean, zenbat eta jende gehiago, ideia gehiago azaltzen dira "



# Gaztelu



Azalera: 8,79 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 171, gazteluarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (4) eta Udaberri Taldea (1)





Herritarrak parte hartzen Gaztelun:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Herri-izaera	<b>GAZTELUREN HISTORIA, HERRITARREN AHOTIK</b>	Herriaren historian garrantzitsuak izan ziren gertaerak berreskuratzea, herritarrek beraiek kontatuta.	14 lagun (8 ♀, 6 ♂)	2014an zehar	✓

# GAZTELUREN HISTORIA, HERRITARREN AHOTIK

**Noiz**

2014an zehar

**Parte-hartzaileak**

14 lagun (8 emakumezko, 6 gizonezko)

herri-izaera



**H**erri txikitako historia ez dago jasota historia-liburu handietan, eta oraindik ere askoren buruetan gordeta egoten dira azken urteetako gertaerak, pasadizoak, alaialdiak eta tristuraldiak. Horiek jasotzeko, ordea, baliabideak jarri behar dira propio, hitz egiteko aukera eman behar zaie edadetuei, eta kontatzen duten horretatik denok ikasi, iraganaren gainean eraikitzen baita etorkizuna.

Proiektu honen bidez, Gazteluren azken urteetako historia jaso nahi izan zuten, baina, horrez gain, herriko adinekoak elkartu nahi izan zituzten, eta beraiek eramatea aurrera proiektua, adinekoek parte hartzea.

Horretarako, astean behin elkartu ziren Gaztelun gertatutako ez hitz egiteko: bizipenak, pasadizoak, bitxikeriak..., eta mintzagai izan zituzten, besteak beste, eskola-garaiak, txikitako jolasak, argazkiak...

Amaieran, Gazteluko adinekoei eskainitako edo belaunaldi arteko eguna antolatu zuten, eta bertan elkartu ziren adinekoak, gaztetxoak eta horien gurasoak, elkarrekin solasean aritzeko, mokadu bat jateko eta opariak banatzeko. Halaber, solasaldietako materialarekin egindako bideoa ere eman zuten.



# Ibarra



Azalera: 5,03 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 4.256, ibartarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (8), **EAJ-PNV** (2) eta **PSE-EE** (1)

[www.ibarrakoudala.net](http://www.ibarrakoudala.net)



Parte-hartzearen ardura

**JESUS PEÑAGARIKANO LABAKA**

(alkatea)



**Herritarrak parte hartzen ibarran:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Hirigintza eta Herri-galdeketa	<b>PLAZA ESTALTZEA</b>	San Bartolome plaza estaltzeko proiektua. Ezaugarriak herritarrekin landu zituzten, eta proiektua bozketa bidez hautatu zuten.	Aurkezpen-bileran: 25 lagun Bozketan: 144 boto	2013ko urritik 2014ko urrira	✓
Garapen iraunkorra eta Hirigintza	<b>TEP-A BERRIKUSTEA</b>	Agenda 21eko Tokiko Ekintza Plana berrikustea, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearekin batera.	35 lagun (14 ♀, 21 ♂)	2013ko abendutik 2014ko abendura	✓

## PLAZA ESTALTZEA

**Noiz**

2013ko urritik 2014ko urrira

**Parte-hartzaileak**

Aurkezpen-bileran: 25 lagun

Bozketan: 144 boto

herri-galdeketa



hirigintza



**S**an Bartolome plaza elizaren eta udaletxearen aurrealdean dago Ibarra, eta herriaren erdigunetzat ere har daiteke. Espazio irekia da, handia eta zabala, oinezkoak lasai ibiltzekoa, umeak lasai jolastekoa, ibartar askorentzat elkargunea. Baina bazeukan eragozpen bat: estalperik ez, eta euria edo eguraldi txarra egiten zuenean, herritarrek ez zeukaten non babestu, ez bazen udaletxeko arkupean edo inguruko tabernaren batean.

Behar horri erantzun nahian, Udalak plazaren zati bat estaltzea erabaki zuen. Horretarako, ordea, garrantzitsua iruditu zitzaion herritarren nahiak ezagutzea, nolako beharrak zeuzkaten eta nolako estalpea nahi zuten, eta partaidetzako prozesu hau abiatu zuen.

Hasteko, aurkezpen-bilera bat antolatu zuten, 2013ko urrian, eta bertan bi galdera nagusi egin zizkieten herritarrei:

“Zein dira beharrak? Nola irudikatzen duzue?”. Gero, gaia geldirik egon zen denboraldi batean, baina halako batean, berriz ere heldu zioten Hirigintzatik, eta ideia-lehiaketa baterako deialdia egin zuten. Guztira 12 lan aurkeztu ziren, eta horietatik epaimahaiak 3 hautatu zituen jendearen aurrean jartzeko eta herritarrek aukeratzeko. Lan horiek erakusgai egon ziren Kultur Etxean hamar egunez, eta zalantzak argitzeko, Udalak saio berezi bat antolatu zuen. Azkenik, botoa emateko aukera eman zieten herritarrei, lau egunetan; horretarako, bi baldintza bete behar zituzten: 16 urte beteta izatea eta Ibarren erroldatuta egotea.

Guztira 144 herritarrek eman zuten botoa, baina beste batzuek botoa eman gabe, ekarpenak egin nahi izan zituzten (guztira 15). Azkenean, proiektu irabazleak 76 boto lortu zituen; bigarrenak, 51; eta hirugarrenak, 11.

Jende ugari ibili zen erakusketan, baina plazatik urrun bizi zen herritarra ez zen, orokorrean, azaldu (plazarako baino, Tolosarako joera handiagoa daukatelako). Boto-emaielen profilarik begiratuta, batez ere 40 urte ingurukoak izan ziren, gurasoak, hau da, umeak zituztenak eta plaza estaliaren behar handiena zeukatenak. Oso gazte gutxi hartu zuten parte.

Balorazioari dagokionez, Udaletik azpimarratu zuten bereziki asmatu zutela erakusketa plazan bertan jarrita, orduantxe ibili zelako jende gehien; halaber, egun batean arkitektoak jendaurrean azalpenak eman zituen, eta hori ere positiboa izan zen. Hobetzekoetan, berriz, herritar batzuk kexatu ziren ez zirelako jarri ideien bideoak web-orrian, eta beste batzuk botoa emateko orduetgia erabakitzean ez zelako kontuan izan ordu horietan dendak zabalik egoten direla.





# TEP-A BERRIKUSTEA

## Noiz

2013ko abendutik 2014ko abendura

hirigintza



## Parte-hartzaileak

Udalaren eta beste erakunde batzuen izenean, 29 lagun (15 emakumezko, 14 gizonezko): udal-hautetsiak (6), udal-langileak (11), udalaz gaidiko erakundeetakoak (7) eta kanpoko aholkulariak (5)

Herritarrak: 35 lagun

(14 emakumezko, 21 gizonezko)

garapen  
iraunkorra



**T**EPa edo Tokiko Ekintza Plana Tokiko Agenda 21 programako agiri bat da, adostutako ekintzak biltzen dituena, ildo estrategiko nagusietan egituratuta eta herritarren eta herriko eragile nagusiekin batera egina.

Ekintza-plan hori aldi berean behin berritu edo eguneratu egin behar izaten da, eta horretarako herritarrek parte hartzeko prozesuak jartzen dira martxan.

Ibarrako Udalak 2008an onartu zuen azkeneko TEPa. Beraz, zaharkituta geratu zen, eguneratu beharra zegoen eta berritzea onartu zuen Udalak, 2013ko apirilean. Hori, ordea, beste lan batekin uztartzea erabaki zuten. Izan ere, Hirigintzatik Hiri



Antolamenduko Plan Orokorra (HAPOa) berritzeko asmoa zeukaten, eta bi prozesuek bazeukaten lotura nabarmen bat: bietan, lehen faseetan, informazioa bildu eta diagnostikoa herritarren partaidetzarekin egin beharra zegoen. Horregatik, bi arlo elkartu egin zituzten herritarrekin partaidetzazko prozesu bakarrean lantzeko.

Hurrenez hurren, pauso hauek eman zituzten:

- Hasteko, informazioa bildu zuten, gizarte-, ekonomia-, ingurumen- eta hirigintza-arloak oinarri hartuta; agiri ugari hartu zituzten aintzat: aurreko plana, iraunkortasun-adierazleak, eskuragarri zegoen informazio osagarria, indarrean zeuden udal-planak...
- Ondoren, bilerak eta elkarrizketak egin zituzten udal-teknikariekin eta eskualdeko erakundeekin, arlo horiek lantzeko.
- Gero, herritarren foroak antolatu zituzten, herriaren egoera aztertzeko eta herritarrek etorkizunera begira nolako herria nahi zuten eztabaidatzeko.
- Ondoren, iraunkortasunaren diagnostikoa idatziz jarri zuten, eta hori izan zen, gero, HAPOaren aurrerakina garatzeko oinarria.
- Amaitzeko, formulazio estrategikoa landu zuten, etorkizunera begira erronkak eta xedeak definitzeko.

Idazteko lanak amaituta, politikariei eta teknikariei aurkezteko asmoa zeukaten, eta horren ondoren, Tokiko Ekintza Plan berria osatzeko eta Udalbatzak onartzeko urratsa etorriko zen. HAPOa berritzeari, berriz, beste pauso batzuk geratzen zitzaizkion: diagnostikoa idatzita, herritarren partaidetzarekin lantzeko prozesua abiatzeko asmotan ziren.

Prozesu honi esker, bi lan uztartu eta aldi berean egin zituzten eta balorazioan bereziki nabarmendu zuten emaitza ona eta aberasgarria izan zela.

# Irura

Azalera: 3,00 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 1.671, irurarrak

Udalbatzarraren osaera:  
Bildu (8) eta EAJ-PNV (1)



Parte-hartzearen ardura  
**OLAIA NIETO LEGARRA**  
(zinegotzia)

[www.irura.net](http://www.irura.net)



**Herritarrak parte hartzen Iruran:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Herritarrekin harremanak	<b>AUZOZ AUZO</b>	Herritarren ekarpenak jasotzeko, auzoz auzoko bilerak, herria bi zatitan banatuta. 2014an, gainera, 10.000 € gorde zituzten herritarrek eskatutakoa gauzatzeko.	19 lagun (12 ♀, 7 ♂)	2010etik aurrera urtero. 2014an, maiatzean	✓

# AUZOZ AUZO

**Noiz**  
2014ko maiatzean

**herritarrekin harremanak**



**Parte-hartzaileak**  
Udalaren izenean: 11 lagun (8 emakumezko, 3 gizonezko)  
Herritarrak: 19 lagun (12 emakumezko, 7 gizonezko)



**H**erritarrekin harreman zuzenak izateko eta herritarrei ahotsa emateko, 2010etik aurrera bilerak egiten hasi ziren Iruran auzoz auzo. Herritarrek adierazitakoak Udalak aztertu egiten zituen, ea bideragarriak edo egingarriak ziren, eta Udalak zer aurrera eramanez erabakitzen zuen. Baina ikusi zuten herritarrei erabakitzeko ahalmen handiagoa eman behar zirela, eta horregatik 2014an 10.000 euroko diru-poltsa herritarren esku utzi zuten.

Esperientziaren aurrera eramateko ardura udal-hautetsiek hartu zuten, eta lanean hasi ziren: noiz egin, aurrekontuaren zenbatekoa, deialdia nola egin... Bilerak 2014ko maiatzerako jarri zituzten. Deialdiak ohi bezala egin zituzten, bando bidez. Herria bi zatitan banatu zuten, eta astebeteren barruan bi bilera egin zituzten euskaraz. Ondoren, beste bi bilera orokor, bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz, eta goizean eta arratsaldean, ordutegia arazo ez izateko.

Bilerak oso giro onean egin ziren, eta herritarrek egindako ekarpenak teknikariekin aztertu, aurrekontuak eskatu eta erabaki egin zuten. Proposamen gehien-gehienak hirigintzakoak edo zerbitzuetakoak izan ziren: argiteria, zuhaitz batzuk kentzea, trafikoa hobetzea..., baina bestelakoak ere azaldu ziren: kartel zaharrak kentzea hormetatik, txakur-kaken gaia, garbiketa herri osoan...

Udalaren balorazioa positiboa izan zen, batez ere herritarrek ekarpen ugari egin zituztelako. Hobetzekoak, berriz, hauek identifikatu zituzten: deialdia esku-orrien bidez ere egitea; bilera presentzialez gain, ekarpenak Udalaren webgunearen eta sare sozialen bidez egiteko aukera; diru-poltsa handitzea (2015ean 30.000 €-koa)...



# Lizartza



Azalera: 12,30 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 640, lizartzarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (7)

[www.lizartza.eus](http://www.lizartza.eus)



Parte-hartzearen ardura

**XERPA SARASOLA ETXEBERRIA**  
(zinegotzia)





Herritarrak parte hartzen Lizartzan:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Tokiko plana / plan estrategikoa	<b>LEHENERATUTAKO HARROBIAREN ERABILERA</b>	Garai bateko harrobian zer egin zitekeen erabakitzeko, baina dimentsio handiagoa hartu zuen eta Lizartzaren etorkizunaz hitz egiteko balio izan zuen.	14 lagun (8 ♀, 6 ♂)	2013ko urtarriletik azarora	✓

# LEHENERATUTAKO HARROBIAREN ERABILERA

**Noiz**  
2013ko urtarriletik azarora

**tokiko plana / plan estrategikoa**



**Parte-hartzaileak**  
Udalaren izenean, 6 hautetsi (4 emakumezko, 2 gizonezko)  
Herritarrak: 10 lagun (4 emakumezko, 6 gizonezko)



**H**erri askotan daude harrobi izandakoen arrastoak, mendia janda edo zuloa, lehen jarduera ekonomikoki garrantzitsu izandakoen orbanak, eta herri ugarietan egin dira horiek leheneratzeko edo beste itxura bat emateko ideia-lehiaketak eta proiektuak.

Lizartzan ere izan zen harrobia martxan, Axurdario mendiaren oinetan, GI-2135 errepedearen ondoan, 1884. urtetik. Lehen

“karobia” deitzen zioten lizartzarrek, batez ere paper-fabriketarako karea ekoizten zutelako, eta eraikuntzarako hondarra eta harria ere bai. Harrobia martxan izan zen 1976 arte, eta harrezkero, geldirik zegoen. Udalak erabaki zuen parte hartzeko prozesu baten bidez hausnartzea etorkizunean harrobia zertarako erabil zitekeen. Baina, horrez gain, prozesuak bazeukan beste helburu garrantzitsu bat: gai jakin baten inguruan lizartzarrak lanean jartzea, eta talde-lanaren eta parte-hartzearen kultura berreskuratzea herritarren eta Udalaren artean.

Proiektuak hiru fase nagusi izan zituen: prestakuntza, gauzatzea eta jarraipena.

- Prestakuntza-fasean, prozesua diseinatu egin zen, eta 2013ko urtarrean zenbait alderdi zehaztu zituzten hautetsiek: parte-hartzearen irismena, prozesuaren araudia, Herri Batzordea osatuko zuten pertsonak eta abar. Halaber, bide batez, Udaleko arduradun politikoak parte-hartzearen esparruan sentsibilizatze/ prestatzeko balio izan zuen. Ondoren, Herri Batzordeko kideekin harremanetan jarri ziren eta oinarriko informazioa bildu zuten, eztabaidarako abiapuntua izateko.

- Gauzatze-fasea, berriz, 2013ko otsailetik uztaileira izan zen eta lau lan-saio egin zituzten herritarrekin. Horietan hainbat galderari erantzun zieten parte-hartzaileek: “Zergatik eta zertarako gaude hemen?”, “Nolakoa nahi dugu izatea Lizartza 2020an?”, “Zein dira Lizartzak herri moduan lortu nahi dituen helburu edo xedeak?”, “Zer ekintza konkretu gauzatu behar dira zehaztutako helburuak lortzeko?”... Izan ere, hasierako proiektuan ez zegoen aurreikusita herriaren gaineko galdera estrategikoak egitea eta lantzea, baina egoera eta beharra ikusita, hausnarketa horiek egitea komenigarria zela ondorioztatu zuten. Horrela, harrobia leheneratzeko prozesua aztertu zuten, baina herriarentzat estrategikoak izan zitezkeen beste alderdi batzuekin. Gero, harrobia leheneratzeko, Udala enpresa batzuekin harremanetan jarri zen eta kontratazio-prozesua zabaldu zuen, baina ez zen inor ere aurkeztu eta dena geldirik geratu zen. Azkenik, erabaki zuten harrobia leheneratzea, hau da, harrobi izan aurretik zegoen bezala uztea, beste lanik egin gabe, eta horren berri emateko herri-batzarra ere egin zuten.
- Azkenik, jarraipen-fasean parte hartzeko prozesua baloratu egin zuten. Adierazi zuten ongi funtzionatu zuela eta antzeko dinamika erabilgarria zela geroko, beste gai batzuetarako eta batez ere herriarentzat estrategikoak izan daitezkeen alderdiak lantzeko.

Partaidetza-prozesu honek balio izan zuen talde-lana eta parte hartzeko kultura berreskuratzeke. Azken urteetan, Udaleko egoera politikoa ez zen batere ohikoa (hauteskundeak irabazi zituen alderdia legez kanpo, kanpoan bizi ziren eta herria ezagutzen ez zuten alkateak...) eta herritar gehienek Udaletik kanpo ikusten zuten beraien burua. Prozesu honek balio izan zuen talde-lana eta parte hartzeko kultura berreskuratzeke, herritarren lantalde egonkorra sortzeko, ikuspegi kolektiboa



lortzeko, etorkizuneko Lizartzaz hitz egiteko... Baina prozesuaren gaia harrobia zen, zer egin harrobia izandako lekuan, eta lanak erdizka geratu zirenez, sentsazio gazi-goza izan zuten: herriaren etorkizunaz hitz egiteko balio izan zuen prozesuak, baina harrobiaren gaia ez zen amaitu.

Oro har, parte hartu zuten guztiek oso ondo baloratu zuten prozesua. Alde batetik, Lizartzako Udalaren espektatibak bete egin ziren, gaia egoki landu zelako eta talde-lanaren eta parte-hartzearen kultura berreskuratzen hasi baitzen Lizartza; bestetik, ordea, herritarren espektatibak ez ziren guztiz bete, prozesua ez zelako aurreikusi bezala bukatu. Parte-hartzaile batzuek komentatu zutenenez, uste zutena baino “eramangarriagoa” izan zen prozesua, astunagoa eta zailagoa izatea espero baitzuten.

# Orendain

Azalera: 6,4 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 193, orendainarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (4) eta Batzaleku (1)

[www.orendain.org](http://www.orendain.org)



Parte-hartzearen ardura

**GORKA EGIA ARREGI**

(alkatea)



Herritarrek parte hartzen Orendainen:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Garapen iraunkorra	<b>AGENDA 21AREN HERRI-PLANA BERRITZEA</b>	Agenda 21a herritarrekin batera berritzeko.	57 lagun (31 ♀, 26 ♂) 133 galdetegi beteta	2013ko maiatzetik aurrera	✓
Partaidetzazko aurrekontuak	<b>2015EKO AURREKONTUAK</b>	2015eko aurrekontuak lantzeko, herri-batzarrera Orendaingo etxe bakoitzetik gutxienez lagun bat joateko konpromisoa landu zuten.	42 lagun (18 ♀, 24 ♂) 123 galdetegi beteta	2014ko urritik abendura	✓

# AGENDA 21AREN HERRI-PLANA BERRITZEA

**Noiz**

2013ko maiatzetik aurrera

**Parte-hartzaileak**

Lantaldeetan: 57 lagun (31 emakumezko, 26 gizonetzko)

Galdetegiak: 133 galdetegi (150etik)



**A**genda 21a Nazio Batuek garapen iraunkorrari eusteko sortutako programa bat da, eta oso tresna eraginkorra da herri txikien etorkizun estrategikoa definitzeko. Horregatik, Gipuzkoako herri askok (batez ere txikiak) martxan daukate, eta Orendainek ere bai, bertan jasota

daudelako herrian egiteko asmotan diren proiektu nagusiak, herriak norantz eta nola joan nahi duen zehazten duelako.

Orendainen kasuan, aurreko legegintzaldian egin zen Agenda 21a osatzeko lehenengo parte hartzeko prozesua, eta orduan hasitakoari segida eman nahi izan zioten 2013an. Egindakoari





begiratura, aurreko planeko ekintzen % 75 zeuden beteta, eta Agenda berritzeko edo egokitzeko une egokia zen. Horretarako, ordea, udal-ordezkariek garbi zeukaten herritarrek zuzenean hartu behar zutela parte prozesuan, eta berriaz horretarako diseinatu zuten. Lanak bideratzeko eta prozesuan eragiteko, langile bat hartu zuten, eta, hasteko, komunikazio-kanpaina bat egin zuten, zer asmo zeukaten jakinarazteko, eta ekaina eta uztaila artean parte hartzeko bilerak antolatu zituzten herritarrekin, Tolosaldea Garatzeko bi teknikariek lagunduta.

Hasteko, herritarrak 7 lantaldetan bildu ziren interesen edo nahien arabera: ingurumena-hirigintza, lehen sektorea (nekazaritza), enplegua, zerbitzuak, hezkuntza, kultura eta udala. Saiakera berezia egin zuten etxe bakoitzeko norbaitek lantaldereen batean parte hartzeko. Lantalde horietako bakoitzak hiru saio edo bilera egin zituen: lehenengoa, formazioa jaso eta Orendaingo diagnosis edo erradiografia egiteko; bigarrena, alor horietako aditu batzuen iritzia entzuteko eta beste esperientzia batzuk ezagutzeko; azkenik, hirugarren saioa, ekintza-proposamenak egiteko.

Ekintza horiei beste ekintza batzuk gehitu zizkieten (beste herritar batzuenak, udal-langileenak eta ordezkarri politikoek), eta guztiak sailkatu egin zituzten: batzuk galdetegi batean bildu zituzten; beste batzuk, berriz, baztertu egin zituzten, betiere arrazoituta; beste batzuk zuzenean sartu zituzten Agenda 21 programan; azkenik, ekintza batzuk zuzenean egiteko hautatu zituzten, Agenda 21 programan sartu beharrik gabe. Galdetegia Orendaingo etxebizitza guztietara banatu zuten.

Horrela, herritarrek aukera izan zuten ekintza-proposamenik egokienak aukeratzeko eta lehentasunak ezartzeko. Herritar gehienek hartu zuten parte eta banatutako galdetegietatik % 90 jaso zituzten bueltan, beteta. Eraitzen arabera idatzi zen Orendaingo Agenda 21a, 2014an, herritarrek lehenetsitako ekintzekin. Prozesuari amaiera formala emateko, Udalbatzak bere egin zuen Agenda 21a.

Balorazioari dagokionez, Udalak oso ondo baloratu zuen prozesua, era batera edo bestera herritar gehienek hartu zutelako parte; baina beste hainbat alderdi ikusi zituzten hobetzeko, hurrengorako: lantaldeen bileretan parte-hartzaileen kopuruari eustea, lantaldeen lehen bileraren aurretik txosten batean laburbiltzea aurretik zetozen ekintzak, web-orria eta teknologia berriak erabiltzea...

# 2015EKO AURREKONTUAK

## Noiz

2014ko urritik abendura

## Parte-hartzaileak

Batzarrean: 42 lagun (18 emakumezko, 24 gizonezko)

Galdetegiak: 123 galdetegi

partaidetzazko  
aurrekontuak



**A**genda 21a programan egindako lanari esker, aldi ertain baterako udal-plana lortu zuten, hurrengo urteetarako lanerako markoa eta gida. Baina epe ertain horren barruan aldaketak edota behar berriak sor daitezke, eta horiei aurre egiteko edo erantzuteko, Orendainen, 2014an, partaidetzazko aurrekontuak lantzeko prozesua jarri zuten martxan, iraunkorra eta urtero egiteko asmotan, urtean bertan egindakoa baloratzeko eta hurrengo urtean egin beharrekoa zehazteko.

Prozesu honetarako, konpromiso oso zehatza eskatu zieten herritarrei: urtean behin, gutxienez, etxe bakoitzetik pertsona bat joatea bilerara eta guztien artean onartzea hurrengo urtean egin beharrekoa.

Asmoen berri ethez etxe eman ondoren, etxeetan galdetegiak utzi zituzten, 17 ekintzarekin, eta herritar bakoitzak 3 ekintza aukeratu behar zituen. Galdetegiak bueltan jasota, boto gehien jaso zituzten ekintzak gauatzeko asmoa zeukaten 2015ean.

Abenduaren 14an herri-batzarra egin zuten, etxe bakoitzetik lagun banarekin. Gero, herri-batzarretik ateratako ondorio eta erabakiekin, dokumentu bat osatzeko asmoa zeukaten, 2015ean zer egingo zen laburbiltzeko, baita orendaindarrei etxeetara banatzekoa ere.

Balorazioari dagokionez, Udala oso gustura geratu zegoen partaidetzako prozesuarekin, eta etorkizunera begira, erronka nagusitzat jo zuten parte hartzeko ohitura honi eustea, abenduko bigarren igandean egingo den urteroko batzarrera joateko ohitura hartzea, etxe bakoitzetik gutxienez herritar bat joatea.



## AIMAR AGIRRESAROBÉ LIZARRA

Irakaslea  
33 urte

“**U**ste dut gurean benetako parte hartzeko prozesu bat egitea lortu dugula denon artean. Hori posible da horretarako bideak eta bermeak eskaintzen direnean. Prozesu oso zaindua izan da, ongi antolatua eta eraginkorra. Lan handia egin da eta etxe bakoitzetik gutxienez kide batek parte hartzeko helburua bete da.

Herritarron artean eraiki nahi dugun herriaz iritziak trukatu, adostasunak eraiki eta erabakiak hartu ditugu. Norbere kezka eta ekarpenak kolektibo bihurtuz eta gai orokorrak bakoitzarenak eginez. Eztabaida oso interesgarriak atera dira ekonomia jasangarriaz, enpleguaz, hirigintzaz, ingurumenaz, kontsumo arduratsuz, kulturaz, heziketaz... Epe motz eta ertaineko erabakiak hartu ditugu eta hasi gara emaitzak ikusten. Esperientzia guztiz eraginkor eta aberasgarria izan da //



## MIKEL IBAÑEZ ALBERDI

Lehen Hezkuntzako  
ingeles-irakaslea  
32 urte

“**E**txe bakoitzetik bana' lelopean animatu gintuen Udalak parte hartzeko prozesu honetara. Askotan kexatzen gara Administrazioak herritarron iritziak ez dituela entzuten, eta prozesu honek ahotsa eman zigun bizilagun guztioi.

Gure eguneroko bizitza hobetuko duten ideiak proposatu genituen taldeka, gaika, eta bertatik ateratako proposamenekin galdetegí bat egin zuen Udalak. Proposamen asko jadanik gauzatu ditu Udalak, eta gauzatu ez direnak diru faltagatik izan dira.

Gelditu zaidan sentsazioa izan da Udala herritarron zerbitzura dagoela. Oso pozik nago gauzak hobetuz doazela eta herriak bizia duela ikusita. Gainera, ezagutzen ez nituen bizilagun asko ezagutu ditut //



# Orexa



Azalera: 5,80 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 123, orexarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (5)

[www.orexa.eus](http://www.orexa.eus)



Parte-hartzearen ardura

**ENEKO MAIOZ GANBOA**

(alkatea)





Herritarrak parte hartzen Orexan:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Garapen iraunkorra	Agenda 21a	Agenda 21aren hausnarketa egiteko, 2030ean zer nolako Oresa nahi zuten denen artean hausnartzeko.	10 lagun	2014ko urtarriletik martxora	✓
Zerbitzuak	<b>HERRIKO LOKALEN ERABILERA BERRANTOLATZEA</b>	Udal-lokalen inguruko hausnarketa: zertarako erabiltzen ziren, zertarako izan zitezkeen egokiak, beharrak asetzen zituzten...	9 lagun (3 ♀, 6 ♂)	2014ko maiatzean	✓
Parte hartzeko sistema eta Araudiak	<b>PARTE-HARTZEA ARAUTZEKO ORDENANTZA</b>	Udalaren erabakitzeko ahalmena herri-bileraren gain uztea.	6 lagun (3 ♀, 3 ♂)	2014ko abuztutik abendura	✓

# HERRIKO LOKALEN ERABILERA BERRANTOLATZEA

## Noiz

2014ko maiatza

## Parte-hartzaileak

9 lagun (3 emakumezko, 6 gizonezko)

zerbitzuak



Orexako Udalak hainbat lokal ditu, herritarrei zerbitzua emateko eta erabiltzeko, baina inoiz ez zen egin hausnarketarik horien gainean: zertarako erabiltzen ziren, zertarako izan zitezkeen egokiak, orexarren beharrak asetzen zituzten... Udalak hausnarketa-bilera bat egin zuen herritarrekin, eta saiotik ateratako ondorioekin gero zenbait egokitzapen-lan egin zituzten, funtzio berrietarako.

Orexaren herrigunean badira hiru udal-eraikin, herritarrei zerbitzua ematekoak edo herritarrek erabiltzekoak: Segoretxe, udaletxea eta Unsalu. Hasteko, bilera batean, herritarrekin landu ziren eraikin horietan ematen ziren zerbitzuak eta erabilerak, baita izan zitzaizketen balizko erabilerak ere. Hori egin ondoren, bidean zen aldaketa bat adierazi zieten herritarrei: udal-bulegoak eta artxiboa udaletxeko eraikinetik Unsalu etxera pasatzeko asmoa zeukaten oso epe laburrean, eta horrek aukera berriak zabaltzen zituenez, aurreko ariketako lanak berregokitu egin zituzten, eta denen artean beste erabilerak/zerbitzuak non koka zitezkeen hitz egin zuten. Horrela, amaieran, denen artean adostu zuten eraikin bakoitzean (eta solairu bakoitzean) zer joango zen edo zer erabilera emango zitzaion.

Prozesuan beste behar batzuk ere azaldu ziren, eraikin horietan sartzen ez zirenak: garraio publikoa, mugikorren estaldura, komunak txukundu... Udalak konpromisoa hartu zuen etorkizunean horiek guztiak kontuan izateko.

Balorazioa oso ona izan zen, bai parte hartu zutenena, baita Udalarena ere.



# PARTE-HARTZEA ARAUTZEKO ORDENANTZA

Noiz

2014ko abuztutik abendura

Parte-hartzaileak

5 udal-hautetsiak eta udal-idazkaria (3 emakumezko, 3 gizonetzko)

araudiak



parte hartzeko sistema



**A**spalditik dute Orexako herritarrek udal-erabakietan zuzenean parte hartzeko ohitura. Herria ehun biztanletik beherakoa zenean, “kontzeju irekia” izenekoarekin funtzionatzen zuten, eta herri-bilerek bazeukaten legearen aldetik erabakitze-eskubidea eta ahalmena, alkatearekin batera.

Gero, ordea, Orexak ehun biztanletik gora zituenez, bost zinegotzi zeuzkan udal-taldeak, eta legearen arabera, horiek osatzen zuten erabakigune bakarra. Beraz, herritarrek erabakitzeko ahalmena galdu egin zuten, eta legearen arabera, zinegotzien gain utzi zuten (demokrazia ordezkatzaila). Galerarik ez izateko, araudi honen bidez ahalmen hori bueltatu nahi izan zieten herritarrei, berriz ere eskubide eta ahalmen zuzena eman.

Prozesu honetan, ez zen lan berezirik egiten herritarrekin. Berez, herri-bilerek ondo funtzionatzen zuten aspalditik, eta funtzionamendu hori arautu eta bermatu egin zen, besterik ez. 2014ko amaieran, parte hartzeko arautegia herri-bilera batean onartu zuten.

Herritarrak prozesu honen parte izan ziren hasieratik, beraiek kontziente izan ez baziren ere. Izan ere, funtsean, Orexan

ohitura bihurtu ziren hainbat ekintza betikotu eta lege-bermea eman nahi izan zioten. Horrela, Orexako Udalak beti berdin funtzionatuko zuela bermatu nahi izan zieten herritarrei.

Parte hartzeko sistema honen bidez, herritarrek zuzenean parte hartu ahal izango dute udal-kudeaketan. Legea oztopo zen, baina borondate politikoa egonez gero, posible da oztopoak gainditzea.



# Tolosa




Azalera: 37,9 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 18.936, tolosarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (8), EAJ-PNV (7), PSE-EE (1)  
eta Aralar (1)



Parte-hartzearen ardura

**GARIKOITZ LEKUONA IZETA**  
(teknikaria)

[www.tolosakoudala.eus](http://www.tolosakoudala.eus)





Herritarrak parte hartzen Tolosan:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Bizikidetza	<b>GAZTE-LOKALAK</b>	Gazte-lokalen inguruko bizikidetza-araudia zehazteko partaidetza-prozesua.	76 lagun (18 ♀, 56 ♂)	2013ko otsailetik urrira	✓
Haurrak/gazteak/ adinekoak	Haurren hiria: herritarrak jaiotzetik	Kaleak bizitzeko guneak direlako, Udalak "Tolosa kale biziak" sortu zuen, eta hor jaio zen "Haurren hiria". Eskolek lagunduta, 8-12 urte bitarteko hurrekin kontseilu egonkorra eratu zen, hurrek irudikatzen zuten hiria lortzeko.	Haurren 43 ordezkari	2014ko ekainetik aurrera	...
Hirigintza	<b>SAN ESTEBAN AUZOA: AUZOA ERAIKIZ, TOLOSARI ETORKIZUNA ESKAINI</b>	Auzorako hirigintza-plana egin aurretik, etorkizuneko San Esteban auzoaren garapen urbanistikorako irizpideak adostea auzotarrekin.	59 lagun (26 ♀, 33 ♂)	2013ko maiatzetik uztaillera	✓

# GAZTE-LOKALAK

## Noiz

2013ko otsailetik urrira

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, 3 lagun (1 emakumezko, 2 gizonezko):  
Gazteriako zinegotzia, Gazteriako teknikaria eta kanpoko aholkularia  
Herritarrak: 74 lagun (18 emakumezko, 56 gizonezko)

bizikidetza



**B**este herri askotan bezala, ugaritu egin ziren Tolosan gazte-lokalak, -etxabe edo -lonjak, eta ugaltzearekin batera sortzen joan ziren arazoak, batez ere bizilagunen eta gazteen artean: lokal-inguruetan zikinkeria, zarata... Gazte-lokalen inguruan ez zegoen araurik, eta Udalak ikusi zuen beharrezkoa zela elkarbizitzarako araudi bat egitea. Horregatik, erabaki zuen parte hartzeko prozesu hau martxan jartzea, eragindako edo parte ziren guztiekin batera gazte-lokalen inguruko bizikidetza-araudia zehazteko.

Hasteko, gazte-lokalak identifikatu zituzten, eta banan-banan guztietara jo zuten, Udalaren asmoen berri ematera eta gazteei entzutera (arazoak, kezak, nahiak...). Gazteak beraiek kontziente ziren lokaletan sartuta isolatu egiten zirela, eta gazteek komenigarritzat jotzen zuten gazteen arteko harremanak ezartzea, sare bat egitea.

Prozesuan hiru bilera egin zituzten, eta udal-ordezkariez gain, bertan parte hartu zuten gazte-lokaletako kideek (15-30 urte bitartekoek), bizilagunek, lokalen jabeek eta adinez txikiak ziren gazteen gurasoek. Hasieran, jarrera nahikoa

kontrakoak zeuden, batez ere gazteen eta bizilagunen artean, baina pixkanaka elkarrengana gerturatu eta elkar ulertzea lortu zuten. Adostasun horri esker, Tolosako Udalak ordenantzako puntuak osatu zituen. Horrela, lokala zuten edo etorkizunean eduki nahi duten gazteek udal-erregistroan izena eman beharko dute, eta bertan adierazi beharko dituzte kide-kopurua, lokalaren azalera, komunik badaukan edo ez... Udal-teknikariak lokala ikuskatuko du, eta baldintzaren bat bete ezean, hiru hilabeteko epea emango da konpontzeko. Halaber, arazoei aurre egiteko, protokolo bat ere aurreikusi zuten.

Amaieran, gazte-lokalen baldintza minimoak adostu zituzten eta bizilagunen elkarbizitzarako protokoloa adostu zuten, eta guztien balorazioa oso positiboa izan zen. Hobetzekoetan, berriz, azpimarratu zuten emakumezkoen presentzia txikiagoa eta hori hobetzeko estrategia bereziak jartzea martxan.





**ALOÑA  
LERTXUNDI  
FERRAN**

Ikaslea  
17 urte

**"G**aia hasieratik interesatu zait koadrilakoak lokala dugulako eta barruan geundelako, eta informazioa lehen eskutik eduki nahi nuen.

Gaiarekiko iritzi kontrajarriak zeuden arren, gustatu zitzaidan Udaletik nola eraman zen prozesua, guztion iritziak kontuan hartu zirelako, gazteona ere bai.

Prozesua lagun-giroan egin zen eta eroso sentitzera iritsi ginen, bileretan gustura egon ginen. Udaleko ordezkariekin konfiantza-giroa sortu zen eta ez genituen arrotz, urrun sentitu. Bileren maiztasuna egokia izan da, ez da pisutsua izan, erabili duten formatua partaidetzazkoa zenez, egokia izan da.

Prozesuan dena positiboa izan da. Ordenantza izan da prozesu honen emaitza eta ona izan da, ezinbestekoa iruditzen zait gazteontzat guztia erregulatuko duen marko bat edukitzea, bertan gure eskubideak ere bermatzen direlako; hori lehen pentsaezina zen.

Jendearen inplikazio handiagoaren falta sumatu dut, ordea //



**MARTIN  
ZALDUA  
SARASOLA**

47 urte  
Lokal baten jabea

**"G**ertutik bizitu nuen gazte-lokalen eta bizilagunen arteko liskarra eta prozesu hau interesgarria iruditu zitzaidan zuzenean inplikaturik sentitu nintzelako, eta, bide batez, ikusten dudalako egun dagoen arazo bat dela eta irtenbide bat emateko modu bat dela guztion artean araudi bat diseinatu eta martxan jartzea.

Prozesua hasieratik irekia izan da, jende guztiarentzat aukera berdina eskaini dira eta denen ahotsa entzuteko aukera izan dugu. Prozesu osoan eroso sentitu naiz.

Falta sumatu dut, agian, jende gehiagok parte hartzea. Hortik gero atera den araudiak soluzio bat bilatzeko balio duela uste dut, hutsune bat zegoela eta normatiba honek betetzen duela.

Gustatuko litzaidake prozesu hau irekita uztea, inoiz zerbait beharko balitz osatu ahal izateko //

# SAN ESTEBAN AUZOA: AUZOA ERAIKIZ, TOLOSARI ETORKIZUNA ESKAINI

## Noiz

2013ko maiatzetik uztaiera

## Parte-hartzaileak

Udalaren izenean, alkatea eta teknikariak: 4 lagun (1 emakumezko, 3 gizonetzko)

Herritarak: 59 lagun (26 emakumezko, 33 gizonetzko)

hirigintza



**L**askorain Goikoa edo San Esteban auzoa Tolosan dago, erdigunean eta mendebaldean, eta bertan bizi dira 500 tolosar inguru.

Aurreko Gobernu Taldeak Plan Berezia idatzi zuen auzo horretarako, baina Gobernu Talde berria sartu zenean, erabaki zuen erredakzioa bertan behera uztea, eta gero, plan urbanistiko berria egin aurretik, auzotarren iritzia propio jasotzea partaidetzako prozesu baten bidez, hau da, etorkizuneko San Esteban auzoaren garapen urbanistikorako irizpideak elkarrekin adostea.

Abiapuntu bezala, Udaleko Gobernu Taldeak hasierako irizpide edo hausnarketarako oinarri batzuk markatu zituen, eta horiek jarri zituen mahai gainean herritarrekin egin zituen bileretan. Besteak beste, Udalak adierazi zuen Tolosan badaudela inor erroldatu gabeko 500 etxebizitza, eta Tolosako beste eremu batzuetan 600 etxebizitza berri eraikitzeko asmoa zegoela; halaber, Udalak garapen

sozioekonomikoaren gaia ere planteatu zuen, eta euskarak eta euskal kulturak aukera eman zezakeela aktibo ekonomikoen artean sinergiak ahalbidetzeko.







Prozesu honetan, hainbat bilera egin zituzten astero, eta bi ildo nagusiren inguruan aritu ziren: batetik, auzunearen etorkizuna (nolakoa izan behar zuen auzoak, zer eskaini beharko zuen); bestetik, eguneroko beharrak, eta auzotarrek 30 ekarpen egin zituzten.

Horrela, gero idatzi behar zen plan ofizialaren aurrekariak edo irizpide nagusiak finkatu zituzten. Besteak beste, hauek adostu zituzten prozesuan:

- Auzo bizi eta alaia sortzea nahi zuten bizilagunek, eta, era berean, urbanistikoki orekatua eta erakargarria; auzo osoa nahi zuten, gaur egungo banaketarik gabea.

- Etxebizitzei zegokienez, egungo eraikinak lehenestea proposatu zuten, eta etxe berriak eraikiz gero, eraikin guztien artean oreka izateari ere garrantzia eman zioten.
- Garapen ekonomikoan, berriz, azpimarratu zuten auzoan nahiz herrian garapenerako aukerak eskaintzea, batez ere, San Estebango bertako euskarazko hedabideak, Bonberenea nahiz BOX.A moduko eragileak indartzea. Bide horretan, euskara, kultura eta sormena indartzea zen helburuetako bat.
- Azkenik, itxurari zegokionez, irizpideetako bat izan zen San Estebanen berdetasuna mantentzea; aisialdirako aukera berriak eskaintzea, adin guztietarako azpiegitura eta ekipamenduekin.

Bileretako giroa oso ona izan zen, konfiantzazkoa, eta lanerako metodologia egokia erabili zen, partaidetza bultzatzen zuena. Prozesuaren ondorioz, auzoa garatzeko hirigintza-irizpideak adostu zituzten, baina, horrez gain, auzotarren arteko harremanak sustatu egin ziren, herri-ikuspegia eta auzoko beharrak uztartu egin ziren eta konfiantzazko giroa sortu zen udal-teknikarien eta auzotarren artean. Halaber, etorkizuna lantzeaz gain, gaur egungo beharrak detektatu zituzten eta askori konponbidea eman ere bai. Udal-ordezkariek bereziki azpimarratu nahi izan zuten ikasitako alderdi bat: etorkizuneko planteamenduak egiteko, garrantzitsua dela egungo beharrak mahai gainean jartzea eta lantzea, hurrengo urratsak askoz ere egokiago eta errazago emateko.

# Tolosaldeko Mankomunitatea

[www.tolosaldea.org](http://www.tolosaldea.org)

## TOLOSALDEAN ATEZ ATEKOA GIZARTERATZEKO PROZESUAK

### Noiz

2013ko abendutik 2014ko martxora

### Parte-hartzaileak Alegia, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura eta Zizurkilen:

Galdetegia erantzuten, 461 herritar (313 emakumezko, 148 gizonzko)

Sortzaile handiak, elkarrizketa bidez, 174 herritar (116 emakumezko, 58 gizonzko)

Saioetan, guztira, 167 lagun (98 emakumezko, 69 gizonzko)

Zurekin, alde ederra!

garapen  
iraunkorra



2013an, hondakinak atez ate biltzeko sistema berria martxan jartzeko, saio bereziak egin zituzten Alegian, Amasa-Villabonan, Anoetan, Iruran eta Zizurkilen, herritarrek sistema berria ezagutzeko eta ekarpenekin aberasteko; 2014ko hasieran, berriz, sistema ezarri eta 6 hilabetera, bigarren fasean, sistema berria baloratzeko eta hobetzeko eskatu zieten herritarrei, hau da, iradokizunak eta proposamenak egiteko. Funtsean, lehen fasea informazioa emateko izan zen, egin behar zenaren berri emateko; bigarrenean, berriz, sistema berriarekin lortutako emaitzak ezagutzeaz gain, herritarrek informazioa eta iritzia eman zuten, sistema hobetzeko.





Herri guztietan, antzeko pausoak eman zituzten, hiru urrats nagusirekin: antolatzea, garatzea eta ixtea.

- Hasteko, antolatzeko urratsean, talde eragileak sortu zituzten herriotan, eta bigarren faseko xehetasunak finkatu eta informazioa nondik eta nola jaso izan zuten mintzagai, hau da, herritarrengandik eta sortzaile bereziengandik lortu beharrekoa; horretarako, zenbat bide landu eta jarri ziren: galdetegiak telefonoz, paper bidez eta webgunean; bisitak eta elkarrizketak sortzaile bereziei...
- Garapeneko urratsean, herriotan bilerak egin zituzten herritarrekin, eta hiru puntu nagusi landu zituzten: hasteko, gaikako bilketaren emaitzak ezagutzea; ondoren, jendearen iritzia eta proposamenak jasotzea; eta, azkenik, herritarrek bilketa-sistema berriaren inguruan zeuzkaten esperientziak partekatzea. Bilketa-sistema berria ezarri ondoren, herri guztietan oso emaitza onak lortu ziren eta birziklatze-tasan

salto handia eman zen (% 77 inguru birziklatzea). Bestalde, herritarrek honelako kezka eta iritzia azaldu zituzten saioetan: birziklatzen ez zuten lagunekin hartu beharreko neurriak, ontzi komunitarioak eskaintzeko aukera, ekarpeneguneeen informazioa lantzea eta ezagutaraztea, ordutegiak eta egutegiak luzatzea erraztasun gehiago emateko jendeari, gaiaren inguruko komunikazioa eta sentsibilizazioa...

- Azkenik, itxierako urratsean, prozesuaren balorazioa egin zen eta aurrera begira kontuan hartzekoak jaso ziren.

Funtsean, prozesuak ondo joan ziren eta sentsazio orokorra ona izan zen. Bileretan errespetua eta giro ona izan ziren nagusi, jendea jarrera eraikitzailearekin joan zen, ekarpenak egitera eta sistema hobetzen laguntzera. Asistentziari dagokionez, espero baino jende gutxiagok hartu zuen parte, baina izan zitekeen normaltasunaren seinale, jendea bilketa-sistema berriarekin ohitu egin zelako.



# urola erdia



## Herriak (6)

Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil eta Zestoa

## Biztanleak

31.252 (gipuzkoarren % 4,37)

## Azalera

224,06 km<sup>2</sup> (Gipuzkoaren % 11,27)





**U**rola ibaiak zeharkatzen du, hegoaldetik Bizkaiko itsasoaren bila, eta ibaitik hartzen du izena eskualdeak. Urola Aizkorri mendiaren magalean jaio eta Zumaiaren itsasoratzen da, 57 kilometro egin ondoren, eta Errezil eta Beizama kenduta, eskualdeko beste herri guztietatik iragaten da.

Herri hauek eskualde handiago baten barruan ere azaltzen dira askotan, Urola Kosta izenekoaren baitan.

Herri nagusiak Azpeitia eta Azkoitia dira, bai biztanle-kopuruari dagokionez, baita erdigune ekonomikoak izateagatik ere, eta bien artean dago Loiola. Beizama da, berriz, Gipuzkoaren erdigune geografikoa.

Izarraitz eta Hernio dira eskualdeko mendirik garaienak, biak ere mila metro pasakoak.

Komunikazioei dagokienez, GI-631 errepidea Urolaren arrotik doa, Zumaiatik Azkoitira eta handik Zumarragara; GI-2634 errepideak, berriz, Errezil, Azpeitia, Azkoitia eta Elgoibar lotzen ditu; GI-2635 errepideak, azkenik, Azpeitia eta Beasain elkartzen ditu, Mandubiko gainetik. Garai batean trena ere

bazebilen eskualdean, Urola izenekoak, Zumarragatik Zumaiara, baina 1980ko hamarkadan zerbitzua kendu eta trenbidea deuseztatu egin zuten; Azpeitiko geltoki zaharrak *Trenbidearen Euskal Museoa* gordetzen du egun. Eskualdeko garraiobide publiko nagusia autobusa da, Lurraldebusen emandako zerbitzuarekin.

Garai batean lehen sektoreko jarduerak ziren nabarmenak eskualdean, baina industrializazioarekin, industrialde ugari ezarri dira herri gehienetan, eta bigarren sektorea da gaur egun nagusi. Azpeitian altzarigintza zen jarduera behinena, baina krisiak gogor astindu zuen XX. mendearen amaieran, baita metalurgia ere ondorengo urteetan. Herri txikietan, baserri-giroa da nagusi.

Herriak Urola Erdiko Mankomunitatean elkartzen dira.

Gipuzkoako eskualderik euskaldunenetako bat da, biztanleen % 90etik gora lagunek baitakite euskaraz.

Turismoari lotutako jarduerak garrantzi handikoak dira eskualdean, batez ere Loiolaren eta Zestoako bainuetxearen inguruan, lehengo oparotasunarekin ez bada ere ■

# Aizarnazabal

Azalera: 6,50 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 775, aizarnazabaldarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (6) eta EAJ-PNV (1)

[www.aizarnazabal.net](http://www.aizarnazabal.net)



Parte-hartzearen ardura

**ALVARO VILLAR FERNANDEZ**

(alkatea)



## Herritarrak parte hartzen Aizarnazabalen:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Herritarrekin harremanak	Auzoetan bilerak	Aizarnazabal herri txikia da, baina lau auzo dauzka, eta aldian behin bilerak egiten dituzte horietan.	Batez beste, 10 lagun inguru (5 ♀, 5 ♂)	2011tik aurrera	...
Hirigintza	<b>HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA</b>	Plan Orokor berria lantzeko, herritarren eta eragileen ordezkarienez osatutako batzorde bat sortu zen.	14 lagun (6 ♀, 8 ♂)	2014ko uztailetik 2015eko maiatzera	...

# HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

### Noiz

2014ko uztailetik 2015eko maiatzera

hirigintza



### Parte-hartzaileak

Lantaldean: 14 lagun (6 emakumezko, 8 gizonezko)

**A**zken aldiz 2006an berritu zen Aizarnazabalgo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPOa). Geroztik, aldaketak izan ziren legetan eta Plana berritu beharra zegoen.

Lan horiek oso teknikoak direnez, Udalak kanpoko talde tekniko bat kontratatu zuen, eta udal-ordezkariekin eta teknikariekin bildu ondoren, talde horrek herria sakon aztertu zuen, hainbat alderditatik begiraturata: herriaren eta biztanleriaren hazkundera, etxebizitzak, garapen ekonomikoa, azpiegiturak, zerbitzuak,

aurreko Plan Orokorren betetze-maila... Azterketako emaitzak kontuan izanik, etorkizunerako proposamen zehatz batzuk azaldu zituen talde horrek, eta horiek lantzeko, parte hartzeko prozesu hau jarri zuen abian Udalak; horrela, herriko eragile eta elkarrekin ordezkariak (kultur taldeak, gazteak, jubilatuek, industrialdeetako enpresak...) lantalde batean bildu zituen, udal-hautetsiekin eta udal-arkitektoarekin batera. Lantalde horrek lehen bilera 2014ko uztailan egin zuen, besteak beste, hauek lantzeko: taldea sortu eta prozesua aurkeztu; espektatibak eta iritzia landu; bakoitzaren lana argitu; lehen azterketa aurkeztu... Lantalde horrek bigarren bilera urriaren 29an egin zuen, etxebizitza-tipologia lantzeko.

Berez, Plan berria 2015eko maiatzean onartzeko asmoa zeukan Udalak, eta bitarte horretan, lantaldeak hainbat bilera egiteko asmoa zeukan, besteak beste, honelakoak lantzeko: azpiegitura gehiagoren beharra zerbitzu gehiago eskaintzeko (adibidez, parkeak edo frontoia egokitzea), industrialdea zabaltzeko edo egokitu...

Prozesua amaitu gabe ere, Udala gustura zegoen erantzunarekin eta prozesua aberasgarria izaten ari zelako guztietzat.



**JOSEFINA  
ARANBURU  
LIZARRALDE**

Administraria  
58 urte

“**H**erriko Plan Orokorrean parte hartzea oso aberasgarria iruditu zait. Batetik, herritarroi esan nahi duguna azaltzeko aukera eman digulako; eta, bestetik, hemendik urte batzuetara izan nahi dugun herriari buruz hausnarketa egiteko bidea eman digulako.

Oraingoaz, bilera gutxi egin ditugunez, oso goiz da emaitzei buruz hitz egiteko, baina sortu dugun harreman hau landu eta indartzeko saiakerak merezi duelakoan nago”



**JUSTO  
ALKORTA  
LARRAÑAGA**

Erretiratu · 69 urte

**Aizarnazabalgo  
jubilatuen presidentea**

“**E**san ziguten bertara gonbidatu gintuzten guztiok talderen bateko ordezkari moduan hartuko genuela parte, eta ni jubilatuen ordezkari izango nintzela. Gustatu zait herriko ordezkari izatea eta talde desberdinak elkartzea herriko erabakiak hartzeko.

Partaidetza garrantzitsua iruditzen zait herri batean eta oso ondo iruditu zait herriko Plan Orokorra guztion artean erabakitzeko aukera izatea. Herritarron ideiak adierazteko aukera izatea gustatzen zait. Ez naiz aditua, baina nire iritzia ematen saiatzen naiz.

Bileren ondoren, bertan hitz egindakoa lagunartean komentatzea gustatzen zait eta beraiekin eztabaidatzea, ‘saltxa’ pixka bat sortzeko”



# Azkoitia



Azalera: 55,4 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 11.480, azkoitiarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (8), EAJ-PNV (6), Azkoitia Bai (2)  
eta PSE-EE (1)



Parte-hartzearen ardura

**URRATEGI ALBERDI GARATE**

(alkatea)

**ESTHER LIZARRALDE MENDIZABAL**

(zinegotzia)



[www.azkoitikoudala.info](http://www.azkoitikoudala.info)



Herritarrak parte hartzen Azkoitian:

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Kultura	Andramaixek	Herriko jaien inguruan eragileen eta herritarren iritziak jasotzeko eta herriko jaien egitaraua Udalak eta herritarrek elkarlanean diseinatzeko.	2013an, 15 elkartetako ordezkariak: 22 lagun (14 ♀, 8 ♂). Gazteen ekarpenak, idatziz: 15 (5 ♀, 10 ♂) 2014an, galderi erantzuten: 25 lagun (21 ♀, 4 ♂). Bileretan: 17 lagun (10 ♀, 7 ♂)	2013ko ekainetik irailera 2014ko maiatzetik irailera	✓
Partaidetzazko aurrekontuak	<b>DANON HERRIXE</b>	Udal-aurrekontuak herritarrekin batera diseinatzeko.	2013an, bileretan: 42 lagun (20 ♀, 22 ♂) 2014an, proposamenak egiten: 113 lagun. Bileran: 30 lagun (12 ♀, 18 ♂). Bozketan: 749 lagun	2012tik aurrera urtero	✓
Euskara	Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)	Etorkizunean Udalak euskararekiko izango duen politika eta lan-ildoak eragileekin eta herritarrekin adosteko.	19 lagun (16 ♀, 3 ♂)	2014ko urritik azarora	✓
Garapen iraunkorra	<b>HONDAKINEN INGURUKO PARTE HARTZEKO PROZESUA</b>	Hondakinak biltzeko sistema berria definitzeko eta ezartzeko.	1. fasean: 150 lagun inguru 2. fasean: 700 lagun inguru 3. fasean, Jarraipen Batzordean: 6 lagun (3 ♀, 3 ♂)	2013ko otsailetik aurrera	✓
Garapen iraunkorra	Ingurumen Plana (Agenda 21a)	Agenda 21aren barruan, datozen urteetarako Udalak ingurumen-arloan jorratu behar dituen lan-ildoak zehazten eta adosten laguntzeko.	Talde Eragilean: 7 lagun (3 ♀, 4 ♂) Herri-batzarrean: 10 lagun (4 ♀, 6 ♂)	2014an zehar	✓

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Haurrak/gazteak/ adinekoak eta Bizikidetzak	Gaztien herrixe, moiu ipurdixe	Gazteen behar eta arazoen berri jasotzeko eta herriko ekimenetan gehiago parte hartzeko aukerez jarduteko. Bereziki landu zen gazte-lokalen gaia.	Talde Eragilean: 13 lagun (10 ♀, 3 ♂) Elkarrizketetan: 333 lagun (187 ♀, 146 ♂) Topaketetan: 23 lagun (20 ♀, 3 ♂)	2013ko abendutik 2014ko ekainera	✓
Kultura	Musikagune berria	Musika-eremuko eragileekin elkarlanean, Musikagune berria diseinatu eta martxan jartzea. Helburua zen azpiegituren beharrei erantzuna ematea, baina, horrekin batera, taldeen arteko harremanak trinkotzea, elkarlana eta harremanak sendotzea.	15 lagun (6 ♀, 9 ♂)	2013an eta 2014an zehar	✓
Parte hartzeko sistema	Praktika-komunitatea	Udalaren barruan parte-hartzean oinarritutako kudeaketa-eredua ezartzeko, udal-administrazioa modernizatzeko eta Udalaren kudeaketa herritarrei irekitzeko.	10 lagun (7 ♀, 3 ♂)	2013ko azarotik aurrera	...
Mugikortasuna	Urbanue autobusa	Herriko autobusaren ezaugarriak (ibilbideak, maiztasunak, ordutegiak...) herritarren beharretara ahalik eta ondoen egokitzeko.	1. bileran: 31 lagun (13 ♀, 18 ♂) 2. bileran: 11 lagun (5 ♀, 6 ♂)	2013an eta 2014an	✓

# DANON HERRIXE

## Noiz

2012tik aurrera urtero. 2014an, urritik abendura

## Parte-hartzaileak

Parte-hartzaileak 2013an, bileretan: 42 lagun (20 emakumezko, 22 gizonezko)

Parte-hartzaileak 2014an: ekarpenak egiten, 113 lagun; bileretan, 30 lagun (12 emakumezko, 18 gizonezko); bozketan, 749 lagun

partaidetzazko  
aurrekontuak



**L**ehen aldiz 2012n jarri zen martxan “Danon herrixe” prozesua, eta 2013ko udal-aurrekontuen aitzakian, azkoitiarrek herri-ereduaz hitz egin zuten, etorkizunean nolako herria nahi zuten hausnartu eta proposatu zuten. Harrezkero, 2013. eta 2014. urte amaieretan ere antzeko prozesuak egin ziren, ahal zen neurrian urtero hobekuntzak sartuta.

2014ko aurrekontuei begira, 2013an arloka egin ziren bilerak (kultura, euskara, merkataritza eta gizarte-zerbitzuak), Udalaren proposamena eragile eta herritarrekin kontrastatzeko eta ekarpenak jasotzeko. Horiez gain, saio orokor bat egin zen herritarrekin, eta saio guztietan herritarrek lehentasunak ezarri zituzten hirigintza eta ingurumeneko proiektu batzuetan 2014rako. Horietatik, Gobernu Taldeak proposamen batzuk sartu zituen 2014ko aurrekontuetan (Xabier Munibe ikastolako arrapala egitea, airearen kalitatea aztertzeko baliabideak...); beste proiektu batzuk, berriz, ez zituzten sartu hainbat arrazoi zirela medio, baina mahai gainean geratu ziren, hurrengo urteetan heltzeko (besteak beste, baratze-parkea sortzea,

txakurrentzako gunea sortzea...). Nahi edo espero baino herritar gutxiagok hartu zuten parte prozesuan, eta hurrengo urterako, herritar gehiagorengana iristeko, beste bide batzuk jorratzea aurreikusitakoak zuten.







2015eko udal-aurrekontuei begira, 2014an bi erronka nagusi ezarri zituzten: ahalik eta herritar gehienengana iristea eta horien erabakimena handitzea. Horrela, aurreko urteetan ez bezala, 250.000 euroko diru-partida bat jarri zuten herritarren esku, azkoitiarrek beraiek hautatzeko zertan erabili nahi zuten. Prozesuaren hasieran, Udalak diptiko bat banatu zuen etxe guztietara, eta hori izan zen herritarren proposamenak jasotzeko euskarri nagusia. Erantzunak biltzeko, kutxak jarri zituzten udal-eraikinetan eta auzoetako taberna eta elkarteetan, eta sare sozialen bidez ere egin zitezkeen proposamenak. Guztira 113 proposamen jaso zituzten. Ondoren, Udalak aztertu egin zituen, eta horietatik bideragarriak hautatu eta aurkeztu zituen, hamaika guztira. Azkenik, azaroan bilera orokor bat egin zuten eta bertan herritarrek bozkatu egin zituzten hurrengo urterako proiektuak.

Halaber, Internet bidez botoa emateko aukera ere izan zuten azkoitiarrek, astebeteko epean. Horrela, guztira 749 lagunek eman zuten botoa, horietatik 90ek ohiko papera erabilia eta 659k Internet bidez. Zehazki, azkoitiarrek proiektu hauek hautatu zituzten: liburutegi ondoko plaza estaltzea, baserri-bideak konpontzeko partida indartzea eta bi tenis-pista berritzea.

Partaidetzazko aurrekontuen prozesua “Danon Herrixe”-rekin abiatu zen 2012an, eta sendotu egin zen. Prozesu honi esker, gardentasun-politika praktikara eraman zen, eta udal-aurrekontuen inguruko informazio gardena eman zen (udal-gastuen banaketa, Udalaren zorraren eta inbertsio-ahalmenaren bilakaera, herritarrekin hartutako konpromisoen eta aurrekontuaren betetze-maila...). Bestalde, balio izan zuen Udalak (hautetsiek, teknikariek...) sektorekako ohiko lanen berri emateko eta lan horiek aurrekontuetan duten eraginaren inguruko pedagogia egiteko. 2014ko prozesuarekin herritarren erabakitzeko ahalmena handitu egin zen eta erantzuna oso ona izan zen: ekarpen asko jaso zituzten eta bozketan herritar askok hartu zuten parte.

Bidea luzea da, hala ere, eta bazeuzkaten aurrera begirako erronkak: aurrekontuen inguruko pedagogia egiten asmatzea, prozesua eraginkorra izatea eta herritar, politikari eta teknikarien inplikazioa handitzea, demokrazia zuzenean aurrerapausoak ematea eta herritarrei erabakitzeko ahalmena eskaintzea eta bistaratzea, proposamenak egiteko motibatzea eta udal-aurrekontuetan herritarrek parte hartzeko kultura handitzea, besteak beste.

# HONDAKINEN INGURUKO PARTE HARTZEKO PROZESUA

## Noiz

2013ko otsailetik aurrera, hainbat fasetan. 1. fasea: 2013ko otsailetik ekainera. 2. fasea: 2013ko azarotik 2014ko uztailera. 3. fasea: 2014ko uztailetik aurrera.

## Parte-hartzaileak

1. fasean: 150 lagun inguru
2. fasean, bi bileratan: 200 lagun inguru. Gizarteratzeko bileretan: 500 lagunetik gora.
3. fasean: Udaleko Jarraipen Batzordean, 6 lagun (3 emakumezko, 3 gizonezko)

garapen  
iraunkorra



**H**ondakinak biltzeko sistema berria erabakitzeko eta ezartzeko, bide luzea egin zuten Azkoitiko Udalak eta herriak. Prozesu mardula izan zen, hainbat fase eta gorabehera izan zituena.

Lehen fasean, 2013ko otsaila eta ekaina artean, bilera irekiak egin zituzten herritarrekin eta eragileekin, Azkoitiko bilketa-sistemaren ezaugarriak eta baldintzak adosteko. Horrela, lehen bileran, Azkoitiko eta eskualdeko datuak aurkeztu zituzten, eta gaikako bilketa-frakzioen inguruko informazioa zabaldu zuten; bigarreanean, Gipuzkoak hondakinak kudeatzeko zeukan estrategia eta plana aurkeztu zieten herritarrei; hirugarrenean, Gipuzkoako herrietako bilketa-eredu desberdinak eta horiekin loturiko emaitzak azaldu zituzten; laugarrenean, Azkoitiko bilketa-ereduaren inguruko datu ekonomikoak landu zituzten; eta, azkenik, bosgarren bileran, emandako informazio guztia laburtu eta Azkoitian hondakinak biltzeko ereduak bete beharreko baldintzak adostu zituzten.

Bigarren fasean, 2013ko azarotik 2014ko uztailera, helburu nagusia Azkoitiko bilketa-sistema adostea izan zen. Horretarako, hasteko, eragileekin hainbat bilera egin zituzten, eta amaieran bi bilera ireki, 2014ko apirilean, erabakiaren berri herritarrei emateko. Halaber, 2014ko maiatzean, bilerak egin





zituzten eredu berria ezagutarazteko, eta berriaz aritu ziren sektore batzuetako kideekin: tabernariak, elkarteak, merkatariak... Bilketarako, eredu mistoa aukeratu zuten: organikoa txipen bidezko edukiontzietan jasotzea eta erreusa atez ate.

Hirugarren eta azken fasean, berriz, bilketa-sistema berria abian jarri zen, 2014ko uztailean, eta Udaleko lantalde batek hartu zuen segimendua egitekoa ardura.

Hondakinen gaiak eztabaida eta kezka handia sortu zuen, eta herritarren parte-hartzea ezinbestekoa izan zen, informazio teknikoa eta ikuspegi ezberdinak mahai gainean jarri eta elkarrekin bidea egiteko (Udalak eta herritarrek); parte hartzeko tresna ezberdinak erabili ziren momentu bakoitzean: lantaldea, bilera irekiak, Jarraipen Batzordea... eta guztiekin pausoak eman zituzten helburuak eta aldaketak adosteko.

Hondakinen Mahaiaren parte hartu zuten herritar eta talde eragileetako kideek lan izugarria egin zuten hondakinen kudeaketan aurrerapausoak emateko. Hasierako helburuak ia erabateko adostasuna lortu ondoren, sistema erabakitzeko prozesuan ere malgutasunez jokatzeko eta adostasunetara iristeko gai izan ziren eragileak, nahiz eta kasu horretan adostasuna ez zen erabatekoa izan eta talde batek prozesutik kanpo gelditzea erabaki zuen.

Prozesu emankorra izan zen eta emaitzak hori erakutsi zuten: gaikako bilketak igoera nabarmena izan zuen eta helburuak, hasierakoak, gainditu egin zituen. Udalak bereziki eskertu nahi izan zuen prozesuan zehar parte hartu zutenek eta herritarrek bertan egindako ahalegina, eta talde eragileekin eta herritarrekin batera gaiari jarraipena emateko konpromisoa hartu zuen.



# Azpeitia



Azalera: 69,4 km<sup>2</sup>

Biztanleak: 14.580, azpeitiarrak

Udalbatzarraren osaera:

**Bildu** (11), EAJ-PNV (5)

eta Hamaikabat (1)

Parte-hartzearen ardura

**ENEKO ETXEBERRIA BEREZIARTUA**  
(alkatea)



[www.azpeitia.net](http://www.azpeitia.net)





**Herritarrak parte hartzen Azepeitan:**

Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Partaidetzako aurrekontuak	<b>AURREKONTUAK DENON ARTEAN 2014</b>	2014ko aurrekontuak osatzeko, herritarrek beharrezkotzat jotzen zituzten gaiak eta arazoak entzuteko Udalak.	730 lagun	2014ko urtariletik otsailera	✓
Partaidetzako aurrekontuak	Denon Artean 2015	2015ko aurrekontuak osatzeko, herritarrek beharrezkotzat jotzen zituzten gaiak eta arazoak entzuteko Udalak.	...	2014ko azarotik abendura	...
Hirigintza eta Herri-galdeketa	<b>PLAZA DENON ARTEAN</b>	Herriko plaza eraberritzea erabaki zuen Udalak eta herritar guztiena izanik, herritarren iritzi eta ekarpenak jasotzeko galdeketa egin zuten.	Bozketan: 3.573 lagun	2014ko ekainean	✓

# AURREKONTUAK DENON ARTEAN 2014

**Noiz**  
2014ko urtariletik otsailera

partaidetzako aurrekontuak



**Parte-hartzaileak**  
Udalaren izenean: 6 lagun (2 emakumezko, 4 gizonezko)  
Herritarrak: 700 herritar baino gehiago



Lehen aldiz 2011n egin zuten “Denon artean”, 2012ko udal-aurrekontuak lantzeko, eta harrezkero urtez urte egin dituzte partaidetzako aurrekontuak Azepeitan.

Prozesu honen bidez, Udal Gobernuak herritarrekin konpartitu nahi izan zuen Azepeitiaren etorkizunerako zeukan bide-orrria, eta beste helburu zehatzago batzuk ere bete nahi izan zituen: herritarren beharrei erantzuteko aurrekontuak osatzea, Udal Gobernuaren asmoen berri herritarrei zuzenean ematea, udal-politikan gardentasunaren alde urrats eraginkor bat gauzatzea, eragile eta herritarren ekarpenak jasotzea...

Partaidetzako aurrekontuen prozesuan, hainbat langune erabili zituzten, horietako batzuk parte hartzeko ordenantzan aurreikusiak, gainera; esaterako, Herri Kontseilua edo herriko batzar zabala baliatu zen prozesuaren emaitza aurkeztu eta azken ekarpenak jasotzeko. Baina prozesua garatzeko oinarriko guneak, ohi bezala, auzoetako eta arloetako batzarrak izan ziren, eta bereziki aipagarria izan zen udal-langileekin egindako batzarra. Hona hemen batzar horien xehetasunak:



- **Auzoetako batzarrak** (13 guztira)

Eremu bakoitzeko beharren inguruan hausnartu zuten. Udalak proposatutako obra eta hobekuntzei lotuta gehienetan, baina bestelako gaiak ere atera ziren. Ekarpene asko egin zituzten herritarrek, horietako asko eguneroko gauza txikiei lotuak, konponbide erraz eta azkarra izan zezaketena.

- **Arloetako batzarrak** (10 guztira)

Arlo bakoitzeko gaiaren inguruko hausnarketak egin ziren. Guztietan uneko egoera aztertu eta etorkizunerako aterabideak zehazten aritu ziren.

- **Langileekin batzarra**

Udal-langileak lan-esparruaren arabera bananduta egin zen. Horrela, udal-teknikariak ere parte hartzeko prozesuaren parte izatea bermatu eta beren iritzi nahiz ekarpeneak jaso nahi izan ziren. Langileek oso ondo hartu zuten egitasmoa.

Guztietan ere, antzeko pausoak eman zituzten: hasteko, Denon Artean prozesua aurkeztu zuten; gero, Udalak 2014rako zituen proiektuak aurkeztu zituen, gaiaren inguruko eztabaida sustatu eta ekarpeneak jasotzeko; azkenik, batzar guztietan parte-hartzaileen balorazioak jasotzeko, galdetegiak erabili zituzten.

Komunikazioaren arloan, esfortzu berezia egin zen, gardentasunaren mesedetan. Horrela, adibidez, [www.denonartean.net](http://www.denonartean.net) webgunearen bitartez, edozein herritarrek prozesuaren gaineko informazio zehatza jasotzeko aukera izan zuen. Batzarretarako, komunikatzeko bide desberdinak erabili ziren, deialdiak egiteko eta prozesuaren informazioa herritarrei helarazteko. Horiez gain, aurrez aurreko harremanei garrantzi berezia eman zieten, eta arloz arloko eragileekin zuzenean hitz egin zen. Bestalde, Udalaren web-gune, aldizkari eta kartelen bidez egin ziren komunikazio-lanak.

Horrela, batzarretatik, bileretatik eta webgunetik jasotako ekarpeneak kontuan hartuta, Udalak aurrekontuen proposamena egin zuen eta Herri Kontseilura eraman zuen, eta herritarrek azken iritziak emateko aukera izan zuten. Azkenik, alderdi bakoitzaren ideia eta iritziak eztabaidatu ondoren, Azpeitiko Udaltzatza 2014rako udal-aurrekontua onartu egin zuen.

Prozesu honek partaidetzazko aurrekontuak sendotzea ekarri zuen. Parte hartzeko eredia praktika bidez gizarteratzeko urrats handia eman zen, herritarrek eta eragileek ekarpene ugari egin zituzten. Gainera, Udalak aurrera eraman nahi zituen proiektuekiko herritarren onespina lortu zuen, eta hainbat proiektu egokitu eta hobetu ziren herritarren ekarpenei esker. Azkenik, hasieran aurreikusten ez ziren egiteko txiki ugari ere bildu ziren, horietako asko erraz eta azkar egiteko modukoak.

Batzarretako giroa ona izan da, eta zerbait azpimarratzekotan, herritarrek erakutsitako jarrera eraikitzailea nabarmendu nahi izan zuten. Herritarren balorazioari dagokionez, parte-hartzaileek oso ondo baloratu zituzten batzarrak, eta guztiek aipatu zuten Udalak batzarrean gardentasunez jokatu zuela.

# PLAZA DENON ARTEAN

Noiz  
2014ko ekainean

Parte-hartzaileak  
3.573 lagun

herri-galdeketa



hirigintza



**H**erri gehienetan, herriko plaza herriaren bizigunea izaten da, eta bertan izaten dira herriko gertaera eta ekitaldi nagusiak, bertan elkartzen dira herritarrak pozak ospatzeko eta nahigabea adierazteko, eskaerak aldarrikatzeko... Azepeitiko plaza ere bilgunea izan da mende askotan: azepeitiarren topaleku nagusi, bertan egin direlako azokak, feriak, festak eta bestelakoak. Azepeitia biziaren erakusle da plaza, azepeitiarren izaeraren isla, eta horregatik da

oso garrantzitsua. Aspaldikoa da, eta nekea ere nabari zitaion, ordea: zaharkituta zituen gune batzuk (kioskoa, komun publikoak...) eta bizitasuna ere itzalduta samartuta zuen azkenaldian. Horregatik, horri buelta eman eta berritu, indartu eta eguneratu egin nahi izan zuen Udalak. Herriko plaza bizia, dinamikoa eta gaurkotua izateko, azepeitiarren topaleku-izaera berreskuratu eta indartzeko.

Hori guztia, ordea, Udalak herritarren elkarlanean egin nahi izan zuen. Azepeitiarren eskutik, euren iritzia kontuan hartuta, denen artean erabaki zuten nolako plaza egin. Baina beste pauso bat ere eman nahi izan zuen Udalak, eta herri-kontsultaren tresna erabili.

Hasteko, Udalak aukera eman zien herriko hainbat arkitekto plaza berritzeko proiektuak egiteko, eta proiektu horietatik hiru aukeratu zituzten udal-teknikari eta -hautetsiek. Proiektu horiek oinarritzkoak ziren, ez zeuden garatuta, herritarrek gutxi gorabeherako ideia bat egiteko ziren.

Behin hiru proiektuak hautatuta, horien inguruko informazioa zabaldu zieten herritarrei. Udalaren erronka zen ahalik eta azepeitiar gehienek parte hartzea eta horretan ahalegin berezia egin zuen: proiektuen egileek beraiek aurkezpenak egin





zituzten herriko hainbat gunetan; bizilagun, eragile eta elkarteekin bilerak egin zituzten... Informazioa etxe etxe ere banatu zuen Udalak.

Hurrengo urratsa bozketa prestatzea izan zen. Berez, hauteskunderen oso antzekoa izan zen prozesua: hautetsontziak ohiko lekuetan jarri ziren, eta herritarrek hiru egun izan zituzten botoa emateko. Baina berrikuntza nabarmen bat ere izan zen: 16 urtetik gorakoek parte hartu ahal izan zuten.

Herritarrei hiru galdera egin zizkieten kontsulta horretan:

- Plaza oinezkoentzat izatea nahi duzu? Bai/ez.
- Plaza berriak kioskoa izatea nahi duzu? Bai/ez.
- Hiru proiektu hauetatik, zein duzu gustukoena? 1., 2. edo 3. aukera.

Galdeketeren emaitzak, berriz, hauek izan ziren: botoa emateko eskubidea zeukaten 12.099 hautesletatik, 3.573 lagunek eman zuten botoa (% 29,53k). Horietatik, gehienak plaza oinezkoentzat izatearen alde agertu ziren (2.360 boto, % 66); halaber, herritar gehienek kioskoa mantentzearen alde egin zuten (2.132 botok, % 59,67k); azkenik, 2. aukerak lortu zituen boto gehien (1.545, % 43,24), baina boto bakarreko aldea besterik ez zion atera 1. aukerari (1.544 boto, % 43,21).

Hortik Aurrera, Jarraipen Batzordea sortu zen, proiektu irabazlea aztertzeko eta zehaztapen tekniko gehiago egiteko. Batzordea erabat irekia izan zen, nahi zuten herritarrek parte hartzeko aukerarekin.

Prozesua oso ondo baloratu zuen Udalak, lehen aldiz egin zelako kontsulta, herritarrei iritzia adierazteko aukera eman zitzaielako eta askok parte hartu zutelako. Hala ere, zer hobetuak ere ikusi zituzten hurrengorako; adibidez, jende gehiagok parte hartzea.





# Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza

[www.gipuzkoaherritarrekin.net](http://www.gipuzkoaherritarrekin.net)

**ARANTZA RUIZ DE LARRINAGA OLAIZOLA**

Herritarren Partaidetzarako zuzendaria  
Gipuzkoako Foru Aldundia



Herritarrak parte hartzen Gipuzkoan:

Departamentua	Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Diputatu Nagusiaren Kabinetea	Partaidetzazko aurrekontuak	<b>KONTUAK GARBI</b>	Aldundiak 2012rako zeukan aurrekontua aurkezteko gipuzkoarrei, eskualdez eskualde 10 saio eta sektoreka beste 8.	1.100 lagun, 400 eragile	2011ko azaroan	✓
Diputatu Nagusiaren Kabinetea	Partaidetzazko aurrekontuak	<b>AURREKONTUAK HERRITARREKIN</b>	Hiru faseko ekimena: lehenengoan, Gobernu Programa eta legegintzaldiko lehentasunak azaltzea; bigarrenean, 2013ko aurrekontuak landu aurretik, zerga-politika eta politika soziala aurkeztea; azkenik, 2013ko aurrekontu-proiektua aurkezteko bilera-sorta.	1.600 lagun inguru	2012ko ekainetik urte amaierara	✓
Diputatu Nagusiaren Kabinetea eta Ogasuna eta Finantzak Departamentua, beste departamentu guztiekin	Partaidetzazko aurrekontuak	<b>ESPERIENTZIA PILOTU BAT DISEINATZEA ETA ONDOREN GARATZEA UROLA ERDIAN</b>	Partaidetzazko aurrekontuak Gipuzkoako eskualde batean garatzeko proposamena lantzea eta ondoren Urola Erdiko bost herritan garatzea.	175 lagun (% 45 ♀, % 55 ♂)	2013ko uztailetik abendura	✓
Diputatu Nagusiaren Kabinetea eta Ogasuna eta Finantzak Departamentua, beste departamentu guztiekin	Partaidetzazko aurrekontuak	<b>PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK LAU ESKUALDE TAN</b>	2013ko esperientzia pilotua aintzat harturik, partaidetzazko aurrekontuak lantzea herritarrek Bidasoaldean, Oarsoaldean, Tolosaldean eta Urola Erdian, eta horietako bakoitzean Aldundiko aurrekontuaren 500.000 € zertan inbertitu erabakitzea.	1.000 lagun inguru	2014ko apiriletik azarora	✓

Departamentua	Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Diputatu Nagusiaren Kabinetea Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza	Parte hartzeko sistema	Gipuzkoako Kontseilua sortzeko hausnarketa- eta erabakitze-prozesua	Elkarrizketa sakonen, ekarpenen eta tailer baten bidez hausnarketa egin zuten Gipuzkoako Kontseiluak izan behar zuen izaeraz eta sorreraz.	Gipuzkoako erakundeetako ordezkari politiko eta teknikoak eta gizarte-eragileak: 140 lagun	2014ko irailetik abendura	✓
Diputatu Nagusiaren Kabinetea Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza eta Komunikazio Zuzendaritza	Herritarrekin harremanak	Herritarrekin herrira	Herritar antolatuekin zein antolatu gabeekin komunikazio zuzena izateko ekimena. Hilero egun osoko bisita egiten da Gipuzkoako herri batera eskualdeak txandakatuta. Ekimena udalekin elkarlanean egiten da.	Herrietako korporazioak, langileak, udalerriko eragile sozial eta ekonomikoak eta herritarrak. 26 herri	2013ko apiriletik aurrera	...
Diputatu Nagusiaren Kabinetea Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza	Parte hartzeko sistema	<b>HERRITARREKIN SAREA</b>	Gipuzkoako udalekin batera eraturako Sarearekin lanean jarraitzea, elkarrekin eta elkarrengandik ikasteko, parte hartzeko kontzeptuak eta ikuspegia lantzeko, informazioa partekatzeko...	100 lagun inguru (% 55 ♀, % 45 ♂)	2012ko martxotik aurrera	...
Gizarte Politika Departamentua	Haurrak/gazteak/ adinekoak	<b>ADINEKOEN ALDEKO MANIFESTUA EGUNERATZEA</b>	Gipuzkoako Adinekoen Manifestua eguneratzea eta ezagutaraztea, Adinekoen Kontseiluaren bidez.	232 lagun (84 ♀, 148 ♂)	2012ko urritik 2014ko azarora	...

Departamentua	Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Mugikortasuna eta Bide Azpiegiturak Departamentua Diputatu Nagusiaren Kabinetea Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza	Mugikortasuna	<b>AUTOBUS-ZERBITZUA HOBETZEKO PROZESUA</b>	Gipuzkoako lau eskualdetan autobus-zerbitzua hobetzeko parte hartzeko prozesua.	1. fasea: 3.305 lagun (1.050 lagun bileretan, 2.255 galdetegi) (% 60 ♀, % 40 ♂) 2. fasea: 1.827 lagun (797 lagun bileretan, 1.030 galdetegi) (% 60 ♀, % 40 ♂) 3. fasea: 519 lagun (285 ♀, 234 ♂)	2013ko uztailetik 2014ko urrira	✓
Ingurumena eta Lurralde Antolaketa Departamentua	Garapen iraunkorra	<b>ENERGIAREN FORU-PLANA</b>	Gipuzkoako eragile guztien artean Energiaren Foru Planaren inguruko akordioa sustatzea.	Barneko prozesuan: 55 lagun Kanpoko prozesuan: 70 lagun (18 ♀, 52 ♂)	Aldundiaren barnean: 2012ko abendutik 2013ko otsailera Kanpoko prozesua: 2014ko urtarriletik 2015eko urtarrilera	✓
Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko Departamentua	Parte hartzeko sistema	<b>SUHILTZAIILEEN ZERBITZUA</b>	Suhiltzaileen Zerbitzuaren egitura, postuen funtzioak eta eguneroko funtzionamendua berriz ere definitzea.	175 lagun (5 ♀, 170 ♂)	2012ko maiatzetik irailera	✓



Departamentua	Alorra	Izena	Laburpena	Parte-hartzaileak	Noiz	Egoera
Foru Administrazioko eta Funtzio Publikoko Departamentua Diputatu Nagusiaren Kabinetea Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritza	Herri-izaera eta Herri-galdeketa	<b>IGELDO: DESANEXIOARI BURUZKO HERRI-KONTSULTA</b>	Igeldoren etorkizunari buruz iritzia ematea igeldotarrek, Igeldo udalerrri izatea nahi zuten edo ez.	Bileretan, aurkezpenetan...: 361 lagun (165 ♀, 196 ♂) Bozketan: 637 boto (335 ♀, 302 ♂)	2013ko uztailetik abendura	✓
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketzarako Departamentua	Garapen iraunkorra	<b>TOKIKO AGENDA 21EN PLANAK BERRIKUSTEKO DIRU-LAGUNTZAK</b>	Jasangarritasunerako herri-planak diseinatu ziren herritarrekin batera.	Hamabi udalerritako herritarrak eta garapen-agentzia bat	2013 eta 2014 artean	✓
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketzarako Departamentua	Garapen iraunkorra	<b>TOKIKO AGENDA 21EN EBALUAZIOA: HERRITARREN PARTE-HARTZEA AZTERTZEA</b>	Urtero egiten den ebaluazio- programaren barruan, herritarrek parte hartzeko mekanismoak, prozesuak... aztertu ziren.	31 udalerritako ordezkariak, 28 lagun (21 ♀, 7 ♂)	2013ko azarotik 2014ko uztailera	✓

# ADINEKOEN ALDEKO MANIFESTUA EGUNERATZEA

## Noiz

2012ko urritik 2014ko azarora

## Parte-hartzaileak

Talde Teknikoan eta Politikoan: 11 lagun (4 emakumezko, 7 gizonezko)

Adinekoen Kontseiluan: 24 lagun (7 emakumezko, 17 gizonezko)

Aurkezpenean: 197 lagun (73 emakumezko, 124 gizonezko)

haurrak/gazteak/  
adinekoak



**G**ipuzkoako Foru Aldundiak 2000. urtean sortu zuen Adinekoen Kontseilua. Partaidetzarako foro bat da eta gizatalde horren eta berarekin erlazionatutako erakundeen eta elkarten iritziak bideratzea du helburu.

Legealdi honen hasieran, Kontseiluak ez zeukan argi bere norabidea. Izan ere, alde batetik, kide ziren elkarteek ez zuten nahi kontsultarako bakarrik egon, baina euren artean ez zegoen partaidetzarekiko planteamendu bateraturik; bestetik, Gizarte Politikako departamentuaren ustez, Kontseiluari ez zegokion adinekoen mugimenduaren koordinazioko gaiak jorratzea, erakundearen eta entitateen esparruak errespetatzeagatik.

Kontseiluaren barruan, lan-eduki komun bat adosteko beharra zegoen aurrera egin ahal izateko, eta, azkenean, erabaki zen Gipuzkoako Adinekoen Manifestua eguneratzea izan zitekeela irtenbidea Administrazioaren eta adinekoen mugimenduko elkarten papera argitzeko, bereizteko eta koordinatzeko. Gizarte Politikako Departamentuaren politikariek eta teknikariek lanari ekin zioten, Adinekoen Kontseiluko kide ziren elkarte

batzuekin batera. 2012ko urritik 2013ko urtarrilera lantalde bat osatu zuten, eta bertan 2001eko Manifestua berrikusi eta testu berria adostu zen. 2013ko urtarriletik otsailera, behin-behineko dokumentua bidali zieten Gipuzkoako adinekoen elkartei, udaletako gizarte-zerbitzuei (politikariei eta teknikariei) eta adineko pertsonak artatzen dituzten osasun- eta gizarte-





zerbitzuei. Horien guztien ekarpenak jaso eta bateratu egin zituzten. 2013ko maiatzean, Gipuzkoako Adinekoen Kontseiluak Manifestua onartu zuen, eta ekainean Aldundiak manifestu berria kaleratu eta jendaurrean aurkeztu zuen. 2013ko urrian, Manifestua bidali zieten elkarteei, udalei, adineko osasun- eta gizarte-zerbitzuei eta bestelako erakundeei, eta ondorengo hilabeteetan, atxikipenak jaso zituzten. Azkenik, aurkezpenak egiten hasi ziren eskualdez eskualde.

Beraz, prozesu honen emaitza nagusia Adineko Pertsonen aldeko Manifestua izan zen, baina hori eguneratu, ezagutarazi, atxikimenduak bildu eta abar egin bitartean, elkarrizketa, harreman eta ekarpen ugari izan ziren, eta prozesuak balio izan zuen elkar ezagutzeko, lanean jartzeko eta Adinekoen Kontseiluari partaidetzazko izaera handiagoa emateko.

Balorazioari dagokionez, Gizarte Politikako kideen balorazioa erabat positiboa izan zen. Izan ere, eragileen artean testuinguru komun bat finkatzeko eta lanerako konpromisoak adosteko balio izan zuen prozesuak. Hori egin bitartean, gainera, eragileak sentsibilizatu egin ziren zenbait egoerarekiko (adibidez, emakumeen presentzia eta ikusgarritasuna elkarrekin zuzendaritzetan). Egindako lanaren ondorioz, egoera argitu egin zen, Administrazioak eta Adinekoen Kontseiluak konpromiso batzuk hartu zituzten eta elkarteak proposamenak egiten hasi ziren. Horrela, Manifestua baliabide bihurtu zen adineko pertsonak sentsibilizatzeko eta eskualdeetako kontseiluen sorrera sustatzeko, pixkanaka.

Halaber, Gizarte Politikaren izenean parte hartu zutenek prozesutik hainbat irakaspen jaso zituzten, besteak beste: horrelako prozesuak ondo egiteko beharrezkoa dela partaidetzaren inguruko dinamikak ezagutzeko, baita denbora eta baliabideak izatea ere; eta askotan Administrazioako teknikariak ez daudela behar bezala prestatuta horrelako esperientziak aurrera eramateko. Ikusi zuten, baita ere, horrelako esperientziak ondo garatuz gero, partaideen motibazioa eta gaiarekiko inplikazioa nabarmen areagotzen direla, baina gaizki ateraz gero, kontrako eragina lortzen dela eta nekeza dela etorkizunean emaitza txarrei buelta ematea. Azkenik, partaidetza zeharkako balioa izanik, ikusi zuten egoera bakoitzean maila ezberdinetan gauzatu daitekeela eta antolatzaileek ondo diseinatu eta komunikatu behar dituztela prozesu bakoitzaren helburu, garapen, muga, partaideei eskatzen eta eskaintzen zaiena eta bukaeran lorturiko emaitzak.

Amaitzeko, adierazi zuten partaidetzaren bidea batzuetan ez dela erraza, baina merezi duela jorratzea.

# AUTOBUS-ZERBITZUA HOBETZEKO PROZESUA

## Noiz

2013ko uztailetik 2014ko urrira

mugikortasuna



## Parte-hartzaileak

Aldundiaren izenean: Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko zuzendaria, teknikariak eta komunikazio-arduraduna; Herritarren Partaidetzarako zuzendaria; garraio-proiektuak landu zituzten kanpoko aholkulariak eta parte-hartzea dinamizatu behar zuten kanpoko aholkulariak

## Herritarrak:

1. fasean: 3.305 lagun (1.050 lagun bileretan, 2.255 galdetegi beteta) (% 60 emakumezkoak, % 40 gizonezkoak)
2. fasean: 1.827 lagun (797 lagun bileretan, 1.030 galdetegi beteta) (% 60 emakumezkoak, % 40 gizonezkoak)
3. fasean: 519 lagun (285 emakumezko, 234 gizonezko)



**G**ipuzkoa barrualdeko autobus-zerbitzu publikoa Foru Aldundiaren eskumenekoa da, eskualdeka antolatuta, eta Aldundiak enpresa pribatuen esku uzten du, aldian behin berritzen diren emakida edo kontzesioen bidez. Autobus-zerbitzua hobetzeko helburuarekin, kontzesioak berritzea erabaki zuen Aldundiak, 2013-2014an. Ordura arte, teknikarien eta politikarien irizpideen arabera berritu izan ziren,



baina oraingoan oso bestela egin nahi izan zituen gauzak Aldundiak: herritarren iritzia eta ekarpenak kontuan hartuta, udalekin elkarlanean. Horrela, herritarren ekarpenetatik abiatuta, hurrengo urteetarako garraio publikoko zerbitzuak diseinatu zituen. Horretarako, Gipuzkoako hego-mendebalde osoan (lau eskualdetan eta 56 herritan) egin zituen parte hartzeko prozesuak. Hauek izan ziren eskualdeak: Goierrialdea (Goierri eta Urola Garaia, guztira 22 udalerrri), Urola Kosta eta Debabarrena (guztira 17 udalerrri), Debagoiena (guztira 8 udalerrri) eta Buruntzaldea-Tolosaldea (Donostiarekin lotzen zuten zerbitzuak, guztira 9 udalerrri).

Lau eremu geografiko horietan, herritarrek ondorengo hauen gainean egin zituzten ekarpenak: eskualde barruko zerbitzuak, eskualdeen arteko loturak, eskualdea hiriburuekin lotzen zuten zerbitzuak, autobusen maiztasuna, ibilbideak, ordutegiak... Horretarako, 56 herri horietan bilera irekiak egin zituzten, eta sektore jakin batzuetara (esaterako, gazteengana eta adinekoengana) iristeko ahalegin berezia egin zuten. Halaber, genero-ikuspegia ere txertatuta egon zen prozesuan. Herritarrek sare sozialen bidez ere izan zuten ekarpenak egiteko aukera.

Prozesua gizarteratzeko, hainbat bide aurreikusi ziren lehenengo faserako: webgunea eta sare sozialak, e-mail bidezko marketin-ekintzak, bilera-deialdiak egiteko kartelak eta orriak, informazioa eta galdetegia jasotzeko diptikoak (150.000 etxetan banatuak), galdetegia uzteko postontziak udaletxeetan, leku esanguratsuenetan eta Lurraldebuseko autobus guztietan...

Parte hartzeko moduei dagokienez, hiru izan ziren, nagusiki:

1. **Bilera irekiak** herri guztietan. Kasu batzuetan bi ere egin zituzten, eta sektore jakinei zuzendutako bilerak ere bai.



2. **Autobus-egunak**, herritarrekin interakzio zuzena izateko, Aldundia autobusetara igo zen, herritarren iritzia jasotzeko.

3. **Webgunearen** bidez, online.

Prozesuak urtebete pasa iraun zuen, eta tarte horretan lau fase nagusi izan zituen:

- 1. fasea: **herritarren parte-hartzea (lehen itzulia)**, 2013ko urritik azarora. Herritarrekin, eragileekin eta udalekin datuak kontrastatu zituzten, diagnostikoa osatu zuten eta proposamenak jaso zituzten.
- 2. fasea: **idazketa teknikoa**, 2013ko abendutik 2014ko otsailera. Autobus-zerbitzua hobetzeko proiektua idatzi zuen Talde Teknikoak.
- 3. fasea: **herritarren parte-hartzea (bigarren itzulia)**, 2014ko martxo eta apirila artean. Talde Teknikoaren proposamena (aurreproiektua) aurkeztu zieten herritarrei eta hori fintzeko eta aberasteko aukera izan zuten herritarrek eta udalek.
- 4. fasea: **prozesuaren amaiera**, 2014ko maiatzetik urrira. Prozesua baloratu, behin betiko txostena idatzi eta zerbitzu berriaren inguruko informazioa eman zieten parte-hartzaileei eta herritarrei; autobus-zerbitzu berria emateko lizitazioa martxan jartzeko asmotan ziren, zerbitzu berria esleitu eta autobus-zerbitzu hobetua abian jartzeko, 2015eko otsaila-martxo aldera.

Hain prozesu luze eta konplexua aurrera eramateko, egitura edo foro hauek jarri ziren: herritarrekin bilerak edo batzarrak, Talde Eragilea eta Talde Teknikoa.

Kopuruei begiratuta, argi ikusten da prozesua nolakoa izan zen:

- 5.000 herritarrek baino gehiagok egin zituzten ekarpenak; horietatik, % 75 onartu egin zituen Aldundiak.
- Autobus-zerbitzu berriek 5.000.000 kilometro gehiago egingo zituzten etorkizunean (21.000.000 km guztira).
- Garraio publikoan egindako inbertsioa % 36 igo zen eta 57 lanpostu gehiago sortu ziren.

Helburuak betetzeari dagokionez, maila handi batean bete egin ziren, herritarrek ekarpen asko egin zituztelako, eta herritarrek ere oso ondo baloratu zuten.

Balorazioan, Aldundiaren ustez asmatu egin zen komunikazioan, ahalegin handia eginda eta baliabide asko jarrita. Parte-hartzean jarritako giza baliabideak ere ugariak izan ziren, herrietako bilerek ere esfortzu handia eskatu zuten, eta herritarrek biziki eskertu zuten herrietara joatea. Garraioetako teknikariek bileretan parte hartzea oso positiboa izan zen.

Hobetzekoetan, bereziki azpimarratu zuten epeak nahiko justuak izan zirela komunikazioa behar bezala jorrazteko, batez ere hasieran. Azkenik, horrelako prozesu batean, hainbat arlo inplikaturik daudenean (parte-hartzea, komunikazioa, lan teknikoa, lizitazio-prozesuak...), hasieran aurreikusitako epeak betetzeko zailtasunak izan ohi dira. Ikasitakoetan, berriz, azpimarratu zuten parte hartzeko prozesuek beharrezko baliabideak jartzea eskatzen dutela, prozesua ondo eramateko aurrera eta emaitza ona lortzeko.

# ENERGIAREN FORU-PLANA

## Noiz

Barneko prozesuan: 2012ko abendutik 2013ko otsailera;  
Kanpoko prozesuan: 2014ko urtarriletik 2015ko urtarrilera

## Parte-hartzaileak

Barneko prozesuan: foru-departamentu guztiek parte hartu dute (politikariak eta teknikariak), Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak bultzatuta eta koordinatuta: guztira 55 lagun.  
Kanpoko prozesuan: 70 lagun (18 emakumezko, 52 gizonezko)



**E**uropar Batasuneko herrialdeek hainbat konpromiso hartuta dauzkate, besteak beste, hauek: berotegi-efektua duten gasen isuriak % 20 murriztea, kontsumo energetikoa % 20 murriztea eta kontsumitzen den energiaren % 20 energia berriztagarrietatik lortzea. Gurean, energiaren gaian eskumena Estatuko eta erkidegoko erakundeek daukate, baina Aldundiak ere lagun dezake, eta horretarako egin zuen Energiaren Foru Plana, sistema energetiko iraunkor bateranzko trantsizioa errazteko premia lanetan laguntzeko, Europako helburuak lortzeko aktiboki parte hartuta. Aldundiak jakin bazekien bere ekarpena mugatua izango zela, kontuan izanik merkatu energetikoaren dinamika ekonomikoak eta politikoak erraz gaintitzen duela herrialdearen muga, baina gipuzkoarren interes orokor zehatzekin gehiago uztartu nahi izan zuen, energiaren alorrera egokitutako irizpide sozialak, ekonomikoak (publiko nahiz pribatuak) eta ingurumenekoak orekaz bateratuta.

Energiaren Foru Planaren prozesu honen bidez, helburu hauek bete nahi izan zituzten: Planaren edukien berri ematea; eduki horiek kontrastatzea, alderdi politikoekin, erakunde publikoekin, energia sektoreko enpresekin, zentro teknologikoekin,





ikastetxeekin, elkarteekin, herritarrekin oro har, eta interesa zuten eragile guztiekin; ekarpenak Planean jasotzea; lankidetzaz-esparru bat sortzea Planaren edukiak garatzeko, bai egungo bertsioan, bai etorkizunean egingo diren berrikuspenetan; Planak arlo energetikoko bestelako jarduerak nola indartu ditzakeen ezagutzea, bereziki udal-ekintza; azkenik, gizarte gisa Gipuzkoako arazo energetikora hurbiltzeko prozesu bat abian jartzen laguntzea. Funtsean, nahi zena zen Gipuzkoako eragileek bat egitea Foru Planarekin.

Plan hori lantzeko prozesuan, bi fase nagusi bereizi ziren: lehena, Aldundiak barrura begira egin zuena, departamentu guztiekin; bigarrena, kanpora begira, Gipuzkoako eragileekin egin zuena.

Lehen fasean, hasteko, 2012ko azaroan, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako zuzendari nagusiak deialdia egin zien

Aldundiko departamentu guztiei, Plana aurkezteko, kontraste-prozesua irekitzeko eta lehenengo iritzia jasotzeko. Bederatzi bilera egin zituzten, 2012ko abenduaren eta 2013ko otsailaren artean. Gainera, beste bilera eta kontsulta tekniko batzuk egin zituzten Planaren ekintzak ondo zehazteko. Ondoren, 2013ko uztailaren bukaeran, behin betiko dokumentua prestatu baino lehen, epe bat ireki zuten azkeneko iradokizunak jasotzeko.

Bigarren fasean, barruan egindako lana zabaldu egin zieten Gipuzkoako eragileei eta herritarrei. Horrela, hiru fase aurreikusi ziren: lehenean, informazio-fasean, 70 eragilek hartu zuten parte, eskualdeka egindako 5 tailerretan; bigarren fasean, proposamenak egiteko fasean, berriz, parte-hartzea galdetegien eta telefono bidezko elkarrizketen bidez bideratu zen; azkenik, hirugarren fasea, deboluzio/ebaluziorako, 2015eko otsaila aldera egiteko asmoa zegoen, kanpoko eragileak bi saiotan elkartuta. Halaber, otsailerako bi tailer antolatzeko asmoa zeukaten, Azpeitian eta Orendainen, lanean eta etxean energjarekiko (rolaren arabera) izaten diren denboraren banaketa eta jokaerak behatzeko eta ondorioak Planean txertatzeko. Herritarrei begira, parte hartzeko eredu eraginkorra planteatu nahi izan zen, etxeko kaxa elektrikoan gailu bat jarrita parte-hartzaileek kontsumo- eta gastu-iturrien berri jakiteko eta energia-eraginkortasuna eta energia-eredu eraginkor eta jasangarriagorako sentsibilizazioa lantzeko. Ekimen hau 2015ean zehar egiteko asmoa zeukaten, ARGITUZ izenpean. Nolanahi ere, bileretako parte-hartze aktiboaz gain, prozesuan zehar harreman ugari izan ziren eragileekin, eta prozesua zabalik planteatu zen, energia alorreko Gipuzkoako eragileekin etengabeko elkarrizketan.

# HERRITARREKIN SAREA

## Noiz

2012ko martxotik aurrera

## Parte-hartzaileak

Koordinazio Taldean (KTa), eskualde guztietako eta herri txiki, ertain eta handien ordezkariak: 11 lagun (6 emakumezko, 5 gizonetzko)

Tamainako 3 lantaldeetan: 67 lagun (37 emakumezko, 30 gizonetzko)

Beasaingo balorazio-bileran: 33 lagun (19 emakumezko, 14 gizonetzko)

Usurbilgo topaketan: 38 lagun (21 emakumezko, 17 gizonetzko)

Tolosako topaketan: 38 lagun (25 emakumezko, 13 gizonetzko)

Prozesu bateratueta eta trebakuntzan (auzolana): 53 lagun (27 emakumezko, 26 gizonetzko)

parte hartzeko sistema



**2** 012ko urtarrila eta martxoa artean, Aldundiaren ekimenez, Gipuzkoako udalen ordezkariekin Herritarrekin Sarea eratu zen, hiru tailerren ondoren. Sare horren baitan...

- Katea izeneko koordinazio-taldea sortu zen.
- Biztanle-kopuruaren arabera lau lantalde antolatu ziren (“tamainakoak”).
- Berariazko lantaldeak sortu ziren hondakinen gaia eta partaidetzazko aurrekontuak lantzeko.
- Oinarrizko bi ikastaro antolatu ziren herritarren partaidetzaren inguruan.

- Hainbat topaketa izan ziren 2012an eta 2013an: Donostian (Udaletxean), 2012ko ekainean, parte hartzeko esperientzia batzuk ezagutzeko; Hernanin, 2013ko otsailean, tamainako lantaldeek landutako parte hartzeko sistemen berri izateko eta Oscar Rebolloren hitzaldia entzuteko; eta Donostian (Kursaalen), 2013ko ekainean, bertako eta nazioarteko esperientzia batzuk ezagutzeko.
- Webgunea jarri zen martxan.
- ...

Horien guztien ondoren, 2013an eta 2014an lanean jarraitu zuten Sareak, eta, besteak beste, hauek egin edo bideratu zituen:





## 2013an

- 2013an egindakoa baloratzeko eta 2014koaren plangintza egiteko saioa Beasainen. 24 herritako 33 lagunek hartu zuten parte.
- 2013an, Katean hainbat aldaketa izan ziren: ordezkariak (Debagoiena eta Debarrena), Oarsoaldeak eta Bidasoaldeak aparteko ordezkaria izatea (lehen Buruntzaldekoak ordezkatzeko zituen)... 5 bilera egin zituen, 2013. urteko plangintza aurrera eramateko, antolaketa-lanak egiteko, udalei informazioa helarazteko...
- Tamainako hiru lantalde aritu ziren lanean: txikiak (4.000 biztanle artekoak), ertainak (4.000-10.000 biztanle) eta handiak (10.000 biztanletik gora). Talde bakoitzak bere bilerak, erritmoa, gaiak... izan zituen.

## 2014an

- Urtarrilean, Topaketa izan zen, Usurbilen, eta tamainako lantalde bakoitzak 2013an landutakoa aurkeztu zuen. 38 lagunek hartu zuten parte, 21 herritakoak.
- Katean ohiko lanetan jarraitu zuten: 2014. urteko plangintza aurrera eramaten, antolaketa-lanak egiten, udalei informazioa helarazten... 5 bilera egin zituen taldeak.

- Tamainako hiru lantaldeek lanean jarraitu zuten. Talde bakoitzak bere bilerak, erritmoa, gaiak... izan zituen. Guztira, 41 herritako ordezkariak aritu ziren.
- Prozesu bateratuak: batetik, parte hartzeko ordenantzak, herri-kontsultak eta diskurtsoa lantzeko jardunaldia, Donostian; bestetik, parte hartzeko prozesuetan genero-berdintasunaren ikuspegia txertatzeko jardunaldia.
- Auzolanari buruzko jardunaldia izan zen, Alegian.
- Keralara (Indiara) bidaiara egin zuten udaletako bi ordezkariak eta Aldundiko batek, hango esperientzia ezagutzeko; gero, ikusitakoaren eta ikasitakoaren berri eman zuten tamainako lantaldeetan.
- Azaroan, Topaketa izan zen Tolosan, tamainako lantaldeen lana sozializatzeko eta 2015erako plangintza lantzeko. 38 lagunek hartu zuten parte, 24 herritakoak.

Aurrera begira, Sareak lanean jarraitzeko asmoa zeukan.



# IGELDO: DESANEXIOARI BURUZKO HERRI-KONTSULTA

## Noiz

2013ko uztailetik abendura

## Parte-hartzaileak

Herritarrak (bileretan, aurkezpenetan, mahai-inguruetan...):

361 lagun (165 emakumezko, 196 gizonezko)

Herritarrak bozketan: 637 lagun (335 emakumezko, 302 gizonezko)

herri-galdeketa



herri-izaera



Igeldo Gipuzkoaren iparraldean dago, itsasertzean, Orio eta Donostia artean, hegoaldera Usurbil duela. Donostiako herribildua sortu zenean, Igeldo Donostiaren barruan geratu zen, baina beti mantendu izan du kontzeju propioa, parrokia independentea, bere mendien erabilera eta mugarrak, eta errentak ere Donostiatik aparte kudeatu izan ditu. 1845ean, Udalerrien Legearen arabera, Igeldok udalerria osatu zuen, baina oso denbora gutxirako, 1851n Donostiara itzuli baitzen. Hala ere, herri-izaera handikoa izan da beti, eta donostiar ez izatearen sentimendua oso zabalduta eta errotuta egon izan da.

Azken urteetan, ahalegin berezia egin dute igeldotarrek aparteko udalerrri bihurtzeko, eta 1980ko hamarkadan bereziki indartu zen. Izan ere, Donostiako Udalak Igeldon egin nahi zituen aldaketa urbanistiko esanguratsu batzuek egonezina sortu baitzuten igeldotarren artean, uste zutelako Udalak ez zituela kontuan hartzen bertako beharrak. 1990eko hamarkadan, lehenengo Auzolan elkarte eta ondoren Itxas Aurre elkarte sortu zituzten, desanexioaren alde lan egiteko.

Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak inoiz ez zieten erraztasunik eman, baina 2011ko udal- eta foru-hauteskundeen ondoren Bildu Donostiako Udalean eta Aldundian nagusitzeak aukera berriak zabaldu zituen. Ordura arte, berez, Igeldok betetzen zituen desanexiorako baldintza guztiak (bideragarritasun edo aukera sozioekonomikoa, bereizitako herrigunea izatea...), baina epaitegietan kateatuta zegoen aspaldian gaia, ezin aurrera eginik, zailtasun eta helegite ugarekin.



Auzia epaitegietatik kanpo eta herritarrekin konpontze aldera, 2013ko maiatzean Itxas Aurre eta Aldundiaren eskariz eta Donostiako Udalaren adostasunarekin, Auzitegi Nagusiak suspenditu eta probisionalki artxibatu egin zuen Itxas Aurrek egindako errekursoaren tramitazioa, eta ekainean Itxas Aurrek Aldundiari eskatu zion aurreko gobernua 2010ean emandako 6/2010 Foru Dekretua baliogabetzeko eta Igeldo udalerrri berri izendatzeko. Eskaera hori jasota, Aldundiak erantzuteko prozedura martxan jarri zuen eta horren baitan, igeldotarrek zer iritzi zuten jakin nahi izan zuen: herritarren partaidetzarako 1/2010 Foru Arauan oinarrituta, Aldundiak Igeldon parte hartzeko prozesu hau abiatu zuen, amaieran herri-kontsulta izango zuena. Horrela, prozesua bera diseinatzeko, Igeldoko Herri Kontseiluarekin elkarlanean egitea proposatu zion eta halaxe jardun zuten 2013ko uztailetik abendura.

Beraz, helburu nagusia izan zen igeldotarrak Igeldoren etorkizunaren inguruan erabakitzeko prozesuan parte izatea, herri-kontsultaren tresnaren bidez, desanexioaren inguruko iritzia ematea. Funtsean, hiru fase nagusi izan zituen prozesuak: lehena, diseinukoa; bigarrena, informazio eta eztabaidakoa; eta, hirugarrena, herri-kontsultakoa.

Diseinuaren fasean, 2013ko uztailetik irailera, Talde Eragilea sortu zen, eta, besteak beste, hauek landu zituen: azken urteetan gai honen inguruan egindakoa ezagutu, parte hartzeko prozesuko ekintzak diseinatu eta planifikatu, komunikazio-planaren lehen zirriborroa diseinatu, kontsulta-eguna diseinatu... Talde Eragilearekin batera, Koordinazio Taldea ere sortu zen, hauekin: Aldundiko Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko diputatua, Diputatu Nagusiaren Kabineteko arduraduna, Herritarren Partaidetzarako zuzendaria eta Igeldoko Herri Kontseiluko ordezkariak. Talde honen helburua izan zen prozesua koordinatzea, segimendua egitea eta beharrezko

egokitzapenak proposatzea. Azkenik, fase honetan, asmoen berri emateko, Talde Eragileak bi bilera berezi egin zituen: bata, Donostiako Udaleko ordezkari politikoekin (EH Bildukoak baino ez ziren joan, guztiak gonbidatuta egon arren); bestea, Igeldoko Herri Batzarraren aurrean.

Informazioaren eta eztabaidaren fasean, 2013ko urritik azarora, helburu nagusia izan zen herri-kontsultaren aurretik igeldotarrek desanexioaren inguruko gaiak informatu, hausnartu eta eztabaidatzea, eta, horretarako, hainbat mahai-inguru, bilera ireki eta sektorekako bilerak egin zituzten. Halaber, Igeldoko etxe guztietara banatu zen prozesuaren eta desanexioaren inguruko informazioa, betiere azaroan egin beharreko herri-kontsultari begira.

Azken fasean, herri-kontsulta egin zen, 2013ko azaroaren 10ean. Botoa emateko eskubidea izan zuten Igeldon bizi ziren herritarrek (irailaren 30a baino lehen barruti horretan erroldatuak) eta azaroaren 10a baino lehen 16 urte bete zituztenek; botoa posta bidez emateko aukera ere egon zen, eta galdera honi erantzun behar zioten igeldotarrek: “Igeldo udalerrria izatea nahi duzu?”; erantzunak, berriz, bi aukeran: “Bai” edo “Ez”. Eskubidea zuten igeldotarren % 72,1ek eman zuen botoa kontsultan (883k erroldatik 637k); horietatik, % 61,38k (391 lagunek) baiezkota erantzun zuten, Igeldo udalerrria izatea nahi zutelara; % 36,73k (234 lagunek), berriz, ezezkoa.



# PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK

## Noiz

2012ko urritik 2014ko azarora

## Parte-hartzaileak

Kontuak garbi (2011): 1.100 herritar inguru, 400 eragile inguru

Aurrekontuak herritarrekin (2012): 1.600 lagun inguru

Esperientzia pilotua Urola Erdian (2013): 160 lagun (73 emakumezko, 87 gizonezko)

Lau eskualdetan (2014): 466 lagun (190 emakumezko, 276 gizonezko)

partaidetzazko  
aurrekontuak



**2**011n gobernu-aldaketa izan zenetik, urtez urte aurrerapauso nabarmenak eman ditu Aldundiak kontuak eta aurrekontuak herritarrei erakusteko eta herritarrekin batera lantzeko. Nolabait esateko, benetako partaidetzazko aurrekontuetara ailegatzeko bidean eskailera-mailak igotzen joan zen, noizbait erantzunkidetasunera iristeko.

2011n, "Kontuak garbi" izeneko egitasmoarekin, 2012ko aurrekontu-proiektua aurkeztu zien Aldundiak gipuzkoarrei, eskualdez eskualde, eta ahalegin berezia egin zuen Aldundia herritarrengana hurbiltzeko eta asmoen berri zuzenean emateko.

2012an, berriz, beste pauso bat eman nahi izan zuen, eta hiru urratsez osatutako ekimena jarri zuen abian. Lehen urratsean, ekainean, Gobernu Programa eta legegintzaldiko lehentasunak aurkeztu zizkien herritarrei, eragileei eta Aldundiko langileei, 11 aurkezpenen bidez (bat orokorra, Pasaiako Zirizan, eta besteak eskualdez eskualde); bigarren urratsean, uda ondoren,

2013ko aurrekontuak landu aurretik, Aldundiak lehentasunezkoztat jo zituen bi gai landu zituen: zerga-politika eta politika soziala; azkenik, 2013ko aurrekontu-proiektua







aurkezteko bilerak egin zituen Aldundiak, eskualdez eskualde, eta lehenengo fasean jasotako ekarpenen inguruan ere aritu ziren. Horrela, herritarrei asmoen berri emateaz gain, iritzia ere eskatu zien.

2013an, eskaileran beste maila bat igo nahi izan zuen partaidetzazko aurrekontuetan: asmoen berri eman eta kontsultatzeaz gain, erabakitzeko ahalmena ematea herritarrei, hau da, aurrekontuaren zati bat zertan erabili nahi zuten aukeratu ahal izatea herritarrek. Horretarako, esperientzia pilotu

bat jarri zen martxan Urola Erdian, uztailetik abendura bitartean, bost herrirekin: Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil eta Zestoarekin. Aldundiko aurrekontutik 500.000 euro zertan inbertitu erabakitzeko ahalmena eman zieten herritarrei, betiere, Aldundiaren konpetentzien baitan eta eskualde ikuspegia landuz. Herritarren ekarpenak eurekin egindako lan-saioetan, zuzenean nahiz idatziz jaso ziren, baita Internet bidez ere. Herri bakoitzean herritarrekin bilera bana egin zen, eta eskualde mailako beste bi bilera, partaidetza eta eztabaida sustatzeko eta erabakiak hartzeko. Guztira 160 lagunek hartu zuten parte.

Azkenik, 2014an, esperientzia pilotukoa aintzat harturik, Aldundiak are gehiago hedatu nahi izan zituen partaidetzazko aurrekontuak Gipuzkoan eta lau eskualdetan gauzatu zituen: Bidasoaldean, Oarsoaldean, Tolosaldean eta Urola Erdian. Horrela, biztanleek 2015erako aurrekontuaren 2.000.000 €-rekin zer egin erabaki ahal izan zuten. Lehenik eta behin, informatzeko eta sentsibilizatzeko lanak egin ziren. Prozesuan hainbat eragile txertatu ziren eta lan-maila ezberdinak egon ziren: eragile instituzionalak (Foru Aldundia eta eskualdeetako udalak), eragile teknikoak (Aldundiko sailak), herritarrak (bizilagunak, elkarteak, kolektiboak...) eta Batzar Nagusietako taldeetako ordezkariak. Prozesua apirilean hasi zen eta azaroan amaitu, eta herritarrek hainbat bide izan zituzten aukeran proposamenak egiteko: saioetan, buzoien bidez, postaz, Internet bidez...

Aurrera begira, 2015ean, partaidetzazko aurrekontuak beste eskualdeetara ere zabaltzeko asmoa zeukan Aldundiak.

# SUHILTZAILEEN ZERBITZUA

## Noiz

2012ko maiatzetik irailera

## Parte-hartzaileak

Aldundiaren eta sindikatuen izenean: diputatua, zuzendaria eta 2 ordezkari sindikal (denak emakumezkoak)

Suhiltzaileen Zerbitzukoak: 175 lagun (5 emakumezko, 170 gizonezko)

parte hartzeko sistema



**L**egealdiaren hasieran Aldundian talde berria sartu zenean, oso egoera korapilatsua aurkitu zuen Suhiltzaileen Zerbitzuan. Lan-baldintzen inguruko gatazka zegoen agerian, baina arazoa sakonagoa zen, eta ondorioak zituen zerbitzuaren funtzionamenduan.



Horren aurrean, hasteko, arduradun berriak Zerbitzua osatzen zuten kolektibo guztiekin elkarrizketatu ziren eta ondorioztatu zuten antolamendua aztertu beharra zegoela. Hasieratik garbi izan zuten Zerbitzua berriz definitu behar bazen, ezinbestean Zerbitzua osatzen zuten guztiekin egin behar zutela, horiek zeukatelako ezagutza eta horiek eraman behar zutelako Zerbitzua aurrera.

Beraz, prozesuaren helburu nagusia izan zen Zerbitzuaren egitura, postuen funtzioak eta eguneroko funtzionamendua berriz ere definitzea, eta lanerako, hainbat lantalde osatu zituzten: Talde Eragilea, arduradun politikoen lantaldea eta beste hainbat lantalde (Zerbitzuaren mapa eta osagaiak aintzat harturik: Bai Esan zerbitzuko partaideak, administrariak, suhiltzaileen parke bakoitzeko bat, Zerbitzuaren kudeaketa-arduradunak, sarjentuak eta Zerbitzuaren arduradun politikokoak).

2011n diagnostikoa egin zuten, eta handik abiatuta, Zerbitzua aztertzea eta hobetzeko proposamenak lantzea proposatu zuten, funtsean, Zerbitzuaren egitura, postu bakoitzaren funtzioak eta lanak berriz definitzea eta Zerbitzuaren



funtzionamendua. Horretarako, hainbat gai landu zituzten Zerbitzuko kolektibo guztiekin eta horien hausnarketak landu eta bateratu egin ziren Talde Eragilean. Azken horrek egin zuen amaierako proposamen orokorra eta Zuzendaritzak onartu egin zuen. Azken proposamen hori Talde Eragilean

onartu ondoren, bilera ireki batean aurkeztu zioten Zerbitzu osoari.

Hortik aurrera, lanean jarraitu zuten erabakitakoa martxan jartzen, emaitzak aztertzen eta adostu edo definitu gabe geratutakoak lantzen, etengabe hobetzen joateko helburuarekin, eta betiere langileen parte-hartzea oinarri izanik.

Prozesuaren ondorioz egitura berria adostu zuten, lanpostu bakoitzari zegozkion funtzioak zehaztu eta funtzionamendurako hobekuntzak jaso zituzten. Hasieran ezarritako helburuak bete egin ziren. Parte-hartzea zabala izan zen eta Zerbitzua adostuta definitu zuten. Bakoitzak bere interes partikularrak alboratu eta Zerbitzuaren ikuspegiaren aldeko jarrera nagusitu zen, eta etorkizunean partaidetzaren bidez lan egitea adostu zuten.

Balorazioari dagokionez, oso positiboa izan zen, lan-giroa izugarri hobetu zen eta Zerbitzuan ere eragin oso ona izan zuen: formazioa antolatu eta denei zabaldu zitzaiezen, praktikak hobeto antolatu ziren eta segimendua zuten, arloen inguruko lantaldeak sortu ziren etengabe hobetzeko... Hasieratik ondo finkatu ziren lantzeko arloak eta horrek lagundu egin zuen espektatiba errealistak izaten eta horien betetze-maila ona izaten. Ikasitakoetan, berriz, azpimarratu zuten lan egiteko beste modu bat posible zela. Gatazkarik korapilatsuen ere gainditzea posible dela elkarlanean, denen inplikazioarekin eta errespetuan eta elkarrenganako konfiantzan oinarriturik. Baina prozesua garatu ahal izateko, alde aurretik parte hartzeko baldintzak sortu behar dira, eta kasu honetan, giroa txarra eta mesfidantza hain nabarmenak izanik, hasteko lan-baldintzen inguruko eskakizunei erantzun zieten, eta behin akordioak lortutakoan, parte hartzeko prozesuarekiko konpromisoa ere adostu zuten.



# TOKIKO AGENDA 21AK: DIRU-LAGUNTZAK ETA EBALUAZIOA

## Noiz

2013 eta 2014 artean

## Parte-hartzaileak

Diru-laguntzetan: Gipuzkoako 12 udalerritako herritarrak eta garapen-agentzia bat

Ebaluazioan: 31 udalerritako 28 lagun (21 emakumezko, 7 gizonzko)

garapen  
iraunkorra



**T**okiko Agenda 21ak jasagarritasuna sustatzeko partaidetzako tokiko plangintzak dira, eta horien garapen egokiak herritarrek parte hartzea eskatzen du, bai plangintza zehazteko momentuan, baita plana ezartzean eta segimendua egitean ere.

TA21ari lotutako parte hartzeko prozesuak gauzatzean, denetarik izan da: batzuetan, akats eta hutsuneak izan dira, eta maiz, esperientzia faltagatik edo parte hartzeko egitura sendoak garatzeko borondaterik ezagatik, ez dira egin modu egokian; baina beste batzuetan esperientzia arrakastatsu eta eredu garriak gauzatu dira, eta udalerrri askoren kasuan, TA21a herritarren parte-hartzea sustatzeko lehen saiakera izan denez, parte hartzeko sistemari buruzko ikaskuntza-iturri aberatsa bilakatu da eta partaidetza handiagoko kultura sortzen lagundu du.

Aldundiko Ingurumen Zerbitzua 2002. urtetik ari da TA21 prozesuak sustatzeko hainbat programa garatzen. Azken urteotan TA21ari buruzko politikak ez ditu zuzenean herritarrekin landu, baina ondorengo bi programen bidez gai honi buruzko zenbait urrats eman ditu:

- 2014. urteko ebaluazio-kanpainaren barruan, **“HERRITARREN PARTE-HARTZEA TOKIKO AGENDA 21EAN”** azterketa egin zen.
- TA21ak sustatzeko diru-laguntzen lerroaren bidez, **UDALEN EKINTZA-PLANAK BERRIKUSTEA** finantzatu zen.







Bi programa horiek ez ziren izan parte hartzeko esperientzia zuzenak, baina zerikusia zeukaten herritarrek parte hartzearekin: lehena, parte hartzeko egiturak aztertzeko zen; bestea, berriz, parte-hartzea sustatzeko laguntzak emateko.

Parte hartzeko egiturei dagokienez, TA21ari lotutako partaidetza urtero aztertu zen azken 5-6 ebaluazio-programetan. 2012an, zenbait udalek adierazi zuten TA21etik aparte sortutako parte hartzeko prozesuak jaso eta haien eta TA21aren arteko harremana aztertu beharra zegoela, bestela analisia hankamotz gelditzen zelako. Proposamena aintzat hartu eta horixe egin nahi izan zuten Ingurumen Zerbitzuak, hain zuzen ere, 2013-2014 ebaluazio-programan. Horrela, 2013ko azarotik 2014ko uztailera, herritarrek TA21etan nola parte hartzen zuten aztertu

eta ebaluatu zuten. Horretarako tresna nagusia galdetegi bat izan zen, 26 galderaz osatua eta hiru multzotan egituratua: lehena, herritarrek parte hartzeko mekanismo orokorrak; bigarrena, TA21etan herritarrek parte hartzeko prozesuak eta udalerrietako bestelako parte hartzeko prozesuen arteko koordinazioa; eta, azkena, TA21etako parte-hartzearen berriazko analisia. Guztira 31 udalerri erantzun zituzten galderak, eta horietatik hainbat datu eta ondorio atera zituzten: zein arduratzen zen parte-hartzeaz herriotan eta nork bultzatzen zuen (hautetsiek edo teknikariek), parte-hartzearen eta TA21aren arteko lotura, parte-hartzea bultzatzeko edo bermatzeko tresnak eta baliabideak, jorrotutako gaiak (hondakinak, espazio publikoetako proiektuak, mugikortasuna) eta abar. Esperientziari esker, hobeto ulertu zuten TA21aren eta gainerako parte hartzeko sistemen arteko harremana, eta herriotako parte-hartzearen argazkia atera ahal izan zuten. Halaber, ikasi zuten gaur egun Gipuzkoan herritarren parte-hartzea lantzeko modu anitzak daudela eta horiek kontuan hartu beharra zegoela, askotan TA21ak eta herri-plangintzak egiteko bultzatu nahi izan ziren metodologia itxi eta zurrunik moldatuta.

Diru-laguntzei dagokienez, TA21eko ekintza-planak berrikusteko diru-laguntzen bidez herri-garapen jasangarrirako plangintzen berrikuntza bultzatu nahi izan zen. Herritarren parte-hartzea TA21aren berrikuspenaren ezinbesteko osagaia da eta udalek bide anitz eta interesgarriak jorrotu zituzten hori lantzeko. Plangintzak egiteko, Aldundiak 107.793,89 € zuzendu zituen, eta ondorengo udalerriek eta garapen-agentziak hartu zuten parte: Arama, Astigarraga, Azkoitia, Donostia, Ibarra, Irun, Orendain, Tolosa, Urretxu, Usurbil, Zegama eta Goieki SAK.



# aurkibideak

# HERRIAK AZALERAREN ARABERA

■ Ez dira ageri liburuan

herria	azalera (km <sup>2</sup> )
Arama	1,33
Ikaztegieta	2,00
Altzaga	2,53
Berrobi	2,77
Baliarrain	2,80
Irura	2,99
Belauntza	3,40
Anoeta	4,10
Hernialde	4,17
Ibarra	5,03
Lasarte-Oria	5,40
Ordizia	5,65
Orexa	5,85
Larraul	5,90
Leaburu	5,90
Gaintza	5,96
Orendain	6,40
Aizarnazabal	6,55
Ormaiztegi	6,90
Olaberria	6,92
Aduna	7,00
Alegia	7,59
Urretxu	7,90
Legorreta	8,62
Mutiloa	8,80
Itsasondo	8,94
Gaztelu	9,15
Segura	9,20
Orio	9,80
Altzo	9,80

herria	azalera (km <sup>2</sup> )
Igeldo	10,15
Zerain	10,37
Getaria	10,60
Pasaia	11,00
Abaltzisketa	11,20
Zumaia	11,30
Lazkao	11,40
Alkiza	11,90
Lizartza	12,33
Lezo	12,90
Albiztur	12,90
Bidania-Goiatz	13,37
Soraluze	14,22
Zarautz	14,30
Leintz Gatzaga	14,70
Gabiria	14,88
Zizurkil	15,40
Zaldibia	16,20
Beizama	16,55
Asteasu	16,60
Elgeta	16,90
Astigarraga	17,16
Amasa-Villabona	17,74
Zumarraga	18,20
Amezketza	20,60
Ezkio-Itsaso	21,20
Eibar	22,00
Urnietta	23,00
Usurbil	24,90
Elduain	25,07

herria	azalera (km <sup>2</sup> )
Mendaro	25,40
Aretxabaleta	26,00
Andoain	27,17
Mutriku	27,70
Antzuola	27,90
Hondarribia	28,63
Idiazabal	29,50
Beasain	29,90
Errenteria	31,00
Errezil	32,46
Arrasate	34,20
Zegama	35,07
Tolosa	37,90
Elgoibar	39,20
Eskoriatza	40,40
Legazpi	41,80
Hernani	42,00
Irun	42,80
Zestoa	43,70
Berastegi	45,83
Donostia	51,35
Deba	52,00
Aia	55,27
Azkoitia	55,40
Ataun	58,90
Oiartzun	60,00
Azpeitia	69,40
Bergara	77,05
Oñati	108,20



**HERRIAK BIZTANLE-KOPURUAREN ARABERA**

Iturria: 2014ko Errolda (INE)

**herria biztanle-kopurua tamaina**

Gaintza	120	txikia
Orexa	123	txikia
Baliarrain	130	txikia
Altzaga	165	txikia
Beizama	167	txikia
Gaztelu	171	txikia
Orendain	193	txikia
Arama	217	txikia
Elduain	239	txikia
Leintz Gatzaga	244	txikia
Belauntza	260	txikia
Larraul	260	txikia
Mutiloa	262	txikia
Zerain	263	txikia
Albiztur	327	txikia
Abaltzisketa	329	txikia
Hernalde	350	txikia
Alkiza	373	txikia
Leaburu	373	txikia
Altzo	400	txikia
Ikaztegjeta	464	txikia
Aduna	471	txikia
Gabiria	497	txikia
Bidania-Goiatz	524	txikia
Berrobi	568	txikia
Errezil	594	txikia
Ezkio-Itsaso	609	txikia
Lizartza	640	txikia
Itsasondo	666	txikia
Aizarnazabal	775	txikia

**herria biztanle-kopurua tamaina**

Olaberria	957	txikia
Amezqueta	968	txikia
Berastegi	1.056	txikia
Igeldo	1.072	txikia
Elgeta	1.121	txikia
Ormaiztegi	1.305	txikia
Legorreta	1.468	txikia
Segura	1.480	txikia
Asteasu	1.523	txikia
Zegama	1527	txikia
Zaldibia	1.558	txikia
Irura	1.671	txikia
Ataun	1.700	txikia
Alegia	1.744	txikia
Anoeta	1.893	txikia
Mendaro	1.998	txikia
Aia	2.039	txikia
Antzuola	2.193	txikia
Idiazabal	2.306	txikia
Getaria	2.726	txikia
Zizurkil	2.997	txikia
Zestoa	3.656	txikia
Soraluze	3.991	ertaina
Eskoriatza	4.090	ertaina
Ibarra	4.256	ertaina
Mutriku	5.293	ertaina
Deba	5.450	ertaina
Lazkao	5.465	ertaina
Astigarraga	5.535	ertaina
Orio	5.694	ertaina

**herria biztanle-kopurua tamaina**

Amasa-Villabona	5.888	ertaina
Lezo	6.007	ertaina
Usurbil	6.168	ertaina
Urnietza	6.198	ertaina
Urretxu	6.890	ertaina
Aretxabaleta	6.995	ertaina
Legazpi	8.608	ertaina
Zumaia	9.734	ertaina
Ordizia	9.803	ertaina
Zumarraga	9.950	handia
Oiartzun	9.970	handia
Oñati	11.282	handia
Azkoitia	11.480	handia
Elgoibar	11.488	handia
Beasain	13.812	handia
Azpeitia	14.580	handia
Andoain	14.655	handia
Bergara	14.831	handia
Pasaia	15.929	handia
Hondarribia	16.894	handia
Lasarte-Oria	18.082	handia
Tolosa	18.936	handia
Hernani	19.601	handia
Arrasate	22.052	handia
Zarautz	22.890	handia
Eibar	27.440	handia
Errenteria	39.230	handia
Irun	61.195	handia
Donostia	186.126	handia

# ESKUALDEAK, HERRIAK ETA PROIEKTUAK



Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak

■ Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)

## HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

herria	esperientzia-mota	esperientziaren izena	orrialdea
Abaltzisketa	Parte hartzeko sistema	Etorkizunerako erronkak eta ekintza-plana	239
Abaltzisketa	Sozioekonomia	Herriko lan-hobiak aztertu eta enplegua bultzatu	242
Aduna	Garapen iraunkorra	Agenda 21a: urteroko programazioa	244
Aia	Sozioekonomia	Aia, bizi-iturri	195
Aizarnazabal	Herritarrekin harremanak	Auzoetan bilerak	315
Aizarnazabal	Hirigintza	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra	315
Albiztur	Parte hartzeko sistema	Herri-batzarrak	247
Albiztur	Garapen iraunkorra	Hondakinak kudeatzeko eredu berria	247
Alegia	Garapen iraunkorra	Alegiako baratze-parkea	250
Alegia	Haurrak/gazteak/adinekoak	Alegiako haurren, nerabeen eta gazteen sustapen-sistema	251
Alegia	Sozioekonomia	Alegiako Merkatarien Taldea	249
Alegia	Auzolana	Auzolanak	249
Alegia	Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteentzako asteburuetako aisialdia	249
Alegia	Hirigintza	HAP0a berritzeko prozesua	249
Alkiza	Hirigintza	HAP0a berritzeko prozesua	253
Altzo	Parte hartzeko sistema	Parte-hartzea Altzon 2013an eta 2014an	255
Altzo	Kultura	Olentzero jakin-minez	255
Amasa-Villabona	Parte hartzeko sistema	Ados lan-mahaiak	257
Amasa-Villabona	Garapen iraunkorra	Amasamendiren kudeaketa	258
Amasa-Villabona	Partaidetzazko aurrekontuak	Balorazioa, aurkezpena, 30.000 € (2014)	257
Amasa-Villabona	Partaidetzazko aurrekontuak	Balorazioa, aurkezpena (2015)	257
Amasa-Villabona	Kultura	Jai Batzordea	257
Amasa-Villabona	Parte hartzeko sistema eta Araudiak	Parte hartzea arautzeko ordenantza	259
Amezketza	Hirigintza	Etxebizitza hutsak	261
Amezketza	Haurrak/gazteak/adinekoak	Nerabeen partaidetzarako zerbitzua	264
Andoain	Herritarrekin harremanak	Ataria	23
Andoain	Haurrak/gazteak/adinekoak	Parte hartzeko hariak lotuz, gazteok hartu hitza!	24
Anoeta	Herritarrekin harremanak	Auzoetako egoera	266
Anoeta	Garapen iraunkorra	Auzo-konposta	267
Anoeta	Berdintasuna eta Aniztasuna	Guretzako	266
Anoeta	Garapen iraunkorra	Herri-baratzea	269

Letra lodia Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak  
 Letra normala Liburuko tauletan ageri diren esperientziak  
 ■ Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)

# HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

herria	esperientzia-mota	esperientziaren izena	orrialdea
Anoeta	Kultura	Truke-dinamikak	266
Anoeta	Zerbitzuak	Udal-lokal berrien erabilera	266
<b>Antzuola</b>	<b>Aniztasuna</b>	<b>Elkarbizitza Plana</b>	<b>75</b>
Antzuola	Zerbitzuak	Udal-eraikinen erabilera	78
Arama	Garapen iraunkorra	Agenda 21a berrikustea	127
Arama	Kultura	Festak auzolanean	129
<b>Aretxabaleta</b>	<b>Hirigintza eta Herri-galdeketa</b>	<b>Gernika plazako jolastokia</b>	<b>81</b>
Aretxabaleta	Tokiko plana / plan estrategikoa	Jarri gaitezen	80
<b>Aretxabaleta</b>	<b>Hezkuntza</b>	<b>Pagie ezkurtxotan</b>	<b>83</b>
<b>Arrasate</b>	<b>Berdintasuna</b>	<b>Andredetan</b>	<b>86</b>
<b>Arrasate</b>	<b>Hirigintza</b>	<b>Udal Azoka biziberritzea</b>	<b>88</b>
Asteasu	Kultura	Irakurzaletasuna eta udal-liburutegiaren erabilera	272
<b>Asteasu</b>	<b>Mugikortasuna</b>	<b>Osasun Bidea</b>	<b>272</b>
<b>Asteasu</b>	<b>Garapen iraunkorra</b>	<b>Teoriatik praktikara eta parte-hartzetik aldaketarantz</b>	<b>275</b>
Astigarraga	Hirigintza	Anuska auzoa	26
Astigarraga	Aniztasuna	Astigarragan aniztasuna	26
<b>Astigarraga</b>	<b>Zerbitzuak</b>	<b>Azpiegituren eta zerbitzuen etorkizunaz</b>	<b>27</b>
Astigarraga	Sozioekonomia	Komertzio bizia, herri bizia	26
<b>Astigarraga</b>	<b>Partaidetzazko aurrekontuak</b>	<b>Lehentasunak: 100.000 € zure esku</b>	<b>29</b>
Ataun	Kultura	Kultur dinamikan parte hartzeko herri-ekimena	
Azkoitia	Kultura	Andramaixek	318
<b>Azkoitia</b>	<b>Partaidetzazko aurrekontuak</b>	<b>Danon herrixe</b>	<b>320</b>
Azkoitia	Euskara	Euskara Sustatzeko Ekinntza Plana (ESEP)	318
<b>Azkoitia</b>	<b>Garapen iraunkorra</b>	<b>Hondakinen inguruko parte hartzeko prozesua</b>	<b>322</b>
Azkoitia	Garapen iraunkorra	Ingurumen Plana (Agenda 21a)	318
Azkoitia	Haurrak/gazteak/adinekoak	Gaztien herrixe, moiui ipurdixe	319
Azkoitia	Kultura	Musikagune berria	319
Azkoitia	Parte hartzeko sistema	Praktika-komunitatea	319
Azkoitia	Mugikortasuna	Urbanue autobusa	319
<b>Azpeitia</b>	<b>Partaidetzazko aurrekontuak</b>	<b>Aurrekontuak Denon artean 2014</b>	<b>325</b>
Azpeitia	Partaidetzazko aurrekontuak	Denon Artean 2015	325



Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak

■ Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)

## HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

herria	esperientzia-mota	esperientziaren izena	orrialdea
Azpeitia	Hirigintza eta Herri-galdeketa	Plaza denon artean	327
Baliarrain	Hirigintza	Baliarraingo Plan Orokorra	277
Beasain	Bizikidetza	Gazte-lokalak	133
Beasain	Hirigintza	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra	132
Beasain	Mugikortasuna	Mugikortasuna eta bizikleta, parte hartzeko zikloa	134
Beasain	Partaidetzako aurrekontuak	Partaidetzako aurrekontuen bidean	132
Beizama	Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteen dinamizazioa	
Beizama	Hirigintza	Herriko Plan Orokorra	
Beizama	Garapen iraunkorra	Hondakinak biltzeko sistema berria	
Beizama	Sozioekonomia	Laguntzetako proiektuak aukeratzea	
Beizama	Partaidetzako aurrekontuak	Partaidetzako aurrekontuak	
Beizama	Sozioekonomia	Ur-instalazioak ustiapenetan: laguntzak	
<b>Belauntza</b>	<b>Hirigintza</b>	<b>HAPOa</b>	<b>280</b>
Berastegi	Hirigintza	Herriko plaza oinezkoentzat	282
<b>Berastegi</b>	<b>Kultura</b>	<b>Kultur Etxea Udaletxean</b>	<b>282</b>
<b>Bergara</b>	<b>Zerbitzuak</b>	<b>Azoka Bergaraten</b>	<b>92</b>
Bergara	Kirolak	Kirol Kontseilua	91
<b>Bergara</b>	<b>Aniztasuna</b>	<b>Osintxuko Kulturarteko Plana</b>	<b>94</b>
Berrobi	Hirigintza	Arau Ordezkatzaileak	
Berrobi	Kultura	Festak antolatzea	
Berrobi	Partaidetzako aurrekontuak	Udal-aurrekontuak	
<b>Deba</b>	<b>Garapen iraunkorra</b>	<b>Garapen Jasangarrirako Ekintza Plana (2013-2016)</b>	<b>61</b>
<b>Deba</b>	<b>Herri-izaera</b>	<b>Itziarko auzo-udala</b>	<b>64</b>
Donostia	Herritarrekin harremanak eta Partaidetzako aurrekontuak	Auzo eta herriak Donostia indartzen 2014	117
<b>Donostia</b>	<b>Parte hartzeko sistema eta Araudiak</b>	<b>Demokrazia zuzenaren araudia</b>	<b>118</b>
<b>Donostia</b>	<b>Haurrak/gazteak/adinekoak</b>	<b>Donostia lagunkoia</b>	<b>120</b>
Donostia	Aniztasuna	Jatorri-aniztasuna eta elkarbizitza Donostian	117
Eibar	Hirigintza	Matxaria auzoa Eibartik eta Eibarrerako	
<b>Elgeta</b>	<b>Garapen iraunkorra eta Herri-galdeketa</b>	<b>Hondakinak biltzeko sistema eraginkorrena adostea</b>	<b>97</b>
Elgoibar	Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteen aisialdia	

# HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

herria	esperientzia-mota	esperientziaren izena	orrialdea
Erretereria	Herritarrekin harremanak	Auzo-batzarrak	218
Erretereria	Tokiko plana / plan estrategikoa	Erretereria 2025 Plan Estrategikoa	217
Erretereria	Kultura	Jai Batzordea	219
Errezil	Hirigintza	Arau Ordezkatzaileen berrikuntza	
Eskoriatza	Auzolana	Atxorrotzeko auzolana	100
Eskoriatza	Sozioekonomia	Eskohitza 2013: krisiaren aurrean, zer proposatzen duzu?	100
Eskoriatza	Tokiko plana / plan estrategikoa	Eskohitza 2014. Denona delako	102
Eskoriatza	Kultura	Gaztelu Jaia	100
Eskoriatza	Kultura	Herritarrak epaimahaikide	100
Eskoriatza	Komunikazioa	Komunikazio-ekintzak	100
Eskoriatza	Mugikortasuna	Oinezkoak lehenengo!	105
Eskoriatza	Hirigintza	Santa Mariñe plaza estaltzeko proiektua	101
Eskoriatza	Hirigintza	Torrebasoko haur-parkea	101
Eskoriatza	Araudiak	Udal-bide publikoei buruzko ordenantza	101
Eskoriatza	Kultura	Zaldibar antzokia kudeatzeko proiektua	101
Ezkio-Itsaso	Herri-izaera	Herri-izaera eta herrigintza indartzeko prozesua	137
Ezkio-Itsaso	Auzolana	Itsaso eta Alegiako guneetan elkarlanean	140
Ezkio-Itsaso	Herri-izaera	Itsasoren bideragarritasuna	137
Gaztelu	Herri-izaera	Gazteluren historia, herritarren ahotik	285
Getaria	Auzolana	Getariauzolanean	198
Getaria	Partaidetzazko aurrekontuak	Guztiok bat!	199
Getaria	Herritarrekin harremanak eta Komunikazioa	Udala informatzen	197
Gipuzkoako Foru Aldundia	Haurrak/gazteak/adinekoak	Adinekoen aldeko manifestua eguneratzea	334
Gipuzkoako Foru Aldundia	Partaidetzazko aurrekontuak	Aurrekontuak herritarrekin	344
Gipuzkoako Foru Aldundia	Mugikortasuna	Autobus-zerbitzua hobetzeko prozesua	336
Gipuzkoako Foru Aldundia	Garapen iraunkorra	Energiaren Foru Plana	338

Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak
■	Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)

## HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

herria	esperientzia-mota	esperientziaren izena	orrialdea
Gipuzkoako Foru Aldundia	Partaidetzako aurrekontuak	Esperientzia pilotua diseinatzea eta ondoren garatzea Urola Erdian	344
Gipuzkoako Foru Aldundia	Parte hartzeko sistema	Gipuzkoako Kontseilua sortzeko hausnarketa- eta erabakitze-prozesua	331
Gipuzkoako Foru Aldundia	Herritarrekin harremanak	Herritarrekin herrira	331
Gipuzkoako Foru Aldundia	Parte hartzeko sistema	Herritarrekin Sarea	341
Gipuzkoako Foru Aldundia	Herri-izaera eta Herri-galdeketa	Igeldo: desanexioari buruzko herri-kontsulta	343
Gipuzkoako Foru Aldundia	Partaidetzako aurrekontuak	Kontuak Garbi	344
Gipuzkoako Foru Aldundia	Partaidetzako aurrekontuak	Partaidetzako aurrekontuak lau eskualdetan	344
Gipuzkoako Foru Aldundia	Garapen iraunkorra	Tokiko Agenda 21eko planak berrikusteko diru-laguntzak	349
Gipuzkoako Foru Aldundia	Garapen iraunkorra	Tokiko Agenda 21aren ebaluazioa: herritarren parte-hartzea	349
Gipuzkoako Foru Aldundia	Parte hartzeko sistema	Suhiltzaileen Zerbitzua	346
Hernani	Haurrak/gazteak/adinekoak	Adinekoak eta jarduera fisikoa	32
Hernani	Bizikidetza	Gazte-lokalen erabileraren inguruko prozesua	32
Hernani	Haurrak/gazteak/adinekoak	Gaztetu Hernani	32
Hernani	Hezkuntza	Ikastetxeetako patioen erabilera	32
Hernani	Kirolak	Kirol-espazioak eta -ekipamenduak	33
Hernani	Partaidetzako aurrekontuak	Partaidetzako aurrekontuak	35
Ibarra	Hirigintza eta Herri-galdeketa	Plaza estaltzea	287
Ibarra	Garapen iraunkorra eta Hirigintza	TEPa berrikustea	289
Idiazabal	Komunikazioa eta Herri-mugimendua	Parte-hartzea ahalbidetzeko web-orria	142
Igeldo	Herri-izaera	Armarria eraikiz	40

Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
-------------	---

Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak
---------------	---

■	Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)
---	--

## HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

herria	esperientzia-mota	esperientziaren izena	orrialdea
Igeldo	Auzolana	Auzolana Sindikatuan	39
Igeldo	Euskara	<b>Euskara Batzordea</b>	<b>41</b>
Igeldo	Komunikazioa	Orri informatiboa	39
Irun	Hirigintza	<b>Urdanibia plaza</b>	<b>17</b>
Irura	Herritarrekin harremanak	<b>Auzoz auzo</b>	<b>291</b>
Itsasondo	Auzolana	<b>Auzolan-taldea</b>	<b>146</b>
Itsasondo	<b>Hezkuntza eta Haurrak/gazteak/adinekoak</b>	<b>Itsasondo haurren herria</b>	<b>148</b>
Itsasondo	Herri-izaera eta Parte hartzeko sistema	Lantaldeak	145
Lasarte-Oria	Araudiak	Animalien ordenantza	43
<b>Lasarte-Oria</b>	<b>Aniztasuna</b>	<b>Anitzen Sarea</b>	<b>44</b>
Lasarte-Oria	Kirolak	Kirolaz hausnartzea eta etorkizuneko gakoak identifikatzea	43
<b>Lasarte-Oria</b>	<b>Hirigintza</b>	<b>Tximistarreta parkea</b>	<b>47</b>
Lasarte-Oria	Parte hartzeko sistema	Udala berrantolatzeke proiektua	43
<b>Lazkao</b>	<b>Herritarrekin harremanak</b>	<b>Auzoz auzoko parte hartzeko prozesua</b>	<b>152</b>
<b>Lazkao</b>	<b>Hirigintza eta Herri-galdeketa</b>	<b>Lazkaomendirako oinezkoen pasabidea</b>	<b>153</b>
Leaburu	Herri-izaera	Leaburuko historia herritarren eskutik	
Legazpi	Garapen iraunkorra	Agenda 21eko foroak	156
<b>Legazpi</b>	<b>Hirigintza</b>	<b>Hirigintzako Ondarea babesteko eta zaintzeko Plan Berezia</b>	<b>157</b>
<b>Legazpi</b>	<b>Haurrak/gazteak/adinekoak</b>	<b>Latxartegiko haur-jolasak</b>	<b>159</b>
Legorreta	Euskara	Euskararen Udal Ordenantza	
Legorreta	Komunikazioa	Parte hartzeko gune digitalaren eraketa	
<b>Lezo</b>	<b>Partaidetzazko aurrekontuak</b>	<b>Altamira auzoan</b>	<b>223</b>
Lezo	Berdintasuna	Berdintasun Plana	222
Lezo	Partaidetzazko aurrekontuak	San Pedro-Pysbe auzoan	222
<b>Lizartza</b>	<b>Tokiko plana / plan estrategikoa</b>	<b>Leheneratutako harrobiaren erabilera</b>	<b>293</b>
<b>Mendaro</b>	<b>Kultura</b>	<b>2014ko santanak</b>	<b>67</b>
<b>Mutiloa</b>	<b>Auzolana</b>	<b>Auzolana</b>	<b>161</b>
<b>Mutiloa</b>	<b>Herri-izaera</b>	<b>Zerain eta Mutiloa elkarlanean</b>	<b>187</b>
Mutriku	Garapen iraunkorra eta Herri-galdeketa	Hondakinen bilketa-sistema	
Mutriku	Hirigintza	Portuko Plan Berezia berrikustea	
<b>Oiartzun</b>	<b>Hirigintza eta Mugikortasuna</b>	<b>Altzibar auzoa</b>	<b>229</b>



Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak
■	Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)

## HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

herria	esperientzia-mota	esperientziaren izena	orrialdea
Oiartzun	<b>Partaidetzako aurrekontuak</b>	<b>Aurrekontuak</b>	<b>226</b>
Oiartzun	Garapen iraunkorra	Eskola Agenda 21a	225
Oiartzun	Hirigintza	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra	225
Oiartzun	Kultura	Jai Batzordea	225
Oiartzun	Kultura eta Hirigintza	Kultur Etxeari buruzko tailerra	225
Oiartzun	Trebakuntza	Parte hartzeko prestatzea	225
Oiartzun	Haurrak/gazteak/adinekoak eta Kirolak	Skate-parka	226
Oiartzun	Komunikazioa	Udalaren webguneko parte hartzeko tresnak	226
<b>Oñati</b>	<b>Herritarrekin harremanak</b>	<b>Auzotasuna programa</b>	<b>109</b>
<b>Oñati</b>	<b>Kultura</b>	<b>Eitzia, herri-sormenaren etxea</b>	<b>111</b>
Oñati	Berdintasuna eta Hirigintza	Emakumea eta Hirigintza	108
Oñati	Bizikidetza	Gazte-lokalak	108
Oñati	Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteria Plana	108
Oñati	Kirolak	Kirol Plana	108
Oñati	Mugikortasuna	Mugikortasun Plana	108
Ordizia	Garapen iraunkorra	Atez atekoaren inguruko partaidetza-prozesua	163
<b>Ordizia</b>	<b>Partaidetzako aurrekontuak</b>	<b>Auzoz auzo</b>	<b>164</b>
<b>Ordizia</b>	<b>Euskara</b>	<b>Euskara Plan berria</b>	<b>165</b>
Ordizia	Garapen iraunkorra	Oianguko Talde Eragilea	163
<b>Ordizia</b>	<b>Partaidetzako aurrekontuak</b>	<b>Ordizia zabalik</b>	<b>164</b>
<b>Orendain</b>	<b>Garapen iraunkorra</b>	<b>Agenda 21aren herri-plana berritzea</b>	<b>296</b>
<b>Orendain</b>	<b>Partaidetzako aurrekontuak</b>	<b>2015eko aurrekontuak</b>	<b>298</b>
Orexa	Garapen iraunkorra	Agenda 21a	301
<b>Orexa</b>	<b>Zerbitzuak</b>	<b>Herriko lokalen erabilera berrantolatzea</b>	<b>302</b>
<b>Orexa</b>	<b>Parte hartzeko sistema eta Araudiak</b>	<b>Parte-hartzea arautzeko ordenantza</b>	<b>303</b>
<b>Orio</b>	<b>Herri-izaera eta Hezkuntza</b>	<b>Orioko curriculuma</b>	<b>201</b>
<b>Ormaiztegi</b>	<b>Herri-izaera</b>	<b>400. urteurrena</b>	<b>168</b>
Ormaiztegi	Kultura	Kalean josteko eguna	167
Ormaiztegi	Kultura	Liburutegia	167
Ormaiztegi	Komunikazioa	Sare sozialak	167
<b>Pasaia</b>	<b>Garapen iraunkorra</b>	<b>Hondakinak biltzeko sistema berria Pasai Antxon</b>	<b>232</b>

Letra lodia Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak

Letra normala Liburuko tauletan ageri diren esperientziak

Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)

## HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

herria	esperientzia-mota	esperientziaren izena	orrialdea
Pasaia	Garapen iraunkorra	Hondakinak biltzeko sistema berria Pasai San Pedron eta Trintxerpen	231
<b>Pasaia</b>	<b>Kultura</b>	<b>Pasai San Pedroko gune eta ekipamendu soziokulturalak</b>	<b>233</b>
Segura	Garapen iraunkorra	Atez ateko sistemaren balorazioa eta egokitzapena	170
Segura	Garapen iraunkorra	Auzokonpostaren kanpaina	170
Segura	Auzolana	Auzolana	170
Segura	Parte hartzeko sistema	Batzordeak eta herri-batzarrak	170
<b>Segura</b>	<b>Hirigintza eta Herri-galdeketa</b>	<b>Errebote eraikina: bota edo mantendu?</b>	<b>172</b>
Segura	Berdintasuna eta Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteen arteko indarkeria matxista	170
Segura	Haurrak/gazteak/adinekoak	Gaztelekuaren sorrera	170
Segura	Berdintasuna	Goierriko indarkeria matxistaren aurkako protokoloa	170
Segura	Kultura	Herri-antzerkia: antzerki komikoa	171
Segura	Kultura	Herri-antzerkia: memoria historikoko antzerkia	171
Segura	Euskara	Herriko euskarazko hitzen bildumaren sorrera	171
<b>Segura</b>	<b>Haurrak/gazteak/adinekoak</b>	<b>Herriko txikienekin eraikitzen</b>	<b>172</b>
Segura	Hezkuntza	Herritarrak eskola-komunitatearen parte	171
Segura	Kultura	Jai eta azokak herritarrekin antolatzen	171
<b>Segura</b>	<b>Zerbitzuak eta Haurrak/gazteak/adinekoak</b>	<b>Lokalak berraztertzea eta gazteen aisialdia</b>	<b>174</b>
Segura	Kultura	Miñaripe lehiaketa	171
Segura	Partaidetzazko aurrekontuak	Partaidetzazko aurrekontuak	172
Segura	Berdintasuna	Segurako I. Berdintasun Pana	172
<b>Soraluze</b>	<b>Parte hartzeko sistema</b>	<b>Alkarrekin Soraluze eginez</b>	<b>69</b>
<b>Soraluze</b>	<b>Euskara</b>	<b>Euskararen Plan Estrategikoa</b>	<b>71</b>
<b>Taldean: Legazpi-</b>			
<b>Urretxu-Zumarraga</b>	<b>Garapen iraunkorra</b>	<b>Urola Garaiko Eskola Agenda 21a</b>	<b>191</b>
<b>Tolosa</b>	<b>Bizikidetza</b>	<b>Gazte-lokalak</b>	<b>306</b>
Tolosa	Haurrak/gazteak/adinekoak	Haurren hiria: herritarrak jaiotzetik	305
<b>Tolosa</b>	<b>Hirigintza</b>	<b>San Esteban auzoa: auzoa eraikiz, Tolosari etorkizuna eskaini</b>	<b>308</b>
<b>Tolosaldeko</b>			
<b>Mankomunitatea</b>	<b>Garapen iraunkorra</b>	<b>Tolosaldean atez atekoa gizarteratzeko prozesuak</b>	<b>310</b>

Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak
■	Beste esperientzia batzuk (nahikoa informazioz ez)

## HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

herria	esperientzia-mota	esperientziaren izena	orrialdea
Urnieta	Haurrak/gazteak/adinekoak	Adineko pertsonen egoera eta bizi-kalitatea	49
Urnieta	Kultura	Jaietako araudia	49
Urnieta	Kirolak	Kirolaren mahaia	49
<b>Urnieta</b>	<b>Hirigintza eta Herri-galdeketa</b>	<b>San Joan plaza birmoldatzea</b>	<b>50</b>
Urretxu	Sozioekonomia	Bertatik bertara	177
Urretxu	Kultura	Herri-opera	177
<b>Urretxu</b>	<b>Herri-mugimendua</b>	<b>Herrigintza indartzea eta egonkortzea</b>	<b>178</b>
<b>Urretxu</b>	<b>Hirigintza</b>	<b>Irimo</b>	<b>180</b>
<b>Usurbil</b>	<b>Bizikidetza</b>	<b>Gazte-lokalak eta bizikidetza</b>	<b>53</b>
<b>Usurbil</b>	<b>Hirigintza</b>	<b>Hiri Antolamenduko Plan Orokorra</b>	<b>55</b>
Usurbil	Aniztasuna	Ongi etorri gida	52
<b>Zaldibia</b>	<b>Tokiko plana / plan estrategikoa</b>	<b>Nolako Zaldibia nahi duzu?</b>	<b>183</b>
Zarautz	Mugikortasuna	Alde Zaharra oinezkoentzat jartzea	204
Zarautz	Euskara	Batzordeak	204
Zarautz	Kirolak	Irailaren 20an	204
Zarautz	Kultura	Kultur Mahaia	204
<b>Zarautz</b>	<b>Hirigintza eta Herri-galdeketa</b>	<b>Parkeen estalpea hautatzea</b>	<b>206</b>
Zarautz	Trebakuntza	Partaidetzan trebatu	205
Zarautz	Zerbitzuak	TAO-zerbitzua ebaluatzea	205
Zarautz	Partaidetzazko aurrekontuak	Udal-aurrekontuak: auzoz auzoko bilerak	205
<b>Zarautz</b>	<b>Parte hartzeko sistema</b>	<b>Udala antolatzeko partaidetza-prozesua</b>	<b>207</b>
Zerain	Auzolana	Auzolana	190
Zerain	Herri-izaera	Zerain eta Mutiloa elkarlanean	187
Zumaia	Aniztasuna	Anitzen Sarea	210
Zumaia	Berdintasuna	Berdintasun Plana	212

Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
-------------	---

Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak
---------------	---

■	Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)
---	--

■	Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa
---	--

## HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA

esperientzia-mota	esperientziaren izena	herria	orrialdea
Aniztasuna	Guretzako	Anoeta	266
Aniztasuna	Elkarbizitza Plana	Antzuola	75
Aniztasuna	Astigarragan aniztasuna	Astigarraga	26
Aniztasuna	Osintxuko Kulturarteko Plana	Bergara	94
Aniztasuna	Jatorri-aniztasuna eta elkarbizitza Donostian	Donostia	117
Aniztasuna	Anitzen Sarea	Lasarte-Oria	44
Aniztasuna	Ongi etorri gida	Usurbil	52
Aniztasuna	Anitzen Sarea	Zumaia	210
Araudiak	Parte hartzea arautzeko ordenantza	Amasa-Villabona	259
Araudiak	Demokrazia zuzenaren araudia	Donostia	118
Araudiak	Udal-bide publikoei buruzko ordenantza	Eskoriatza	101
Araudiak	Animalien ordenantza	Lasarte-Oria	43
Araudiak	Parte-hartzea arautzeko ordenantza	Orexa	303
Auzolana	Auzolanak	Alegia	249
Auzolana	Atxorrotzeko auzolana	Eskoriatza	100
Auzolana	Itsaso eta Alegiako guneeetan elkarlanean	Ezkio-Itsaso	140
Auzolana	Getariauzolanean	Getaria	198
Auzolana	Auzolana Sindikatuan	Igeldo	39
Auzolana	Auzolan-taldea	Itsasondo	146
Auzolana	Auzolana	Mutiloa	161
Auzolana	Auzolana	Segura	170
Auzolana	Auzolana	Zerain	190
Berdintasuna	Andredetan	Arrasate	86
Berdintasuna	Berdintasun Plana	Lezo	222
Berdintasuna	Emakumea eta Hirigintza	Oñati	108
Berdintasuna	Gazteen arteko indarkeria matxista	Segura	170
Berdintasuna	Goierriko indarkeria matxistaren aurkako protokoloa	Segura	170
Berdintasuna	Segurako I. Berdintasun Pana	Segura	172





Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak

Beste esperientzia batzuk (nahikoa informazioirik ez)  
 Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa

# HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA

esperientzia-mota	esperientziaren izena	herria	orrialdea
Berdintasuna	Berdintasun Plana	Zumaia	212
Bizikidetza	Gazte-lokalak	Beasain	133
Bizikidetza	Gazte-lokalen erabileraren inguruko prozesua	Hernani	32
Bizikidetza	Gazte-lokalak	Oñati	108
Bizikidetza	Gazte-lokalak	Tolosa	306
Bizikidetza	Gazte-lokalak eta bizikidetza	Usurbil	53
Euskara	Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)	Azkoitia	318
Euskara	<b>Euskara Batzordea</b>	<b>Igeldo</b>	<b>41</b>
Euskara	Euskararen Udal Ordenantza	Legorreta	
Euskara	<b>Euskara Plan berria</b>	<b>Ordizia</b>	<b>165</b>
Euskara	Herriko euskarazko hitzen bildumaren sorrera	Segura	171
Euskara	<b>Euskararen Plan Estrategikoa</b>	<b>Soraluze</b>	<b>71</b>
Euskara	Batzordeak	Zarautz	204
Garapen iraunkorra	Agenda 21a: urteroko programazioa	Aduna	244
Garapen iraunkorra	Hondakinak kudeatzeko eredu berria	Albiztur	247
Garapen iraunkorra	Alegiako baratze-parkea	Alegia	250
Garapen iraunkorra	Amasamendiren kudeaketa	Amasa-Villabona	258
Garapen iraunkorra	Auzo-konposta	Anoeta	267
Garapen iraunkorra	Herri-baratzea	Anoeta	269
Garapen iraunkorra	Agenda 21a berrikustea	Arama	127
Garapen iraunkorra	Teoriatik praktikara eta parte-hartzetik aldaketarantz	Asteasu	275
Garapen iraunkorra	Hondakinaren inguruko parte hartzeko prozesua	Azkoitia	322
Garapen iraunkorra	Ingurumen Plana (Agenda 21a)	Azkoitia	318
Garapen iraunkorra	Hondakinak biltzeko sistema berria	Beizama	
Garapen iraunkorra	Garapen Jasangarrirako Ekintza Plana (2013-2016)	Deba	61
Garapen iraunkorra	Hondakinak biltzeko sistema eraginkorrena adostea	Elgeta	97
Garapen iraunkorra	Energiaren Foru Plana	Gipuzkoako Foru Aldundia	338
Garapen iraunkorra	Tokiko Agenda 21en planak berrikusteko diru-laguntzak	Gipuzkoako Foru Aldundia	349
Garapen iraunkorra	Tokiko Agenda 21en ebaluazioa: herritarren parte-hartzea aztertzea	Gipuzkoako Foru Aldundia	349

Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak
	Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)
	Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa

## HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA



esperientzia-mota	esperientziaren izena	herria	orrialdea
<b>Garapen iraunkorra</b>	<b>TEPa berrikustea</b>	<b>Ibarra</b>	<b>289</b>
Garapen iraunkorra	Agenda 21eko foroak	Legazpi	156
Garapen iraunkorra	Hondakinen bilketa-sistema	Mutriku	
Garapen iraunkorra	Eskola Agenda 21a	Oiartzun	225
Garapen iraunkorra	Atez atekoaren inguruko partaidetza-prozesua	Ordizia	163
Garapen iraunkorra	Oianguko Talde Eragilea	Ordizia	163
<b>Garapen iraunkorra</b>	<b>Agenda 21aren herri-plana berritzea</b>	<b>Orendain</b>	<b>296</b>
Garapen iraunkorra	Agenda 21a	Orexa	301
<b>Garapen iraunkorra</b>	<b>Hondakinak biltzeko sistema berria Pasai Antxon</b>	<b>Pasaia</b>	<b>232</b>
Garapen iraunkorra	Hondakinak biltzeko sistema berria Pasai San Pedron eta Trintxerpen	Pasaia	231
Garapen iraunkorra	Atez ateko sistemaren balorazioa eta egokitzapena	Segura	170
Garapen iraunkorra	Auzokonpostaren kanpaina	Segura	170
<b>Garapen iraunkorra</b>	<b>Urola Garaiko Eskola Agenda 21a</b>	<b>Taldean: Legazpi- Urretxu-Zumarraga</b>	<b>191</b>
<b>Garapen iraunkorra</b>	<b>Tolosaldean atez atekoa gizarteratzeko prozesuak</b>	<b>Tolosaldeko Mankomunitatea</b>	<b>310</b>
<b>Haurrak/gazteak/adinekoak</b>	<b>Alegiako haurren, nerabeen eta gazteen sustapen-sistema</b>	<b>Alegia</b>	<b>251</b>
Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteentzako asteburueta aisialdia	Alegia	249
<b>Haurrak/gazteak/adinekoak</b>	<b>Nerabeen partaidetzarako zerbitzua</b>	<b>Amezketia</b>	<b>264</b>
<b>Haurrak/gazteak/adinekoak</b>	<b>Parte hartzeko hariak lotuz, gazteok hartu hitza!</b>	<b>Andoain</b>	<b>24</b>
Haurrak/gazteak/adinekoak	Gaztien herrixe, moui ipurdixe	Azkoitia	319
Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteen dinamizazioa	Beizama	
<b>Haurrak/gazteak/adinekoak</b>	<b>Donostia lagunkoia</b>	<b>Donostia</b>	<b>120</b>
Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteen aisialdia	Elgoibar	
<b>Haurrak/gazteak/adinekoak</b>	<b>Adinekoen aldeko manifestua eguneratzea</b>	<b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b>	<b>334</b>
Haurrak/gazteak/adinekoak	Adinekoak eta jarduera fisikoa	Hernani	32
Haurrak/gazteak/adinekoak	Gaztetu Hernani	Hernani	32
<b>Haurrak/gazteak/adinekoak</b>	<b>Itsasondo haurren herria</b>	<b>Itsasondo</b>	<b>148</b>
<b>Haurrak/gazteak/adinekoak</b>	<b>Latxartegiko haur-jolasak</b>	<b>Legazpi</b>	<b>159</b>
Haurrak/gazteak/adinekoak	Skate-parka	Oiartzun	226
Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteria Plana	Oñati	108

Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak

Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)  
 Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa

## HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA

esperientzia-mota	esperientziaren izena	herria	orrialdea
Haurrak/gazteak/adinekoak	Gazteen arteko indarkeria matxista	Segura	170
Haurrak/gazteak/adinekoak	Gaztelekuaren sorrera	Segura	170
Haurrak/gazteak/adinekoak	Herriko txikienekin eraikitzen	Segura	172
Haurrak/gazteak/adinekoak	Lokalak berraztertzea eta gazteen aisialdia	Segura	174
Haurrak/gazteak/adinekoak	Haurren hiria: herritarrak jaiotzetik	Tolosa	305
Haurrak/gazteak/adinekoak	Adineko pertsonen egoera eta bizi-kalitatea	Urnieta	49
Herri-galdeketa	Gernika plazako jolastokia	Aretxabaleta	81
Herri-galdeketa	Plaza denon artean	Azpeitia	327
Herri-galdeketa	Hondakinak biltzeko sistema eraginkorrena adostea	Elgeta	97
Herri-galdeketa	Igeldo: desanexioari buruzko herri-kontsulta	Gipuzkoako Foru Aldundia	343
Herri-galdeketa	Plaza estaltzea	Ibarra	287
Herri-galdeketa	Lazkaomendirako oinezkoen pasabidea	Lazkao	153
Herri-galdeketa	Hondakinen bilketa-sistema	Mutriku	
Herri-galdeketa	Errebote eraikina: bota edo mantendu?	Segura	172
Herri-galdeketa	San Joan plaza birmoldatzea	Urnieta	50
Herri-galdeketa	Parkeen estalpea hautatzea	Zarautz	206
Herri-izaera	Itziarko auzo-udala	Deba	64
Herri-izaera	Herri-izaera eta herrigintza indartzeko prozesua	Ezkio-Itsaso	137
Herri-izaera	Itsasoren bideragarritasuna	Ezkio-Itsaso	137
Herri-izaera	Gazteluren historia, herritarren ahotik	Gaztelu	285
Herri-izaera	Igeldo: desanexioari buruzko herri-kontsulta	Gipuzkoako Foru Aldundia	343
Herri-izaera	Armarria eraikiz	Igeldo	40
Herri-izaera	Lantaldeak	Itsasondo	145
Herri-izaera	Leaburuko historia herritarren eskutik	Leaburu	
Herri-izaera	Zerain eta Mutiloa elkarlanean	Mutiloa	187
Herri-izaera	Orioko curriculuma	Orio	201
Herri-izaera	400. urteurrena	Ormaiztegi	168
Herri-izaera	Zerain eta Mutiloa elkarlanean	Zerain	187
Herri-mugimendua	Parte-hartzea ahalbidetzeko web-orria	Idiazabal	142

Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak
	Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)
	Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa

## HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA

esperientzia-mota	esperientziaren izena	herria	orrialdea
<b>Herri-mugimendua</b>	<b>Herrigintza indartzea eta egonkortzea</b>	<b>Urretxu</b>	<b>178</b>
Herritarrekin harremanak	Auzoetan bilerak	Aizarnazabal	315
<b>Herritarrekin harremanak</b>	<b>Ataria</b>	<b>Andoain</b>	<b>23</b>
Herritarrekin harremanak	Auzoetako egoera	Anoeta	266
Herritarrekin harremanak	Auzo eta herriak Donostia indartzen 2014	Donostia	117
<b>Herritarrekin harremanak</b>	<b>Auzo-batzarrak</b>	<b>Errenteria</b>	<b>218</b>
Herritarrekin harremanak	Udala informatzen	Getaria	197
Herritarrekin harremanak	Herritarrekin herrira	Gipuzkoako Foru Aldundia	331
<b>Herritarrekin harremanak</b>	<b>Auzoz auzo</b>	<b>Irura</b>	<b>291</b>
Herritarrekin harremanak	Auzoz auzoko parte hartzeko prozesua	Lazkao	152
Herritarrekin harremanak	Auzotasuna programa	Oñati	109
<b>Hezkuntza</b>	<b>Pagie ezkurtxotan</b>	<b>Aretxabaleta</b>	<b>83</b>
Hezkuntza	Ikastetxeetako patioen erabilera	Hernani	32
<b>Hezkuntza</b>	<b>Itsasondo haurren herria</b>	<b>Itsasondo</b>	<b>148</b>
<b>Hezkuntza</b>	<b>Orioko curriculuma</b>	<b>Orio</b>	<b>201</b>
Hezkuntza	Herritarrak eskola-komunitatearen parte	Segura	171
<b>Hirigintza</b>	<b>Hiri Antolamenduko Plan Orokorra</b>	<b>Aizarnazabal</b>	<b>315</b>
Hirigintza	HAPoa berritzeko prozesua	Alegja	249
<b>Hirigintza</b>	<b>HAPoa berritzeko prozesua</b>	<b>Alkiza</b>	<b>253</b>
Hirigintza	Etxebizitza hutsak	Amezketeta	261
<b>Hirigintza</b>	<b>Gernika plazako jolastokia</b>	<b>Aretxabaleta</b>	<b>81</b>
<b>Hirigintza</b>	<b>Udal Azoka biziberritzea</b>	<b>Arrasate</b>	<b>88</b>
Hirigintza	Anuska auzoa	Astigarraga	26
<b>Hirigintza</b>	<b>Plaza denon artean</b>	<b>Azpeitia</b>	<b>327</b>
<b>Hirigintza</b>	<b>Baliarraingo Plan Orokorra</b>	<b>Baliarrain</b>	<b>277</b>
Hirigintza	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra	Beasain	132
Hirigintza	Herriko Plan Orokorra	Beizama	
<b>Hirigintza</b>	<b>HAPoa</b>	<b>Belauntza</b>	<b>280</b>
Hirigintza	Herriko plaza oinezkoentzat	Berastegi	282
Hirigintza	Arau Ordezkatzaileak	Berrobi	



Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak

Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)  
 Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa

## HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA

esperientzia-mota	esperientziaren izena	herria	orrialdea
Hirigintza	Matxaria auzoa Eibartik eta Eibarrerako	Eibar	
Hirigintza	Arau Ordezkatzaileen berrikuntza	Errezil	
Hirigintza	Santa Mariñe plaza estaltzeko proiektua	Eskoriatza	101
Hirigintza	Torrebasoko haur-parkea	Eskoriatza	101
<b>Hirigintza</b>	<b>Plaza estaltzea</b>	<b>Ibarra</b>	<b>287</b>
<b>Hirigintza</b>	<b>TEPa berrikustea</b>	<b>Ibarra</b>	<b>289</b>
Hirigintza	Urdanibia plaza	Irun	17
Hirigintza	Tximistarreta parkea	Lasarte-Oria	47
<b>Hirigintza</b>	<b>Lazkaomendirako oinezkoen pasabidea</b>	<b>Lazkao</b>	<b>153</b>
<b>Hirigintza</b>	<b>Hirigintzako Ondarea babesteko eta zaintzeko Plan Berezia</b>	<b>Legazpi</b>	<b>157</b>
Hirigintza	Portuko Plan Berezia berrikustea	Mutriku	
<b>Hirigintza</b>	<b>Altzibar auzoa</b>	<b>Oiartzun</b>	<b>229</b>
Hirigintza	Hiri Antolamenduko Plan Orokorra	Oiartzun	225
Hirigintza	Kultur Etxeari buruzko tailerra	Oiartzun	225
Hirigintza	Emakumea eta Hirigintza	Oñati	108
<b>Hirigintza</b>	<b>Errebote eraikina: bota edo mantendu?</b>	<b>Segura</b>	<b>172</b>
<b>Hirigintza</b>	<b>San Esteban auzoa: auzoa eraikiz, Tolosari etorkizuna eskaini</b>	<b>Tolosa</b>	<b>308</b>
<b>Hirigintza</b>	<b>San Joan plaza birmoldatzea</b>	<b>Urnieta</b>	<b>50</b>
<b>Hirigintza</b>	<b>Irimo</b>	<b>Urretxu</b>	<b>180</b>
<b>Hirigintza</b>	<b>Hiri Antolamenduko Plan Orokorra</b>	<b>Usurbil</b>	<b>55</b>
<b>Hirigintza</b>	<b>Parkeen estalpea hautatzea</b>	<b>Zarautz</b>	<b>206</b>
<b>Kirolak</b>	<b>Kirol-espazioak eta - ekipamenduak</b>	<b>Hernani</b>	<b>33</b>
Kirolak	Kirolaz hausnartzea eta etorkizuneko gakoak identifikatzea	Lasarte-Oria	43
Kirolak	Skate-parka	Oiartzun	226
Kirolak	Irailaren 20an	Zarautz	204
Kirolak	Kirol Kontseilua	Bergara	91
Kirolak	Kirol Plana	Oñati	108
Kirolak	Kirolaren mahaia	Urnieta	49
Komunikazioa	Komunikazio-ekintzak	Eskoriatza	100
Komunikazioa	Udala informatzen	Getaria	197

Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak
■	Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)
■	Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa

## HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA

esperientzia-mota	esperientziaren izena	herria	orrialdea
<b>Komunikazioa</b>	<b>Parte-hartzea ahalbidetzeko web-orria</b>	<b>Idiazabal</b>	<b>142</b>
Komunikazioa	Orri informatiboa	Igeldo	39
Komunikazioa	Parte hartzeko gune digitalaren eraketa	Legorreta	
Komunikazioa	Udalaren webguneke parte hartzeko tresnak	Oiartzun	226
Komunikazioa	Sare sozialak	Ormaiztegi	167
<b>Kultura</b>	<b>Olentzero jakin-minez</b>	<b>Altzo</b>	<b>255</b>
Kultura	Jai Batzordea	Amasa-Villabona	257
Kultura	Truke-dinamikak	Anoeta	266
<b>Kultura</b>	<b>Festak auzolanean</b>	<b>Arama</b>	<b>129</b>
Kultura	Irakurzaletasuna eta udal-liburutegiaren erabilera	Asteasu	272
Kultura	Kultur dinamikan parte hartzeko herri-ekimena	Ataun	
Kultura	Andramaixek	Azkoitia	318
Kultura	Musikagune berria	Azkoitia	319
<b>Kultura</b>	<b>Kultur Etxea Udaletxean</b>	<b>Berastegi</b>	<b>282</b>
Kultura	Festak antolatzea	Berrobi	
<b>Kultura</b>	<b>Jai Batzordea</b>	<b>Erresteria</b>	<b>219</b>
Kultura	Gaztelu Jaia	Eskoriatza	100
Kultura	Herritarrak epaimahaikide	Eskoriatza	100
Kultura	Zaldibar antzokia kudeatzeko proiektua	Eskoriatza	101
<b>Kultura</b>	<b>2014ko santanak</b>	<b>Mendaro</b>	<b>67</b>
Kultura	Jai Batzordea	Oiartzun	225
Kultura	Kultur Etxeari buruzko tailerra	Oiartzun	225
<b>Kultura</b>	<b>Eltzia, herri-sormenaren etxea</b>	<b>Oñati</b>	<b>111</b>
Kultura	Kalean josteko eguna	Ormaiztegi	167
Kultura	Liburutegia	Ormaiztegi	167
<b>Kultura</b>	<b>Pasai San Pedroko gune eta ekipamendu soziokulturalak</b>	<b>Pasaia</b>	<b>233</b>
Kultura	Herri-antzerkia: antzerki komikoa	Segura	171
Kultura	Herri-antzerkia: memoria historikoko antzerkia	Segura	171
Kultura	Jai eta azokak herritarrekin antolatzen	Segura	171
Kultura	Miñaripe lehiaketa	Segura	171

Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak

Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)  
 Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa

# HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA

esperientzia-mota	esperientziaren izena	herria	orrialdea
Kultura	Jaietako araudia	Urnietea	49
Kultura	Herri-opera	Urretxu	177
Kultura	Kultur Mahaia	Zarautz	204
<b>Mugikortasuna</b>	<b>Osasun Bidea</b>	<b>Asteasu</b>	<b>272</b>
Mugikortasuna	Urbanue autobusa	Azkoitia	319
<b>Mugikortasuna</b>	<b>Mugikortasuna eta bizikleta, parte hartzeko zikloa</b>	<b>Beasain</b>	<b>134</b>
<b>Mugikortasuna</b>	<b>Oinezkoak lehenengo!</b>	<b>Eskoriatza</b>	<b>105</b>
<b>Mugikortasuna</b>	<b>Autobus-zerbitzua hobetzeko prozesua</b>	<b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b>	<b>336</b>
Mugikortasuna	Mugikortasun Plana	Oñati	108
<b>Mugikortasuna</b>	<b>Altzibar auzoa</b>	<b>Oiartzun</b>	<b>229</b>
Mugikortasuna	Alde Zaharra oinezkoentzat jartzea	Zarautz	204
Partaidetzako aurrekontuak	Balorazioa, aurkezpena, 30.000 € (2014)	Amasa-Villabona	257
Partaidetzako aurrekontuak	Balorazioa, aurkezpena (2015)	Amasa-Villabona	257
<b>Partaidetzako aurrekontuak</b>	<b>Lehentasunak: 100.000 € zure esku</b>	<b>Astigarraga</b>	<b>29</b>
<b>Partaidetzako aurrekontuak</b>	<b>Danon herrixe</b>	<b>Azkoitia</b>	<b>320</b>
<b>Partaidetzako aurrekontuak</b>	<b>Aurrekontuak Denon artean 2014</b>	<b>Azpeitia</b>	<b>325</b>
Partaidetzako aurrekontuak	Denon Artean 2015	Azpeitia	325
Partaidetzako aurrekontuak	Partaidetzako aurrekontuen bidean	Beasain	132
Partaidetzako aurrekontuak	Partaidetzako aurrekontuak	Beizama	
Partaidetzako aurrekontuak	Udal-aurrekontuak	Berrobi	
Partaidetzako aurrekontuak	Auzo eta herriak Donostia indartzen 2014	Donostia	117
<b>Partaidetzako aurrekontuak</b>	<b>Guztiok bat!</b>	<b>Getaria</b>	<b>199</b>
Partaidetzako aurrekontuak	Aurrekontuak herritarrekin	Gipuzkoako Foru Aldundia	344
Partaidetzako aurrekontuak	Esperientzia pilotua diseinatzea eta ondoren garatzea Urola Erdian	Gipuzkoako Foru Aldundia	344
Partaidetzako aurrekontuak	Kontuak Garbi	Gipuzkoako Foru Aldundia	344
Partaidetzako aurrekontuak	Partaidetzako aurrekontuak lau eskualdetan	Gipuzkoako Foru Aldundia	344
Partaidetzako aurrekontuak	Partaidetzako aurrekontuak	Hernani	35
Partaidetzako aurrekontuak	Altamira auzoan	Lezo	223
Partaidetzako aurrekontuak	San Pedro-Pysbe auzoan	Lezo	222
<b>Partaidetzako aurrekontuak</b>	<b>Aurrekontuak</b>	<b>Oiartzun</b>	<b>226</b>

Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak
■	Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)
■	Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa

## HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA

esperientzia-mota	esperientziaren izena	herria	orrialdea
Partaidetzako aurrekontuak	Auzoz auzo	Ordizia	164
Partaidetzako aurrekontuak	Ordizia zabalik	Ordizia	164
Partaidetzako aurrekontuak	2015eko aurrekontuak	Orendain	298
Partaidetzako aurrekontuak	Partaidetzako aurrekontuak	Segura	172
Partaidetzako aurrekontuak	Udal-aurrekontuak: auzoz auzoko bilerak	Zarautz	205
<b>Parte hartzeko sistema</b>	<b>Etorkizunerako erronkak eta ekintza-plana</b>	<b>Abaltzisketa</b>	<b>239</b>
Parte hartzeko sistema	Herri-batzarrak	Albiztur	247
Parte hartzeko sistema	Parte-hartzea Altzon 2013an eta 2014an	Altzo	255
Parte hartzeko sistema	Ados lan-mahaiak	Amasa-Villabona	257
<b>Parte hartzeko sistema</b>	<b>Parte hartzea arautzeko ordenantza</b>	<b>Amasa-Villabona</b>	<b>259</b>
Parte hartzeko sistema	Praktika-komunitatea	Azkoitia	319
<b>Parte hartzeko sistema</b>	<b>Demokrazia zuzenaren araudia</b>	<b>Donostia</b>	<b>118</b>
Parte hartzeko sistema	Gipuzkoako Kontseilua hausnarketa- eta erabakitze-prozesua	Gipuzkoako Foru Aldundia	331
<b>Parte hartzeko sistema</b>	<b>Herritarrekin Sarea</b>	<b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b>	<b>341</b>
<b>Parte hartzeko sistema</b>	<b>Suhiltzaileen Zerbitzua</b>	<b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b>	<b>346</b>
Parte hartzeko sistema	Lantaldeak	Itsasondo	145
Parte hartzeko sistema	Udala berrantolatze proiektua	Lasarte-Oria	43
<b>Parte hartzeko sistema</b>	<b>Auzoz auzoko parte hartzeko prozesua</b>	<b>Lazkao</b>	<b>152</b>
<b>Parte hartzeko sistema</b>	<b>Parte-hartzea arautzeko ordenantza</b>	<b>Orexa</b>	<b>303</b>
Parte hartzeko sistema	Batzordeak eta herri-batzarrak	Segura	170
<b>Parte hartzeko sistema</b>	<b>Alkarrekin Soraluze eginez</b>	<b>Soraluze</b>	<b>69</b>
<b>Parte hartzeko sistema</b>	<b>Udala antolatze proiektuak</b>	<b>Zarautz</b>	<b>207</b>
<b>Sozioekonomia</b>	<b>Herriko lan-hobiak aztertu eta enplegua bultzatu</b>	<b>Abaltzisketa</b>	<b>242</b>
<b>Sozioekonomia</b>	<b>Aia, bizi-iturri</b>	<b>Aia</b>	<b>195</b>
Sozioekonomia	Alegiako Merkatarien Taldea	Alegia	249
Sozioekonomia	Komertzio bizia, herri bizia	Astigarraga	26
Sozioekonomia	Laguntzetako proiektuak aukeratzea	Beizama	
Sozioekonomia	Ur-instalazioak ustiapenetan: laguntzak	Beizama	
Sozioekonomia	Eskohitza 2013: krisiaren aurrean, zer proposatzen duzu?	Eskoriatza	100
Sozioekonomia	Bertatik bertara	Urretxu	177



Letra lodia	Liburuan sakonago azalduta dauden esperientziak
Letra normala	Liburuko tauletan ageri diren esperientziak

Beste esperientzia batzuk (nahikoa informaziorik ez)  
 Esperientzia-mota bat baino gehiagokoa

## HERRIAK ESPERIENTZIA-MOTAREN ARABERA

esperientzia-mota	esperientziaren izena	herria	orrialdea
Tokiko plana / plan estrategikoa	Jarri gaitzen	Aretxabaleta	80
Tokiko plana / plan estrategikoa	Errenteria 2025 Plan Estrategikoa	Errenteria	217
<b>Tokiko plana / plan estrategikoa</b>	<b>Eskohitza 2014. Denona delako</b>	<b>Eskoriatza</b>	<b>102</b>
Tokiko plana / plan estrategikoa	Leheneratutako harrobiaren erabilera	Lizartza	293
Tokiko plana / plan estrategikoa	Nolako Zaldibia nahi duzu?	Zaldibia	183
Trebakuntza	Parte hartzeko prestatzea	Oiartzun	225
Trebakuntza	Partaidetzan trebatu	Zarautz	205
Zerbitzuak	Udal-lokal berrien erabilera	Anoeta	266
Zerbitzuak	Udal-eraikinen erabilera	Antzuola	78
Zerbitzuak	Udal-azoka biziberritzea	Arrasate	88
Zerbitzuak	Azpiegituren eta zerbitzuen etorkizunaz	Astigarraga	27
Zerbitzuak	Azoka Bergaritzen	Bergara	92
Zerbitzuak	Herriko lokalen erabilera berrantolatzea	Orexa	302
Zerbitzuak	Lokalak berraztertzea eta gazteen aisialdia	Segura	174
Zerbitzuak	TAO-zerbitzua ebaluatzea	Zarautz	205

herritarrekin

